Andima Txikiri (onezkero aundi egin da) esaiozu, bialtzeko gogo dunean Botanika. Argitaratzea nere kontu, Revistetan bedere. Ufatu bideak, ufatu! Ni ere ari naiz zertxobait. Estetika ta Metapisika eman-go ditut laister, oso efex gainera, asi-masiak bedere.

Zaitegi'ri

Lafañagari esanak bitez zuretzat ere. Ufena, bialdu nai duzunean *Sopokel* enetik geiago.

Nik aipatzen dudan yesulagun markinafa, Ziefa (Zeafa) ta Aldeko'atar Luis zan (G.B.).

Chilerako idatzi nun artikulu ua ez didate bialdu. Ez *Euzkadi*'n eta ez *El Día*'n ez da agertuko, exclusivo para *El Mercurio* baitzan.

Azkenik, gogoan artu orko guzientzat. Bi urte urbiltsu, Bilbao utzita Orexa'ra etofia naiz. Ortaz, onera zuzendu itzazue karta ta abar.

Aufer! Zuek egin bear duzute koska!

Orixe

[1933-VIII-14]

[Jokin Zaitegiri, makinaz joa]³⁸

[Orexatik Marneffera]

Orexa'tik, 1933' ga'fengo Dagonilaren 14' ga'fenean

Adiskide [Zaitegi]:

Antigone ufengo *Antzertin* argitara ez ezik, Tolosako Abefi-etxean laister antzezteko asmoa ere ba dute. Santiago de Chile'ko *El Mercurio*-rako eragin zidaten artikulu batean aipatzen ditut zuen lanak eta auferako asmoak. Ifiati deunaren egunerako eskatu zidaten, eta gaia: "Estado actual y porvenir de la literatura vasca" eman zidaten.

Oidipus Kolono'n euskeratzen ari zeralazkoak pozten nau biziro. Emen eladeraz argitaratzeko biderik ez da izango, noski. Olakoxe bat obe genduke!

Nere ikasle izandako Lafañaga Anaiaren lana bial idazue, gogo onez ikusiko dut eta. Zuk ere bialdu *Oidipus Kolono'n*, eta beste lan-kideenak ere bai, guzior artean euskera bizkortzen ote dugun.

Delako poema ofen befi aundirik ezin eman dizuet. Atal bat edo bi erakusteko bialtzea litzake oberenik; baina egiten ditudan iru alda-kiak afapazka eramaten dizkidate, ta neronentzat ere ezin kafaiatu. Alako batean ez ote da bada zuentzat ere zerbait izango: Erditik aufera noa.

Irakurtzen dutenak, oso befi onak ematen dizkidate. Aien eta zuen ustea ez bedi ustel atera. Gaia bikaina da behintzat, ni batere moldatzen ba naiz. Mistral'ek olako gaia izan ba lu, *Mireio* baino eun aldiz ohea egin zezaken.

Orainaldi ontan neka neka egifia nago ta opofaldiren bat artu bearko dut.

Goraintzi orko nere ezagun guziei.

Orixe

³⁸ Nori zuzendua den ez dakar izenburuan, baina gutunaren edukiak berak erakusten du Jokin Zaitegi dela hartzailea, beste ohar batean esan bezala, garai honetan Marneffen aurkitzen dena.

[1933-XII-31]

[I. L. Sarobe eta J. Zaitegiri, makinaz joa]

[OrexatikMarneffera]

Orexa'tik, 1933'ngno Gabonilaren 31'gn

I.L. Sarobe ta Zaitegi Anaia

Agur:

Oraingoz, –laister luzeago *Sopokel* eta *Lukian* aztertu ostean– itz bi beintzat, Zaitegi urduri egon ez dedin. Iasoa dut Madrildik igofitako erdera, ta bekaldetu bezain usu bialduko dizut.

Bafensoro itzuri egin zitzaidan nonbait. Onen idaztankeraz zer deritzadan? *Sunt bona, sunt... mediocria multa*. Ikaragarritzko *kakotzelia* du, ots, bere burua idazletzat *ager-naia*. Erderazko idazleek kalte egin diote benetan. Itzak eta ioskera euskerazko izan afen, arnasa erdalduna du maiz aski. “Lizardi” zanari gofoto aundia zion, bai agertu ere *Euzkadi*’n gizalege guzien aurka. Alare Aitzol’ek (au ere adiskide pal-tso zun Joxe Mari zanak, “Lizardi” ha sido un hombre funesto para las letras vascas” esan baitzun lagun artean), Aitzol’ek alegia, Lizardi’ren olerkietaz Euskalzaletako mintzaldia ari eman zion (biek adiskide kutun kutun Comillas’en), eta Bafensoro’k “Orixé” gaiztoren erdal-criticatik artu guzia, ta bein ere aipatu ez. Oker ari naiz: bein “nor-baitek esan du” aitortu zigun. Ikus garbi gixakeri oiek. Aspaldi ez dut irakufi Bafensoro’renik, baina bide onera etofiko dala dirudit. Zuri bezain gafatz esan nion itzez berari bein. Ba du idazle-gaia.

Zurekin buka dezadan, etzazula gainez erabili aditzan *zu* ori, Saraitzun sortua dirudizu-ta. *Cum mica salis* erabili bear dira *dizut*, *nazu* ta olakoak. Garbiegi itzegin badizut, barkatu.

Orain Saroberekin *nazu*. Ufeta iaunarekikoa gogoan artu dut. Ortaz, nerekin gordeko dut *Lukian*. Astiro ikusiko dut zure lana, gutun au aitzinean dudalarik.

Poema delako ori ongi bide doa: beratzigafen atala bukatu dut. Eldu den urte ontan argitara-gogo nuke lirika-liburuño bat. Bost iruko, ots, *triptico* ditu, 70 bertsu guzitara, “Iainkoagan bat” barne dela. Au bezain onak, agian obeak ditut *iruko* orietan iru. Argitaratuak eta ezak ere bil nezazke ugariago, baina aski ditut. Oinbestenez ahantziko al dira beste kaxkar oriek. Poema befiz, eldu den urtean ezin buka, sei atal palta baititut. Beste egitekorik ez ba nu, nonbait or.

Esatea daukazu Zaitegi'ri, Orati'rekiko lana ederki egina iduritu zitzaidala. Arnaska samar irakufi nun. Ez dut batere betarik irakurtzeko.

Urte befi on.

Orixe

80

[1934-I-20]

[Jokin Zaitegi eta I. L. Saroberi, makinaz joa]

[Orexatik Marneffera]

Orexa'tik, 1934'ngngo. Ilbeltzaren 20'gn.

[Zaitegi eta Sarobe] adiskideak:

Zuen itzulpenai ikusi bat eman diet: lan edefak biak. Afiturik nauka ordea olako euskera ugariaz ain labur nola iabetu zeraten. Azkueren iztegia, berak baino obeki dakizutela ematen du, ta izkutu-gokorik ere bai. Argitara diranak nonbait begien aufean iduki, edota buruz ikasi, edota "si non capitolio, saltem in folio" txukun gorde dituzute, itzik zailenak ufenez-ufen ipinita. Oraintxe ez da Euskalefi ontan ere zuek bezala lan egin dezakenik. Zuek zaituegu mutikoak!

Afeta guziz, *accuratissime*, eginak dituzue itzulpen ok. *Antigone* baino atseginago izan zait *Oidipus Kolonos'en*. Saroberena goxo goxoa, efitafa.

Makartxo bat edo beste erakusburuz or bialtzen ditizuet paper bereizietan. Oar oni, ordea: batasunera bidean, ez goazen laistefegi. Idaztankera ere ez bedi antz-bakafa, otzago gelditzen baita. Toki-euskera agertuko ez ba dugu ere, artan gogoa idukitzea on baino obeki zaigu. Olabidek ere obe luke nonbaiko efi-euskera ba leki. *Itun Beria'n* iñon baino gehiago ikasiko duzute, egia, baina bakoitzak norberetasunari eutsi bezaio. Besterengandik al guzia ikasi, baina ikasia nork bere biurtu, ta bere bezela idatzi.

Onekin batean bialduko dizut, Zaitegi, erderazko Sófocles.

Orko ezaguneri goraintzi.

Orixe

[1934-VI-16]
 [Jokin Zaitegiri, makinaz joa]
 [Orexatik Marneffera]

Orexa'tik, 1934'ngno. Garag. 16'gn.

Zaitegi adiskidea:

Nere atseginik beroenak, aurtengo olerki-saria irabazi duzulako. Gutartera etofi da beintzat, ni zapaldu nauzun afen. Nik ere koxkor bat bialdu bain nun, "Lizardi" adiskide aundi nunarengatik. A. Estefaniari bialdu diot.

Barkatuko al didazu: bizi diranetaz itzik ez idazteko asmoa arturik nago, ta ez dut aztertuko zure bertsozik ere. Oraindik ere, ez dakit noiz, Jakakortejarena'ren liburu baten itzaufea agertzea ta zuk ikustea ba liteke; baina urte bitara doa L. Mendizabal'enean dagola argi-eske. Ortaz, asmoa artu baino lenago egina baitut, ez didazu egotziko.

Oraindik ez ditut iaso³⁹ zuk bialdu-olerkiak, baina irakurtzea besterik ez dut egingo, iritzirik eman bage.

Gaur Tolosara noa, ustez, eta Labaien'i adieraziko diot *Oidipus Kolonos'en* Getxo'ra bialtzekoa.

Nere liburuxkaz ikus A. Estefaniari diodana: "iritzirik onenak ez ditut kritikuengandik iaso, iende xumeengandik baino. Bein irakufi, befiz irakufi, aspertu bage irkaufi, ta oraindik ere irakur-gogo aundia-goa ematen dutela esateak; bakafik eta Gure Iaunaren aufean irakurtzekoak dirala esateak, askoz ere geiago pozten nau. Elizan ere noribait ikusi diot. Tolosara noanero, ezagun guziak sakelatik aterata erakusten didate. Azkura aundia eman du. Itsasten zaie grina bage irakurtzen dutenai, legof-antza izan afen..."

... izugafizko sua sartu da, batez ere emazteki tartean, nere liburuxka irakurtzeko..."

Zuk ordea, *in omnibus labora*, arlo guzietan, alegia, zer esaten duten begiratu bage.

Poema, aurtengo Egubefietako nonbait or bukatuko dut, Iainkoak onez. Estetika ere bai, Aristotel'engandik gaurko eguneraino esan diran abururik artzekoenak aztertuz.

³⁹ *Egilearen oin-oharra, eskuz idatzia*: Oraintxe: au itxi ezkerro. Ibinagarena ere bai.

[1934-VII-7]

[Jokin Zaitegiri, makinaz joa]

[Orexatik Marneffera]

Orexa'tik, 1934'ngo. Uztaren 7'gn.

Zaitegi adiskidea:

Ibinaga'ri lenik esatea daukazu, Urkijo'ri eman niola aren lana *Revista Internacional* erako, ta pozik jaso zula. Irart-okefak zuzentzeko neri bialtzeko esan nion. Ufena Lafañaga'ri, aren *Kimia* ez dula eman nai *Yakintza*'ko jaun aundi ofek.

"On eta Eder" *Estetika*'ren zazpi kapituluetatik bat dut: ba da bes-teren bat itsusiagoa ez dana, baina argitaratzeko biderik ez. Osoa argita-ratuko didatela agindu didate, baina oraingoz ezin amaitu dezaket, lu-zetxoa aterako baita. Buruz egina daukat, baina tartetik beste liburu bat eman nai nuke, poema baino lenago albait. Eske dauzkat apaizak eta.

Iztegiaren kezka utzi nion besteri. Gorostiaga iaun argia ari da Bilbaon, irarkolaren ondoan. Oraindik ere euskalzain iaunak aski atzeratuko dute, okefak zuzentzekoan.

Poema denik eta ederrean atera ba ledi ere, ez diteke *Barne-muinetan* adin bat irakurtzea. Gaurkoz karta zati bat emango dizut, ez goragafiena alare, aundia izan afen.

"A... 26-VI-34.

Gogo-jardunetatik etxera befia nauzu, ta ezin diot etsi antxe sortu zitzaidan asmo bati: zuri zerbait idazteko egafia sortu baitzitzaidan. *Bar-ne-muinetan* delakoari buruz, alegia. Nire iritzia, berez ezereza delarik ere, apaiz batena danez, pozgafi izan litzaizuke. Eskuratu nuan ezkeru, aldean darabilt, mutikoak ogi-zatia bezela, orain kosk eta gero kosk, ikutuago ta gozoago. Nik ez dakit zenbat aldiz irakufiko nituan "Iain-koaren begiera"ko I. ta III'gafen atalak: "Izaki guzietan" eta "Guregan". Ordu osoak eman ditut, osoak eta gozoak, bi atal oietan batez ere, eta ezin aspertu. Elizan ordu osoan, iardute-aldian izan ez dedan biotz-ikutua, bein baño geiagotan, gelaratzen, zure liburu bikañean izan det... G. L."

Zer geiago behar dut nik? esan dezaket Elizanburuk baino bidezago.

Goraintzi orko ezagun guzici.

Orixe

83

[1934-VII-14]

[Jokin Zaitegiri, makinaz joa]

[Orexatik Marneffera]

Orexa'tik, 1934'ngngo. Uztaren 14'gn.

Zaitegi adiskidea:

Etzaitzatela ikaratu Bafensorokeri oriek: "Lizardi" ezin-ikusia biztu zaio befiro. Aren iritziaren ondoan ipini ezazu beste au:

Zure *Maite-damu*'z ara zer diñotsodan "Lauaxeta"ri: "recoge un asunto popularísimo entre las gentes del campo; le depura de truculencias de mal gusto, y con lenguaje y forma sencillísimos, con mentalidad vasca, de tierras y montes adentro, no desfigurada por otros, nos da un poemita de versolaris, tan asequible a cualquiera como los de estos (los concurrentes) y mucho más literario" (J. M. de Estefanía S.I).

Liburu ori agertu daneko, *Argia*'tik eskatu didate *Egutegi*'rako.

"Lauaxeta"k *Euzkadi*'n, (17, Jun.) (Estefaniak dionez): "Ormaetxeak be, bere maite damu bialdu eban. Zegaitik onentzako sari bat ez?"

... Zuk aukera iritzi oietan.

Ufengo batean A Estefaniak: "Beti lagun" ta "Lizardi gurean", gizona! polit politik dira, eta 1933'ko Eusko-olerkietan ziur politenak. Gure ondorengoak aitortuko dute ao betez. Itxaro daigun pakean".

Dedu-saria "Lizardi gurean"i eman zioten epaileak, baina "Aitzol"ek neri kendu. Oker ari naiz; epaile batek bestek ikusteko betarik etzuten izan eta ark (Lekuona'k), neri eman zidan "Aitzol"ek Labaieni ta emazteari esan zienez, eta Lekuona'k berak neri "Euskalzaleen Biltzafe" egunean esan zidanez. Gainera, "Beti lagun" bi estrofa gutxigorekin atera dit, ez nik bialdu nun bezala. Nik ez dut gorde, ta eske ioan nintzaion. Galdu! egin zala esan zidan. Gero, nere baimenik bage, Tolosako Eusko-Gaztedi'tik aldakia atera ta eman egin

du. Ta tribunalean maiean pasa bage, *Maite-damu* ere bezala. Orain arte iru sari garbi garbiak kendu dizkit. Gauza ok Estefaniak ba dakizki. *Maite-damu*, igazko batzaldian galdu! egin zan (*El Dia*-n ez baitzuten zefendan zegokion lekuan agertu). Aurten befiz bialdu dut eta ez da agertu ere. Iaso-agiria edo erreziboa emen daukat. Agertuko zun bildufez, ez agertzeko esan nion kartaz eta datofen urteko liburutxora baino len argitara eman dit.

Ostera... Tapia eta Jauregi'renak batzaldiz kanpora bezela iafi ditu. Zertako ez utzi besteen ondoan, sari bagekoen artean? *Amistades particulares!* "Aitzol" ta Jauregi ta "Bafensoro", adiskide aundi izan dira Comillas ezkerero.

Barkatu konpesio au.

Orixe

[Sinaduraren ondoren, eskuz idatzia]:

Aztu egin zitzaidan esatea: zure olerkiak A[ita] Agiferi⁴⁰ eman nizkion censurarako.

Aitzol'ek ez du, antza, zure ta nere ta *Antzerti*'ren baimen beafik gauzak egiteko. Labaien ere mendean dauka.

84

[1934-X-24]

[Justo Mari Mokoroari, eskuz idatzia]

[Orexatik Tolosara]

Orexatik, 1934ⁱ gngo. Lastailaren 24ⁱ gn.
Sch. P'etako Mokoroa'tar J. Mari A'ri.

Adiskide:

Napafoako Uitzin ogeita geiago egun egin ondorean emen arkitu dut zure karta. Biar etzietan Donostian baititugu Euskaltzaindiaren batzafeak, onontzerakoan iasoko ditut zuk esan-liburuak.

⁴⁰ Garai horretako euskal idazleen artean Agirre abizenekoak asko baitira, ez da erraza zein Agirrerri buruz ari den antzematea. Aita Jorge Agirre jesuita ote da? Barrenso? Ez dirudi, ez baita bere harikoa.

Zure ipui itzuli ortaz, dirudidana zabal zabal esango dizut. Gaurko gizarte gezurri ontan, ba dakizu nere zenbait iritzik –geienak– min eman dutela. Zuk nola artuko duzun baitakit, ez dizut ezer estaliko.

Gure iardun-aldiaz diozuna atsegin zait, baina etzait aztu Iondoni Paul'ek diona: “ne cum aliis praedicaverim ipse reprobus efficiar”. Ark baino egitanago esan baitezaket. “Aes sonans et cymbalum tinniens” naizen bezala, neretzat ere entzun nai nuke barnean mintzo eder ori, zintzafi batek ez bezala. Sit ex abundantia gratiae gratum facientis, non ex mera gratia gratis data.

Poema zatika garaiez bialtzen saiatuko naiz.

Otoitzetan, bizi geran arteko sartua zaduzkat eta zuk egin orobat.

Orixe

85

[1934-XI-1]

[Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]

[Orexatik Iruñera?]⁴¹

Orexa'tik, 1934'gngo. Azaroaren 1enean
Sch. P'etako Mokoroa'tar Justo Mari A'ri.

Adiskide on:

Eraondo'ko azkeneko danbolina deritzonaren zure biurkera begiratuki irakufi dut. Erabat artzen ba dugu, erderaz dagoana euskeraz ere an arkitzen da, alik berdina, zuk *nere gisa euskeraz moldatua* diozun afen. Zearo azterturik ere, oso kontuz egina io diteke, ta gaur bear dan euskeraz ezin obeki bezala. Baitakit zer dan euskerara biurtzea, ta Campion euskeraratzea. Zurikeririk bage esan, obeki nekez euskerara diteke. Geienak ez duten biurkera-susmoa (instinto de traducción), ots, biurketaren gauzarik zailena, or agertzen duzu.

Lefo-utsarteka (por apartes) ari izan naiz irakurtzen eta erderazkoaz bekaldetzen. Bi gauzatxo besterik ez ditut bilatu zuri egotzi-

⁴¹ Izenburuan nora zuzendua den ez datorren arren, badirudi garai honetan Iruñeko aita eskolapioen ikasketxean aurkitzen zela aita J. M. Mokoroa, geroago Orixe San Kristobalera eramango dutenean, han aurkitzen baita.

beafak. “Sol de Mayo, festejado por el piar de los nidos y el suave aroma de las flores” luzexko biurketa egin-egina baita. Bestetxoa: “rindiendo parias al nativo individualismo” (aufen-befian). “Jatofizko nik ez dakit beste zerk eraginda”, diozu. Au ez duzu zerofen makafa, *individualismo*, euskeraz ematea neke baita. Nik ez dakit nola emana dugun Iztegirako. Ez ote liteke esan *bakoizkeri*? Zori oneko *bere* oietan zenbait zerofek zuzendu dituzu; beste zenbait gaizki daudela konturatuko zera.

Neologismoeri buruz aukera ona duzu, zentzuna galduta dabil-tzan hainbeste euskaldunen aldean. Euskera goxoa lenik; geroago garbi amofatua.

“Lehenagoko Eskualdunak zer ziren” irakurtzen ari naiz. Ezeasu-nik aterako al dut.

Iru urte ontan giltzapean nedukan Virgili, gaur meza-nagusi ondoan atera dut apaizarenetik. Aren estropadak irakufi ere bai (*Aeneidos*, lib. V. v. 114-286). Etzaizkit ain afigafiak irudititu. Alakoak esaten zizkiguten gure maisuak eta!... Ez dirudit oso kaxkar geldituko naize-nik, lainkoari eskefak.

Ufena arte ta *memento*.

Orixe

86

[1934-XI-24]

[Manuel Lekuonari, eskuz idatzia]⁴²

[Orexatik]

Orexatik, 1934'ngo. Azaroaren 24'gn.

[Lekuona] adiskide:

Jaso bezalaxe bururen buru irakufi dut zure mintzaldia “La poesía vasca”. Oso atseginez naski. Zenbait gauza (pranko gauza) neronek esan nezazkenak aurkitu ditut eta neri agotik kenduak bezalakoak, ala

⁴² Nori egina den ez badator ere, gutunaren edukiak berak esaten du gutunaren hartzailea Manuel Lekuona dela. Bukaeran sinadurarik ez darama.

ez ba dira ere. Batez ere bertsolarietaz diozuna egi egia da. Gure jende ikasiak edo ikasi-ustekoak ez dauzka aintzakotzat. Azkue jaunaz oroitu naiz berela. Askotan ez ditu konprenitzen ere, *Cancionero popularean* ageri danez:

- 1.-Ba nabilazu kafiketan
- 2.-ene paseiu hunetan
- 3.-isterbegiak soz ari zaitzat
- 4.-nun sarturen ote nizan.
- 5.-Haier despit egiteko
- 6.-maitea zü ziran leküan.

“Por sosos arranqué el 2º, 4º, 5º y 6º versos”, dio Azkuek. (!!!!) Gauza bakoitzaz itzegitea luze lijoake, ta esanarekin konforma zaitte, batez ere, aldezko oafak bailirake, guziak ez ba da, geien geienak. Kontrakoak iru gauzatxo: or ikus. *Trikitia, trikitriki*, etc. *Sasi-soñu* ofek ez du adierazten *música silvestre; musica extraña*, no vasca baino. Guk *Bizkai-dantza* esaten diogu euskaldun ez dan dantza guziri, ta ofi ere. Len Gipuzkoan ere bai. Iztuetaren denboran oraindak ez zan zabaldu emen. *Gizon-dantzaren* ufena ematen asi omen ziran Bizkaian, eta olakorik ez omen zan ametitzen Gipuzkoan. Santander aldetik *pandereta*’rekin bizkaitafak ekafia da. Bikorik neska-mutilik ez zan dantzatzen emen ori etofi arte. Bi puntuko bertsurik ere ez daukat gogoan euskal-dantzetan. Aita Olazaran’ek dion *zaldabai-dantza* dantza de pandero (grande) ori besterik ez da. Gaur behintzat. *Zaldabe* (An-baraibar) zaldabearekin len dantzatzen zan *ingurua* ere. Baleki! Goiefin (Gipuzkoan) *Bizkaiko beña* esaten zioten gure txiki denboran eta ola kantatzen zuten:

Orain kantatuko det
Bizkaiko beña... (dantza beña)
Goiefiko neskatxen
Konsolagafia.

Ez da beraz euskal-dantza, *sasi-soñu* edo *erdera-soñu* baino. *Atxia-motxia* zerbait da: mariposa. *Atxita-mutxita* bildurik dago “Erizkizundi irukoitz” artan Napafoako efiren batean. Hainbeste izen baiditu Lekunbefin *axandalo* esaten dioten *ingurua* gaxo orrek.

[1934-XI-26]

[Justo Mari Mokoroari, eskuz idatzia]⁴³

[Orexatik Iruñera]

Orexa'tik, 1934'ngngo. Azaroaren 26'gn.

Adiskide [J. M. Mokoroa]:

Etotazuriko Uretxindota ez nun irakufi erderaz ere, ta biziro polita iduritu zait. Euskeratzeaz lengoan esana gutxi gora bera esan bearko nizuke.

Naiago nuke zerofen burutik ateratako "Gizabide" ta olakoetan saiatuko ba zifia. *Euskal-gramatika* edo ori ez al zenezake "Schuchardt" sarirako Euskaltzaindira bialdu? Datofen urteko gaia ori ote dan nago.

"Bere ibateko ilobi batean *daukate* lurpetua". Or oso ederki *bere*. Arau bat emango nizuke: "Con *verbo posesivo* (dut, daukat..) útese el pronombre *posesivo*; con verbo *sustantivo*, útese genitivo sujetivo u objetivo". Ex. gr: nerea dut, zeurea duzu, bere du; beren etxean daukate, etc. Arena da (eius est). *Berea da* ez dut entzun efian egundaino. Aien etxean da, dago (ondo) beren etxean da dago (gaizki).

Genitivo sujetivo es aquel que en construcción corriente sería sujeto de la oración; objetivo, aquel que en el mismo caso sería su objeto o acusativo. Ex. gr. *Su* estilo (de el/aren) me agrada mucho= él me agrada mucho por su estilo (sujetivo); he leído *sus* obras (de el/ aren)= le he leído [lerro bat irakurtezina]. Il onen 27'gn. Bilbaora, 29'gn. Gazteiz'a, 30'gn Azpeitira, 2'gn Donostira ta 3'gn, etxera nai nuke. Naiko pafanda ba da. Il onen 16'gn. bukatu nun poemaren azkenkanta. Ofaztu ta garbitan aldatu-ala bialdu bearko dizut.

Omer gizagajoa oraingoz baztafean iduki bearko dut, neronen asmoak ere lanik aski ematen didate-ta. Segalá ari omen da ekoizpen eder kritikatu bat argitaratzen. Ua erosi bearko. Nik Teubner zafa besterik ez dut.

⁴³ Gutun honen izenburuan hartzailearen izena falta da, baina hasieran aipatzen duen *Errotazuriko Urretxindora*-ren itzultzailea nor den jakinda, zalantzarik ez da aita J. M. Mokoroa dela.

Ikusi arte bada. Ala ere ba liteke salto bat Tolosara egitera.
Memento.

Orixe

[Sinaduraren ondoren, eskuz idatzia]:
Datofen astelenean zuen etxean utziko ditut zure liburuak.

88

[1935-II-9]
[Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]
[Orexatik Iruñera]

Orexa'tik, 9-II-35
Sch. P'etako Mokoroatar J. M. Aitari

Adiskide [J. M. Mokoroa]:

Ederki iduri zait zure asmoa, baina *El Día'n* ametituko ote dizkizue artikulu oriek? Bildur ni. Saio bat egin nai ba duzu, nik ere ba ditut zortzi bat idatzia *La vida del Euskera* agertu zanean aren saietsetik eta Aitzolen eta beste kritikuen giaterra, batez ere *Itz Lauz'*eko euskeraren alde. Aprotxatu nai ba dituzu, esan, eta or dituzu laister. Nere apunte oriek aipatu nai ba dituzu ere, edo orietan zerbait zure iritzia sendo dezakenik arki ba zenez, iabe egiten zaitut, nik ez baitut argitaratzeko asmorik. Alare, orain "Aitzol" *El Día*-tik aizatu zuten ezkeroz, ba liteke ezezago argitaratzea.

Ongi derizkit "poema osorik argitara baino len bertso befiak bezala puska batzuk periz peri kantatzeko ematea. Neroni ere gogoak eman dit bein baino geiagotan. Eta orain ufeneko Euskalzaindiaren bileretan A. Olabidek ere berori idaroki zidan. Ikusiko dugu.

Or bialtzen dizut len-kanta bere argibide ta guzi. Baina... zaitte txintxo! Zeure gelatik ez atera, afen, eta amabost bat egunez edo, nolakoa dan konturatu zeranean, bialdu "Lauaxeta"ri Apartado 234, Bilbao, *viñetak* ateratzeko Martínez Ortiz'ekin konpondu dedin. Itzaufea ufenean bialdu bearko, copia bat besterik ez baitut. Latz samafa dirudit len-kanta au, baina asko aldatu bearko nuke ta, oraingoz barkatu egiten diot. Gure dantza osoa (ez-ezaguna)ren Ritual'a

bezala iafi nai izan dut. Pusketaka egina ematen du, baina gaia ere ala baita: iru eguneko pestaren azalkizuna.

Ufena arte.

Orixe

[Sinaduraren ondoren, makinaz joa]:

Ikus atze-aldean, gaur bertan "Aitzol" i egin diodan karta.

89

[1935-II-9]

[Jose Ariztimuñori, makinaz joa]⁴⁴

[Orexatik Donostiara]

Oreja, 9-II-35

Sr. Dn. José de Ariztimuño. San Sebastian

Estimado "Aitzol":

Me han escrito dos individuos, alarmados del título del poema, que, dicen, será mal visto en buena parte del público. Antes de que ellos me escribiesen, en previsión de ello, se lo había cambiado por *Euskaldunak*, y así tendrá que salir en la primera edición. Ahí ya no cedo, porque, a imitación de *Os Lusíadas* de Camões, es lo que mejor resume su contenido. He dado muchas vueltas y revueltas, y he consultado mucho. *Euzkadi* y *Euzkotarik* no se vería libre del mismo inconveniente, aun entre nacionalistas sensatos, además de que esas palabras no están refrendadas por siglos, ni aun hoy las aceptan todos los vascos.

Para lo sucesivo, pues, cuando haya de hacer Vd. alguna convocatoria o propaganda, evite Vd. la palabra Euskalefia (es el colmo!) sustituyéndola por *Euskaldunak*. Imprudencias como esa han causado al nacionalismo más retraimiento de otras gentes vascas que lo que

⁴⁴ Gutun hau da, hain zuzen, aita J. M. Mokoroari "atze-aldean" igortzen diona. Hemen bananduta ematen ditugu biak.

Vdes. suponen. No renuncio, si llego a ver sucesivas ediciones, a poner al frente de la obra, la hermosa y santa palabra “Euskalefia”.

Perdone, y mande a su affmo. s.s.

Orixe

Ufena arte “Ipañalde”.

Orixe

90

[1935-III-18]

[Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]

[Orexatik Iruñera]

Orexa'tik, 1935-3-18

[J. M. Mokoroa] adiskide:

Zure artikuluak arnas batean irakufi ditut. Zenbait *idea* irakurtzean, norbaitek neri egotziko ote dizkidan ere iduri zait. Gezur-izena aldatzeko eraginbiderik aski izango edo zendun; bestela, obe ez ote litzake lengoa erabiltzea? Or ikus. Nik gaia axalagotik, estu estuan eta kontrarioentzat bezela darabilt, ez beste saiets batetik begiratuta, estu estuan behintzat. Ni ere *pedagogista* amotatua naiz, eta itzez adierazi izan ditut zuk ukitzen dituzun gauza batzuk. Nik ere, nere idea osoa, luze adina zabal agertzeko, oinafi ortara bertara io bearko nuke. Ez dezu egun bateko lana. Burualdi asko izan dituzu, naski, lan sendo ori ola ateratzerako. Erabat konporme nago, ta pozik firmatuko nuke. Makartxo bat arkitzen diot: sakonegia da periodikuko irakurlentzat. Idazletatik ere askok ez dute bear bezain ondo ulertuko. Ala ere, ez da erne bage lurpean ustelduko, argitara ba ledi. Biar, San Jose egunez, Tolosara noa, Jainkoak onez, eta eskutik eskura emango dizkiot artikulu eder oriek Labaien'i. Eragingo diot, al bait, oztopo bage argitara ditezen.

Bigafen kantaz diozuna, ala da. Ez det uste, befiz irakufita ere iritzia aldatuko dezunik, baina “ohart huni”: laugafen kanta ere (irule-na) gaualdi edo *velada* antzera baita, oi zanez, astunegi gerta litekela dirudit oinbeste *rapsodia*. Negu luzearengatik barkatuko al didazute.

Laugafena irakufi arte zaude bada lasa, ta orduan ba liteke bigafengoan *presa* ori ontzat ematea. Ez ordea nik uste eldugabexegoa danik: aitzitik ere elduagoa besterik ez. Ba da ez ba da, kantatuz irakur ezazu, melodia balin ba dakizu.

Bêra, zâfa, lên, eta abafen gorabêra, ez al nizun *prueba*etarako utzi? An egizu nai dezuna, ta esker onez artuko dizut. Markiegiri ere bialtzeko asmoa det, nik ez baitezaket bururik zofoztu ortaraino. “Bosatzen”, ez *basatzen*, ots, “arrastrar el agua las porquerías.” *Ba litz* naiz *balitz*, *ba da* naiz *bada*or konpon, ez baitut eletan asi nai. Neurez, bereiz idatziko nituke, baina, zuen mende. Irart-okefak nork eta nor zuzendu dituten, agertuko det itzaufean, eta kito.

Ori lanketa ari dezu! Noiz egiten dezu ofenbeste lan? Aufera, aufera!

Ikusazu or bialtzen dizudan “Angelus” ori. Bedoñako norgeigo-kara igofia det, esperantza gutxirekin baino. Ortaz idatzi dit gaur Estefaniak: “Angelus” olerkia olerki yatofa ta bikain bikaiña deritzat. Baña zure usaiña dun ezkerro, bildur naiz...”.

Memento.

Orixe

91

[1935-IV-2]

[Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]

[Orexatik Iruñera]

Orexatik, 1935'ngno. Iofailaren 2'gn.

[J. M. Mokoroa] adiskide:

Zureak iaso ditut eta Labaieni emango dizkiot artikulua, Tolosara noanean.

Bigafen atalean, “artazuriketara baino jardunengan *egotera* bilduago dirala” derizkiozu. Ain zuzen, orixe bai nun asmo: artazuriketaz abagunea artuta, Euskalefiko ele-edefaren befi (aho-mihiz iraun duna-rena) ematea. Iendea ere lanera baino befiketara asmozago ioaten da. Ortaz, gualdi edo *velada* antza du ta bear ere, ala baitzan izan ere.

Laugafenean rapsodi gehiago arkituko duzu, baina efi-bertsuak letra txikiagoz eman bearuko, nai dunak, aiek utzita, aufera egin dezan. Laugafen au, ustez eskasenetakoa nizun, baina bigafengoz irakufi dudanean ohea iduritu zait. Rapsodia geiago izan afen, nererik ere geiago bilatuko duzu: "goizean atxoak arlorra ioatea, garba, mutilaren kanta, lio-nâsketa, irutea, eta azkenik urkabe-kanta (ain gogoko duzuna), ez ote dira aski, kantua ainbesteko ornitzeko? Ez ote du Mistral'ek eskasagorik? Oinbeste rapsodi iartzearekin (letra txikian iafita ere) geitxo iduri ba zaizu, bitez antologi orde. Kantatu ere ori baino geiago egiten zan gaualdi oietan, baina, lengoak esan zuna "akioan" edo "dakiola". Erderaz, *dímelo hilando* esaten da (lanari dakiola).

Poemaren aztefaldi bat esker onez artuko dizut, eta zabalkunderako ere ongi baino obeki letorke. Aztefaldi ortarako oin-egiak edo efoegiak ederki ipinirik dauzkazu, ondoreak atera besterik ez duzula. Edefak ematen dizkiezu *Mireio* ta *Lazarillo*'ren nere itzulpenai, ta igafi-bear aundirik ez da, poema pherekatuko didazula. Zure aufeko artikulo oriek irakurtzean, aufean iduki duzula ere ba dirudi.

Bosgafena edefenetakoz iritzi zuten, bai "Lizardi" zanak, bai Markiegik, eta neronek ere bai. Zuk ikus.

Nik iakite-lana ez baino ele-eder edo literatura-lana ari baitut, zenbait itz aldatzea zilegi zaidala uste adi-efez gelditzen diralarik.

Au ixil samar: Bedoñako sariketara Afaunketa ere igofi dut. Oberik aterako ba litz, euskerak ez luke kalterik; baina ustekabez bederen sarituko ba lute, propagandarako ederki letorke.

Azkenik, pruebak baten eskuetan ipintzea obe nuke, luzeegi gerta ez dedin. Neke ori artuko al zenduke, gizagajo ofek? Txintxo txintxo, lege dan bezala, adieraziko dut liburuaren baxtar batean. Pagatu ere bai. Bai lenengoak eta bai bigafenak. Ufengo ekhoizpen edo edizioerako kartaz iasotzen ditudan argibideak eta abar, obe nuke zuri bialtzea, ta egun bat edo biz zure ondoan elkar entzunez, zuzentzea. Ni gero go ta katibuago naiz lanerako, Iainkoak ala nairik, eta batez ere olako lanetarako. Ufengo nere obra aundia, orain-artekoak itzaltzeko modukoa ditekela dirudit, Iainkoak bedeinkaturik. Artxek naduka debeku, bere efuki aundiz.

Memento.

Orixe

[1935-IV-12]

[Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]

[Orexatik Iruñera]

Orexa'tik, 12-4-35

Adiskide Ipafalde:

Ez aipatu, afen *El Criterio* ta *Iridologia* ta inoren lanik, oketago bailitzake.

Neri ez dit axolik Mireiorengatik eta Lazarilloengatik, eta ez nitun neretzat artu. Gainera, "esas traducciones se hicieron con el único fin de autorizar la lengua vasca, aunque no fuesen entendidas por el pueblo-pueblo (que, aunque secundariamente, hay que atender también a otros), y, ya que el euskera habría quizá de morir, muriese habiendo expresado algo más que *Kaikukeris*".

Irakufazu "Nota para los cajistas", eta ikusi zure arau orietaz derizkiodana⁴⁵.

1) Erantzunik daukazu *Nota* ofetan. Itzeri, bakarka duten azentua ipini oi diegu lagunekin dirala ere, ta ez luke bear: lêna, lên, ni lén; zâfa, bi zâ'f; nâsi, ez nâ'si. Biâmon ordez biâ'mon bear luke, t.a.

2) Itzaren kondotsean eta mutufean topo egiten duten bi vocal, ez dira ezezak adierazten. Diozun *besteen* ori, besté'n bear luke. Albait, obe litzake vocal bakafa, baina, bertsoak ala eska dezanean, *necesitate metrica*, biek obeki. Bertso-giñean *ventajismo*'ra ere io beafa dago, buru-auste lafegia ez dedin. Ala ere, denbora sobra galtzen da.

3) Erantzunik dago l'goan.

4) Lênbailên ala lên bai lên? Or konpon. Zure gogara.

5) Manu'k ala Manuk? Efekalde'n ala Efekalden? Euskalzaindiak ez zun ontzat eman apostrofo ori, oker ez ba nago. Nai duzuna.

6) Ba leki ala baleki? Ba dakit ala ba-dakit? Nik beti bereiz eta berdin erabiliko nituke, azentua berdin berdina ematen baitiegu, gurean behintzat. Baina... or konpon.

7) *Gotiri* oker dago, bai; *Gotiti* bear luke. *Atite* ondo; ez *Atibe*. Mendi ori Tolosako eiztariak ezaguna dute.

⁴⁵ Egilearen oin-oharra, eskuz idatzia: Hoja VI de este pequeño dossier.

Orain arte bialtzen dizudan kopia Lauaxetari pasa iozu, astiro irakuf-ala; Labaieni ematen diodana, zuri bialduko dizugu pruebetarako. Egon bizkor eta *memento*.

Orixe

93

[1935-IV-27]

[Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]

[Orexatik Iruñera]

Orexa'tik, 1935'ngngo. Iofailaren 27'gn.

Adiskide Ipafalde [J. M. Mokoroa]:

Barano izenez dakidantxoia orizu: "Barano (S, arc), al rededor, autor. Dantzatzea sü horren baranoan (S, *Catech.* II, 115-14), bailar al rededor de ese fuego, danser autour de ce feu" (*Diccionario Vasco-español-frances*, Azkue).

Olabidek ere agiz *barano* erabiltzen du *inguru* ordez. Nik besterik ez dakit, eta argitasunik ezin eman. Zer adierazten ote dun (Barañain'ek) galdegiten ba didazu, bildur aundi xamafa diot *ars phantaseandi* ofi.

Lengo bileretan galdegin nien Euskalzain Jauneri, zer zerizkioten azentu biko orietaz, eta, ain kolokak eta aldaberak diran ezkeroz, bi letraz adieraztea litzakela oberenik. Baina... (nik) bertsoan silaba bakafean iafi-beafa datofenean? Nerau moldatzeko esan zidaten. Zer derizkiozu? Oinbeste buruauste ta aldaketa bage, circumflejo directo, inverso, agudo-sobre-agudo, grave-bajo-grave, ta vocal largaren mafa utzita ez al litzake efezago vocal oriek *negritaz* adieraztea?

Ontaz itzaufean zerbait esan bearko. Or dituzu beste bost atal (gurdi bat gauza) onekin batean edo geroxago. Zortzigafena, batere gogorik bage ta berorik bage egina dut, elufa atarian, otza etxe guzian, eta sukal-zuloan sartuta, befiketan etxeakoakin egina. Alare, len ispiratutako ta biziutako gauzak baitira, zenbaiti atseginena zaie. *Non est necessaria inspiratio actualis seu in momento scribendi*. Artaiofa (amar-garena) exkaxena dut, eta uzteko bezela egon nintzan, baina ezetz esaten didate. Pasa-modukoa balin ba da, amabigatenari zer edo zer

lagundu egiten dio. Letari (bederatzigafena), poema guzia baino ohea omen da bakafa, Markiegik lenengo irakufi ta esan zidanez. Gero ordea, amabigafena (Eultzia) ohea omen. Gero befiz, estropadak. Azkeneko biotz-eraginari sinesten zion, nonbait. Zuk astiro irakur eta garbi esan derizkiozuna. Amaikagafena (Belafekoan), edefen edefenetakoa dut (basefitafentzat, beintzat), baina zuek bezelako eruditoentzat ez dakit nola geldituko ote dan.

Ufena arte.

Orixe

94

[1935-IX-4]

[Justo Mari Mokoroari, eskuz idatzia]

[Orexatik Iruñera]

Orexa'tik 4-9-35

Sch. P'etako J.M. Mokoroa A'ri

Adiskide [J. M. Mokoroa]:

Zuk bialdu-paperak jaso ditut. Eskefik asko. Alde aufetik gaztiatu ba zenida, zurekin egokitu nindeken goi ortan; baina onezkero ezin. Ilaren 12'gafenean "Biltzafea" dugu ta bitarteko zortzi egun ôtan mutiko kalabazaturari estualdi bat eman bearko diot.

Biltzaferako moldatuko ote zinake? Isaac'en, Izagifé'ren, Labaien'en autoan ez ote litzake lekurik? Bezperatik joan-asmoa dugu.

Goraintzi orko ezagunei, batez ere D. Markos'i

Orixe

[Sinaduraren ondoren, eskuz idatzia]:

Au bialtzeko nenbilela, karta dator atzetik. Ilaren 11'gafenean Tolosan ba zina, eguerdiartean aztertuko ginuke poema gañerakoa. Baña neregatik ez etofi egun batez lenago.

O(rixe)

[1935-X-23]
 [Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]
 [Orexatik Iruñera]

Orexa'tik, 23-10-35.

Adiskide Ipañalde [J. M. Mokoroa]:

Lengoan Ariztimuño jaunak, poemaren iraf-okefak zuzentzeko ufutisko zeundela ta Markiegi'k egitea obe zela esan zidan. Nik egina-lak egin nizkion beste aldera, baña nik baño geiago dezake. Asi ezkerro berela bota bear omen dute. Dibujantearen begira gaude.

Zuk zer diozu? Nola dijoaz artikulu oriek?

Orain noa Euskalzaindiaren bileretara eta bitartean botako ditut zure karta ta Markiegirena. Zure idazkerari eñespeto izateko agintzen diot, eta, txintxo baia, izango diola uste det.

Ni beste lan aundi artan ari naiz poliki poliki.

Ufena arte.

Memento.

Orixe

[1935-XI-4]
 [Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]
 [Orexatik Iruñera]

Orexa'tik, 1935'gatengo Azaroaren 4'gatenean

Adiskide Ipañalde [J. M. Mokoroa]:

Irakufita berela bialdu nition aitari zure artikulu biribil aiek. Komprome, guziz komprome. Poemaz esateko duzunarekin zaitex *justo*, ene Justo. Iritziaren oinafia egoki ezafia duzu. Gaitzi ez ezen atsegin ere izango zait iritzi ori. Itzak ongi neurtu, ordea, nere alde geiegi-keririk esan bage. Kritika serioa bezalakorik ez da. Noiztsu aterako didaten? Ez goizegi, dibujantea lo baitago. Emen esaten dan bezala,

aren *baitean* gaude. Edozein moduz, datofen urtea polikitxo asia ditekela dirudit aina agertzerako. Zure argi-egile, biderakusle, Precursore edo dalakoa garaitez agertuko da, naski.

Ufena Tolosara noanean, agertu bat egingo al diot Juan Jose'ri [Mokoroari]. Noiz? Il onen azken-aldera baititugu bilerak Bilbao'n, ordun igaroko al naiz. Bitartean etxean egon bearko txintxo txintxo, len naiko pafanda egina naiz eta. Aitak lengoan dei egin zidan zuen etxera bazkaritarako, baña, egun txafa, animena, ta Meza Nagusi ta bat eta beste, utzi egin bear izan nun.

Ufena arte.

Memento.

Orixe

97

[1935-XII-6]

[Jokin Zaitegiri, makinaz joa]

[Orexatik Marneffera]

Orexa'tik, 1935'gafengo Gabonilaren 6'gn.
J.L'ko Zaitegi A'ri. – Marneff'ra.

Adiskide:

Lenik eskefik asko Meza-befiaren oroigafi ofengatik, eta ar itzazu nere ateginik aundienak apaizgoarengatik.

Ufena... zertzuk asmatu dituzu! Oraintxe pozik nengoan aztu nindutelako, ta, albait, ni ere bakar bizi nintzan, baina etxezulo ontan zure kartak arkitu nau. Ez, gizona! Gaizkiazia ez iduritzeafen zertxobait ipini dizut, baina ezazula bialdu olakorik paperetara. Ez du Kirikiño-saririk atzemango. Egi egiz esan, batere kunplimentu bage; arako esan ark ikara-piska ematen dit: "Vae quum benedixerint vobis homines; secundum haec enim fecerunt pseudoprophetis patres eorum". Ez baita befiketa.

Lengoak aztuta "paulo maiora canamus". Galde egiten baitidazu, orain ari dudan lana euskerarentzat ontufe aundiagokoa diteke poema baino. Nere ustez ez ezen, zerbait adierazi diedan guzien ustez. Noizko bukatuko? Emendik lau bost bat urtera? Ikusi egin bear. Eta zer gai?

Labur ezin adierazi, baina... entzun: sorkaiak oro (creaturak) Jainkoaren semeak bezala argieginak baitira, naiz aien eredu danez, naiz graziaren bidez, & erabat artuz, Eliza bezala egin ditut (reductive), eta ezak: ukoa, pekatua, ifernua, beste aldera⁴⁶. *Argi-eri* duke izena. Jainkoaren semeak argi egiten, alegia, lufeko Elizari, zerukoari, garbitokikoari, nolabait, limbokoari ere bai, ta azkenik anima zintzo bakoitziari. Azken-zati ontan kristau-bizitza, oi bezalakoa ta ez bezalakoa adierazten ditut, Sta. Teresa, S. Juan de la Cruz, eta beste mistikuen muina euskera ezezez emanaz, Gure Inazio aundia aztu bage. Izketalagun Elias, Enok, limboko aur bat eta ni. Eliz oriek non dauden, zer biziz bizi diran eta abar. Platon'en elkafizketa antzera. Itz gutxiz geiago ezin adierazi.

Otoitz egizue, afen, orko ezagunak.

Orixo

98

[1936-II-4]

[Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]

[Orexatik Iruñera]

Orexa'tik, 1936'ngo. Ilbeltzaren 4'gn.

Adiskide Ipafalde [J. M. Mokoroa]:

Ipafalde ta ez "Ipafagife", Ipafagifererekin bazkaltzera deitu baininduten arako zuk dakizun egun artan. Emengo telefonistak oker artu izena; bestela saiatuko nintzan eguerdiko Roncalesan Tolosara joaten. Jaungoikoak ez nai, nonbait.

Uitzi-aldetik ibili bainaiz, ezin erantzun len zureari. Nik ere pensatu nizun *aize* ordez *ats* ipintzea, baina zenbait tokitan *ats kirats* baita, ofek atzeratuko nindun, naski. Alare *ats* ipini bearko, beste ortarako *kirats* gordetzen dudala.

Poemaren dibujoak lo. Bi *specimen* kaxkar bialdu omen ditu, ta ez Ingurutxoa, ez Artazuriketa ere, itzek dioten erara.

⁴⁶ *Egilearen oin-oharra, eskuz idatzia: Lux et tenebrae.*

Zure ori atera bedi albait len.

Beste lan aundi ari orain ekinalditxo bat eman bear, opofaldiaren ondotik. Azken azkenekoan ari naiz, lenagoko lau zatiak utzita. Eta azkenekoan ere, –guregandik Jainkoaganaño dagon osin aundi ori gai dudala– zailen zailenean, ots, animaren *oi ez bezalako* (extraordinaria) kristau-bizieran: (Iru zeru: lenengoa, Jaungoikoa *urbil* sumatzea; bigafena, Jaungoikoa *begiz bezela* ikustea; irugafena, Irutasun txit Santua barnean sumatzea). Guzi au, labur afen, aufeneko aldera (primera mano) bukatu arte, ez naiz asiko besteetan. Otoitz egizu, gauza ain zailak ongi, efez, goxo, ipini ditzadan.

Memento.

Orixe

99

[1936-II-26]

[Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]⁴⁷

[Orextatik Iruñera]

Orexa'tik, 1936'ngng Otsailaren 26'gn.

[J. M. Mokoroa] adiskide:

Alabeafez emen dut bigafen kantaldi ori: "Artazuriketa". Neronek ere, lenengo iru aldakietako bat makeska dut, au galdurik, ua galdurik. Azkeneko bietakoa, bat A. Estefaniarentzat nedukan, baina dibujantea lo dago, ta onezkero liburua bera lenago iritxiko al zaio. Imprentarako eman nun aldakitik ere, kantaldi bat galdu egin zitzairen. Nerekin ditudanak bialduko nazkizuke, baina lenengo aldakikoak ditut, eta gainera Arbizu'ko apaizari agindurik dauzkat. "Artazuriketa" ofen beafik ez dut, cuartilla'tako ondo etofiko ba litzazket ere. Gainerakoak non dabiltzan ez dakit; batak besteari eman egiten baitizkio. Irartokefak zuzentzeko Markiegi dut aukeratua. Imprentarako Justo Mari Mokoroak, Sch. P. moldatu dizkit, j ta abar. *Antola hor*.

⁴⁷ *Euskaldunak* poemako atalak aita Justo Mari Mokoroari igortzen baitizkio egin ahala, gutun hau ere hari egina da seguru asko, "Artazuriketaz" izeneko atalaz ari da eta.

Mundu guzia galdezka ari zait noiz argitaratuko. Nik zer dakit? Melodiak, 60 melodi, Burdeos'en irafiak ditute aspaldi. Esan dudana, dibujantea lo. Gauza ofen ardura erabat utzia daukat.

Ez gero neri etofi zuri-nerika, ots, intsentsua ematen. Ez bialdu ezer, lotsa ematen baitit irakurtzeak ere. Bein idatzi dudan gauzarik bigafenez irakurtzeko biotzik ez dut. Bigafen argitaraldia letofeneko, lenengoaren okefak eta aldabeafak taiutzeko, izango dut laguntzailea.

Goraintzi.

Orixe

100

[1936-III-19]

[Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]

[Orexatik Iruñera]

Orexa'tik, 19-3-36

Adiskide Ipañalde [J. M. Mokoroa]:

Zuen anaia Juan Josek bialdu dizkit 15 ofialde zori oneko Poema dalako ortaz. Zure iritzia? –Ori egia ba litz, mutiko polita nintzake ni. Egia esan, ain zuzen ere, zuk diozun ori guzia nun asmo. Norberak ezbaitu dabilela bere burua ikusten, nik ez dakit nere ibilkera nolakoa diteken; baina zuk diozunez, ez da oso baldafa. Nik nai nukena da, beintzat. Ez nau ikarutzen diozunak, gero ere ez baitira beste munduko gauzak literatura oiek. Beste munduko gauza orain ari dut, eta aren befi emango dizut udatzera zatozenez. Nik uste, Poema zokoratu edo baztatu egingo ez ba duzu ere, au irakurtzean alderdiratuko duzula naski. Ala bedi.

Ez estutu zure liburua nai baino nekezago agertuko ba da; nereak marka guzik ufatuko ditu berandutze ortan.

Memento.

Orixe

[1936-IV-28]

[Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]

[Orexatik Iruñerria]

Orexatik, 28-IV-36

Adiskide Ibar [J. M. Mokoroa]:

Zuk esan biaramonean an nintzan Tolosan, azkeneko atal aren ondafa irakurtzen. Ederki iduritu zitzaidan eta ederki baino obeki arako prantses aren eta beste aren itzak. Ni ere ortan egoten nintzan, eta besteren okefak zuzentzen asmatu ba nu, eztaietan.

Egun artan, ordea, liburu-aintzina ez zidaten erakutsi, aita ez baitzan etxean, eta norabait okertu egin baitzitzaien. Atzo izan nintzan ufena, ta ikusi nizun liburu-aitzin ori. Zer esango? –Aufen aufena, ez zaidala gai ortan entenditzen. “Ori”, (*solámenté* esan nai det), ez zala aski nabari Ibar itza: erabatekoegi ematen zun, ene begiendako, tituluarekin. Aitari ere berori iduritu zitzaion, eta letra goñiz edo nabarmenarazi bearko zala erabaki gendun. *Ankea (buruntzalia) sartu* ote gendun? Zuk azken-itza.

Emen ari naiz tarteko lan batean, Labaien'ek ez baitit pakean uzten bere Estetika'rekin. Neduzkan apunteak osatuz ta biribilduz, bukatuko al det datofen ilaren azkenerako.

Ufena arte.

Memento.

Orixe

[1936-VI-12]
 [Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]
 [Orexatik Iruñera]

Orexa'tik, 12-VI-36

Adiskide Ibar:

Lengoan ezaguarazi bainizun gizon bat; arako bigafen kantaldiko (Artazuriketa'ko) Mikela Iriarte aren semea da⁴⁸. Ikusten ba dezu, esaiozu, nere ongile aren oroitzapen samur bat ba dedala an, eskolatu nindulako. Gaiñera, esan zidan liburu aren izena, argitara-lekua ta urtea gogoan artzeko ufena noanerako, Urquijo jauna jakinminez gelditu baitzan. Berela, Roncalesa'tik atera giñan biok arekin elkar ezaguarazteko, baña aldegiñak ziñaten.

Il onen amaseigafenean Meza-befi bat degu orko Salesa'tan, eta labur bederen elkar ikusiko al dugu. Estetika eramango al dizut.

Eskaldunak irakurtzen ari naiz. Oso irakur-nagia bainaiz, edozer gauza irakurtzeko, atzera noa oraindio. Gauza atsegiña, ez ezaguna, nere egunetan bizi izan ba litz eta nik aifña euskal-bizitza ikasi balu *Eskaldunak* ez ezen *Euskaldunak* ere ederki egin zezakena. Liburuto polit au ere egun ortan, albait, eramango dizut. Egia esan, zuri atsegin emanteafen ekafi nun. Ezin asma zenezake nik irakurtzeko dedan nagitasuna. Nere bizi osoan egon nindeke itzik irakufi bage, Jainkoaren itza ezik.

Al bazeneza, ager zaite egun ortan Salesak inguruan. Bestela, ager-tu labur bat egin bearko dizut. Laburá bearko du, aideetatik eta ez baitago aldegiterik luzeko.

Laister arte bada.

Memento.

Orixe

⁴⁸ *Egilearen oin-oharra, eskuz idatzia*: Oien etxeak du izena *Geñi-eder*: "Andre geñi-eder Otsanbelako".

[1936-IX-1]
 [Justo Mari Mokoroari, eskuz idatzia]
 [Iruñatik Iruñara]

Fuerte S. Cristobal, 1-9-36

Estimado P. Mocoroa:
 Le escribo para agradecerle la abundante ropa que me ha enviado.
 Dios se lo pague. Al salir haremos las cuentas. Recibí también el dinero.
 Ruegue por mi.

Nicolás Ormaechea

[Sinaduraren ondoren, zuzenbidea eskuz idatzia]:
 Fuerte de S. Cristobal. 2ª B. Pamplona

[1936-X-6]
 [Justo Mari Mokoroari, eskuz idatzia]
 [Iruñatik Iruñara]

Fuerte de S. Cristobal (2ª Brigada)
 Octubre 6 de 1936
 R.P. Justo Mª Mocoroa Sch. P.

Sincero amigo:
 Recibí sus dos libros el día siguiente de su visita o subsiguiente.
 Dése a discurrir lo mucho que me aprovecharán.

Hace ocho días que pedí a casa la ropa de invierno necesaria.
 Gracias por su ofrecimiento.

Fidel Astiz no ha hecho por visitarme, ni otros amigos de Pamplona a quienes visité en la carcel de Larrínaga. Ya dejan visitar, cumpliendo las condiciones requeridas.

El mismo Fidel pudo ya haber gestionado algo con su amigo y mío, natural, además, de Huici, D. Juan Pedro Arraiza. Dios no querrá. Yo conforme.

A D. Francisco Urquía (Yarza) le devuelve mis saludos con la mayor expresión que pueda ¿Qué hay de su hermano?
Hace poco me giró mi hermana dinero.
Memento.

Nicolás Ormaechea

P.S. Escrita ésta, me ha llegado la ropa.

105

[1938-IX-16]

[Justo Mari Mokoroari, eskuz idatzitako postala]

[Donibane Lohizunetik Aire-Sur-l'Adour-era]

J.M. Mokoroa, Aire-Sur- l'Adour.
Petit Seminaire - Landes.

Adiskide on:

Atzo espero zindudan gure Biltzafean eta zu ez agertu. Jaso ditut zuk igofi paperak. Esker aunitz, egin didazun mesedearengatik. Arako oker txiki ua ontara zuzendu dizut: "Si es Cristo figurado con figura humana vemos por la fé a Dios...".

Maritxin'en liburuaren laburtzapena ezagutzen dut thomistengandik. Thomas'en eta S. Bonaventuraren erakuspenak gogoratzen ditu. Gure egunetako G. Lagrange ere ba. Alabaina, lan ori bere gisaz, ots, bere biotz-eraginez (ez jakitate soilez) egina ba lu, poz pozik irakur nezake. Ez ordea liburu ori bialtzen ari, emen inguratu al ba niro.

Sertillanges'en *Recuelliment* ere emen daukat. Laister onontza ager ez ba zendi, igofi egin bearko dizut.

Nere lanto ori (zuk makinaz aldatutako ori) eskatua nizun eta emana dut. On aundia dakarkela dirudit. Jainkoak dezala. Laburñoa dela: orixe. Zabalagoko ua, "Quintaesencia de la vida sobrenatural", noizbait irakufiko duzue.

Memento.

Orixe



Erbestean, Donibane Lonizunen, Maréchal Foch plazako egoitza honetan bizi izan zen, 7. zenbakiko lehen solairuko etxebizitzan (1939).

106

[1939-VIII-5]

[Xabier Landabururi, makinaz joa]

[Donibane Lohizunetik Parisa]

Saint Jean de Luz (Place du Maréchal Foch, 7, 1^o)

Sr. Dn. Javier de Landuburu, Paris

Estimado amigo:

La carta que me dirigió, con fecha de 21 de Julio, pasando por el Hotel Regina, por Camieta, por Anchochuri, se me entregó anteaayer, día 3 de Agosto. Este mediodía he entregado el solicitado artículo, "diez páginas comerciales a máquina", a nuestro querido Txiki para que me lo ilustre con unos apuntes de dibujo. Dada la urgencia que se impone, procuraremos remitirle nuestro trabajo cuanto antes podamos. Txiki está bastante atareado, pero me dice que para el 12 del mes

cree que podrá preparar sus dibujos. Así que nuestro original puede estar ahí “antes del 15 de Agosto”.

Mil felicidades en su nueva vida en compañía de su cara mitad. Mi profecía salió verdadera. No les auguro nada, no sea que la segunda profecía sea falsa; pero les deseo unos cuantos bebés muy enredadores que den quehacer en el mundo.

Affmo. s.s.

5-8-39

Orixe

107

[1944-VI-2]

[Zatarain aitari]

[Betharrandik Pabera]

Betharram'dik, 2-VI-44'n

Aspaldiko urteetan goi ontan uko egiñik nintzan, euskerari zegokion bertsurik asmatzen ez nulako. Ortaz, neri gai au aipatzea uko egin dun idiari uztafia erakustea da. Ala ere Zatarain'dar gaztearen lan polit ori neri ere zuzendua baitator, itz bi esatea bearturik gertatzen naiz.

(Lenbizi artan emana nion erantzun au Leizaola jaunari, zuri emateko, bañan aztu egin omen zitzaion. Atzo itzuli zidan beste cuartilla zuri oiekin).

Neuñi, ta neuñi, Euskerarentzat nolako? Aspaldiko efiena ala orain-goena, geron neufirik asmatzen ez duguño? Ta ez dezakegu asmatu ere, beafik ez!, gure prosodia len-aldiko egoeran baitago (en estado primitivo). Griegoaren silabak ez ziran aufen-befi artan ez luzeago ez labufago. Izkuntza kaxkartu-ala, endakatu-ala agertu ziran. Gaitz ortaz edo premi ortaz baliatuki (haciendo de la necesidad virtud) zorioneko bertso ori asmatu zuten musikaren, batez ere dantzaren babesean. Ez ordea irakurtzeko!!! Euskeraz astakeria da bertsoa irakurtzea, euskera-
ren berekiko doñua galdu gabe ez baititeke jalki. Ar dezagun ahalpal-
di edo estrofarik jatofena, (bai Zatarain'ek dakafen Senpelar'ena ere, itzik bere lekutik aldatu gabe). Lotutxo gelditzen da, koskatu egiten

da, urgundu egiten da batetik; eta bestetik euskerak dun gorabera-mintzo lasaia (amplitud melódica) zufundu egiten da, beti batera erortzen da, doñu zelaisura dator (al tono recto). Kantatzekoan or konpon. Nik ere ortarako egin ditut, bertsoen etsai agertuafen. Irakurtzeko etsai, alegia. “Bertsuak irakurtzean –dio Zatarain’ek– dantzaren kutsu arinbat bederen erantsi bear diogula, beraz ez dirala itz lauzko idazkiak bezela irakuri bear”. Erdaldunak oso bestera egiten du.

Irakurle on batek, noizpeinkako oztopo aundi ori, indafezko azentu ori, auldu ta lagundu egiten du bertsoan, doñu lasaiagoa ar dezan: izketa afuntera jotzen du, betiko garbi soñu ortatik aldegitako. A las ár/mas valién/tes astú/res//empuñád/las con nué/vo vigór.

Iru silabaz, bein mutufez erori bear ori, noren belafiak jasan dezakete ongi eziak eta aziak ba dira? Irakurle on ofek mintzo-etena edo *cesura* bilatzen du batez ere kanta-kutsu edo dantza-kutsuari eusteko. Bañan ala ere nork ez dakus, alkar-izketa batean bertsoan baño doñua lasaiago, ugariago, mila aldiz aberatsago dala? Bertsoz bertso dan aldeitik *irakurtzeko* exkasa iduri zait (musika arauz); itsusia, ezin-jasanekoa, euskeraz behintzat: beti-batekoa = *monótono*.

⁶³ Gutun honek datarik ez du, baina, seguru asko, Avellanedara iritsi eta berehala egina da, urtarrilaren lehen egunetan edo, bukaeran Eguberritako zorionak opa baitizkio, nora eta Tolosara, ustez han dagoelakoan, Avellaneditik igortzen dion 1950-II-26ko gutunaren hasieran jakinarazten dion bezala: “Tolosa’n ziñalakoan, eta, zu Chile’n oraindik ere”.

Bañan irugafen auzi ortan (ekin? ekidin?) gauza ez dago garbi beintzat, eta oraindik lengo iritziari nakio (ni). “Denbora aitzinean duzueño *zakitza*”: *zakio zu?* ala *ekiozu zuk?* Ez dezaket erabaki. *Ekin ez* al da *Ekidin?* diagozu. A. Olabide ere otean egon zan aldi batez; baña ni Van Eys’ekin noa, gauza ontan oso argi ikusi ez ba zun ere. “Zakizko maiz Jainkoari hats-gorapenez”: Zako zu maiz *Jainkoari*. “Akio (i) adifionari= aténte a lo conveniente. Zakizko S. Augustiñen koseiluari” = zakio (zu), eta abar, nere ustez *Ekidin’etik* dira: *zakidio*. Otela, au ere esan genezake: “eska zakio (zu)”. *Ekin’ek* adijabe edo sujetoa –*k* du: ekiozu (zuk) lanari. “Zakio (zakidio zu) zure bihotzari”. Gogora ezazu befiro “akio adifionari”.

“*Zakitza* edo *zaizko* ofi, bizkaitafen “*zeri nakio*”ren usai berbera artzen diot”. Ain zuzen, baita nik ere. Bañan nakio gure gurea da (Uitzikoa beintzat). Dana dala, *ni nakio* (ekidin) eta *nik dakiot* (ekin) bi gauza dira nere ustez.

Gauza auek efiak nasi izatea ez da misterio. Eunka aldiz entzunik nago au kantatzen: “Othoi, Ama Maittea, ufikal *zaizkigu* “. Bai ta *zazkigu* ere. Liburuetan ageri da beste irugafen joka-itx au: ufikal *zakizkigu*. Zergatik ez esan *zakigu* (zu), *zakidigu?* Idazleak nastea mirakulu al derizkiozu? Funtsean, nasi ditugula iduritzen zait.

Kartari dagokionez, batere etzeunden enekin zofetan. Neretzat karta ba dakizu zer dan? Emen dabilizan eltxo edo *zancudo* oietako bat. Ez diot beñere jara ematen nork zor didan. Naiago nuke beti artzekotan egon eta ez zofetan. Ala ere, noizean bein, zenbait adiskideen gutunak atsegin zaizkida.

Ufena, Misal’aren befi zeatzik ez det. Nik baño geiago dakizute. Garestiegi dala, jakiña! Gure jende gaixoa! “Euskerari eusteko” ez al du balioko? Nik ere ba det itxaropen apufa, zuk bezala. Jainkoak lagunduko al *gaitu*, Bidafai’n esan oi dutenez. Esketik asko, egin didazun propagandarengatik.

Arantzazu poema bi ordu bakaferako utzi zidaten Donibane’n. Gauza edefa iduritu zitzaidan. Ba ditu bertso biribilak, asko; zenbait ofaztu gabexkoak ere bai, lan ortarako. Nerean barkakizun dira olako makar oiek, luzeago baita.

Neketan elkar ikusi dezakegu emen. Or geldi ba zendi ere, nik afebarekin egon nai nuke luze xamar. Urte bete edo.

Egubefi on eta Urtebefi on!

Nikolas

[1950-I-26]

[Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]

[Avellanedatik Txilera]

Avellaneda'tik, 1950'gngo. Ilbeltzaren 26'gn.

Aita Justo Mari Mokoroa'ri Chile'ra

Adiskide ona:

Tolosa'n ziñalakoan, eta, zu Chile'n oraindik ere. Oraingo nere onek or atzemango zaitu ilaren azkenean.

“Zakizko edo zakitza, ofelako beste joka-itx guziekin beti –k gabe darabiltzala, neretzat lêna bezain garbi dagon gauza da” diozu. Neretzat ez, bada, eta oraingoz, auxe esatea oberenik: ez dedala ulertzen.

“Iñoiz ere gogoak eman izan dit, *nakidio*, *nakidikaio*, ta ofelakoetan aditzmuña ez ote da –di- soila, eta –ki-, beste edozein aditzetako lokafi ezaguna “por metátesis” lekuz aldatua. – *Optime ! Pro me laboras ! *Edin* eta **Iten* gauza bera izanik (bear ba da *metátesis*), Uitziko *naitio* (nakio ta naitzio ere esaten genitun) zuk nai zenuken *nadio* ori berori da, nere ustez. Gofoto izugafia artu diot –ki– nasgafi ofi, ta aizatu egin det al dedan guzietan.

Nondik atera dezu nik *zakigu* ez dedala esaten? Bai, eta aspertu arte, Kiri-eleison guzietan eta otoitz askotan. Zu gu'ri *zakigu* (zitzaigu, zadigu) ederki; sekulan ez ordea zu gu'ri *zazkigu*, ez eta *zazkigu*, ezago *zakizkigu*. Zer lofa! Ez, enetxoa, ez: nago, zago, dago; gago, dagoz; nator, zator, dator; gator, dat(o)z. Zadin edo zaiten (zu) ez zaitezen; Bidafai'ko etxe batean onela dago: *Orhoit giten hiltzeaz*. Beraz, nadila, naitela, gadila, gaitela; ez ordea gadizala, gaitezela. Bakafaren ezaugafia *n* (ni); zenbaitena *g* (gu); beraz *nago*, *gago*, &. Nik ez ditut lengoratu, bañan obe genuke artan ba geunde. Askoren einetan aski da *e*, naiz *z*, nai *t*; bañan irurak batean *triplural* egiten dute.

Nik ez det erabili *zaidan*, bai ordea *zakidan*, ezaguna dalako. Oker aundia deritzat *z* ori (zu'ri bestera) ta ofegatik aizatu det. Ni a'ri *n-iza-io* (naitzio, natzaio) ordez, *nakio* darabilt, itsusi baitira *natzaio*, *gatzazkio*, ta olako oiek. *Gakio* ere iñoiz ipifi dedala esango nuke. Uitziko *gaitio* polita litzake, ezaguna ba litza.

Misal'ean Olabide'ri urbiltxotik jafaitu ote naition (nasion) bildur omen zera. Ez, ez. Ikusiko dezu, gehiago irakurtzean. Baizik ere

pixkaren bat goibelduko zaitula esatera noazunak. Maritxu Bañola'k eta, itz eta esaera zefenda bat ipiñi zidaten, Gipuzkoarako obe zitekela. Obe beafez ala egin nun; baña bufuntzalia pixka bat sartzen zutelako, nik alegiñak egin nitun liburua nere izenik gabe argitara zedin. Ortara ere etziran etziten, eta nere izenean aterako da. *Dolendum* !

Or bialtzen ditizudan ofi oiek iduki etzazu zerekin. Beste kopia Barandiaran'i bialdu diot *Eusko-Jakintza*'rako.

Ni larunbatean Bahía Blanca'ra noa zenbait asterako. Gero Llavallol'go Capuchinoak gonbidatu naute an aiekin zortzi egun igarotzera. Ufena, poliki poliki Quito alderako anteak egiten asi bearko.

Adizu: lengoan jaso nun Denuxi'ren karta, ez dakila non nabilen eta iritxi naizen. Bi karta ere egin dizkiot, eta erantzunik ez. Emen Correo'ko auk oso asaldaturik dabilta. Zuk egingo al zenioke zuzenbide ontara: Dionisia Ormaechea, 635, Quito. Ecuador. Orañarte jaso ditu nik ofera bialduak, eta bein berak oker 365 ipiñi afen, 635'ra erantzun nion eta jaso izan zun. Etxera ere gaztiratu bearko diet andik ere egin dezaioten.

Dezazula opofaldi on, eta
Memento.

Nikolas

128

[1950-II-17]

[Jokin Zaitegiri, eskuz idatzia]

[Berraondotik Guatemalara]

Befaondotik (Bahía Blanca), 1950-II-17'gn.
Zaitegi'tar Jokin jaunari Guatemal'ra

Adiskide ona:

Noizbait ere atzeman nauzu ofegatik. Ederki egin dezu aspaldiko nere artikulu ori befiro argitaratzea. Misal'aren izena *Urte guziko Meza-Bezperak* Mame Fils. Tours'en. Zenbatean salgai ta beste xeeta-sunik batere ez dakit. Garikoitztar Lagunarteak bere gain artu zun. *Euzko-Deya*-rik eta beste ezer ez det irakurtzen. Beste munduan bizi naiz. Zure kartarik, ez argitara eman dituzun iru banako oriek ez ditut

jaso. Pozik bialduko dizut zerbait argitaratzeko, eta or dijoaz, asteko, bertso batzuk. Befaondo ontara ilabeteko etofi naiz, eta onen azken aldera, ilobarenera befiz, “Chacabuco 331. *Avellaneda*. Prov. de Buenos Aires”. Apirilaren lena aldera Quito’ra, afebarengana “535, Quito, Ecuador”. Ez det makinarik ekafi Avellaneda’tik, eta oraingoz, zeurok aldatu bearko dezute garbitara.

Berraondo’ko Meza (“Dendari gazte” bezala)
Indart-Zuburu senhar emazteeri

Berraondo’ko Elizaren izaria, ez luze zabal, bainan biribil handia, erran nezake// itsasoaren erdia, itsasoa urrun// heldu denaren bidia. # Erdi erdian // ba litza nehon erdirik, etchea dago// mundu orren ichilik. Ardi, bei, behor gainean daude etzanik; nere Mezara// igarotzen naiz artetik. # Ez da mendirik // ez da zuhainik aldean; choriak ez du// chintarik osto gainean, Indart-Zuburu // lo ditut bethe bethean; zeruak lurra // besarkatzen du bakean # Aratcheari // marrumaz asi da beia; ezkila orde // neri Mezarako deia; apezik ez da // eskas da Mezaren geia; besterik ezik// aski bedi nere leia. # Ichiltasunik// ez nun osorik aditu; ichiltasunak// bere zurmurrak ba ditu. Eliz ichilak// gogora behar ba nitu, hau bezain ichil // ez dut nehon bat arkitu. # Eliz ichila // Kartusi’koa Burgos’en, orobat ichil// Azkoiti’n Santi-Kurutzen, han gerthatu niz// othoitz beitarik egiten. Ez zuen uste choko hoberik ba ziten. # Ibili, joan, // bethi nagozu erdian, mugarik ta baztefik ez dun tokian. Jinkoaganat // ari nizala abian, geldi behar dut // erdi-leku den guzian. # Agur oraikoz// bego zuen arrabotsa, chorien chinta // lthurrien pilpil-otsa, oihan itsuen // muskil orrien asotsa, itsasoaren // marmari nahiz ostotsa! #. Zuek zaituet// erdi hontarat ekarri -zuek oraino// Jinkoaren orhoitgarri-; ba dakizute// ni zertaz nizan egarri; edan arteo// utz nezazute bakarrik. # Iduritzen zaut // ororen erdi nizala, eginak oro // neretzat egin dirala; askoz ez handiz// ez naute zerbait bezala lotsaz beldurtzen // handiago dut ahala. # Jinkoa dugu // giran orok erdi-leku, Haren iduri // denen erdian gaude gu; erdi-leku hauk// muga bera dute phondu; bi giralarik // helgar bat egiten dugu. Erdi hontarik // ezin dugu ihes egin, halarik ere // baztertzen gira minekin. Bakea nahi // bestekin eta gurekin; ez da bakerik // hortik ilkitzearekin. # Berraondoko // itsaso lur bihurtua, zeru-lufaren// ezpain betheko musua, Elizik gabe // Eliz hontan dut Jinkoa; gogoz dut hemen // entzunen Meza Saindua. # Lur handia da // ostia bezain biribil, ni niz apheza// ez hemen aphezik hurbil. Bego latiaña, bego

mintzai oro ichil, Jinkoarekin // Kuku neregan nadin bil. # Gordegu hontan// gerthatzen niz handienik; kuku, hobeki// gauzak ikusten ditut nik. Beste orori// begiak ertsi emanik, Jinkoaganat // zabaltzen ditut azkenik. # Neurri ta neurri // bethi niz phondu berean, neurri ezina // den Jinko azken-gabea; nihaur hein batez hala niz Haren barnean; ari nindeke neurketa bethierean. # Maitatzen zaitut // jauna eginik ahala, sorthakari oro// hontan lagun ditudala; are oraino // -ni nizan bezain argala- maita nai zaitut // Zuharek Zuhaur bezala. # Ichila Meza, hobe dut ichilik egon; bihotza biotz // Jinko honarekin nagon. Ez dut zumurrik // entzun ere nahi nehon. Othoitza gocho // egiten da Berraondon.

* * * * *

O[áfa]. Zuk argitara eman befizkorik ez dut ikusi. Zenbait lefo besterik ez, Pierre Lafitte'k ematen dizun iritzian. Zure alde atera nizaio *Gernika* aldizkarian. "Errores de vascólogos nuestros".

Jafaitu zuk zure bidetik.

Al baldin ba duzu bertso oien ortografia ez aldatu. Baigofiar eta bidafaitar diran Indart-Zuburu'entzat egiñak dira. Bestela, *j* edo *y*, zuen oiturara alderditzen naiz; ez, Akademi befi ofenera.

Ormaetxear Nikola

129

[1950-III-6]

[Jokin Zaitegiri, makinaz joa]

[Avellanedatik Guatemalara]

Avellaneda'tik, 1950'gafengo Martxoaren 6'gn.
Zaitegi'tar Jokin Jaun Apaizari. Guatemal'ra

Adiskide ona:

"Alius sic, alius aliter". Nere bertsoak ez omen dute ezer esaten (neroni leialki esana, ta ez, argitaratzeko dan iritzi batean), eta... ez dakit zenbat esaten omen dute, zuk eta emengo beste apaiz batek diozutenez. Nik ez det irakufi nitaz zer esan duten, ez ta nai ere; baña Montzon jaunak au esan zidan *Barne-muiñetan* dalako liburutxo artaz:

“an ez det ezer arkitzen” (no encuentro nada). Buenos Aires'en dagon Sakramentino gazte batek⁶⁴ beste au esan zidan befiz: “liburu ori ez du iñork autsiko.” Ez bat, eta ez bi: tartean dagoke egia. Neronek autsi dezakedala dirudit, eta nere paperak galtzen ez ba dira, ilburuko utzi nai nituke obeak, Jainkoak onez. Bestek ere garaitu detzakela, ez litzake afitzekoa: “non est abreviata manus Domini”. Ori, oberenera jota.

Erenegun Labaien jaunak idatzi zidanez, poemaren erdia irafia omen, eta beste erdia, eten gabe, Apirilaren ondaferako irafiko omen. Bear ba da zuk zenbait zati irakufi ditukezu, uts askorekin, neronek ere ezin ulertu bainetzaken. Baña neronenetik (arkitu baitzuten azkenean kopia jatofa) laister irakufiko dezula nago. Ontaz ere, “alius sic, alius aliter”; batzuek zeruraño altxatzen dute, eta nere adiskide on Montzon'ek au esan zidan befiz: “Es cosa muy hermosa, pero algo le falta: le falta elevación, le falta sencillamente... *poesía*”. Ni ez naiz auzi ontan ebazle; bañan ori esatea Euskalefiaren kontra mintzatzea iduri zait. “Pues no hay que digamos cosas bien poéticas que han nacido en el pueblo vasco, o... el pueblo vasco no es nada poeta” erantzun nion. Ez uste ukan Montzon jaunak nere kontra ezer dunik: leialtasunez eta berari derizkionez mintzo zaida.

Ofegatik esaten nion Lafitte jaunari zure ahapaldi polit baten kontra jartzen dalako: “Yo no sé ya qué cosa es poesía, ni si Zaitegi será poeta o dejará de serlo; pero la estrofa en cuestión es irreprochable. (Ez naiz oroitzen lenbiziko bi bertsoak nola diran; bi azkenak ola dira: “oro-i-gai eztiak utz — azken-ufenari”). Beste ahapaldi batean, ez da baitaratzen gizagajo ori, zuk *sargori* itza bi puska egiten dezula, lefo batean *sar-* eta bestean *-gori* ipintzen dezulako. Nik au esaten diot: “No ha entendido sargori (*sartu* dala iduri zaio, *infinitif radical*) que es lo que en los Bajos Pirineos se dice *sapa* y en Nabafa usamos los dos”. Si así entiende el griego, lucido está!” (Esaten baitu, griegotik itzuli dezuna baño, griegoa bera irakurtzea ezezago dala). Entzuten ditu gizagajoak bereak eta asto beltzarenak! Ufengo *Gernika*'n aterako zala uste nun nere artikulu “Errores de vascólogos nuestros”, eta orain esan didatenez, ufenagokoan izango omen da. Neologismo ta abar an dantzatzen ditut vascuence-zale oiek. Ontaz aski.

Ixaka (L. Mendizabal'ek) esan didanez, idazle bizkofoa omen zera. Nik ez nioke iñori iritzirik eman nai olerkari danez, baña beste lan

⁶⁴ Gazte hau Kasimiro Egues apaiz sakramentinoa da, Elduaingo semea.

oietaz bederen (Lafitterenak baño alegin geiago baitute bide befiak ufatzen), zerbait esan gabe etzaitut utziko. Gaia emango didate. Montzon'i iritzia emateko, *Eusko-Jakintza*'k eragin zidan. Ez dakit zer iduriruko zaion bere bertsoetaz, bañan ez da gezur aundia Zizeron'en esana: "neminem cognovi poetam qui non sibi ipsi optimus videretur".

Ba dakizu zerk pozten naun asko? Sarobe ta Argarate zerekin dituzula. Beste Andima ori ez dakit nor dan. Sarobe oso poliki asi zan (ez dakit osasunez nola dabilan) eta Argarate ere bai. Ezer ez det irakuri oienik, lenbiziko saio aiek besterik, bañan atsegin aundiz irakufi nai nituke oien lefoak.

Ez dezaidazula dirurik bialdu onara. Quito'ra sartzen naizelarik, andik emango dizut neregana zuzenbide egiazkoa. Lengoa ere oker emana da. Casilla 631 eta ez 635. Nere afebarenganakoa da. Zuzenbide osoa au du: Bolivar, 19. Quito. Uri ortan sei bat ilabete beintzat egongo naiz. Emengo Konsulak irukoa besterik ez dit ematen, baña luzapena emango omen didate an beste iru ilabeteko.

Zure lan oiek irakurtzeko astia ba duket, eta Lafitteri alde aldera esaten diotana: "Antes leeré a Zaitegi y a otros neologistas que han intentado siquiera roturar terrenos nuevos que al Abate Lafitte, quien escribe encantadoramente, pero no arriesga mucho".

Zozo oiek, ba dakizu zer esaten duten? Prantses-españolez egin-dako gauza zailik ez ditekela euskerara itzuli. Au erantzun diet: Prantses elegantetik eta español elegantetik efiko prantzesera edo españole-ra baño obeki. Berak efiko izkuntzan esan ez dezaketena, guk esatea nai dute. Ori lenbizi. Gaztel'efiak edo prantses'efiak baño geiago ulertzeko moduan idatzi dezakegula gaur ere, euskera landu gabe dagon afen. Ez da ala?

Aztu baño len: "¿Cómo diría el Abate Lafitte en francés popular "azken-úrena"? esaten diot, dalako artikulua ortan: *ultratumba* edo olako itz durunditsuren batekin? Gu eroriak gaude oraingoz, ez bedi betikoz, eta gure bizkafetik ederki ari dira. Oien agintea ere igaroko da.

Ekin eta jafai!

Oso presaka egiña da karta au, eta barkatu. Ulertu dezakezu, naski, ala ere.

Memento.

Ormaetxearek Nikola

[Sinaduraren ondoren]:
O[afa]. Jaso ditut *Euzko Gogoa* (Ilbeltza, Otsaila) eta iru liburuak.
Eskefik asko. Oietaz ufengoan. O[rixe].

130

[1950-III-19]
[Jokin Zaitegiri, makinaz joa]
[Avellanedatik Guatemalara]

Avellaneda'tik, 1950-III-19'gn.
Zaitegi'tar Jokin jaun apaizari, Guatemalara

Adiskide ona:

“Iratzeder”, nere adiskide ona, olerkari beroa da. Baizik ere (solá-
menté) gordexago izan dedin opa nioke. Oraino gazte baita, itxaropen
aundia dugu argan.

Monzon jauna poliki ari da, bañan ez dut uste “ex diis minoribus”
izatetik pasako danik.

“Lauaxeta” gizagajoa, oberenak eman gabe joan zan. Aren lenbi-
ziko liburua zartu dala iduritu zitzaidan atzefian irakurtzean; ez, ordea,
bigafena.

“Lizardi”ri ere “jo dezagun gorago” esan nion bein, ots, “paulo
maiora canamus”. Gaiñeneko maila edo lefoa *la grande línea* iñoiz uki-
tzen ba du ere, ez erabat nere iritziz. Bizi izan ba litza, obeak emateko
zegon ua ere. Asi nintzaion Fr Luis de León ezagunazten *La vida del
cielo* aztertuz.

Guziok ikasten ari gera. Zuretzat or dijoa bereiz, *Euzko Gogoa*’n
atera nai ba duzu. Ufengoan asiko naiz, zintzo zintzo, Jainkoak onez,
artikulu egiten. Bertsorik ez oraingoz. Nerekin ez dut bertsorik. Etxe-
ko zokoren batean an daudeke, afatoi-kabi gertatu ez ba dira. Aiek eta
egingo ditudanak, geienak behintzat, ez ditut argitara emango bizi
naizela. Euskerak ez du ezer galduko.

Quito’ko aldia egin ezker, etxera itzuli nai nuke nere lana aun-
dia, nere-nerea, *Argi-eri* bukatu al ba neza. Izketa askatuan? Bertsotan?
Ez dakit. Burubide ontara: Jesukristo, Zeruko Eliza, lufekoa ta Garbi-
tokikoa argitzen, eta bai anima bakoitza ere.

Azken zati ontan zakukoak atera ni nituke. Sartzen ditut linboko aufak ere. Edertasuna edo Estetika Labaien'ek bide du. Metapisika Etezola jaunak Ziburun. Oraingoz beude. Eskefik asko, egiten dida-zun eskefiagatik.

Zure Revista ori il ez ba ledi (Jainkoak ez dezala!) egundoko gizona aterako zakigu. Or ari da Barandiaran jauna, zofik egin nai ez, nekez eta berandu; berebat Thalamas jauna, Fagoaga'ren laguntza ba du ere. Emen mundu guzia ontan dago zure ofi dagokionez: goiz edo berandu, poto egin bearo duzula. Nik ez dut etsi, Jainkoak mirari ori egiñaraziko ez dizunik. Orduntxe, bai, *poietes* aundiena ziñakela! *Eusko-Gogoa*'ren lenbiziko banakoa ikusita, zer nai itxaro diteke zure-gandik. Bañon ontaz bereiz doa iritzia.

Beste eskefi ortaz ere eskefik asko. Zertara beartuko geran ez dakigu. Emengo sosa efekara joan da, eta nik erosi nunaren erdi-balioa du. Guatemalara ere pasa nindeke; bañan afebak berekin iduki naiko nau alik luzaroen. Lezioetan edo, lan pixka bat egin bearo. Zuk ez dukezu artikulua pagatzeko modurik. Nik egingo ditizut artikulua ausarki ta bialduko, zerbait eman al ba dezazu. Eskefik asko beti ere.

Memento.

Ormaetxeer Nikola.

131

[1950-III-20]

[Jokin Zaitegiri, makinaz joa]

[Avellaneditik Guatemalara]

Avellana'detik, 1950'ngoa. Martxoaren 20'gn.

Gaurko zureari erantzuna, gaur bertan, Bidaria atzeman ba neza. Atzo bialdu nizun bestea. Egia esan, Eliz-irizle ori jesuita baldin ba'da, ta gezuf-izenez ateratzen ba'duzu, ez diozu makur aundirik egiten Sarobe'ri. Ark zuri askoz aundiagoa egiten dizu.

Baña, baña... geroari begira, ez ote duzu lankide bat galduko? Mingafi litzake.

Zure erantzuna ederki dago. Erderaz bear zuken, Superior'en batek irakur zezan. Nik ola esango nion: "Por lo visto los vascos no son

redimidos por Cristo, y es lícito, incluso empujarlos al cisma religioso como se ha hecho en la Revolución, con ocasión de un cisma puramente político o así conceptuado. Como dijo el P. Ledóchowski a nuestros Diputados, “ustedes los vascos no nos interesan; nos interesan los Rojos”. Bravo! Les interesamos para que nos hundan. Y, vamos a ver; ¿a un Director de almas le deben interesar nada menos los perfectos o aprovechados que los principiantes o aun pecadores? No cree así el Doctor de la Iglesia S. Juan de La Cruz. Ya se ve que ciertos jesuitas no se interesan *nada* por los vascos. *Nada* más que para combatirnos, misión que no se halla autorizada en ninguna parte de la Biblia.

Eta Argaraté'k baimenik gabe bialtzen al ditzu lanak? Beraz, zeren bildur da Sarobe? Edota, zertako erakutsi ta bialdu ditu lan oiek, ez argitara nai izatekotan? Nagusi oiek asi ote zaizkio ofi ere zorarazi naiean? Nik uste, zuk bezala, baimena ba zula. Zerk gibelarazi ote du?

Lenbizian esana: mingafi litzakela olako lankide ona galtzea. Biok bakafik geldituko ba gera ere, diruz pototo egiten ez ba'duzu, beintzat, Revista ori ateratzea nai ta nai ezkoa da.

Ufena arte, adiskide ona.

Memento.

Orixe

132

[1950-IV-21]

[Jokin Zaitegiri, makinaz joa]

[Avellaneditik Guatemalara]

Avellaneditik, 1950'gafengo. Apirilaren 21'gn.
Zaitegi jaun apaizari. Guatemalara

Adiskide ona:

Zure befirik ez dut aspaldion. Irakufi orduko bialdu nizun nere iritzia *Euzko Gogoa*'z eta iru liburuetaz. Min nuke, naski, bidean galdu izatea. Geroztik, legotez eta itsasoz, beste artikuluko bat bialdu nizun (orain iru aste edo) *Euskal-aditza: satera*. Oraindik etzitzaizun au iritxiko. Emendik ilki baño len, *Izan* aditzaz bigafena bialtzen saiatuko naiz. Bear bada, bidean nintzala-ta ez didazu idatzi. Datofen ilabete

ofen 9'gafenean aterako naiz, Jainkoa lagun, Bolivia'n barna, Peru'n gaindi, ez dakit noiz irixteko. Bidearen len-zatia trenez, bigafena autobus'ez, irugafena egazkinez. Tartean ontziz ere bai, *Titicaca* aintzira igarotzeko. Egizu otoitz Jainkoa lagun dakidan, beti bezala. Andik, Ecuadortik, nere befi emango dizut, eta bialtzen jafaituko, zuk ere zerbaitxo lagundu al ba zenida.

Gernika'n nere artikulua zati bat agertu da, jafaitzekotan. Ufengoan, osorik ematen ez ba dute ere (nik uste baietz), Olabide'z, Zaitegi'z eta abar mintzo naiz Lafitte jaunaren buruzki, eta aski bizi. "Cum perverso perverteris". Kritiku oientzat Ebangelioa aipatu edo ez aipatu, berdintsu da. Besterentzat aipatzen dute, edota alako "humanisme" xoxo bat; eta bitartean maite dutenari goxo mintzatu, ta ez dutenari lafua soildu. Beraz, *eadem mensura* ... zintzoarekin zintzoki ta gaiztoarekin txarki jokatu bearko dugu, ulertzen edo ikasten ote duten.

Ba-dakizu, beraz, datofen ilaren 9'ra arte emen nagola. Karta mutur bat egiten al ba didazu, lasaiago nindagoke. Nola nai dala, Memento.

Orixe

133

[1950-IV-29]
[Jokin Zaitegiri, makinaz joa]
[Avellanedatik Guatemalara]

Avellaneda'tik, 1950'gan. IV729'gn.
Zaitegi jaun apaizari. Guatemal'ara

Adiskide ona:

Gure azkenekoak bidean gurutzatu dira. Nik zurea jaso dutan bezala, zuk ere nere a jasoko zenun.

"Befaondo'ko Meza" ezker, beste lau lan bialdu ditizut, bat egan eta iru lego'ez eta itsasoz: 1) Zure Efebistaz eta iru liburueta; 2) Euskal-aditza (Safera); 3) Orainaldia; 4) Leenaldia. Onekin dijoa azkenekoa, lego'ez. Oraindi beste batzuk igofiko ditizut gai ortaz beraz (askoez, astunegi gerta ez nadin). Emen "Laurak Bat" ean mintzaldi bat egifiarazi zidaten, eta an esan nitunak dira.

Gero gai atsegiriagoa afotuko dut, naski. Nerekin ez dut erabiltzen paper bat ere, nota bat ere; beti buruz, tabernako gizonak bezala “lena befiz esaten”. Estetika, aspaldi argitara zitekena, an dagoke nonbait gure etxean, beste paperen artean. Metafisika Ziburu'n utzi nun; Gramatika ere bai, guzi guzia euskeraz. Bereziartua jaunak esan zidanez, au oso ederki ta efex omen dago; erderaz baño efexago. Jakin nai nuke Lafitte jaunak efiko prantsesean nola lezaken.

Bertsorik ez dizut bialtzen oraingoz. Or ibili naiz zoraturik ilabete terdi auetan paper-agiriak ezin ateraz, eta orain azken-agur eta bat eta beste, bertso egiteko tankerarik ez daukat. Quito'tik Jainkoak nai ba du.

Ameriketan gelditzeko asmoetan? Alditxo bat baietz esan nezake. Lenbizi, sei ilabete beintzat. Gero, nork daki? Bear ba'da, etxeko nota guziak Lekuona jaunari aztefarazi ta bialduaziko ditiot, *Argi-eri* ortan jarduteko.

Zuregana joate ortaz esan nizuna, au da, alde aldera: Pozik joan nintekela; dirua eskeintzea (artikuluengatik) eta etxea ere, gauza aundia da egunotan. Nik xur xur ibili beafa daukat. Diru-galtze aundia izan dut emengo *peso* efekara joan dalako. Nik erosi nitunean 39 franco balio zitun, eta 18'raño ere erori zan. Orain ez dakit nola dagon. Nola nai dala ere Argentinako diruari muzin egiten diote. Egaz joateko asmoetan nintzan, bañan Europa'tik etortzea alako iru eskatzen didate emendik Quito'ra. Legotez, al dutan bezala joan bearko. Jainkoak osasun bizkofa ematen dit, eta *nere maleta* iritxi ba'ledi, ni ere ez naiz ufuti izango. Azken-aldera bai omen dut txori-gurdi oietako merkea.

Quito'n irabazpide apur bat ba nezake: lezio ta abar. Jainkoak ez nau eskutik utziko, oraiñarte utzi ez naun bezala.

Zuk *cumpro-y-miento* gabe esan ditidazu gauzak, eta nik ere aski garbi erantzuten dizut. Eskefik asko, edozer gerta dedila.

Nere artikulu oien kopia (galduko ba lira ere) emen gelditzen da (azkeneko iruena; bestearena ez nun gorde). R. P. Casimiro Egües. San Martín 1039. - Buenos Aires. (Capital). Nik ez dut balio paper batxo ere gordetzeko, ta batetik bestera eramateko.

Quito'ra irixitakoan, ango befi emango dizut, Jainkoak onez.
Memento.

Orixé

[1950-V-3]
 [Jokin Zaitegiri, makinaz joa]
 [Avellanedatik Guatemalara]

Avellaneda'tik, 1950'ngno Ostaroaren 3'gn.
 Zaitegi jaun apaizari Guatemal'ra

Adiskide ona:

Pozik jaoango nazu, ta lenbailen, Quito'tik Guatemala'ra. Afeba-
 rekin mintzatzeko amabost egun ematen ditidate dagokala, eta andik
 ara, astean bein besterik ez. Zertan egon bear det an? Afebak ere esaten
 didan bezala.

Lufalde legofak ez nau ikaritzen, ez eta Befeaondoko Pampa arek
 ere. Egurats guzietako landare naiz, Jainkoak ala egin naulako: otzera-
 ko naiz berorako, gogofa.

Nere euskal-lanak *Euzko Gogoá* rentzat bakafarentzat utziko ditut
 emendik aufera (artikulu, bertso, ta olako); erderazkoak besteetara
 bialduko ditut. Bat edo batek kopiatu nai ba'litu, aipa dezala *Euzko
 Gogoá*. Egundoko Efebista atera bear dugu, Jainkoak nai ba du. Non?
 eta Guatemala'n. Ez ote dira lotsaz gofituko zenbait euskaldun *Direc-
 teur des Revues et des journaux*?

Zure eskeintza ederki datorkit. Jainkoak bakoitzagandik zer nai
 dun, emeki emeki azaldu oi du, eta zerbait nai dula esango nuke ontan
 ere. Eskefik asko Berari ta zuri.

Gizagajo ofek iraungo al dezu ilabete batzutan, geiegiko lan ortan.

Mingafi da Estefania A.'ren paperekin gertatu dana⁶⁵. Gorde
 ezazu ondo karta ori.

⁶⁵ Aita J. M. Estefania, Marneffen irakasle izan eta gero, San Salvador-era destinatu
 zuten eta han hil zen 1942ko urtarrilaren 10ean. Ebakuntza-gelan hilda geratu zen,
 dirudienez, anestesistaren erruz. Kontua da, bera hiltzean, bere esku-idatziak nor-
 baitek aska batean sartu zituela pilatuta eta hango bero saparen eraginez guztiak
 usteldu egin zirela. Kalte galanta! Frantziako Etxeberriak berari Zaitegik kontatua
 dakar: "Zaitegik esan zidan, eta gure arrasatearra ez zan pozik alako altxor bikaña
 zabarkeriz galtzen utzi izanaz" (P. Altuna (arg.): *José M^a Estefanía Zabala, S.J. (1889-
 1942)*. *Maestro de los vascos*, Ediciones Mensajero, 1990, 177). Pasarte horretan
 aditzera ematen denez, Orixeri ere gauza bera kontatzen dio.

Mirande aurpegiz ez dut ezagutzen, baña bai olerkari bezala. Ba du oiala; baña buru-ófatza⁶⁶ ez darabil beti zuzen, ta erne egon beafa dago esaten ditun astakeri batzukin. Síñesgabe, komunista, katoliku... zer naste bofaste ote du bere bafuan? Monzon'en bidez ezagutu nun.

Zer esaten didazu? Andima'k Bach aundiaz idatziko dula? Orixe bai ifikaz irakufiko detala! Ni ere Bach-zale amofatua naiz. Ibinaga-beitia da noski? Tudela'n ezagutu nun. Oraiñarteko guziok kaxkar utziko gaitula ere iduritu zait bein baño geiagotan. Esaiozu berari, biotz ar dezan.

Ufengoa Quito'tik, Jainkoak nai ba'du.

Memento.

Ormaetxear Nikola

135

[1950-V-6]

[Isidoro Fagoagari, makinaz joa]

[Avellanedatik Donibane Lohitzuna]

Avellaneda, 6 de Mayo de 1950

Sr. Dn. Isidoro de Fagoaga. San Juan de Luz

Caro amigo Isidoro:

Pues que el martes 9 me pongo en camino para Quito, antes de hacerlo me voy a despedir de Vd. y de los amigos que ahí tengo, por su medio. Estaré allí poco tiempo, ya que a mi hermana religiosa no le pueden dejar hablar conmigo más de quince días seguidos, y después una vez por semana. Ella misma me dice que no tiene objeto una estancia mía por más tiempo.

Y va... la bomba atómica. El Señor Zaitegi me está llamando desde Guatemala, y le he dado palabra de ir a ayudarle en su Revista. Se encuentra solo, sin uno que entienda palabra de nuestro idioma para transcribir artículos que no vengán escritos a máquina, para corregir pruebas &c, además de su Cátedra y otros trabajos. La presencia mía y

⁶⁶ Egilearen oin-obarra, eskuz idatzia: lpaí-ófatza esan nai nuke.

un “guifío” como diríamos por ahí, le aliviarán mucho según él supone. A mí me quedará tiempo para dedicarme a lo mío, sin tener que dar lecciones o hacer otros trabajos con que gane mi sustento.

Por mi parte, la cosa va pensada como le voy a explicar. El Señor Zaitegi demuestra grandes arrestos y más espíritu práctico que el que algunos imaginan. Tiene colaboración de todos los rincones del mundo. En el segundo número de su Revista hay un trabajo de un misionero chino. La Revista es toda ella en lengua vasca. Tiene este señor al rededor suyo a todos los que mejor conocen hoy nuestro idioma. Sacerdotes, religiosos, seculares que durante su destierro han estudiado euskera y lo han utilizado en trabajos nuevos, en materias no roturadas, demostrando que podemos hablar más que de *kaikukeris* y en lenguaje muy asequible a nuestro pueblo, de que son prueba evidente los dos primeros números. Dicho en pocas palabras, esta Revista será antiderrotista, contra los dirigentes de otras que suponen que nosotros no podemos expresar más que trivialidades.

Y será además, sin exageraciones, una Revista de altura. Habrá trabajos de Gramática, Filosofía, de cuestiones sociales & &. Un joven refugiado residente en París, por ejemplo, va a dedicar varios artículos a Juan Sebastián Bach, en su segundo centenario. Dicho joven tiene un temperamento extraordinario de escritor.

Al llamamiento que hago al fin de mi artículo que se habrá ya publicado en *Gernika* a toda esa benemérita gente que ha trabajado en el silencio, sin discutir ni darse aires de sabihondo responderá cumplidamente la Revista *Eusko-Gogoa* con las firmas de ellos.

¿Qué le parece, amigo Isidoro? No crea que por eso voy a abandonar a su *Gernika*. Seguiré enviando artículos en español, y en vasco con otro pseudónimo. Los planes del señor Zaitegi me parecen magníficos, y tendrán extraordinario mérito ejecutados en... Guatemala.

En Ecuador será difícil colocar números de *Gernika*. No debe haber gente vasca. Nuestro amigo Isaac, tan bien relacionado, no recuerda a ninguno. En los días que yo pase por allí, procuraré no olvidar su encargo.

Si acaso no tuvieran ustedes ya cambio de Revistas, pueden dirigirse a: “D. Joaquín de Zaitegi. 6ª A. Avenida Norte, nº 11. Guatemala, C. A.”.

¿Que cuánto tiempo pienso estar por allí? —El que haga falta hasta que se asegure el éxito de la Revista. Quizás un par de años. Y si entre-

tanto viniese la tan cacareada guerra, tendré que hacer lo de la oveja del cuento: “bertan goxo”. Dios dirá.

Me parece de la mayor importacia para nuestro idioma una Revista como la de que le [he] hablado. Sin polémicas estériles y sin pasioncillas, ella orientará a escritores y pueblo vasco por el camino verdadero.

Un reparo me pondría alguno (no Vd. a quien ya conozco): “Si el señor Zaitegi no se apea de su purismo, esa Revista va ser tan esteril como ese *euskera-griego* suyo”. Respuesta: ya se ha apeado, según lo demuestra en el primer número de su Revista, casi todo redactado por él mismo bajo diferentes pseudónimos, y en el segundo, del cual está recibiendo elogios de todas partes, sin excluir el mío.

En cuanto al purismo, no toda la culpa la tiene él, porque ha vivido en un medio de vasquistas estudiosos, y pudo creer que Lafitte y Compañía debieran estar al tanto de todos los adelantos de ellos, sin estancarse en el ‘Beti Bat’. Y no dudo que la tremenda crítica del Abate, en vez de desanimarle, le será de estímulo para bajar más al pueblo (quiero decir, *a los no estudiosos*) y elevarlos a donde él se encuentra. Si Lafitte no cambia de criterio, quedará muy lejos de rendir a nuestro idioma el servicio que esperamos con mucho fundamento de Zaitegi. De criterio digo y de práctica.

Reconozco que he estado duro con el gallito de los Bajos Pirineos; pero en tratándose de críticos, no me parece se debe aplicar el principio evangélico de devolver bien por mal, sino el del Antíguo Testamento: “al bueno tratarás como bueno, y al perverso como perverso”. No llegan a entender las cosas si no se les corta la cresta.

Esto va largo y termino. Haga el favor de enviarme en adelante *Gernika* a la dirección citada de Guatemala. El número de Marzo-Abril lo recibiré con retraso; pero no perderemos contacto. En la re-
censión de nuestra Revista, daremos cuenta del título y contenido de los artículos de *Gernika*, con más cariño, si cabe, que los de otras Revistas.

Saludos a todos.

Affmo.

(firma)

[1950-V-26]
 [Jokin Zaitegiri, eskuz idatzia]
 [Quitotik Guatemalara]

Quito'tik, 26-V-50
 Zaitegi jaun apaizari, Guatemal'ara

Adiskide ona:

Nere iruak jasoak ditukezute, ofera joango nizaizuela aginduz. Onezkero Euskalefi osoak ba daki kontu ori, nik Labaien'i esanik, eta gero Fagoaga'ri; oni egiñaren kopia bialdu bainizun. Beraz, onara onik iritxi naiz, eta... sakela aski utsik, Arequipa-Lima. Guayaquil-Quito egan ontziz egin dudalako. Ba neukan beafa ere, tren tzar ofek bidean ondatu ez nindezan. Lenik osasuna. Onek ekafiko du dirua.

Ortan zure itzean etziñik, afen eskatzen dizut, esaidazula, emen-dik ofarako bidealdi ori ordaintzeko dirua auferatuko didazun. Bagilaren erdirako or nindagoke. *Jurista* papera aterako dut eta or *anteak* (las diligencias) egingo dituzute ni luzaroago geldi nadin.

Emen egoteko dirua ba dut, xur bizirik, ilabete pare baterako; baña ez nuke bear ainbesterik ofarako antolak egin ezkerro. Biderako, befiz, asko bear da.

Beste zerbait gogoak ematen ba'dizu (paperetaz edo) adierazi dezadazu.

Ignosce brevitati
 Memento.

Ormaetxezar Nikola

[Sinaduraren ondoren]:
 Emazu neregana zuzenbide au:
 Nicolas Ormaechea. Bólvivar 631. C. Quito. Ecuador

O[rixe]

[1950-VI-1]
 [Jokin Zaitegiri, eskuz idatzia]
 [Quitotik Guatemalara]

Quito'n, Bagilaren lenean, 1950
 Zaitegi jaun apaizari

Adiskide ona:

Zurea jasotzearekin radiograma bat igofi dizut, ofarako pasaporteare ba dutala esanez. Nere agiriak laister daudeke gertu, eta, nekezenik, ilabete onen erdirako or agertu nai nuke. Ilaren 9'gafenera arte du baimena afebak nerekin mintzatzeko. Luzaroago zertako gelditu emen?

Oinbeste gastu ta diru neretzat? Geiegi ere ba da. Bañan, egifialak egingo ditut nere aldetik, bear bezala erantzuten.

Papera ere alakoa da au eskuz idazteko, eta, onela bukatzen dut or itz-aspertu batzuk laister egiteko asmoan.

Memento.

Orixe

[1950-VI-9]
 [Martin Oiartzabali]
 [Quitotik Rosariora]

Quito'tik, 1950'gngo. Garagafilaren 9'gn.
 Oiartzabal'dar Martin Jaunari. Rosariora

Adiskide aundi:

Onezkero ba dut nagiak ateratzeko edo nere befi emateko garaia. Zu or zaituket, noski. Gaur amabost iritxi nintzan onara, eta artean itz-aspertu edefik egin dugu anai-afebok. Emendik aufera ez du baimenik nerekin jarduteko, astean bein baizik. Emen luzaroago egotea alpefik da.

Ez ote dakizu gaurgero, Guatemala'ra noala Zaitegi jaunarengana? Ni joaten ba nakio, ez omen du pota egin-bildufik bere Efebistarekin. Agindu diot, bada, eta arako saferaren begira nago. Datofen astean

antolatu ba nendi, ara noake egaz. Ikusi al duzu *Euzko-Gogoa* dalako ori? Ba ditu lankideak, eta onak, jesuitak barne dirala. Ez dakit noiz itzuliko naizan Europa alde artara.

Bitartean nere *notak* eta liburu-gaiak an egon beariko dute etzanik, Ziburu'n, Orixe'n, Donosti'n. S. Agustin ere bai. Oraindio gazte nagola iduri zait, eta gero ere ba dukedala asti lan aiek biribiltzeko.

Noiz arte zaude or? Aldi bateko bai? Europan baño obeki, bear-bada.

Ni baztafak ikusiz etofi naiz legofez Arekipa'raño. Bolivia'ko gainordoki aipatu ori, afigafia da. Gero Bolivia'ko ta Peru'ko mugan, Titikaka aintzira: ontziz igaro genun. Arekipa'tik Lima'ra, Guaiakil'a ta Kito'ra, ega-ontziz etofi nintzan aberatsak bezala. Buenos Aires'tik Ecuador'eko mugaraño toki edefak dira. Ecuador'eko mugan asten dira, ain zuzen mendi apain eta basoak. Quito iri au efi-koskor polita da, kafikak magal eta sabal ditula. Otzik ez, berorik ez, "betiko udalena" esaten baitiote. Lau aroenik ere ez, eta egun argia seiretatik seiretara. Toki zoragafia bizi izateko. Guatemala ere olatsu omen da. Ango Europako neguei iges egin diegu. Baztar auetan bertakotu ezkerro, gero lanak angoe-tan oitzen!

Goraintzi asko senar-emazteari ta illoberi.

Memento.

Nikola

[Sinaduraren ondoren]:

Guregana zuzenbidea: 6 A. Avenida Norte, n.º 11, Guatemala, C. A.

139

[1950-X-10]

[Telesforo Monzoni, makinaz joa]

[Guatemalatik Donibane Lohizunera]

Guatemala'tik, 1950'gafengo Ufilaren 10'gn.
Monzon'dar Telespor Yaunari. Donibanera

Yaun eta adiskide:

Ikaskuntzari dagokion sailean Buruzagi zeran ezkerro, on zaigu, ifiolaz ere elkafekin lan egitea, euskera lanetan, albait, elkar artzea, edo obeki esan, lan oieri eman bear zaien yoeran.

Ario ontara yardun dugu Akademi befiarekin, Krutwig yaunaren bitartez.

Ez gera yafiko Ikaskuntza sail ofen buruzki, ez ta Buru ere: bañan elkafi laguntzen ez ba'diogu, neke alper asko egiteko gaude, ta, bear ba'da, lanerako gogoetatik aterako gera.

Neke gogofa deramagu Irarkolarekin. Diruz, befiz, baten batek aberats gerala uste luken afen, ez dugu eukiterik, ez ta laguntzarik ere. Europa'tik bost arpidedun besterik ez dugu: Iruxo aita-alabaenak, Mutriku'ar batena, eta Irizar'ena. Onen bidez beste bat, bi dolar ordaintzen baititu besterik ezifian. Guri amar gostatzen zaizkigu, bañan ezifian dabilanari esanik daukagu "dabenak dabenetik; ezin dabenak biotzetik".

Ain oker ote goaz? Alderdikeriak sortuazi naiean ote gabiltza geuron izkuntza zailarekin? Or bai, eta ez euskera efexarekin. Erderarekin eta alperkeriarekin eta gureztat ezifin-ikusiarekin. Beste efi guziak egin dutenez, guk ere euskeraz idatzi bear dala derizkiogu, bakoitzak al dunez, gai afuntetaz eta goragoko gaietaz.

Efia, efia! ari zaizkigu. Zein da efi ori? Gure aldeko Euskalerian apaiz eta praile ta zenbait letradu; besterik ez. Efi onek gehiago eskatzen du kaikukeriak baño. Beste *efi efi* ofek ez dezake ulertu Altube'rena ere. Alpefik da. Gure aldeko efia irakurtzen oitugabea zan. *Argia*'rekin asi zan pixka bat. Matxinada ezkerero oso afoztu da. Zergatik ez dute arentzat idazten an dauden akademiku ta *vascuencista* aiek? Aiek an ez ba dezakete guk emen nola aterako dugu asterokorik? Guk geuron efia ba-dugu (Apaiz, praile ta abar; geienak atzefian. Auek gure alde dauzkagu ta gure laguntza nai dute; aiek aldiz, efiko euskerari eusteko; al diteken egunean.

Bidea bat besterik ez da. Arotzarena yauna ere gurera dator, azkeneko *Gure Herria*'n ageri danez. Bide bakar ori nork obeki darabilen dago lan guzia. Ez da aski besteri esatea: "ez dakizu ibiltzen". Bide ortan txairo ez goazela dionak, ausaz afazoi duke; bañan erakus dezaigula obeki ibiltzen, bera aufetik yoanez.

Euskadi'ko Gobernuak ez al du dirurik euskerarentzat? Lendakari yaunak Venezuela alde ontan zer diruketak bildu ditun yabeturik gaude.

Ikaskuntza sail ofek bai omen du sari bat, euskeraren alde urteko lanik oberenarentzat. Lenengo urtean Patxo Belaustegi'ri eman omen zitzaion.

Geroztik nori eman zaio? Aurtengo ontan, 1950' gafenean emango ote zaio noribait? Esate baterako, eta barkatu nere bekokia, prantsesek

lioketenez, ez al ditut aski nere Poema ta Misal'a sari ori nereganatzeko?

Zu ere argitara-gaia bialtzen asi zintzaigun. Asafetu al zakigu? Bide okefetik goazela iduritzen al zaizu? Bildur al zerate ilartuko ote gakizuen? Ez dago bildufik. Eta ori gerta al ba'ledi, obe zenukete gurekin antolak egin. Ofa euskera garbiz itzegin.

Gure Aldizkari au ufurik bialtzen dugu ogei ta bost efesumetara. Zaitegi yauna bere dirutik ari da, zofak egiten, yakiña! Azken zenbakia (5-6'gafena) ikusi ba'duzu, bidean diteke, bialdu genizun, beintzat, lankide zeranez, agerian dago guk dezakeguna. Irakufia dukezu Paris'ko *Euzko-Deya*'k esan duna. Edertasun ori galdu ba'ledi, guk poto egin ba'geneza, laguntza gabeari egotziko zaio.

Aski gaurkoz.

Goraintzi etxeko andreari.

Ormaetxea'r Nikola

140

[1950-XI-25]

[Telesforo Monzoni, makinaz joa]

[Guatemalatik Donibane Lohizunera]

Guatemala'tik 1950'gnngo Azaroaren 15'gn
Monzon'dar Telespor Yaunari. Donibane Lohitzun'a

Adiskide:

Nere lengoak espanturik aski atererazi dizu, gizagaizo ofi. "Etzenun izena jartzen ibili beafik. Nork egia zan ongi asko ageri zun. Alpefik baita". "Jainkoak egin zun Matxin...". Ez dut ukatuko nere burua, kartetan ere. Zer aditzera ematen duzu "Alpefik baita" ofekin? beti basurde naizala? Axari bañon obe beti ere. Nere karta, mifi emateko ez-bafia pentsarazteko egia zan. Beste olakotsu bat egia genion Andere Akademi befi ofi; bañan ez dugu ukan efesposturik. Nola yokatuko geran adierazi genion, elkartasunean, alegia, gero makufik gerta ez dedin. Poto egiten ez ba'dugu, etzaitzeltela kexa; ta gure bideari yafai al ba gakio, geron indafez aufera atera ba'gendi, ez gera iñor limikatzen ariko, ta derizkioguna egingo dugu.

Garestiegi dala gure Aldizkaria. Esanik daukagu, oinbeste ezin dunak “al dabenetik emon daiela, ta ez dabenak biotzetik”. Guri oinbeste gostatzen zaigu, bada. Ez goaz irabaziaren atzetik. Geroko laguntza agindu diguzu, ta ez dago gaizki esana. Olakori oinbeste, alakori ainbeste emanik daukazutela? Etzenun guri kontu eman beafik bañian asi zeran ezkerero, itz-erdi bat aterako du basurde onek: bertsolari, antzerki ta olako yaietatik dirua atera ditekela ikusi genun or geundela. Eusko-Ikaskuntzaren Batzafe Nagusi aiek zirala-ta, norbait gure Lendakari Yaunaren aurka asi zitzaidan, ea zenbat gastu alper. Diru-kontuak atera zitun mutilari, nerekin lan egiten zun mutil Leonar Salazar’i galde egin nion, zenbaten zofetan gelditu ziran, eta, “befeun mila libera artzeko gelditu zirala”. Nik amets egin ez ba-dut, beintzat, zerofek esan zenidan, arako urte artan *Herria*’ri 36 mila libera eman zenitiola. Gero ere zerbait eroriko zitzaion. Biltzafeari eta abar. Gauza oiek ederki egifiak daude. Iñolaz ere.

Bide okefetik omen goazenok “izar” gerala diozu? Intsentsu ori ez da saltzen Guatemala’n. Zergatik gauden emen? Nere lagunak irabazia emen daukalako (nik ez dut xentimorik irabazten); bestetan ezin bizi gintezkelako. Or biziko gifiakela? Ez, naski, ximini-garbitzaileen irabaziekin. Bidekoa pagatzen badigute, ta orko bizibidea segurtatzen, dexente xamafa behintzat, *ilusión* aundi barik, pozik yoan gaitezke, naiz Donibanera, naiz Maulera.

“Efia bazkatzen saiatzeko”? Egin dezaketeneri dei egin diegu. Guri geixago eskatzen digute. “Nornaik irakufi dezazken lanak”. Xo-xoturik al zaudete? *Guk egiten dugun euskera zailak, euskera ez du ilgo efiak*, ez baikaitute irakufiko. *Beste oiek egiten duten euskera efitarrak, ez dio euskerari bizirik emango, eriko euskerari*. Efiarentzat ez ote dugu egin befiketontzi oiek aña? Iñongo efitan ez da izan literatura’rik efi-efiarentzat. Dabid’en Salmuak ez daude efi-izkuntzan egifiak⁶⁷, (efezean ez beintzat); Homero’ren seiko aundia ez da efitafa, tragirien seiko txikia dan bezala; Mistral aipatu ori, “doublement inaccessible” dala dio Henri Bremond’ek, ez dute ulertu proventzar efitafak. Or dago poema, ez ikasientzat egifia, ez baitute ulertzen efitafak bezain ongi. Zuek aña euskera badaki Aita Mokoroak, bañian amaren laguntza bear ukan zun, arentzat ilungune ziran asko argiarazteko.

⁶⁷ *Egilearen oin-oharra, eskuz idatzia*: Afitzekoa! Gaur Ieruxalem’en Judukumeek izkuntza befi-ontzi ori ikasi omen dute. Nork daki gure au ere ikasiko ez ote duten?

Befiki Zipitria “Ira” ri orobat gertatu zaio Eratsun’en. Aitona xar batek tipildu dio ark ulertzen etzuna, eta “ez dakit nor pozago –dio– ua argitasunak ematen, ala ni artzen”. Altube, Arotzarena ta abar, ez-yakin batzu dira mundu zabaleko literaturan. Zaude ixilik, Yainkoaren izenean. Aitzol zanak ere xoxokeri batzuk esan zitun edo esanarazi zizkioten: “La literatura es la vida de las lenguas” eta olakoak. Zein efik Greziak baño literatura oberik? Ala ere gaurko *demotikó* izkera *éritata* auntz-erdara zikin bat da, turkoz eta eslaboz nasia, ta Gramatika edeta yoan zaie epurdiz gora. Ori bañoñ obe da latin ila. Gutxiena yota, milaren bat lagun ba daitezke elizgizonen artean latiféiz ederki dakitenak. Efi-euskera efi-griego antzera biurtu bear ba’du, naiago dut miloi erdi baten euskera ori baño, gu bezalako Quijote’reña. Zenbat idazle gera. Ogeitamar? Eta beste eun irakurle? Oiek galtzen ez ba’dira gure euskera ez da galduko, efián galdu ba’ledi ere. Gure efiak, Hendaiatik Donosti alderakoak, oso gutxi irakurtzen du. Atxoek Meza-liburua. *Argia* olako ulerkaitza ote zan? Zuek ezetz usteko duzute. Gure aita zanak “Igandeko Ebangelioa” besterik etzun irakurtzen. Gaiñerakoa “euskera bizkaitafa dek ori; nik ez diat konprenditzen” esan zidan. B.P.’etako efiak irakurtzen dula. Bai, kontutxoak, befitxoak, kaikuke-riak eta abar, bai.

Zu erdian yartzen zera, Telespor adiskide, ikasientzat ere egin bear dala baitiozu; bañoñ oien alderago zaudela esan diteke. Ba-dakizu Ledóchowski zanak A. Olabide’ri zer esan zion? “Me han dicho que cultiva usted un vascuence académico. Siga por ahí, porque andando el tiempo eso se leerá y apreciará, como ha pasado en Polonia, mi pueblo”. Ez yamon egin xoxo oieri. Arotzarena pixka bat gure bide-tik asi da. Bearko, atzean gelditu nai ez ba dute. Nor? eta Oihanburu, ez-yakin bat, guri bideak erakusten. Gaur bertan ere Olabide geiago irakurtzen da (maizago esan nai nuke yakintsuen artean) *Pérrnando Amezketafa* edo *Garoa* baño.

Misal a ere ez da efi-efiarentzat, ez baita egunoro Mezetara yoaten, eta ezin baitezake pagatu irakurtzeko. Eun idealista’reñ eta befeun emakume elizkoien agoan euskera ikusi naiago dut, gure efi osoan *demotiké* baño.

Alderdi-n iritzia eman didazula poemarena? Kunplimentuzkoa diteke, ta ez dizut siñetsiko bero. Lengo iritziari nagokio. “El poema es hermoso, pero le falta una cosa; le falta elevación; le falta sencillamente poesía”. Ipui-olerki edo istori-olerkia ez da biotz-olerki. Nola nai duzu

gure eña begiak zuringoturik odeietara begira egotea? Ni gazte nintzala, “la poesía es vida” esan oi zuten. Ez al da *bizi* or gure eña, ta osasun onarekin? Lafitte jaunaren iritziari, bai, kasu egingo diot. Irakufazu, otoi, Mistral biurtu nunean eman zidan iritzia (*Gure Herria*, Urtharril-Otsaila, 1931). Alde aldera au esaten zidan: “ez nun uste Mistral euskerara biurtu zitekenik, eta ain efex; nik ez nun beintzat lan ori egingo. Ori egin dunak, bere egalez egin dezake”.

Geroak itza, ta Yainkoak azken-itza.

Ez uste ukan asafe nagonik. Ez; ni beti basurde, gutxi edo asko. Axari baño naiago. Norbaitek atera bear du egiaren eta bide onaren alde. *Bidea bat besterik ez da, guzian artean yo bear dugu*. Bide ortan ufats nola egin, ortan dago *untzea*; baño bide ortan gero *euskeraz egin, bai ikasientzat, bai eñarentzat*. Erderaz aholku ematen ari zaizkigun mukizu oieri... tifit!

Goraintzi asko etxeko andre prestuari.

Ormaetxea'r Nikola

141

[1950-XII-6]

[Isidoro Fagoagari, makinaz joa]

[Guatemalatik]

Guatemala, 6 de Diciembre de 1950

Caro amigo Isidoro [Fagoaga]:

¿Cómo quiere Vd. que yo intente responder a nuestro *superhomo* habiéndole antes reprochado a él haberlo hecho cuando juzgué su *Grammaire*? Ni pensaba, ni pienso, sino todo lo contrario. Una crítica se la aguanta, guste o no guste; se la acepta o no en el fuero interno; en último caso se acuesta uno al parecer que más le halague. Mi compañero cree lo mismo, y no quiere mencionar el pleito en su Revista, “porque sería hacerle publicidad”. Que tampoco se descuide *Gernika* en mentar el nombre de ese clérigo que así degrada su sotana. Andando el tiempo se ruborizará de su intervención antievángelica.

“Il a voulu écrire le maître poème basque”. Más he pretendido: escribir el mejor poema épico popular aparecido hasta ahora. Poema

épico popular, narrativo sencillo, donde interviene todo un pueblo; no solo una pareja más o menos babosa. ¿Dónde tiene amoríos Homero, el autor de la mejor epopeya? Y ¿Virgilio? Solo episódicos en un canto. ¿Dónde hay unidad *orgánica* en ambos autores. ¿Están los críticos acordes en construir el argumento de la misma manera? Por eso, *Mireio* nunca llegará a ser sino una novela, (epopeya degenerada, según Menéndez y Pelayo). Lafitte habla según la cartillita francesa que ha aprendido. A mi me enseñaron, gentes que sabían mucho más que Lafitte, que “en la épica el autor de la crónica debe incluso desaparecer para ser puramente objetivo”. Esto coincide mejor con las modernas teorías de la poesía pura. El desarrollo de las pasiones tiene lugar en el drama, en donde el autor debe entrar de lleno al encarnar cada personaje. ¿Tienen más unidad que mi poema la *Iliada* y la *Eneida*? No son más bien poemas *eruditos*, incluso el de Homero? El pueblo sencillo griego conoció a Homero a través de sus trágicos; no en audición directa. ¿Cuándo se llegaron a cantar (en el pueblo) los campanudos hexámetros?

Ésta va breve. Sobre el “erotismo fino” y otras bobadas de Alexandre discutiremos aquí, en presencia del interesado, si llega por Navidad. Yo aprendí que *el amor* consistía en la “comunicación de bienes entre los que se aman”, y que no hay más clases de amor que el interesado y el desinteresado: ambos para con los hombres y para con Dios. En el interesado entran el amor carnal y derivados, en sus muchos matices que el vicio ha inventado para paliar su fealdad. El erotismo fino lo llamo “sensualidad refinada”. Estoy en Centro-América donde no existe tanta hipocresía. El otro día, en una cartelera de espectáculos, el primer apelativo que ponían a la actriz era “sensual”; en Europa hubieran puesto *espiritual*. ¡Majaderos! Y al pié de la foto de otra, decían que era “tempestuoso”. Era en la Prensa gráfica. Eso es llamar a las cosas por sus nombres, y no *angelicales* y *puras* a las que no merecen otro calificativo que las cuatro letras. El ambiente pervertido pervierte también el criterio, y Fray Manso [Zaitegi?] está influenciado de él a mi juicio. Me “sonroje” cuando mis ojos tropezaron con el

título de aquel empedradito de verso titulado *Mosu-garaia* = “la hora de los besos”. ¡Qué benditez! Para no llamarla otra cosa. Orixe estará meando fuera de tiesto, pero mejor, no sea que la planta o la flor se sequen por exceso de ácidos. ¿En qué me estoy saliendo de la cuestión? ¿En decir que es una profanación catalogar a Paul Valery con Santa Teresa? Ya hablaremos. Una vez en Betharram, sorprendí a un colegial con unos versos ideales, alados, espirituales, a una niña angelical. El autor de los versos era Alfredo Musset, el desvergonzado. ¿Sabe Vd. porqué lo leía? Porque leyendo las primeras letras de cada verso de arriba abajo –lo que se llama acróstico– era una indecencia. Decía así la pregunta de él y la respuesta de ella: “Quand voules-vous coucher avec moi? –Cette nuit”. ¡Degenerado! ¡Y estos poetas son los que están en el candelero! ¡Para ellos! Engañados, imbéciles o vicios. Engañado Fray Manso. Por eso es hacerle mucha mayor honra decir que no ha vivido esos versos, o que los ha escrito por vía de mero *ejercicio* literario. Ya me dirán cuando vengan quién es ese desgraciado de Alexandre. Y otras cosas.

Bueno, Mameme, “aquí todo va bien”, sin reservas mentales. Me alegro que coloque un estribillo o estranbote o apéndice al mes que va a cumplir mañana. ¡Lástima que no sea hasta Navidades! Y no es que no desee yo verla por aquí.

Recuerdos.

Soy

Nicolas

[Sinaduraren ondoren]:

P. S. El amo dice que no tiene tiempo para contestar a sus cuatro cartas. Que anda “danzando como un trompo hasta diez de la noche”. Excepto –añado yo– las largas horas de lectura con que se esta intoxicando noche y *día*. ¿Eso es amor desinteresado? Menos que de novios. Yo tendrfa escúpulo.

[1952-XII-4]
 [Jokin Zaitegiri, eskuz idatzia]
 [Zaragozatik Guatemalara]

Finca Miramar landetxetik, 4-XII-52
 Zaitegi iaun apaizari. Guatemalara

Adiskide on:

Nere auzia ontan dago: dalako turista-txartel ori ez bailiteke luzatu bifitan baiño geiagotan –eta neri luzatu didate lauretan, lau sei-ilabeteko– agiri-mota ofekin ez naitekela emen gelditu; beraz *egon*-agiria artu beafa, mila colon ordainduz eta *beste* mila ta bosteun iagole edo abogaduantzat, nere egoitzako paper oiek zuzendu detzan: 2.500 mila dólar. Diru ofen erdiarekin eta gutxigorekin Paris'en nintzake PAA'n: 1171, 50 Colon edo 468.60 dolafekin. Nik ez ditut oraingoz ez bat eta ez bi; beraz auziaren korapiloa ontara askatu neza-ke: Guatemalara itzuli ilabete batzutarako, ta gero emen sartu turista-txartel befiarekin. Legez egin oi dana. Mamemeri nere burua eskeiñiko diot "Liceo Landibar" ortarako. Praintzira ioatekotan, berela Monzon'engana nindoake, Euskadiko Iaurlaritzak len bezala langundu ote dezaidaken. Baiean, Belloc'a ioan "Iratzeder"ekin, Aita Michel'ekin eta lengo adiskideekin bizitzera. Iakiña, E. Gobernuak egiten lidakena *Euzko Gogoa*'ri egiña bezala artuko dugula. Zuk etzenuke neri ezer bialdu beafik; ezean, etxera itzuli bearko, Orixera. Lana bialduko nizuke. Ioan ba'nendi Salmuen bikia emen utziko dizut, Olabiderenarekin eta K. Ikasbidearekin. Ikus zer dion Labaien'en andreak nere Salmu batengatik: erakusteko bialdu nion: "lleno de sencillez, tan bien se entiendo, cuando en otras lenguas resultan rebuscados". Emazte au otoitzak eta irakurketa prantsesez egiten oitua dago txikitandik. Ba ditu Salmuak gatzelaniz eta Grampon'en *Bible* prantsesez.

Aita Ufutiari nere erantzuna iasoa dukezu. Betikoa zu.

Eskefik asko otoitzengatik eta Mameme'rekin bialtzen duzunarekin. Bi egun ez auferatu zerate, "Samikolas txikia" G'gafenean baita.

Orain, bertsoetat: atsegiñak dira biak. Lenengoaren len-ahapaldia Elizanburu'ren usaia geixko dariona; gaiñerakoak zerofenago. Afese Emeteri gogora ekafi didate, Orixe ere bai: baizik ere puntuetan txukunago ta befiago, Parnasiar edo ez dakit zer oienen antzera. Osasuna

darite. Ain zuzen, egungo neurtitzak gaitz-beratx gertatzen zaizkit eta zentzugabeak; Bidafai'en esan oi dutena "bururik ez buztanik gabeak". Bigafena ere taiu ortara. Ez ote landuegixto? Lenengoan lefotxo batek eta bigafenean beste batek, eleta sortarazi lezakete, baiñan ez naiz sartuko "Orixe mea fuera del tiesto" esan dezaiozun Mameme'ri.

Zurea usu etofi da. Nik ere "Entrega inmediata" ipiñiko diot. Ausaz alpefik.

Ametzaga iaunari ez omen zaio irixten *E. Gogoa*.

Aita Garrido'k Aranguren lengusuarengana zuzenbidea iakin nai luke, Habana'ra.

Zuk dakizu or ni saferazteko zer aukera egin bear dituzun. Lengo agiriekin bear ba'da Guatemalako Consulak on-ikusia emango didala dio gure nagusiak. Urte beteko eman zidaten or. Urte erdian onara opofaldira etofi, ioan-etofiko baimenarekin, eta etofi gabe gelditu nintzan.

Elkafen befi ba-dukegu.

Memento.

Orixe

197

[1952-XII-9]

[Jokin Zaitegiri, eskuz idatzia]

[Zaragozatik Guatemalara]

Zaragoza'tik, 1952-XII-9'gn
Zaitegi iaun apaizari. Guatemal'ra

Adiskide on:

Cea Ruano'ren bitartez bialtzen dizut au. Zure telegramaren begira gaude. Ni emen geldieraztea iduri ba'zaizu, ongi da. Nik ez dezaket eskatu biderako dirurik, eta Praintzi'ra iritxirik ere, ez nago ziur E'ko I'k lengo laguntza emango lidaken. Ezean, Orixe'ra igaro bearko nuke, ez bainuke nai zuk dirurik neri bialtzerik, len naiko zama daukazularik. Orañi ere, laureun dolar oiek ordaintzen ba'dituzu, etzaidazula dirurik bialdu lau ilabetetan. Emen ez nago gaizki. Obeki nengokela Belloc'en, iakiña; baiña "danean dantxoa, nere gizontxoa". Mameme'k

ere merezi du laguntzea; gaxoari, aski naigabe baitauka senafarekin eta etxekoekin, batez ere "Liceo Landibar" dala bide. Atzo egin nien Zugaditaferi, gozoengatik eskerrak emanaz, eskutitz ua zuretzat bezala artu dezazula adierazi nien. Gure nagusi au aultzen eta aurtzen ari dela iduri zaigu ta ditekena da gauza onik ez etortzea. Oso burubide txafa dauka paperetan eta gairakoetan. Zugaditafak esango dizute geiago.

Oraingoz ioan-etofi au bukatzen dudalarik, zerbait bialduko dizut *E. Gogoá* rako.

Ikusi arte.

Memento.

Orixe

[Sinaduraren ondoren]:

Oraintxe esan dit Mamemek Mari Zugadirekin itzegin dula. Eskabidea gifiñik nago emen luzatzeko.

O[rixe]

198

[1953-I-6]

[Martin Oiartzabali]

[Zaragozatik Rosariora]

Finca Miramar, Zaragoza'tik, 6-I-53
Oiartzabal'dar Martin iaunari. Errosariora

Adiskide aundi:

Agiri danez nerea ez duzu iaso S. Martiñetan egin nizuna; nik ere ez zure biak; bai irugafena. Makiñaz ipintzen asia nintzen neronena *E.G.* rako, zenbait aldakuntzarekin, eta zurearen begira nengon, biak elkartzeko. Bidean ditezke bi oiek eta ez al dira galduko. Emendik ofe-rako ta ortik onerako bidari oiek, oso oker dabilta beti. Uruguay'raño oso ederki, befiz.

Zaitegi iauna emen genuen lengo egunetan eta esan zidan zerbait bialdu zenidala. Etzaitela asi beñiro kopiatzen. Noizbait iritxiko dira. Españi'ko Zaragoza'ra ioan ba'dira ere.

Emen ederki osasunez; orkorik ez didazu esaten; beraz, gaixo-etxe ori osasun-etxe biurtu diteke. Ala biza. Berandutxo ba'da ere urte au ez deila txafago ioan dana baiño, eta ohea, lainkoak nai ba'du.

Esan nizun lengoan S. Agustin'en *Confessiones* itzultzea bukatu nai nukela aurtzen.

Aita Egibar oso gaizki gibeletik. Ezin-iana ta lo-galdua. Ez dakit oraingotik aterako ote dan edota nola geldituko dan.

Besterik ez.

Memento.

Nikola

199

[1953-II-3]

[Martin Oiartzabali]

[Zaragozatik Rosariora]

Zaragozatik, 3-II-53

[M. Oiartzabal] adiskide aundi:

Nonbait bidari oiek or okertzen dira, emen oso zuzen ez ba'da-biltza ere. Zure bi galduak ez dira agertu oraindik. Mingafi da bigafen aldiz aldatu bear ori, bafia, beneditar iatofa baitzera, befiro lan ori egi-teko gai zera zu. Egubefiko eskutitzarekin batean, ikus zer zati bialdu zenidan: 116'gafenetik 152 bukatu arte.

S. Agustifien azkeneko iru liburuen bikia bialduko dizut. Oraindik asteko nago. David'en Eresiak igofi nition M. Bafiolari Egubefiz. Oraindik bidean ditezke Guatemalako Puerto Bafios'en barna. Iru bat ilabete luzetzen dute paketeak emendik ara ta andik onara. Bigafen kopia Zaitegi'k du. Bereala argitara nai omen ditute Garikoiz'tar ofek.

Aita Egibar obeki doan soifua da. Cuba'n izan befia omen da emengo Presidente'ren emazteari lagun egiten. Oso bakan ioaten naiz Uriburura, ta ez dut ikusten.

Bero bero asi dut idazki au lefo ertsietan, baiñan agortu naiz. Bakanetan ere ba dute aski toki nere befiak.

Etxekoeri mila goraintzi.

Memento.

Nikola

[1953-II-3]
 [Martzelino Errezolari]
 [Zaragozatik Igeldora]

Zaragoza'tik, 3-II-53
 Errezola'tar Martzelino jaunari. Igeldora

Jaun apaiz agurgarria:

Eskerrik asko zure itz beroengatik. Bialdu didazun beste Arantzazu'ko Egutegiaren orri orrek intsentsu geixko eman dit; bañan aldare-rako bedi, ni aldarepean izkutatzen naizala. Dabid'en antzera au egingo det, argitaratzeko bertso batean diodan bezala:

“Bil-bil egin naiz neronengana
 auspean sua bezala,
 pizturik nagon, itzali naizan
 neronek ez dakidala” (Cfr. Ps. 130).

Intsentsua lurrintzen dun nere ikatz bizi orri ere autsa bota diote: “Su poema es muy hermoso, pero le falta una cosa: le falta sencillamente poesía”. Au dionak bi bertso-liburu argitara emanak ditu. “No se empeñe en hacer versos, no digo yo poesía, porque Dios no le llama a eso”. Au diona Barojatar oietakoa diteke. Nik gordinkeri aundiak esan ba'nitu, naiz Jainkoa ukatu ba'nu, ordun nitzake gizon aundia doakabe oientzat. Orrek pozten nau. Poema ta beste oiek baño gauza obeak baditut egiñak emen Ameriketean. Noizbait agertuko al dira. Guatemala'ko Revistan nekezegi aterako da, bañan *Argi-Eñi* dalako ortan zati bat gustatu zaie izugarri: “Kristo gure argi otoitzean”. Ona Zaitegi'ren iritzia: “Sekulan ez du iñork euskeraz olako gauzarik idatzi; ez Orixe'k ere. Laus Deo! Bertsoak ere gero ta obeak egiten omen ditut. Laus Deo!

Bialdu ditut Donostira Dabiden Salmoak, puntu ta erdipuntu korurako egiñak. Aurten atera nai ditu Maritxu Barriola'k. Eta gaiñerakoak. Osasun bikaiña, Jainkoari eskerrak, eta pakea. Orobat opa dizkizut.

Memento.

Ormaetxear Nikola

[1953-II-15]
 [Martin Oiartzabali]
 [Zaragozatic Rosariora]

Zaragozatic, 1953-II-15

[M. Oiartzabal] adiskide aundi:

Atzo berandu iritxi ziran zure bi galduak: Azilaren 3'gafenekoa eta Gabonilaren 4'gnkoa. Oraindik ez al zifian asiko bifaldatzen! Zure osasun obeak pozten nau. Ni oso bikain, aitona gazte musugofi biurturik. "El sonrosado" esaten asi zaizkit. Orain zenbait ilabete esan nizun sendagileak esan zidana: "¿Qué bomba! (biotzarengatik), va Vd. a vivir un sin fin de años". Jainkoak nai duna. Gogora dezakezu nere betiko lur-margo gaitzeko ua. "Gana da" laphurtarrek diagotenez. Tensioa 13. Zure kilo-galtze ori duzu obenik osasunerako. Neri ez (sic) zilbota ederki serailtzen ari zait, gizen nagon afen (182 libera). Basi oiek mirarisko edo dira.

"Fonetika'z Altuberekin...". Zago⁹⁷ ixilik, gizona! Nik guzi guzia zearo euskeraz idatzirik daukat oso errex, gure Euskal-izkerako. Eras-kin bezala edo, ondafean, behintzat, ioan beariko du. Bera ez da ausartzen gai ori euskeraz afortzen. Res porrectus = oin magala, magal oiña; Torculus = zalkor, konkor; scandicus = gora-koska, gora-zurubi egiten duan; climacus = bêra-koska, bê-zurubi. Zer derizkiozu? Efege bideetan apalguncari (bache) magala esan oi diogu. Nere ustez, beifñipein, batere euskeran saiatu danak efex uler dezake.

Asots, bai (cfr. ots, abafots, afabots) BN'ko itzak.

Patxi Kortarenak ere pozten nau. Egunero nominatim et per faciem (facietim) oroitzen naiz artaz.

Nola diteke zuk "Pedro Eliza ikusia da" ez entzun ukaitea? Nonbait Azpeitiko efi-izkera antzi edo ongi ikasi ez. "Ni senper ikusia naiz, ixtiluak ikusia naiz, gorriak ikusita nago" ta abar Euskalerrri osoan ezagun ezaguna dala derizkiot. *Ego* (is qui) *Ecclesiam vidit sum*. Dana dala zuk ikus nondik atera zaiteken.

⁹⁷ *Egilearen oin-oharra*: Bidarra'i'n "zago ixilik" esaten dute oraifio.

Beraz laterandar iator orien artean? Goraintzi miñak A. Beobideri ta gaiñerako guzieri. “*Bazkari bat egiña naiz* (nago)” aien etxe ortan.

Argi-Eri oso nekez aterako da Aldizkariak darabiltzin oztopo oien gatik. Oso atsegin zaie batez ere “a las beatas”. Zaitetik osorik irakufia du, ta au esan zidan: “iñork iñoiz ez du olako gauza edefik euskeraz idatzi, ez Orixe’k ere”. “*Laus Deo*”.

Besterik...zer? A, bai, zuk bialdu-ala nerearekin bekaldatuz makinaz aldatuko dutala. Nik ere ukituxo batzuk egin baitizkiot, esaterako, Olabide’reñ *elatz* ele-atz *letra* orde, eta abar. Ikus zer iritxi duten nerekin Krutwig’ek eta A. Villasantek. Gure 350 irakurle oriek usu oituko dira.

Goraintzi etxekeori ta Augustindaferi ta Agifezabal’i. Lafakoetxea laterandafak *Confessiones* itzuliak omen. Ofen befi galdegiozu A. Beobideri.

Memento.

Nikola

202

[1953-V-14]

[Martin Oiartzabali]

[Zaragozatic Rosariora]

Zaragoza’tik, 14-V-53

[M. Oiartzabal] adiskide aundi:

Bi aldiz egin nion Zaitegi’ri zuk egin eskutitza iaso ote zun, zure aspaldiko lantxo batzueri buruz. Egon eta egon zuri erantzuna emateko ta aren befirik ez. Oso lanpetuta dagola badakit, gure etxe-koandreak esanik, an baitago bi ilabete auetan. Atzo etortzeko zan eta ez da ageri. Bitartean zure bigafena. Salta’n egonak on egin dizula? Ala obe. “Pedro Eliza ikusia da” ori ez dago araupean, nere ustez ere. Askoz politago “Pedro’k Eliza ikusia du”. “Ni an nindagola iakin ba’zun” (si hubo sabido) gogor egiten zait. “Ke” aldaska ez da *berez bakatez* baldiñ-aldaska; *geroan* edo “ezkero”koan ala gertatzen da. Guk oso gaizki esan oi dugu: “Onezkero etofiko zan”. Bidafai’n ederki: “Engoitik (gaurgero) etorria diteke”, *go* edo *ko*’rekin berdintsu, diozun bezala.

Ortan zurekin nago “ikusten duke”, ortan ere “ezkerokoa” ageri da. Ez da oraiñaldi garbia: “*lo estará viendo*”. “Izan” aditzan “zitzazken” obeki (gaur iten-ena) “zitzaketan” baño.

“Ekidin” aditzan utzagun dagon eran “zakididate” ta abar. “Zazkikit” eta oietaz ez nago ain ziur. Aditz laburra ikasteko obe litzake bai beste aditz bat eredu ipintea zearo, baiñan “egon”, –k gabe oietakoa baita–, *nin*’ekin ipini bear eta ez *nen*’ekin (nindagon, nindagoke). Ibili ere ez da eteza, nabil apofoni ofengatik. Zuk ikus zein aukera. “Izan” lengora ipintzea (zearo beintzat) ez derizkiot. Oarkizun labur bat obe. Ortan ez baikaude biok erara: *n(a)iza* zuk, *niza*, nik. Mokoroaren... ikusia = “el que ha visto” etzait ongi iduri; “el que tiene visto o vista” nonbait or. (Cfr. Peru Eliz ikusia da). Aren pasivo’rako “ha sido visto”, bego.

Zuk bereiziko duzu sasi au.

Euskal-izkera etxeko andrearekin bialdua nun bereala Guatemala’ra, garbi baitzegon. Ango langileek makinaz egiña eskatzen omen baitute atzera berarekin bial zezaola esan nion.

Patxi Kortárenak pozten nau. Ez ala Miren Maiteren osasunak. Gazterik asi zan gaixoa neketan. Zerurako balia dedila. Goraintzi niketz. Oroituko ote da Donibane Lohitzun’en ikusi nindula?

Esana dizut, noski, Otsailaren 8’gn. egundoko kazkafekoa artu nula basi-gelan erorita. Ilabeteko zorabioak ukan nitun. Ufena artatik edo gripe tzar batek artu nindun. Lenbiziko bi egunetan belafietako min aundia; irugafenetik aufera goferi aundia bietatik. Zutaz oroiturik egiñalak egin ditut izardiketan, Pasio ostegunetik orain arte. Goferik ez, ala esateko, baiñan oztopo bat eskuñekoan, oraintxe arte. Atzo artu nun azkeneko lufinaldia. Lanerako gogo aundirik ez oraindik. Bestela osasunez oso ederki. Ez gera osasunaren iabe.

“Trabuco” (Confessiones) utzi ote nizun? Emen ezin arkitu latíñez liburu txikian. Seminarioan *Migne* dute baiñan ezin ekafi. Itzulia Labaien’ek dauka Donostin. Ez dakit Trabuco ara bialdu ba’nun ere.

Mila goraintzi etxekoeri.

Memento.

Nikola

(Sinaduraren ondoren):

Maritxu Bafiolá’ri oso atsegin izan zaio David’en itzulpena, baiñan Gotzaitegian eragozpenak omen Eliz-baimena ukaiteko. Egundaiño! Zeruko baimena ere Patxi’ri eskatu bearko ote zaio?

[1953-VI-20]

[Jokin Zaitegiri, eskuz idatzia]

[Zaragozatik Guatelamara]

Zaragozatik, 20-VI.53

Zaitegi iaun apaizari. Guatemałara

Adiskide on:

Egun oiean atzeman nau zureak, gefuntze-miñarekin. Aldegiten asi da ta ieiki naiz. Bestela osasuna erabat ona.

Otsailaren 8'gn eroriko gogofa izan nun, eta ilabete terdi egon nintzan nere onetara gabe. Gero, Apirilaren 26'gn gripa itsusi batek artu nindun, bi ilabeteko urbil. –Ari naiz emeki emeki Euskal-izkera kopiatzen. Lan nekagafia da. Grekoen itz-ugaritzea ere sartu dut gu-rearekin alderatuz, bai aldasketan, bai itz elkarkietan. Kendu nai ba duzu, zuk ikus. 34 ofialde ditut bifidatziak, 98'gafen numeroraño. Aurten opor-urte bearco, patxaran biziz.

Leizaola oker ari da nere ustez. Zu nere aburutik urbilago zaude. Ahapaldixka bakoitzetan len-lefoarekin oskide da irugafena (biak 8'na silabakoak), erdikoa (5ekoa) bere esku edo libre dalarik. Musikari obeki dagokio ofela. Zure zatibanatzeak ez du alde aundirik ortatik bañan 3'gafenean gogortxo gertatzen da.

Gurutza deuna/
beti geure goiburu.

Bestenaz nik onela ukibefituko nuke asiera ta amaiera.

Aintza goiko Iaun onari
Asiera: Gora ta gora
Gure Abefi Euskadi

Aintza goiko Iaun onari
Amaiera: abestu daigun
Gora ta gora Euskadi!

Sabiñ'i ez litzaioke gaitzi. Zuri? Alderdiari?

Nik *Alderdi*’rako ezer egitekotan “Lenengo Egutegi Bizkaitaía” gai artuko dut, ikaskiro ez-baía, neri gaztetan eragin zidan biotz-dardara aitortuz. Iritzi au oso osoan kopiatzeko ematen dizut baimena.

[Sinadurarik gabe]

204

[1953-VII-3]

[Aita Roman Berakoari, makinaz joa]

[Zaragozatic]⁹⁸

Finca Miramar, Zaragoza, El Salvador, 3 de Julio de 1953
Al P. Román de Vera, Capuchino

Reverendo Padre:

Su carta llegó a esta Finca el 28 de Junio de 1953, pasando por Buenos Aires y Guatemala. Me la escribe en español, quizá por la censura de la Orden, y quiero responderle en la misma forma. Me trae a la memoria ciertos deberes de justicia con Vd., con Arana Goiri y con el P. Arriandiaga, &, &, y me hace concebir un “Liber correctionum” si es que alguna vez me vuelvo a juntar con mis escritos dispersos. Entretanto hago constar por este escrito lo más preciso, pues las correcciones a errores teóricos no me preocupan tanto.

1) “Para Presidente no hay más que Orixé desde que escribió la traducción de “Adoro Te”. –Resp.– Como ella está calcada en la del P. Román de Vera, y quizá no tenga elementos suficientes para que la firme Ormaechea, el Presidente debiera ser el P. Vera. Le hubieran nombrado académico antes que al P. Intza, si no hubiera pasado a Oceanía. Si su Reverencia cree que yo estaba obligado a poner en una nota que me valí de su traducción, ahora cumplo con ese deber. En el Misal tengo una corrección que creo apartarse bastante de las dos anteriores. Perdóneme mi pretensión de corregirle.--- A Sabino Arana le atribuí una habilidad no recta cuando comparó la *i* de diot con la *eu*

⁹⁸ Izenburuan norakorik ez dator.

de deutsot en vez de compararla con la *ts* (dativos los dos) que los vizcaínos pronuncian *tz*. Retiro la palabra “cuidadosamente” que allí estampé.--- Al P. Arriandiaga no le nombré, pero el lector le señalará en la palabra “religioso”, cuando le atribuí mala fé evidente en la discusión. Por ahora no asoma a mi conciencia ninguna otra corrección moral de importancia.

2) Nunca he escrito Donestebe, como el cajista no me haya cambiado la *z* por la *s*. Siempre había oído Donoztabe y Donoztue, y la *z* debo conservarla por sinceridad conmigo mismo, por prescripción o por imperio del uso, lo mismo que la *s* de euskera.

3) Creo que su Reverencia me supone aún en aquel pugilato brutal con los de Juventud Vasca en Bilbao. No tiene más que preguntar a Jemein o al P. Urrutia la satisfacción moral que he dado a esa entidad como ella nunca a mí, sino el insulto, “contradictorcillo del maestro”, “euscalerrfaco que está comiendo en el periódico *Euzkadi* el coci-do de un nacionalista”, &, &. Como no quiero atribuirle intenciones que quizá no tiene, voy a dejar sin respuesta otros puntos de mis relaciones de los que fueron mis enemigos de las cuales sería difícil hablar sin acusarles. Ahora estoy acusándome.

4) “Para V. parece que todo está bien menos euzkera que es de Arana Goiri”. – Antes la había usado Astarloa en sus Pláticas dominicales del año (unas 17 veces en el Prólogo) por error suyo o del cajista, promiscuado con euskera.

5) “... el empeño que tiene V. que aparezcan centenares de palabras con *z*...”. –Yo no tengo ningún empeño. Si las erratas no son del cajista en el Misal, no me retracto. --- Examinada serenamente su carta, bien se ve que suenan a vacío absoluto sus exorbitantes alabanzas. “Redentor” me llama como cualquier periodista casquivano o cualquier demagogo calenturiento. “Lo que V. no sabe, no lo sabe nadie: Sí; el P. Román de Vera que se erige en corrector de centenares de faltas más.--- No coincide el comienzo de su carta –solemne *Tē Deum* por mí conversión– con el final en que me arguye de mi empeño de no convertirme vascológicamente. --- Finalmente, celebro que Dios le conserve las facultades despiertas para rogar, no ya por mi conversión en vascolología, que será inútil, pues seguiré teniendo “lengo lepotik burua”, sino para que me acuerde más de la Patria celestial, ya que estoy al borde de la vejez con los 65 años que voy a cumplir.

Memento.
S.s.s.q, b.s.m.

(firma)

[Sinaduraren ondoren, eskuz idatzia]:
Su carta viene sin lugar ni fecha.

205

[1953-VIII-5]
[Martin Oiartzabali]⁹⁹
[Zaragozatik Rosariora]

Zaragozà'tik, 1953g.- VIII-5 gn.

[M. Oiartzabal] adiskide aundi:

Lanik ez egiteko diagodazu, ongi ez ba'nago. Oraintxe ongi nagola esan dezaket, baiña, zuk bezala gauzak patxaraz artuz, urte au opor-urte artzea erabaki nun. Zuen orko befiak ere ez dira txafak eta pozten naiz.

Untzuetà'ren ori, Bidafai'n dioten bezala, "nigar egingafi da".

Bildur izateko zan beti, eta, ara gertatu. Gogor mintzatu dalako. Lauzurika'ri ta Colina'ri barka-eskea besterik ez balitza, gaitzerdi litza-ke -aiek askoz gogofago, lapurka ta abar, erabili duten afen- baiña beste aldera oiko ote du "integrista" gizagajo ofek? Guk ba-dakigu, argitasunean idatzi dunak balio dula, ez itzaldian idatzi dezakenak; arerioek, ordea, iskanbila sortaraziko lukete, ta guretzat kalte, orain-goz, beintzat. Gerorako ez du ondorio makufik, eta gauden lasai. Bilbao'ko Gotzaiak ez dula bere Eliz-bafutian ongi artzen? -Jainkoa du ebazle Ark ere, ederki diagozuna, ta guregin baiño zofotzago iokatuko da arekin. Nerekin ere ikasiko zenun gaurgero nola ari diran Donosti'ko Gotzaitegian. Alegia, Dabid'en Eresien nere itzulpena ez duela aztertu nai "nihil obstat" emateko, edo aitzakia maitzaki darabiltzala sei ilabete auetan. Lenbizi, Agintari aundi orien baimena bear omen (efi-agintariena). "Infandum! Relinquamus omne iudicium Filio". Zaitegi'rekin orobat: *Bidalien egiñak* ere politika gaiztoa iotzen dute.

⁹⁹ Nori zuzendua den ez dakarren arren, badakigu Martin Oiartzabali egina dela, *Karmel*-en argitaratutako gutunak hari zuzenduak baitira.

Dabid'en Eresiak itzik itz euskeraz ematea euskal-politika ote da? "Verbum Dei non est alligatum" esan zigun Paul gurenak, baiñan Españian bai, gogor lotua eta estekatua dago. Noiz arte? –Ez betiko, betikoa Jainkoa baita; baiñan egunotan bizi geranontzat aski luze.

Aztu zaida len esatea: Untzuetak lasapide aundia luke Efoma'ko iritziarekin: "las cartas son duras, pero perfectamente canónicas". Ez al dira mila bider gogofago arerioenak eta tremendamente anticanónicas, calumniosas e inhumanas? Zuk edo adiskideren batek ori esanez idatziko ba'lio, alper alpefik litzake orain; berea besterik entzuten ez dio buruak utziko. Otoitz egin bearco ixil ixilik. Iainkoak osasuna ta pakea biur dakizkiola, gizagaizoari.

"Eraman" (480 ioka-itx) eta "ekarr" oso poliki daude. Zertako nai ote dute makinaz elaz-langile oiek? Aitzakia. Zaitegi oso antzera dabilta *Euzko-Gogoa* rekin. Bilbaotar batek agindu beroak egin zition dirua aterazi arte, ta gero musu uts utzi.

Confesiones ez baiña *Confessiones* (latiñez) bear nuke. Zaude; D. Iñaki egunean arkitu genun Iesu-lagunen liburutegi batean, eta emango didatela iduri zaida. Patxi Kortarenak ez nau afitzen, ez baita zuri-tzaile. A. Galdos izan balitza, bere burua erakutsi naiko zun Eibar'en.

Goraintzi etxekoeri eta egon bizkor guziok.

Memento.

Nikola

206

[1953-X-17]

[Jokin Zaitegiri, eskuz idatzia]¹⁰⁰

[Zaragozatik Guatemalara]

San Salvador'tik, 1953-X-17

[J. Zaitegi] adiskide on:

Zaragoza'n ántzia utzi dut erabaki-gaia, baiña or doazu nere erabakia. Mitxelena ta Iratzeder batzaldiz landa uzten ez ba'ditugu

¹⁰⁰ Gutunaren izenburuan ez dator ez nori eta ez nora zuzendua den. Edukia irakurrita, erraz antzematen da hartzailea ezin daitekela izan Guatemalan bizi den Jokin Zaitegi baino, berarekin batera *Euzko-Gogoa* aldizkariak antolatutako sariketan mahaikide dena.

–len-saria ukana baitute Laphurdin, oker ez ba'nago– orainarte Mitxelena'ri ematen diot. "Griñaren loa" oso gordiña da, likitsa da. Bialduko dizut erderara itzulia.

Bestela karmeldafari eman bearko len-saria, ta "Amar Olerki"eri ta Etxaniz'i dedu-aihua. Lotsagafi litzake likiskeri oiek argitaratzea.

Ormaetxea'r Nikola

207

[1953-X-25]

[Jokin Zaitegiri, eskuz idatzia]

[Zaragozatic Guatemalara]

Zaragoza'tik, 1953-X-25'gn.

Zaitegi iaun apaizari. Guatemalara

Adiskide on:

Azturik neuzkan sariketa ofen baldinkizunak. Beraz, Mitxelena'ri zor zaio oso osoan. Baitaratu zera, ofegatik, Etxaniz'en "Griñaren loa" gordiñegia dala. *Gernika*'n ez dezake argitara azkeneko edo 24'gafen banakoa onezkero atera baita. Ofela iltzen da pakean agerkari ori. *Alderdi*'koek ez dute onartuko iñolaz ere, likiskeri ori. Afi ta belafi egifiik nago olako gizon onari nola ialki zaion olerki lotsa emangafi ori. Zorigaiztoko *moda*!

Noizpait ere bukatu dut *Euskal-izkera* kopiatzez. Onara zatozanean emango.

Betor Andima len-bai-len. Damurik ez da lenago etofi! Ez ote litzake obe *Ars amandi* ixilik gordetzea? Gure iendea ikaratuko da.

Ona Oiartzabal'dar Martiñ'ek lengoan zioztana: "... Mirand'ar Ion *Euzko Gogoa*"n espiritismo'zaz idazten asi zanetik ez zait atsegin euskera poliki idazten dun aten. Andima'k idatzi dunez, gazte da Mirande ori. Gazte bai, baiñan buruarin edo afo edo ez dakit zer ere espiritismoaz idatzi zunean ainbeste kirtenkeri egi bailiran idazteko, ta orain *Gernika*'n beste astakeri ta ausarkeri oiek. Fagoaga'ri ofezaz zerbait esan omen diote, alegia, ofelakorik ez ateratzeko".

Eta zuri ez al dizute ezer esan? Apaiz *jaseistaren* [sic] batek *E. G.* irakurtzen ba'du, toki onean ipiñiko zaitu! Nik ez nekin "Aufaitz" ori

nor zanik. Berak egin zidan lengoan, eta gauza orietaz galde egiten zidan –1000. olerkietaz gaitiera– zer nerizkion. Au erantzun nion. *Ituñiko laztana* –idazpurua du, bai, makufena– ta olerki oiek “nec nominentur in nobis”. Etxaniz ere atzeratuko da, garbi mintzatzen ba’garkio. Zori gaiztoko “literatura” ofek zentzua galerazten du, ezari ezarian.

Au ofara orduko, Mameme bidean ditekete, edo etofia. Ba da, ez ba da, itz bi berarentzat.

Memento.

Orixe

[Sinaduraren ondoren]:

Querida Mameme. La supongo de vuelta o ya en casa. Por si acaso no, ahí le va un breve saludo. Esta se la dirijo al Ph. D. para que no se queje. Los demás protestantes pueden decir lo que quieran. Y ¿no te faltaré dejando de nombrar a alguno o alguna? P. Belaustegi, Andrés, Arce, Afegi, Felipe, Zugadis, Arana, Arin, y no sé cuántos otros. De otros dos, desgraciado y desgraciada, no quiero ocuparme sino encomendarles a Dios.

Aquí “pas de nouvelles”.

Bueno; que venga sana y buena, joven, guapa, optimista, y... con reservas de temple de nervios para entrar en ese gallinero alborotado. Gracias a que tendrá Vd. que volver a su querida Chapinlandia para el fausto acontecimiento de Enero.

Soy

Nicolás

208

[1953-XI-10]

[Martin Oiartzabali]

[Zaragozatik Rosariora]

Zaragozátik, 1953-XI-10gn.

[M. Oiartzabal] adiskide aundi:

Egun S. Martin bezpera, ta zure gutuna. Zortzigafenerako iritxiko ote da au? –Ni ere irakurtzen irakasten ari naiz nesrame baten alabari.

Iru urte ikastolan, eta ez ditu bereizten b, d, p, q. –Ni osasunez oso ederki. Zearo zearo ez, baiña, ia zearo. Beste urtebete gorabêra, ezoeria garaituko dutala dirudit. Orixe'n ere ugaldeak lur asko eraman omen beiko efekara. Bi sarobi edo ardi-borda efotik eraman. Eriotzik ez alaere kristauarekin. Emen andiagoak izan dira an baiño. Oso gutxik egin du ere io ez gaitun. Zufunbiloaren mafuak entzun zituten gauzez atzafi zeudenak. Iende gaiztoa gaude nonai ere ta ez da afigafi.

Untzuetarenak poztan nau. Ez al zun eta ez al du zerbait bestera idatziko.

Mirande ori txori bitxia da. Iudutar (heberkera mintzatzen bide du) komunista, nik ez dakit zenbat –*ista*. Ele ederzale oriek burua galtzen dute edozer ausarkeri ta gordinkeri ontzat emanaz. Satsa gainzuriturik ere, barnean beti ustel. Zaitegiri esana daukat ez dutala auffera *Euzko-Gogoa* irakufiko. *Mosu-garaia*, *Ituriko laztana*, *Ars amandi* ta olako oriek “nec nominentur in nobis”. Olerki-gudu ortarako gauza bat igofi dute guziz nabarmena. Garcia Lorca'ren *La Esposa infiel* antzera, emazte zintzoa baiñan “incidit descriptio coitus valde vivida”. Gure adiskide E'tar N. apaizarena da. Burua galdu ote du? Eta Zaitegik len-saria eman ote ledikion? Oarkizun batean au ipintzen du egileak: “Ba-dakit Orixe'ri atsegin izango etzaiona. Irakufi diet Lekuonari eta beste zenbait apaizi, eta “euskaldunok ez omen dugu beti giza-gaixo agertu bear”. Literatura ofek gizona asko buruarintzen du.

Donostiko Gotzaitegi ortan etzanik daude nere *Dabiden Eresiak*. Gotzaiordeak agindu omen zion M. Bafiolari “Imprimatur” emango ziotela, “no condicionado al permiso civil”. Ia iru ilabete igaro dira –diost andere ofek– eta ez ditut eskuratu (Irailaren 23gn.). Etsaiari emanak daude gizon oiek.

Lanean ari zerala. Gauza bat zuzendu bear duzu nik aditzan oarkizunetan oker ipiñia. Nik Axular'enean *daquidizaio* (dakidizaio) irakufi, *dakidikaio* ordez. Ez da afigafi, atsalde-erdi batean irakufi bainun Monzon'en etxean, bururen buru.

Patxi Korta ez ote da bein edo bein onara etofiko? Probintzi bereko dira.

Goraintzi etxekoeri.

Nikola

[Sinaduraren ondoren]:

S. Martin eguna. Goizean oroitu naiz otoitzetan.

[1953-XI-10]

[Aita Santi Onaindiari]

[Zaragozatic Larreara]

Zaragozatic 1953-XI-10'gn.

Onaindia A-ri. Larrea'ra

Etzaukodaz bapere buruan edo oroimenean, bañan ez da ardura. Orduan gatzetxu ta ez-ezaguna baitziñan.

“Mila euskal-olerki onenak”. “Bota, bota Iaungoikuak emongo dota”. Gaztelafak diñoena: “Pobres, pero hidalgos”. Egizu gura dozu-na nire neurtitz ofekin. Neuk aukeratutea ez deritxot ondo.

“Hamaika maite-lelo ba-doguz euskeraz –diñostazu–, alan be, lizunkeru gitxi; Etxepare'renak, aundienak be. Gaur, osteru, a makal itxi dabenak ba-dira”. Damurik! Ofetaz diñardu gaur bertan iaso dodan Oiartzabal'dar Martin'en gutun batek. Ikus nik erantzun deusodana.

“Mirande ori txori bitxia da. Iudutar (heberkera mintzatzen bide du) komunista, nik ez dakit zenbat –ista. Ele edertzale oriek burua galtzen dute edozer ausarkeri ta gordinkeru ontzat emanetz. Satsa gainzuriturik ere, barnean beti ustel. Zaitegiri esana daukat ez dutala auffera *Euzko-Gogoa* irakufiko. *Mosu-garaia*, *Itutiko laztana*, *Ars amandi* ta olako oriek “nec nominentur in nobis”. Olerki-gudu ortarako gauza bat igofi dute guziz nabarmena. Garcia Lorca'ren *La Esposa infiel* antzera, emazte zintzoa baiñan “incidit descriptio coitus valde vivida”. Gure adiskide E'tar N. apaizarena da. Burua galdu ote du? Eta Zaitegirik len-saria eman ote ledikion? Oarkizun batean au ipintzen du egileak: “Ba-dakit Orixere'ri atsegin izango etzaiona. Irakufi diet Lekuo-nari eta beste zenbait apaizi, eta “euskaldunok ez omen dugu beti giza-gaixo agertu bear”. Literatura ofek gizona asko buruarintzen du”.

Ez dakit ofetan eretxi bardiñekoa zaitudan. Itsusi ta zantar iduritu yakun A. Donosti'k *Gure Herria*-n *Charmangaria zira, eder eta gazte* argitara emon ebanean. Ez al dozu ori iminiko. Ez *Juana Bizenta Olabe* eta olakorik. Lizardi'ren XX (aiztu yata zelan yakon), bera il eta laster Markiegi'k argitara ebana. “Aitzol'is sententia coitus describi videtur”; ni ez nintzan konturatu orrezaz. Zuk ikus “ut moralista, non ut litteratus homo”.

Ni Orixe'n iaioa naiz (Orexa, Gipuzkoa), 6-XII-1888'gn. Nere biziko itzal aundia itzal igaro egizu, edo bestera... "Hizo sus estudios en la Compañía de Jesús, de la cual fue despedido como San Luis Gonzaga y San Francisco de Regis".

Aita Gaztelu, nire senitartekoa, onara bidean ikusi neban. Iru egun egin be bai kaputxiñoetan. Musika ioaldi bat edefa emon eustan. J. S. Bach'en Coral'ak, iru ordu laurenez. Argana zuzenbidea: "Euscal-Echea, Llavallol, República Argentina".

Memento.

Orixe

210

[1953-XII-12]

[Aita Santi Onaindiari]

[Zaragozatic Larreara]

Zaragoza'tik, 1953-XII-12'gn.

A. Onaindia'ri. Larrea'ra

Agur, adiskide on:

Emona deusut erenegun erantzuna, baiña zertxobait erakitxitea otu yata. Gurago neuke *Iainkoagan bat* eta *Lizardi gurean* kendu ba'zifñeiz. Aski ezagunak dira ta *istori tristea* dabe beuren gain. Lelengo ofi bigafen saria emon eutsoela Errenderin? Guzuz andia. Ebazletatik bat bera be etzan konturatu ezer balio ebanik. Esana neutson Lizardi'ri, bafia bear eta bear... gura ebana egin zegiala erantzun neutson.

Iru sartu ebazan batzaldi aretan: XX (ez dot gomutetan izena), "académica", "brillante" ofeitakoa. Aitzol zanak baztertu eban sortatik. Saria etara legiken bildufez? Artatik neurtiztxo bat kopiatuten eustan ebazleetako batek nerea zala asmauaz. Ez zan agertu argitara.

Bigatena *Idi zekena*, efikoia. Ba-nekien zifñegotzi aiek ez ebela sudufa lar zoli eritxia zuzen emoteko. Lauaxeta'k berea irakufi eustan *Euzkadi-n*, zer neritxon eta... nik ere bialdu ete neban. Bai nik irakufi be, naikoa bildufez eta gofi-gofi egifnik au esan eustan: "Nerea bañon askozaz obea da; etarako dau". Nik: "Ez, ez; ifñortxo be ez da konturatu". Ni *propheta*. Ez eban lortu autarkirik bapere, eta Lizardi'k,

sekretarioak, esan: “Ori bañon askozaz ohea ba-da or sortan”. Orduan Aitzol’ek idatzi eustan Bilbo’ra, bigafen saria nai nukean. Ez bigafenik, ez aitatzetik be, erantzun neutson.

“Lizardi gurean” ofek bakafik izan eban autarkia len-sarirako. Lekuonak berak esan eustan Endaiako zubian, Donibane Garaziko Biltzafera giñoiatzala: “Nik zuri emon deutsut”.

Ernani’ko batzaldia zan. Bigafen ebazle Intzagarai zana. Ez eban geia irakufi, belu zalako; lan lafegi. Irugafena Afese (Emeteri). Oneri sari-eguna baño iru egunez lenago emon eutsoen izugafizko paper sorta, eta, “ori ez da formalidadea” esanez, ez eban irakufi gura izan. Aitzol’ek saria P. Etxeberriarri emon eutson. Askotan baztertu eutsazan *sobreak* len-saria lortu ez nengian. Azkenean Estornes Lasari Eusko-Ikaskuntza’n iason-agiria eskatu neutson. Alpefik. Bakafa sartu neban, neuk, beti lez, Aitzol’en lantegiko ziskuan.

Baña noizbait atrapau neban. *El Día*-k agertu eban, lelengoz, lan guztien zefenda, euren idazpuru, zenbatgafen eta guzti. Ori, batzaldirako epea bukatu zanean. An agertu da nire ori *Imoz’ko apaizgaia* (eriotzea egin ebana), poemarako eginik neukona. Sari-egun bezperagoan *El Día*-k emon dau bigafenez zefenda ori; baiña... nerea otafera yaurtia, beti lez. Ioan nintzakon bere etxera, ta: “Neretik ez dozu iason ala? “Ez, onara ez da erdu”. “Ba-da erdu”, nik. Eta lelengo zefenda erakutsi neutson.

Lekeitio’n aren iges ibili nintzan beti. Aspaldietan ez nintzan agertu euskal-pestetara. A zala atertu nintzan *El Día*-n idaztez, azkenean, bai euskeraz, bai erderaz. Ixilik eta bakafik etxean nengola, ara be zirika *El Día*-tik, aren adiskide Tomas Garbizu, “Zubigar” zanaren anaiak batez be –uno de los cuatro discípulos de Comillas: Aitzol, Jaurtakol, Barrenoso, Garbizu. Bakea gura nebala etxean, idatzi neutson *El Día*-ri, eta geiagoren gehiago ez bialduteko gure etxera, dubarik be.

Euzkadi bidean lapurtuten eustien, eta gure etxean ez zan sartuten *Ekin* eta *Eskualduna* besterik.

Lekeitio’ko egunaren biaramon baltza! Etxerantza alkafegez asi gintzan Lekuona, Aita Altzo, Labaien, Markiegi, Aitzol eta ni. An asi iatan Aitzol bufuka-bila. “Ez dot eletarik gura”, nik, eta beste mutufera ioan nintzan popatik. Nere atzetik bera. Ni ixil. Deba’n trena artunda Donostira bidean, bafiro zirika. Nik: “Begira, Aitzol, zuk eta neuk geuron bidea dogu, ta ioan dadikez zabal-zabal alkar io gabe”. Zergaitik guzti au? Bera bakafik izan gura eban Lizardi’ren kritiku, ta ez gengozan erara. Lizardi ta Jaka-Kortajarena ta ni ez ginduzan bere

deboziñokoak. Lauaxeta, Jauregi, Tapia-Perurena zituzan bere kutunak. Erdu gara Donostira. Bazkaritakoan, alkafen ondoan imiñi ginduzen Aitzol eta ni; Aita Altzo nire afez afe. Ni ixilik. Aitzol'ek *batuta* eroan gura eban, baiñan geroenean A. Altzo'k itaun bat egin eustan, *Derecho Romano* dalakoaz. Nire eritxia emon neutson, eta Aitzol'ek niri asefe: “¿También entiendo Vd. de eso?” Nik malko bi ixuri nebazan barbantzia baño andigoak, eta afezkero tutik eneban itzegin egun guztian. Bazkal ostean aiek pianoan iardun eben euskal kantak emonez; ni beti baztar-antzetik. Atsaldeko lauretan edo etxerantza. Ni Labaien'ekin Tolosa'ra. Bere autoa imiñi nai eustan ni Orixe'ra eroateko, baiñan anaiak erabilan egurastuten. Egun goibelak aiek!

Gero Prantzian be agertu yatazan arerioak, batez be “los que tienen la sartén por el mango”. Nire lanik ez eben argitara gura: Bergson'en *Pilosopia*¹⁰¹ ta abar. Ointxe be Belloc'eko beneditafen etxean obeto nengoke –aspaldi eskifni eustien gelatxo bat– Aita Mixelekin, Iratzederrekin eta beste lagunekin. Baiñan an dago Monzon iauna, Ministro de Cultura, arerio leiala. “Su poema es hermoso, pero le falta una cosa: le falta sencillamente poesía”. Aberatsa bera, ots, emazte aberatsa du. Alan da guzti be, Euzkadi'ko jaurlari lez, zerbait *unkhitzen* edo du. Niretzako ez da olango maukarik.

Emen ederto nago, guztiz ederto. Zetako ioan ofera auzi-bila? Iñoz etxera ba'nendi, ba-dakit zer zokotan gordeko nazan. “Nisi granum frumenti... si autem mortuum fuerit...”.

Beraz, edo kendu egizuz bi bertso ofeik edo ez esan, behintzat, *Iainkoagan bat*-i bigaten saria emon eutsoenik. Ni ixildu naz, baiña badaukot eskubide neure alde iokatuteko. Bi ofein ordeiz *Et habitabat cum bestiis* eta *Beraondo'ko Meza* gurago neukez.

¹⁰¹ “Bergson-en inguruan” izenburuarekin argitaratu zen bere garaian zokoratua izan zen lana (Nikolas Ormaetxea “Orixe”: *Idazlan guztiak, Artikulu eta saiakerak*, III, Etor/Eusko Jaurlaritz, 1991, 31-52). Euskaraz emandako hitzaldi bat da, bukaeran gaztelerazko laburpen batekin, berak dioen bezala, entzuletako batek hala egiteko eskatu omen ziolako: “Hemen zaudetenetan batek, ene eskuarazko mintzaldi hunen laburtzapena erdaraz eman behar nukela egin zautan, eskuara guti dakitenendako, ondarrean behar bada galdetuko zautatela” (ibid., 41 or.). Baditu filosofiari buruzko beste lan batzuk ere, leku berean argitaratuta datozenak (op. cit., 53-102 orr.), “Gogoetak metafisikaz” izeneko atalean. Apunte gisa landutako orri solteak dira, gehienbat euskaraz idatziak, baina baita latinez eta gazteleraz ere. Ez da lan bukatu bat, nahiz azpisaillkapenez antolatua den.

Ez ete litzake oba “Milla euskal-olerki bikain” onenak baño?
Aiztu yatan *h* onezaz erantzutea. Zure irizpidea ona dirudit.
Memento.

Orixe

211

[1953-XII-17]
[Martin Oiartzabali]
[Zaragozatik Rosariora]

Zaragoza'tik, 1953-XII-17 gn.

[M. Oiartzabal] adiskide aundi:

Zurea aski garaiez iritxi zan, eta bizirik arkitu nindun. Sortze Garbi egunean goizeko bostetan ikulu-mutil batek mafauzaz io nindun, eta ez kali (akabatu). Alfange aundi oietakoa zun. Beafik neukan alboan makila kozkor bat ona. Burua atzeman nai zidan alegiñetan, baiña nik itzuri ixkintxoka, bein, befitan, geiagotan, berari eraso gabe. Esia ausi ezin zula ikustearekin, gefira keñatu nindun. Alako batean eskuñeko erpurua ukitu zidan –ez bizkor– gorputzera sartu nintzaion, eta, aren besoaufeari giltza emanik, mafauza utzierazi nion. Biok elkafi eldurik giñegola, indar geixko egin arengandik bereizteko, ta, lufera erori nintzan, aren mafauzarekin. Arek iges bere burua iskillo gabe ikusi zunean. Nonbait zeru oso nere alde neukan une artan. Ez du arek lanik egiten etxe ontan “El Negrito” deritzoten ofek, baiñan efonkaz ari omen, nere betiko egurastokira agertu ba'nadi, konponduko naula. Onik aufera, makila ez-baiña su-iskiloa eramane bearko lagun.

Emengo iendea odolzale da. Latefi ontan bi miloe lagun baizik ez ditularik, urtean mila ta bosteun eriotze gertatzen dira kaliz. Lapufeta? Ortzak ostutzeko ere gai dira, ta ez gezur-ortzak gero. Lizunkeria? Eunetik larogei sasikume. Zaragoza au efi ona da beste askoren aldean; iru urte auetan iñor ez dute kali; baiña seigafen ortan, besteak iduri. Ilabeteko bataiatuen agiriak neronek iaso nitun bein eta amafetatik zortzi sasikume. Colon'ekin etofi ziran aiek oso izen txafa utzi zuten emen. Lope de Vega'k, Quevedo'k eta Cervantes'ek ziagotena berbera diagote emen: “Las Indias son refugio y amparo de los desesperados de

España, iglesia de los alzados, salvoconducto de los homicidas... Allá se van las mujeres libres" (Cervantes, *El celoso extremeño*).

Emen begiak ernai bizi beafa dago.

Salta'ra ioatea ederki egingo duzu igaz bezala. Zangoetako auleri ori lo galduarena ote? Zu ez izaki ni bezain loti beroarekin ere. Loak indartuko zinduke.

Ezoeri? Axular'ek ezueri = reuma. Azkue zanak (G. B.) ezurretik ez-baiña ezo'tik zetofela uste zun.

Osasun eta goraintzi etxeko guzieri.

Egubefi on! Urtebefi on!

Memento.

Nikola

212

[1953-XII-31]

[Aita Santiago Onaindiari]

[Zaragozatic Larreara]

Zaragoza iritik, 31-XII-53

[Orixek]

... (apurtuta)¹⁰². Ba ditut obeak itzez emanak egia neurri dutenak. Erria bera izan det orain arte kritikurik onena. Aita Mokoroa eskolapioaren amarena lenengoa poema argitara baiño len. Seme orrek irakurri zun lenik, bakarrik berekiko. Arkitu zitun aski illungune, nere obenez etziranak. Amabost eguneko baimenarekin gurasoen etxera joan zan, oiek oi duten bezala, oporraldian, eta amaren ondoan irakurri bigarrenez. Illuntasun aiek guziak amak ederki argitu zizkion iruzkin edo comentarioak emanez. Emazte ori ez-ikasía da: Meza-liburua besterik ez du irakurtzen. Ezagutuko duzu or Donostian Elvira Zipitria, euskal-eskoletako Irakaslea. Oporraldira Naparroara joaten da (Larraun'a, Basuburura, Goierriara, Ultzamara), nere poema eskuan dula. Lenengoz Eratsun'a eraman zun eta hango Etxeberrik [sic] nagusi zarrari galdetu

¹⁰² Hasiera eta bukaeran parentesi artean datozen ohar hauek *Karmel* aldizkaritik hartuak dira.

duda guziak. Arek begiak ñir-ñir esplikazioak eman ere. “Ez dakit nor dagon pozago –ziostan Elvira’k: ni argitasunak artzen, ala ua ematen”. Gipuzkoako etxe aundiazu bateko neskamea da irugarren kritikua. Nagusiak irakurri-ala, iruzkiñia ateratzen omen zion: “gure aitak onela esaten zun, aitonak ala”, ta abar. Au da egizko kritika, nik amestu nuna. Euskaldunok ez omen dugu erritarki idazten. Eta, Mistral zeñi erritarrek ulertu du Provenza’n? Ikasiagoak ere nekez. Ba det nik adiskide bat Languedoc’tarra dakina –etxean ala mintzo baitira–, prantsesa “à la perfection” dakina, española ere oso poliki ta... ez omen du Mistral ulertzen. Neologismo asko omen ditu. Au da, prantsesez erdi-españolez obe ki dagola provenzal’ez baño. Literatura ortaz kontu asko kontatu digute.

“Zure lan berri *Argi-Efi* dalakoarekin amets asko egin dut” diostatazu. Zer poza eman didazun zure itzekin! Lan ori izan nun nere bizi guziko ametsa ta bukatu nunean *Nunc dimittis* esan nun. Damurik luzatzen du argitara ateratzen! Aurrera ta geiago gustatuko zaizula dirudit. Sail ori bakarra bereiz aterako nuke. –Jesukristo gure argitasun otoitzean– inpernu ta zero oiek utzita. Baña neke gogorrek inprentarekin eta... diruarekin. Dagoneko pozaldi aundiak artu ditut, kolkotik kolkora eman dizkidaten iritziekin. Kristau barnekoiak, naski, apaiz-jende ta emazteki elizkoiak. Zaitegi apaizak au esan zidan: “Íñork íñoiz ez du olako gauza ederrik idatzi euskeraz, ezta Orixe’k ere”. Laus Deo. Beste zenbait apaizek ere gauza aundiak esan dizkirate. Laus Deo. Donostiko bi emazterik, batak euskeraz ni ere belarritarra naiz otoitzean; erderaz besteak: “Aquí ha gustado mucho, y se comenta favorablemente la interevención del (beste orria galdua izan da).

[Sinadurarik gabe]

213

[1954-I-16]

[Martin Oiartzabali]

[Zaragozatic Rosariora]

Zaragozatic, 1954gn. Ilbeltzaren 16gn.

[M. Oiartzabal] adiskide aundi:

Beraz gaitz ofekin zu ere. Gure nagusiari ere aurten egin diote ebaiketa ori. Ez da beste munduko gauza, orain norinai egiten baitiote;

baifian argaldu bear ori –biotza auldu gabe– etzaizu efez. Begira, gero, dieta oriekin! Or ba-duzu sendabide bikaiña argaltzeko, naiko aragi ianda: “mate pampero” gafatza edan ausarki. Nik or, Befaondo’n, goiz eguerdi ta afats “asado a la criolla” iaten nun, eta ur ortatik edaten. Ezoeririk bat ere ez nun sumatu. Otoitz egingo dut bereiziki zure osasunaren alde. Ni ederki.

Gernika, n.º 24 oraiñarte etzait iritxi Altuberen artikuluekin. Nonbait miñ eman diote nereak, gogor xamar erantzun baitu. Oraingo onek K. O. utziko dula iduri zait. Nik, ustez, aski goxo erantzun diot, baiñan egia bera da gafatzena auzi ontan. Ez dakit –itsu ez ba’nago– *polemikan* oin artikulua politik beifñere egin ote dutan. Ortarako moteldu naizala iduri zaio A. Mokoroari. Zuk zer derizkiozu? Jemein’i erantzuna oso ongi artu zun; baiñan “Euskadi ala Euskalerria” ez ain ongi. Orduan esan zidan *bajatzan* ari nintzala (moteltzen) polemikarako. Nik ez uste. Irakufitakoan berari bialdu nai ba’diozu (J. M. Mokoroa, Sacramento, 7. Madrid).

Goraintzi eta egon bizkor.

Memento.

Nikola

214

[1954-I-26]

[Aita Santiago Onaindiari]

[Zaragozatic Larreara]

Zaragoza’tik, 26-I-54

Aita Onaindiari. Larrea’ra

27-I-54: Addendum, Ikusi dodaz “Intxauspeko alaba” eta “Mertxikaren”. Ez ete dira olerki batekoak? Lelengoaren ahapaldi bat olan asten da: “Mertxikaren lorearen ederra (11) barnean du hexurra gogorra” etc. “Mendiak bethe belharrez”. Olan dakit nik:

1.-Mendiak bethe belharrez,
begithartea nigarrez
lan eginaz urriki dut
baina probe txurikan ez

orain hemen niagozu
sabeletik minez.

2.-Ene maitea, zer duzu,
zerk hola xangrintzen zaitu
ez du denbora luzea
zinela penetan sarthu
plazeraren ondotik
desplazera duzu.

3.-Erregek gizon ederrik
guardetan ba du,
segurik
Lekunberriko brigadan baño (batzu)
guzien gaintetik
neskatxak karesatzen
ez baitu parerik.

4.-Arthoak dire iorratu
ogiak ere burhutu
primaderan egin lana
udazkenean agertu
ene maitetxoari
gerria loditu.

(Errege ori Louis Philippe zan; mugazainak berak imini ebazan,
eta Baxenabarrek Lekunberri'n zan lenago "posta").

215

[1954-I-26]

[Aita Santi Onaindiari]

[Zaragozatik Larreara]

Zaragoza'tik, 26-I-26
Aita Onaindiari. Larrea'ra

Agurgafi ta adiskide on:

Lengo astean itz emona neukon neure burua, ez nebala eskutizik
egingo *S. Agustiñen Aitorkizunak* amaitu arte. Azkenengo iardunear

diñardut (XII'garfenean) eta ointxe beste lau eguneko lana. Gaur goizean iaso dot zurea, ta berela ezin erantzun. Bi bider irakufi dot aurki-bidea eta ageri danez, diranak eta ez diranak batu dozuz liburugeti ortan. Ni, beti lez, liburu barik eta nire oroimenaren mende, ez nadike baitaratu zenbat uts dauden olerki ixilduenak. Ba'leike zuk ez ixildu izatea, baiñan ez dodaz idoro Xenpelar'en *Bei betroia* ta *Mutil zañaren despeira*, milaren artean ezezik eunen artean bere bikaiñetarikoak. Ez eta Dibarrart'en *Sotoko (g)ophoña*. Ez eta Sor Juana Inés de la Cruz Mexikutafaren *Andra Mari'ren zeruetara iasoera* (bizkaieraz), ez eta Iturrino'ren *Markesaren alaba*, eskual-hefien egin den phertsurik edefena, bidafaitar batek esan eustanez. Gero *Mendiak bethe ehunez, belduñez* (sic Bidafai'n) eta *Eregek gizon ederik*, bat eta bera dirana lelengo ahapaldia ta au irugafena; *Xuriko* eta *Mehetegiko xakuña* bere ez ete dira olerki berbera? Ufena, *Ezkondu nintzanean* bi bidar aitatzen duzu. Nik dakidana irugafen bat ete da? Naiko zantafa: "Gaztea nintzanean –denbora batean– ez nintzan sosegatu –ezkondu artean–. Ezkondu eta gero –lenengo gaubean– jipoi bat eman zidan oiaren afean", etc. Ziur nago, bera dan lez ez dakigula ez zuk eta ez nik. Taberna-zulorako ohea. Osterantzean, ez neuke esango gure Bilbilitañagaz "sunt mala", baiña bai, nere gardiz, "sunt mediocria multa". "Sunt bona" ere bai, eta asko. "Aliter non fit, Avite, liber". Baiñan erdi erdiko ofeik baiña kaxkafagoak ageri dira beste efietako lorategietan (Anthologietan). Ofeik bere, euren mendeko bafi emoten deuskue, ta ba-dabe, ondo begiratu ezketiño, alderdiren bat polita. Itz labur batzuk imiñi dagidazala liburu ori aurkeztuteko. Gatx egiten iata. Zer esan? Aski du Itzaufea. Loikeririk ez-baiña ba-dozuz olerki naiko fiabafak, esaterako *Mendiak bethe elhuñez*. Azkeneko ahalpaldia... "ene maiteñoari – gefia loditu" (zorroa loditu, ipurdia anditu...).

Goizean ibili naz *Betaondoko Meza* ta *Et habitabat cum bestiis*¹⁰³ bila, baiñan ez dodaz topau ez bat eta ez bi. Ez dot gordetan *Euzko Gogoa*, eta an dagoz. Bat argitara bagea igofiko dautzut, orain urtebete egiña, Zaitegi iaunari azken bialdu neutson, "Ixiltasuna". Nik uste etarako daula zuk orduko. –Jaka? –Ez dot aren bafirrik, ez belafirrik. Argentinan zan, eta neregana zuzenbidea eskatu ei eban. Besterik ez dakit. Bi auzoak guziz lagun gintzan, baiña karta idazteko ni baiñon

¹⁰³ Poema hau galdutzat emandakoen artean sartu beharko da, ez baita horren aztar-narik inon ageri.

arlotego da, nik uste. Nik oraingoan itza ian dot neure buruari emona. Tarteka or ofialdea bete. Ez esan aufera “kiputxen itza zotzezko giltza”. S. Agustiniĕkin egun terdiko lana.

Liburuari izena aldatzen baĕdeutsozu “Mila euskal-olerki” (aldizufena aukeratuak), itz bi esaten saiatuko naz. Osterantzean, ez. Argi ta garbi.

Memento.

Orixe

216

[1954-I-29]

[Martin Oiartzabali]

{Zaragozatik Rosariora}

Zaragoza'tik, 1954-Ilbeltzaren 29gn.

[M. Oiartzabal] adiskide aundi:

Gaur befi onakin natorzu. Lenik, Labaien'ek au diosta:

“Zure salmoei buruz esan zidan (Maritxu Bafiolak), *Imprimatur* iritxi dula, eta erabat Eladi Larrañaga'ren Imitazioarentzat. Markiegi'rena (G.B.) zoritzafez galdutzat jo bear da. Zaitegi'ri befi ona eman nion, alegia, *Bidalien Egiñak*'aren lan edefaren *Imprimatur* eta baimena lortu genula azkenik”.

Beste befi bat, zuretzat oso ona: atzo amaitu nitula *S. Agustiniĕn Aitorkizunak*. Orain itxedon egin bear, liburua itzuli beafa baitut. Aita Aranguren Azpeitiafak utzi dit B.A.C.ren argitaraldia, baiñan aien Bibliotekako arauak oso zofotzak dira. Ez da gutxi *ad mensem* ere, eta gaiñera liburua etxetik atera.

Orain liburua nonai koxkatzen dutalarik, oso zaila ta egiña dirudit euskeraz esateko, baiña nolabait ioan da. Iofatu beafa ba duke argitara baiño len. Egia esan, zenbait aldiz euskera ez da latifiĕra irixten, batez ere *activo-pasivo* ta *relativo* oiengatik, baiña beste zenbait aldiz, eta geiagotan, nik uste, euskerak latifiĕari asko kentzen dio.

X, XI, XII, XIII'gafen iardunetan gure apaizek zerua zabalik ikusiko dute pilosopi-gaiak eta Iainkoazkoak adierazteko.

Befi auekin bizkortasun pixka bat sartu nai nizuke. Ez da ikaratzeko “prostataren” ori, gure adiñera ezkerro, guzien gaitza omen da,

bada, ta Ipar-Amerikar sendagileak diñotenez, ebaketa ori gizon gu-
zieren egin bear omen litzaieke.

Baiña biotz ofekin ernai. “Mate amargo”, ez al zaizu agoan goxo?
Ez al zaizu on? Lengoa esaten nizun, nere eskutitza bidean galdu ez
bada.

Bialdu zure befiak, eta, al bait, onak. Iñioiz ba’da-ta, oraintxe nago
zai.

Otoitz egin det bereiziki, eta zuk ere nitaz.

Etxekoeri goraintzi eta osasun.

Memento.

Nikola

217

[1954-III-19]

[Martin Oiartzabali]

[Zaragozatic Rosariora]

Zaragozatic, 1954-III-19gn.

[M. Oiartzabal] adiskide aundi:

Iafai zakiola obekitze ofi. Ez duzuke, agian, ufaketa beafik. Etxe
ori ezaguna dut. Bein A. Beobide’k bazkaritara eraman nindun. Or
doatzu Aitorkizunen amaia. Dudatxo batzuk ba-dauzkat, kopia libu-
rutik gabe atera baitut eskuzko zifibofotatik. X. XI, XII’gafen iar-
dundunak, nere ustez, obekienik. XIII’gafena zaila da latinez ere, ta
zail gelditzen da –besterik ezin– euskeraz ere. Iduripeko: *coelum*, *coe-
lum coeli*, *terra*, *pisces*, *volatilia*, zerua, emengo Eliza, Apostoluak, kris-
tau zintzo ta abar. Beste Agustin bat bear du ari iafaitzeko. Laister
bilduko ote naiz nere paperetara: Orain Maritxu Bafiolak Donostian
lan egiteko aukera ipinten dit, eguarlean, atsaldean nere esku gelditzen
naizala. *Breviarium totum* nai luke. Kopia aterako omen ditidate.
Gure etxekoandrea New Orleans’en da alaba zaitzen gaixotxean, eta
gaur bertan galdetzen diot zer iduri zaion. Zuk ioateko diozu, noski.
Labaien’ek ere bai. Ikusiko.

Zenbait hitz

Eite = forma (eitegabe = informe)
Antolagabe = incompositum
Mukulu, mokor = cuerpo (no precisamente organizado)
Ortzantza = firmamento (Uitzi'n, osantza)
Mukuluki = corporal (de natura corporis)
Gogaki = espiritual (de natura spiritus)
Gogakoi = espiritual (persona)

Goraintzi augustindar on oieri.
Memento.

Nikola

218

[1954-III-26a]
[Jokin Zaitegiri, eskuz idatzia]
[Zaragozatik Guatemalara]

Zaragozatik, 1954-03-26gn

Adiskide on Zaitegi:

Ez da goizegi! Zuek bai ilda bezala zeundetela! Gutun idazte ontan ni betikoa. Odolkia ordainez, bai, baina geiegorik ez.

Onaindiak "itz bi" eskatu zitidan bere libururako. Joanak dira, beranduegi ez bada. Nik ez nekin, eta bizkaieraz bialdu diot.

Liburuetaz itzezin dezagun. Nere S. Agustin Donostin dago, (X liburur) beste irurak aste banatan bota nitun. Lenik, ibilian ibilian ni ara ioan bearko. Maritxu Bafiolak esaten dituanekin, kolokan iafi naiz. Mameme'ri galdegin diot zer iduri zaion. Ortaz an bertatik bertara zainduko nuke argitaratze ori. Bosteun arpide oiek M.B'k bilatuko ditu. Nik bi iloba apaizgai ba ditut, eta Donostiko Seminario'ko euskalzaleak ba-dakizu nerekin dauzkadala. Zuk liburuetan lagunduko ba'zenu M-B'ri ederki letorkio, bera ere beste aldera eralgizun aundiak egiten ari baita. *Breviarium* etzait iduri beste munduko lana. An asi bearko. Ez daukat griña aundirik ioateko, baiñan an gehiago egin nezakela. Emen eguneroko Mezarik ere ez. Neronek bakafik Euskalefian

argitara-ala liburu emango dudala nago. Lenbizi, asteko, Sta. Teresa ta S. J, de la Cruz eman nezazke, zatirik oberenak itzez itz, eta gaiñerakoa laburtuz eta euskerari egokituz. Kikeron'en aburuko naiz *ontan*: itzuli ez, baiñan egokitu. Gero, Elizako Gurasoak, lenbizi ustez, "De virginitate et virginibus". Anburusi gurenarena. "Aingerutasuna" = *la virtud angelical*. Ufena S. Benardo etc. etc. Gure gaztedia ezkefetara doa ta iaufeskuntzari eutsi bear diogu. *Misale*, *Breviarium* eta oiekin zerbait egia duket: egunero irakufiko naute, behintzat; baiñan ez naiz alki ortara. Befi befitik asi nai dut ezer egin ez ba'nu bezala, autsi edo puskatu, albait, gaiñerako idazle guziak apurtu arte: Jainkoa lagun, biba zâla!!!!

*Euzko Gogoá*ren irizpidearekin ez nago oso erara; baiñan, itzari eusteko, bialduko dut gaia noizpeinka. *Gernika*'ri ere bialtzen nion, ufunduago egon afen. Onaren bidez gaiztoa ito dezagun. Orain Andima dedila "idazle nagusi" edo "redactor jefe". Azkeneko banakoan etzenun eman "Quiton afebarekin". Ofetxen eske dauzkat apaiz eta *beata* barnekoiak. An ba-du A. Mokoroak, osoa, eta an moldatu deza-kegu. Andima baikor etofi dala? Ni ere ez nago ezari emana; baiñan, oraingoan, egizko mirari baten beafa daukagu euskeraren alde. "Zuk eta nik egiañarazi. Bear diogu Jainkoari", esaten nion M. B'ri. Zuek ere io zeuron aldetik. Euskararen onerako ni apurtzen ba'nauzute, bego; baiña befiz ere, Iainkoa lagun, ez ote dezute esan bearko: "biba zafa!!" Geroak efanen du.

Ez diagot arrokeriz, nire sasoiari eutsiz baiño. Iainkoak ematen du, ta zertakobait emango du.

Orain beste bi itz Andimari.

Goraintzi orko deneri.

Memento.

Orixe

[Sinaduraren ondoren]:

P. S. Zure eskutitzak lau egun egin ditu bidean; nereak ausaz zortzi. Egun berean doa erantzuna.

[1954-III-26b]
 [Andima Ibinagabeitiari, eskuz idatzia]
 [Zaragozatik Guatemalara]

Andimari

Ondo etofi Elentxue!

Asmo onez beterik edo etofi zara. Ba-dago beafa. Ba-dakizu xeme lez artu zaitudala oiñarte baiñan orain gizon egin zara, eta kontuz ibili bearko dot zugaz. Txiki zintzala *maitatu* bear zintudan. Orain andi biurtu zarala *kolpatu* bear ete zaitut ijito atsoaren antzera? Martinez Baigofik itandu eustan lengo baten zure bafi, eta bidean zintzala esan neutson! “Qué pena que haya traducido el *Ars amandi!* No es tan crudo como Horacio, pero es bajo” esan eustan. Mexiku’ra ioan-bafia da egotez. Ori eban bere amesa. Agife-Zeziagak ere itaundu eustan.

Bai gizona! Itxizu bakean eta baztefean zantarkeri ori argitara bari! Baldin eta *Euzko Gogoan* agertu ba’ledi, gogor bere gogor ioko zaituedaz, biok-ala-biok: Nere artikulua ez ete dau etarako Zaitegi’k? Ez du naiko. Bikia gorderik daukot. *Gernika* aldizkarian geitxu zabaldu dozu irizpidea. Aita santua ere agotan artu dozu. Bafe egingo eben ezkertafok. Gadizan txintxo. Lengo mutiltxu aregaz diñardudala irudietan yata, eta bear baiño gogofago artu zaitut lelengotik. Parkatu. Etzaizala alkartu Zugadigaz. Guziz txarto iokatu da Zaitegigaz. Adiskide mamifi ez izan beintzat. Ganera, min zofotzakoa, diñoenez, gari-txori ofeitakoa ei da. Oker ba’gabiz laungoikoak ez deutso lagunduko Euskal-efiari. Zabiz baña zintzo, aspaldietako Andimatxo.

Ikusi arte.

Orixe

[1954-IV-12]
 [Martin Oiartzabali]
 [Zaragozatic Rosariora]

Zaragoza'tik 1954-IV-12gn.

[M. Oiartzabal] adiskide aundi:

Datofen gabonilaren 12gn beteko ditut lau urte, I. L. onara etofirik, eta egun ori aukeratu dut etxera itzultzeko, gure etxekoandere onen baimenarekin.

Nik nerez naiago nuke Lazkau'ko beneditafen gela bat, Elizatzora ta liburu-gelara eskubidearekin. Ayete'ra igaro al dira? Batere ez okefago ordun.

Esan nizun *Breviarium totum* ofen ori. Birlelo ta abar, itzak musikarekin uztartzen lagunduko lidakete. Non nindagoke an baiño obeki?

Oraingoz ez gehiago. Onezkero etxera bildua uste zaitut Pazkoetarako.

Nere S. Agustin noizbait iritxiko al zaizu. "Impresos" antzean igofi nizun, eta zertifikatzerik ez dute emen ontzat artzen.

Duzula osasun eta Pazko on etxeko guziekin.

Memento.

Nikola

[1954-V-8]
 [Aita Ladislao Segurari, makinaz joa]
 [Zaragozatic El Salvador-a?]

8-V-54

R. P. Ladislao Segura, Profesor de Moral
 en el Seminario de Centro América

Reverendo Padre:

Le agradecería unas respuestas monosilábicas a las preguntas del caso que le propongo, y su firma al pie, si no halla inconveniente.

Un original mío se evaluó en 30.000 pesetas o 300.000 francos, a elección, y se me pagó el mismo día del contrato, redactado y firmado de mi puño y letra, en francos franceses. No queriendo yo meterlos en el Banco, pues pronto había de tener necesidad de sacarlos por mi proyecto casi decidido de venir a América, dejé mis francos como depósito en custodia en casa de una familia honorable y acaudalada¹⁰⁴, apoderada de mi otra parte contratante. Esta me había insistido en que eligiese pesetas o francos para devolvérseme mi depósito, y dice que yo elegí pesetas, de modo que aquellos francos eran francos-pesetas. A esto se agarra como tabla de salvación para justificar su juego de bolsa. No entendía yo entonces su insistencia ni la entiendo ahora, si no es con fines alcibajistas. Ni tiene ningún otro sentido, pues si la peseta bajara me entregaban mis francos reducidos, como sucedió, y si subía, para no perder ella, se quedaría con el *plus*, es decir, a ganar de ambos lados. No era con intención de regalarme más que el valor inicial que deposité. Más sencillo era devolverme el depósito tal como lo dejé. Lo escrito fué francos simplemente y no francos-pesetas, que aun así conservarían su equivalencia de aquel día, no en el banco, pero sí en mi original, que conservaba el mismo valor. Los francos-francos quedaron, pues, tan míos como el original quedó de la parte contratante. Dios me ha dado feliz memoria, y no recordaba, ni entonces, con algo que no veo claro. Y si me hubiera arrancado el sí, eso es querer engañar a un pobre hombre que no entiende esos asuntos para defraudarle. Y no es moral cristiana.

Contra todo lo que yo esperaba de esa familia, actuó no como mero depositante, sino como traficante. Cuando poco después fuí a levantar definitivamente mi depósito, se me entregó mermado en pesetas de 7,50, o francos-pesetas, a la cotización de este nuevo día. No valieron mis razonamientos. Que con mi original, equivalente de esos francos, no se podía jugar al alza y baja, pues la moneda podía bajar a cero, y mi trabajo también; que si yo hubiera escogido las pesetas no sería con intención de que valiesen menos que aquel día, que era lo que seguía valiendo mi original. Era dinero dado para custodia, no

¹⁰⁴ Justo Mari Mokoroari 1951-IV-29an kontatzen dionez, Muñoatarren etxean utzi zituen gordetzeko. Familia hau, Jokin Zaitegiri 1951-I-17ko gutunean ematen dion zuzenbidean datorrenez, garai hartan Donibane Lohizungo "Aice-Errota" etxean bizi zen.

para tráfico. Como no querían devolverme mi depósito intacto, no me quedó otro remedio que aceptar las pesetas reducidas en 75.000 francos. No recuerdo bien si me hicieron firmar este segundo, porque en este caso podía alegar mi comparte que cobré dos veces y exigirme, o los 300.000 francos, en cuyo caso yo quedaría a deber 75.000 francos, o las pesetas, en cuyo caso el valor de mi trabajo se reduce a cero.

Es gente muy honorable, muy buena y muy piadosa, pero que se ha formado la conciencia de que es lícito obrar así en moral cristiana, por su trato con banqueros, alcibajistas y estraperlistas. Aunque legalmente no puedo actuar contra ellos, pregunto:

¿Es lícita en moral cristiana esa conducta que se observó conmigo? –No.

¿Tiene obligación de conciencia la otra parte –excepto si yo se la condono– de abonarme el resto defraudado? –Si cae en la cuenta, sí¹⁰⁵.

Cuando le visite le pagaré la consulta.

Affmo. s.s.

Nicolás Ormaechea

222

[1954-VI-1]

[Jokin Zaitegi eta Andima Ibinagabeitiari, eskuz idatzia]

[Zaragozatik Guatemalara]

Finca Miramar, 1-VI-54
Zaitegi-Andima iauneri. Guatemala'ra

Adiskide onak:

Orixéren eskutitza! Aundia da! –Izan ere. Lafí ote dabil? –Izan ere. Ezoeri edo *gotak* gogor io nau iru ilabete auetan eta ez dit barkatzen. Ba-ditut galduak 32 libera. Bêra-koskan onela ba'noa, emendik sei ilabetera enaiz gauza izango etxerako. Ezufak emen utziko ote? Oraindik ez da ikaratzeko baiña bai kezketan artzeko. Igokunde egunean, ez indarka, ez eztulik egin gabe, ibili utsean, sabel-xume edo

¹⁰⁵ *Egilearen oharra, eskuz idatzia*: La respuesta es larga, y se la leeré aquí.

ernia befiz atera zitzaidan. Nonbait sarea geiegi meatu. Txango batzuk egiteko... on egiten baitidate... esteak zintzilika ezin ibili. Ortzez gora ere bizitza itsa, besterik al dala. Eserita ezin egon, befiz, lanik egiteko.

Bestela –egia esan– gorputzaldi ona daukat. Ian-gale polita –gure aitona Zimufiok¹⁰⁶ esan oi zuna–, logale ona, biotzetik ederki.

Bost ilabete auetan etzera agertu, Zaitegi, eta beste bitan... Mame datofeño, etzera agertuko. Nik, befiz, Diru-etxean biderako doi-doia daukat epetan. Bialdu al zenetzake 25 dolar eten-ugal bat erosi dezadan? Ofela txango lasai egin nezake estea ito-bildufik gabe.

Eusko Gogoa bikain, azkena. Gazteek irakurten gaitutela nabari da. Zer esango ote du A. Villasante kaiku ofek Onaindiaren Itzaufea irakurtzean.

Adizu, Elentxu, "Aintzane" ori Zufia Durangafa da ala? Besterik nor ote diteke? Nere osasunaren bafi ez zabaldu oindiño.

Ikusi arte.

Orixe

223

[1954-VIII-16]

[Jokin Zaitegiri, eskuz idatzia]

[Zaragozatik Guatemalara]

Finca Miramar, 16-VIII-54

[J. Zaitegi] adiskide on:

Nere eskutitza iaso ote zenun biufialdi aúfe-aúfean? Eta telegrama gero, diruengatik eskefak emanek? Orain osasunez obeki nago argal nagon afen. Zu ere ala omen zaude. Zuretzat obe, ta neretzat ez kalteago. Etxera gizon bapo xamafa agertzeko itxaropena daukat.

Aztertu dut begiratuki zure lana. Nere ustez ere, efezago irakufi diteke lengoak baiño. Zer esango ote du oraingoan Lafitte'k? Ehun bat oarkizun ezafi ditiot, arau ortara ukibefitu nai ba'duzu.

¹⁰⁶ Uitziko Errekaldeko aitona, Orixek *Quito'n arrebarekin*-en aipatzen duena.

Gero ele-edefaren edestia diñozu. Oraingoz ez nago batere beroturik ortan jarduteko. Besteri eginarazteko, bai. Lazkau'ko beneditar gazteei eragingo diet izatekotan. Nere ondoan ikasiko omen dute, Aita Nagusiak diñostanez. Ba-dituz etxe aftan maia ta ogea ta Bibliotekako giltza. Guzia 20 pezeta eguneko. Eskola kaxkafen bat ematen ba'duz, merkeago aterako naiz. Neronez gutxi eginik ere, besteren bidez ugaritu naiteke. Etxe artan guzi guziek dakite euskeraz.

Zu gogor ari zera lanetan. Baiña, baiña... amets oriek ez ote dira laister suntsituko goizeko laiño zuri antzo? Alegia, or Zugadi-orde ipiñi dutenak salatu dezakela gure Aldizkaria, ta kito. Ez dedila olakorik gertatu!

Andima'ri ere erantzun nion. Ez nun ezer igofi Biafitzeko euskal-egunetara. Kopla bat egin, bai, ta emen gorde. Ba-dakizute 22 Aôut Recital de Ravel à S. J. de Luz. Ravel txatxu ori! Onela zion nere aha-paldiak:

Leizaola ta Intxausti iaunak,
Esker onik zuengana;
Batzafera nik ezin bialdu
Eska didazuten lana,
Erdal-bileran obeki datoz.
Bolero eta Pavana.
Otsegin beza nai dunak: “!Viva
la Pepa edo *la Juana!*”

Tifit Ravel'i! Buruz musiku ona da; baiña biotzez... ez derama iñor (ni beintzat ez) Iainkoagana. Tifit, befiz ere “esprit fort” ofi!

Egun zure izeneko eguna. Oroitzen naiz.

Zu ere

Memento.

Goraintzi Andima'ri ta Belaustegi'ri

Orixe

[Sinaduraren ondoren]:

P. S. Kopia neronek eramango etxera bidean, nere original batzukin.

[1954-IX-3]

[Aita Pedro Leturiari]

[Zaragozatic Erromara]

Finca Miramar, Zaragoza, 3 de Septiembre de 1954. (2ª copia)

R. P. P. Leruria. Roma

Carísimo en Cristo P. Perico:

De vuelta a Roma habrá Vd. hallado ahí mis dos respuestas a su consulta: una directa, y otra por medio del P. Eusebio, sirviéndome él de asesor. Entretanto otra cosa me ha ocurrido de interés para los Jesuitas, para nuestro pueblo y para nosotros sus dos amigos D. Martín Oiarzabal y yo. Nosotros dos somos, por decirlo así, los *herederos* o colaboradores en el Antiguo Testamento del P. Olabide, ya terminado de traducir, pero que necesita algunas correcciones, notas y prólogo, para lo cual suministraríamos nosotros material, de modo que entregaríamos la obra ya ultimada para imprenta, salvo las notas que exige el Canon, de las cuales y del Prólogo se pudieran encargar ustedes.

Entre los años 1938-40 estuvimos dos temporadas en Toulouse donde él residía, corrigiendo y confrontando, y nadie como nosotros dos sabe las últimas tendencias del finado en las correcciones, algunas de las cuales se hallarán en papeles sueltos intercalados de nuestra letra, y otras que nos autorizó hacer de palabra. Ultimamente, a cualquiera indicación lingüística que le hacíamos, “ale, ale” respondía; “póngalo así”. Sería lástima que esa obra cayese en otras manos. Don Martín es el más acreedor en esto, pues a sus expensas fueron el viaje de los dos y la estancia en el Hotel, y él ponía el papel etc., para las cinco copias que le íbamos sacando. En Toulouse estarán, si no las han trasladado a Castilla, dos copias manuscritas de toda la Biblia, salvo algún cuaderno de la primera copia que guarda D. Martín, y dos o tres libros *in folio* de versiones hebraicas antiguas, una de ellas de un judío heterodoxo (no recuerdo si es Reina), que pertenece a D. Isaac López de Mendizabal. Debe de ser único ejemplar en nuestro País.

Es de considerar también que esta Biblia inédita y estos libros eran ya “res derelicta” y destruida, a no ser por lo que le diré: Estando el P. Olabide en Bilbao, tuvo noticia del bombardeo de Guernica, y “ay, mi Biblia!” exclamó. Don Doroteo Ciaurriz tomó inmediata-

mente su automóvil y pudo rescatar ese precioso material de entre las llamas, pues la casa estaba ardiendo por los cuatro costados.

Esto expuesto, ¿sería mucho pedir a la Compañía, que ese material fuese trasladado, mientras nosotros preparamos la edición, con todas las garantías del caso, al Monasterio de Benedictinos de Lazcano, quedando allí en depósito únicamente el tiempo que nosotros lo necesitaríamos? También hay el medio de sacar fotocopia, pero no creo que haga falta si le merecemos suficiente solvencia. Necesitaríamos también los libros adjuntos para las referencias y notas.

A ver, pues, P. Perico, si activa Vd. este asunto cerca del P. General, de modo que para cuando nosotros podamos ir –ya le dije en mi anterior que yo me hospedaría allí desde a principios de 1955– encontremos allí manuscritos, copia, y libros auxiliares adjuntos.

Un memento por su Affmo. en C. J.

(firma).

225

[1954-IX-3]
[Martin Oiartzabali]
[Zaragozatic Rosariora]

1954-IX-3

Agur D. Martin [Oiartzabal]:

Ez al zaizu gaizki idurituko nere eskutitzori. Lazkau'n nere zai omen daude. Aita Nagusiak oso atsegin erantzun zidan. Nere ondoan asko ikasiko omen dute euskeraz.

Onezkero irakufi dituzu *Aitorkizunetako* iru iardunak; amaikagafena efexa ta polita, besteak ez dira ain efexak. Latinez eta españeraz ere ilun gelditzen dira. Nik, beintzat, ditudanak egin ditut.

Osasunez? –Betiko ezueri onekin, efi onek oso gaizki artu nau ortan, asieratik. Bestela, osasunez erabat ondo.

Ufena arte.

Memento.

Nikola

[1954-IX-20]

[Jokin Zaitegi eta Andima Ibinagabeitiari, eskuz idatzia]

[Zaragozatik Guatemalara]

Finca Miramar, 21-IX-54
Zaitegi-Andima adiskideeri. Guatemala'ra

Adiskide onak:

Datofen ilaren 25'gafenean gutxi gorabera ba dut ital-ontzi "Stromboli", emen bertan sartzeko ta irteteko. Ogeita bi egun g.g.b. bidean.

Lentxago etofiko nakizue agur esatera.

Aianta'ri ipiñi oarkizunak ezin bialdu, ez baitut bikirik, galdu ba'lediz ere. Neronekin eramango.

Goraintzi asko guzieri.

Mementote.

Orixe

[1954-XI-4]

[Martin Oiartzabali]

[Balboatik Rosariora]

Stronboli ontzitik (Balboa, Panamá), 1954-11-4
Oiartzabal'dar Martin iaun apaizari. Errosariora

[M. Oiartzabal] adiskide aundi:

Azken orduan, Guatemalara ioan-etofi, azken agur eta abar, ez nun astirik ukan irtetera nindoala gaztigatzeko. Ondo goaz Iainkoari esker. Panama'ko itxas-lepoa igaroteko baimena eskatu dugu; baiña biar goiza arte geldiarazi gaitute. Eguerdiko ordubatean iritxi gera onara. Emen bero gaitza, dakizunez. Ala ere gaur atsaldeon, enbata, itxasoan zabal gaudela. Ufengo egona Curaçao'n egingo, ta andik zuzen Bilbaora. Len Bartzelonara zoan ustez, ontzi au, baiñan orain

bidea aldatu du. Neretzat obe. Bein Caribe itxasoa iragan ezkerro, otzak asiko. Bizkor noa Iaunari esker. Itxaso onek ez ote dit kenduko azkeneko ezueri kutsua? Garnu-odolak aztertu ditidate, eta zuringo kirrik ez (albúmina negativo) eta gozokia ere (glucosa negativo). Baiñan urea zerbait odolean. Vitamina'en bidez iañiko omen naiz ondo, kirioetatik omen baita nere gaitza. Gaiñera ura edan bear asko xamar. Gaiñerantzean osasuna erabat bikaiña, Iainkoak ala naita.

Orobat opa dizut zuri ere, eta elkafen befi ba-dukegu. Aita Leturiak oraindik ez dit erantzun.

Goraintzi deneri.

Nikola

228

[1954-XI-30]

[Jokin Zaitegiri, eskuz idatzia]¹⁰⁷

[Tolosatik Guatemalara]

Tolosatik (Calle Mayor, 4, 3º, izquierda), 30-XI-54

[J. Zaitegi] adiskide on:

Ondo iritxi ni. Emen nago, oge aldetik, *Thiamina* ziztakoak arzen. Enaiz agertu nere etxera, ez eta zure amarenera, baiñan ez dut asko luzatuko.

Aunitz esker diruarengatik, eta Egubefikari igofiko omen duzurenarengatik. Zaude lasai. Nere liburu befiaren gai ortatik ontzian egiñiak ekafi ditut "Safera" eta I. Atala. Liburuaren izena *Iainko-bila*. Irakufi diot A. Mokoroari, baita bertso befietako bat. Ikaratuta bezala esan zidan biengatik: "olako gauza edefik ez duzu bein ere egin". Beraz, oraiñarteko marka onduko dudala derizkio, idazten geroxago, baiña bidari labufez igofiko, atalka, *Iaiko-bila* delako ori.

¹⁰⁷ Gutun hau ez nori ez nora zuzendua den ez badator ere izenburuan, Jokin Zaitegiri egina delakoan gaude, hasieran bere amari egin beharreko bisitaz mintzatzen baitzaio.

Etzaniz'ek au esan zidan: "Emen aldizkari bat ateratzeko dabilta, guzia euskeraz. Ortarako on litzake Guatemalarekin elkar aritzea, ta ango *E.G.*'k bere izena galdu edo aldatu dezala". Au erantzun nion: "gure sukaldean esan oi dana, ori "ufea kakaren ordaina" izatea lizake. Eta nola iafi oraindik *ez danaren* mendeko, zerbait *ba-dana*.

Orixe

229

[1954-XII-14]

[Jokin Zaitegi eta Andima Ibinagabeitiari, eskuz idatzia]¹⁰⁸

[Tolosatik Guatemalara]

Tolosa'tik, 14-XII-54

[J. Zaitegi eta A. Ibinagabeitia] adiskide onak:

Zuenak iaso ditut, luzea ta labu'a. Ni enaiz oraino nere tokian eseri eta ezin erantzun oinbeste galderari. Atzo Lazkau'n nintzan –oso bero artu ninduten– eta biar Arantzazu'ra bi eguneko. Ilaren 22'gn. Zaitegi Legazpikaok agertu bat egin zidan, eta ilaren 22'gn. Mundraurora ioatekotan gelditu giñan. –Ni oraiñarte oge aldetik ibili naiz, zain bafuko ziztako oiek artuz. Oraindik ez da obeasun aundirik nabari. Otzak on edo egiten dit. Oraintxe aski gizendu naiz, baiña oiñazeak ez aunditsuak ez amore ematen. Ala ere, oiñazeak or baiñon ariñagoak. Ori bai, lo ederki. Gauetan zortzi ordu egitera iritxi naiz. Etofiko al naiz emeki emeki. *Bidalien Egiñak* begiratuki aztertzen ari omen dira praile batzuk, eta uts aundigabe aterako ditute. Itxaropena. *Gero*'k bai omen 800 uts, "Ibar'en iritiziz.

Itxoizute apur bat gizagajook ni Lazkau'ra ioan arte (E'fegenak ondoan). Labaien'enean edo an irakufiko ditut euskaraz eta euskara-rengaz argitara ditezenak, eta naiko gaia emango didate artikuluak

¹⁰⁸ Izenburuan ez datoz hartzaileen izenak, ezta nora egina den ere; hasierako agurtzeko moduagatik, ordea, aski ziurtasunez jakin daiteke "adiskide on" horiek Jokin Zaitegi eta Andima Ibinagabeitia" direla, aurrekoetan ere esaldi bera erabiltzen baitu.

egiteko. Makinarik gabe nago bikiak ateratzeko. Sortuko al dut noizbait

Pardon!

Goraintzi orko deneri.

Orixe

230

[1955-I-10]

[Jokin Zaitegi eta Andima Ibinagabeitiari, eskuz idatzia]

[Lazkao'tik Guatemalara]

Lazkao'tik 1955g. Urtafilaren 10'gn.

Zaitegi ta Andima adiskideeri

Adiskide onak:

Etzaduzkatet utzirik, ez antzirik, baizik ere nere indafak ez dirala irixten gogo nukenera. Besoa maiera afimatu orduko *calambre*'ak iotzen naute, ta artu-utzika iardun-beafa.

Noizbait ere –oiean egonik, eta *Thiamina* ziztakoak arturik– agertu bat egin nion zure amatxori, Zaitegi iauna. Oso bizkor dago bere adiñerako eta gordin, erlasi apur bat gora-bêra. Au merke dabil, neguan baikaude. Itz-aspertu bat egin genun, eta... eskutitzak usuago nai litukela bere semeengandik.

Erenegun-aintzi iritxi nintzan Alkartegi ontara. Ederki nagoke emen. Gelan berogafia ba-dut. Oso kuttun artu naute ta lanerako –euskal-lanerako– bizkortuko omen. *Euzko-Gogoa* oso osorik daukate.

Au nere burua! Zuendako artikulua eta *nota* guziak Tolosa'n utzirik etofi naiz. Etzi ekafiko ditidate. Makina gabe nago, baiñan emen bi ba-ditute, eta utziko didate bat noizpenka. Nik eskura idatziko dut, eta kopiak aterako omen ditidate. Berandutuko zaizue, baiña bidari laistefez igofiko ditizuet. Egon lasai.

Iendeak nerekin itzegin-gura omen dauka. Ni ostu-ostuka bezala nebila, bai adiskideekin, bai etsaiekin. Villasantek ere ikusi nai omen nindun. Euskalzaindiaren azkeneko batzafetara iende aunitz ioan omen, ni an ikusi ustez. Enaiz igituko nolana txoko ontatik. Zuekin asi nintzan eta ondo asi, ta enaiz bestetara ioango. Batez ere ortik

ematen baitidazute ezkufa. Efegekari bialdua zuzen eta tiñel iritxi zan. Aunitz esker. Orain idukazute gibel apur bat ni nere tokian patxaraz eseri nadiño. Gizendu naiz, itxura edefa artu dut, baiña nere miñek ez dute aldegiten. Lo egiten oso ederki asi nintzan, baiña befiro lengora itzuli naiz. Atxiki, atxiki!

Euskera galduko dala, ez dala galduko, or ari dira gutafak eleke-ta. Zer gertatuko ote? “Suspiciamus in excelsum”, andik etofi bear baitu gure efiaren osasuna. Bitartean, egia esan, Tolosan eta Donostin len baiñon euskera geiago entzuten dala esan diteke. Neri ala iduritu zait, eta iendeak ala diño. Modan ipiñi dute aberatsek beren aufetan. Atzefiko txapel-oket eta abar, zenbaitzuk, beuren neska-mutikoeri euskeraz irakasten asi dira. Gure txanda laister ba’letor, indar aundia artuko luke euskerak; luzatu ba’leza... goitik itxaron bear laguntza.

Esku-zofoekin ari naiz idazten eta barkatu elatz kaxkar oni.

Laister arte, bada, Iainkoak nai ba du.

Mementote.

Orixe

231

[1955-I-14]

[Justo Mari Mokoroari, eskuz idatzia]

[Lazkaotik Tolosara]

Lazkao’tik, 14-I-55

Aita Justo M. Mokoroari. Tolosara

Agur Ibar:

Zure oarkizunak jaso nitun eta aietaz ondo baliatuko naiz. Nere xabafaldi asko arki diteke itzulpen ortan, baiña Trabuco’reñ textoak aldakuntza aundiak ditu BAC’reñarekin. Lenbiziko atalean lau lefo geiago dakartzi, ta beste aldakuntza batzutaz konturatzen naiz, aufean ez daukadala ere. Lenbiziko liburuan arkitu dituk utsak eta aldakuntzak; ufengoetan ere arkituko bear ba da, zuk bañon ugariagoak. Eskefik asko zurengatik, eta gauza efexagoetan afeta aundiagoa artzeko bidea eman didazulako.

“Baiña, afen, Orixe, irakurle *bizien* izenean eskatzen dizut: etza-
zu, afen, mila bider! elkortu zure lan bikain ori aditz-joku atotz
geiegirekin”. –Afazoi dezu. Gizagajoa! Zer penitentzi eragin dizudan!
Ikusten zaitut zure gela-txokoan, eskuak buruan, ile-tiraka, *neoflexismo*
oietako zenbaitekin oztopo egitean. Neroni ere lotsa ematen didanak
ba-dira, ta pozik kenduko ditut.

Emen Salmoen kopia bat ifikitzen daude. Gaiñerako Itun Zafa
kopieta atera genua, ba dute Oiartzabal’ena. Jan-tokian irakurtzen
ari dira orain *Egun’en idaztia*. (*Liber dierum seu Paralipornenon*).

 Goraintzi orkoeri ta
 Memento.

Orixe

232

[1955-I-15]

[Luis Mitxelena, eskuz idatzia]

[Lazkaotik Donostiara]

Lazkao’tik, 1955’g. Ilbeltzaren 15’gn.

Luis Mitxelena Iaunari. Donostira

Adiskide beti:

Or doa zure atzoko bieri erantzuna.

Lenik, ezin natorke Akademi batzafetara oraingoz, beintzat, osa-
sunarengatik. Ezueriak gogor io nau aurten.

Emengo aldizkarietan ezer idazteko asmorik ez nedukan –igañiko
diozu zergatik– baiña Julio Urkixo’ren oroitzafez –oso maite bainin-
dun– asmo ortatik lekutu dezaket *Egan* ori, Labaien’i ere adierazi nio-
nez. Baina beti ere erderaz, euskarazko artikuluen eskubide bakafa
Zaitegi iaunari emana baitaukat.

Aipatu duzu “interview” bildurgafia. *Egan* ortan zenbait galderi
erantzuna emango nieke, baiñan iñola ere ez “interview” bezala.

Orainaldian ezer gutxi dezaket neronez. Asiko al naiz alako ba-
tean. Aldegin nun ezkeru, emengo libururik ez Revistarik ez dut ira-
kufi. Oiek gaia ugari emango al didate.

Eskuetatik ere oso nekez ari naiz, eta barkatu laburtasunari.

Goraintzi lengo lagun guzieri, batez ere Gergorio Maidagan iau-
nari lengo lekuan baldin ba'dago, eta Nazario Oleaga iaunari.
Zure laguntzarako.

Ormaetxea'r Nikola

233

[1955-I-21]
[Martin Oiartzabali¹⁰⁹]
[Lazkaotik]

Lazkau'tik, 1955 Ilbeltzaren 21gn.

[M. Oiartzabal] adiskide aundi:

Leturia'k erantzun zion nere bigafenari. Lenengoa ez omen zun
iaso.

Castilla *Oriental* go Provincial'ari ordun idazten ziola, ta (aita Le-
turia'ri) ederki iduri zitzaiola. Aita Azkona Asistenteak ere eskutitz
ortan itz bi sartuko zitula "que era cosa razonable y de desearse", gure
eskabidea. Baiña A. Olabide zena *Occidental* era bialdu omen dute, A.
Efundoneak esaten didanez; beraz ditekena da A. Leturiarena kuku
gelditu izatea. A. Efundoneari ere oso ederki derizkio. Bereala idatzi
zidan egifialak egingo zitula. Provincial'a Ameriketara zala, ta idatziko
ziola. Itz onak eman ditute beintzat. Bitartean, esan oi dana, "beti ba-
dugu guk Mezaren luzagafia". Zu etortzerako eskuzkoa onera kafaia-
tuko ba'genu, emen asko lagunduko ligukete kopiak ateratzen eta.

Emen bero bero asi dira lanerako bideak egiten. A. Mauro atzo
Paris'a ioana da "imprenta" polit bat erosteko asmoan (ONU'rena
bezalakoa). Revista bat aterako omen genuke etxe ontan eta liburuak
ere bai. Ederki nago emen. Gelan berogafia ipifii didate.

S. Agustiñen *Aitorkizuneri* bigafen eskua (azkenekoa) ematen ari
naiz. Ba dauka beafa. Xabafaldi asko xamar dauzka.

¹⁰⁹ Izenburuan ez badator ere ez nori ez nora zuzendua den, edukiak Martin Oiar-
tzabalen arrastoan jartzen gaitu, aita Olabideren itzulpenaren inguruan hariltzen
baita gaia. Martin Oiartzabal apaizak oraindik Rosarion bizitzen segitzen duela ere
gutunetik bertatik ikasten dugu.

Beraz, bazatozela zu ere. Asko pozten gera. Aita Agapito emen da. Nitaz afeta aundia artzen du. Ni polikixago; oiñazerik ez, esatekorik; loa nekez xamaña... Bestela, gizendu naiz eta itxura edefa daukat, sekulan baiño obea, ta osasuna ere bai. Pozten naiz zureak ere ongi izatearekin.

Goraintzi Augustin'dar oieri, eta
Memento.

Nikola

234

[1955-II-15]

[Jokin Zategiri eta Andima Ibinagabeitiari, eskuz idatzia]¹¹⁰

[Lazkaotik Guatemalara]

Lazkau'tik, 15-II-55

Adiskide onak.

Nere lenengo artikulua, orain ilabete igofia iritxiko al zan. Or doa bigafena. Zuen befirik batere ez dugu. *Euzko Gogoá ez da iritxi...* Bidean bildua omen. Negargafia olako banako bikaiña!

Emen irarkola edo makifia bat ONU'koaren antzekoa erosteko dabilta. Orduan atera liteke aldizkari ori ere emen, ez emendik bezala, esaterako "Imprimere Ezkila", Belloc, B.P. France'n egifia bezala. Askoz merkeago ta efexago. Ikusiko dugu.

Ni San Agustiñekin ari naiz, batez ere. Opoñ-aldirako gertu nai nuke, berela Eliz-baimena eskatzeko. Zueri bialiko ditizuet atal berezi batzuk noizean bein, A. Mokoroak aukeraturik. "Trabajo gigantesco" dala esan du. Nik bigafen eta azken-iofaldian eman-ala, kopiak aterazten ditidate.

Gaurkoz besterik ez. Mameme oraiño or ba'da mila goraintzi. Iaso dutala berarena. Beste Guate'tar guzieri ere bai.

Mementote.

Orixe

¹¹⁰ Gutun honek ez badakar ere ez nortzuei ez nora egina den, bistan da, segidan "adiskide onak" irakurtzean, horrela pluralean, horiek Guatemalan segitzen duten Zategi eta Andima direla.

[1955-III-23]

[Justo Mari Mokoroari, eskuz idatzia]

[Lazkaotik Tolosara]

Lazcano, 23 de III de 1955

Aita Justo Mari Mokoroari. Tolosara

Agur, Ibar:

Zurekin naiz, nekez baiña seguru, San Benito egunean, bazkalon-
doan, kapea artzen ari giñala –Apaiz eta galtzadun bazkaritara deituak,–
zure esaera ofekikoa Aita Nagusiari denon afean zabaldu nion.
Guzieri oso ederki iruditu zitzaien, eta Nagusiak atsegin guziz jasoko
omen luke zuk eskeiñi lan ori. Beraz, ba-dakizu; zerofek derizkio-
zunean, zuri ta emengoeri obeki zaizuenean etofi zaitezte lan ofen idea
osoa ariltzera, lanerako eredu bat emanez.

Gero; *dantza* itzari eratxikitzeke, *zori-dantza*’ren ufena *ur-xoxoa-
ren dantza* bialtzen dizut, egun ortan emen Ataundar Dofontsoro bati
ikasía:

Ataun’go Pafoko Goikoetxeaundiak Meza ematera ateratzean, zu-
rubi-mailak bezela pasatzen omen zitun eta ofegatik esaten
omen zioten: “Berofek, meza ematera dijoala ur-xoxoaren dantza atera-
tzen du”.

Ur-xoxoa zer dan ez genun garbitu. Eperdikara ez baldin ba da,
antz antzekoa. Erderaz nola ote da?

Dantza = lan gogofa. “Dantza edefa zeukenagu gaur atsaldean”
(Uitzí, et fortasse ubique Vasconiae).

Zure lan ofen titulo’tzat ez al legoke ondo “Itzak esaeraen itufi”?
Ez ote litzake obe guk dana euskeraz ipintzea?

Labaien aita-sumeentzat gela gordearazi dedala aste-santurako,
ikusten ba’dezu.

Memento.

Nikolax

[1955?]¹¹¹
 [Martin Oiartzabali]
 [Lazkaotik Rosariora]

Oiartzabal'dar Martin iaun apaizari

Adiskide aundi:

Bizi naiz bai, baiña lanerako aski ilik nago, zazpi ilabetetan miko-rik egin gabe, esku zorioneko auengatik. Ezueriak gogor jotzen nau. Orain arindu zait poliki Fitero'n urak artu ezker... Bestela, osasunez oso ondo. Nai duzuna esango duzu, baiña foto oietan zartua agertzen naiz, eta oiek ez diote gezufik. Oso galdurik nengoan aldi artan: lafuzal asko *sobrante*. Orain legundu zait aurpegia ta asko gaztetu naizela esaten didate. Ez da guzia gezufa.

Emen dauzkat mai gaiñean zure irurak erantzunik eman gabe.

Ni zurekin nago *-ke* ortan. "Para mí la idea de posible (no me gusta palabra potencial), es más abstrusa y posterior a la de futuro". Baiña gaur ez da sori *-ke* ofi gerokoaren adierazkizun soila ematea. Mokoroak ez du aditu nai ere (belafiak ixten ditu) *n-eza-ken* = nuken (noizaldi berdiñean): esan nezake = erran niro = esan nuke.

Unusquisque in sensu suo abundet.

Kopiatzeko lan nekagafi ori (Ganboarentzat) utzazu.

Itsu = *ciego*; katsu = *miope* (AN-lar).

Olabideren Biblia? Mundu guziko afazoiak eta bat gehiago eman ditidate itz edefekin. Oraintxe nago *Castilla Occidental* go Provinzial'aren azken erantzunaren begira. Luzatzen du. Aita Landaburuk itzez esan zidanez Nagusi ofek au uste omen du: irarkolarako antolatu bear dunak, gu biokin izketaldi batzuk egitea naikoa dula.

Aixta txikufun-txakun

Mendian elufa;

¹¹¹ Ezein argitasunik ez dator gutun honetan, ez noiz, ez nondik eta ez nora zuzen-dua den. Noizkoa izan litekeen ez dakigu eta horregatik jarri dugu galdera-ikurra-ekin. Gutunean zazpi hilabeteren kontua aipatzen baitu, 1955eko maiatzekoa ote? Dena den, seguruagotzat eman daiteke Lazkaotik Rosariora egina dela, hartzailea Ameriketatik 1956ko urte-bukaeran etxeratzen baita (1956-XII-14).

Asi baiño lenago
Ba-nuen beldufa.

Noiz zator onontza? Ez duzu tutik esaten.
Aurkene sendotu dedilla.
Etxekoari goraintzi.
Memento

Nikola

[Sinaduraren ondoren]:

P.S. Etofi banintzan etofi, ez diot egin eskutitz bat ere Quito'ko
afebari.

237

[1956-II-22]

[Martin Oiartzabali]

[Lazkaoitik Rosariora]

Lazkau'tik, 1956-22-11

Oiartzabal'dar Martin Apaiz iaunari. Buenos Aires-a

Adiskide aundi:

Lengo batean bialdu zidaten Jesuitek Aita Patxiko Etxebefia, A. Olabideren Itun zafa argitaratxekoxe Txina'tik deitu dutena. Esan omen die nagusieri, lan ori ez dala arentzat egiten dana, bañan agintzen dunak ez du efegutzen. Gizagaizoak lenengo galde au egin zidan: ia zer texto erabili zun itzulkizuna egiteko. Kontuak atera!

Toulouse'tik "Manuscrits du P. Olabide" beste ezer ez omen du ekafi Bilbao'ra. Gure oarkizunen papertxo aien zantzurik edo afastorik ez omen da.

Zer egin genezaken galdetu zidan, eta besterik ezean –esan nion– kopia bat eman zegigutela guri, geuron oarkizunak ipintzeko. Artan geratu giñan.

Efoma'ra doa bi urteko. Ango euskalzaleek lagunduko omen diote.
"Causa finita est".

Oso neketan ari naiz idazten, eta barkatu laburtasunari.

Memento.

Ormaetxea'r Nikola

[Sinaduraren ondoren]:

Goraintzi A. Beobideri, or baldin ba'da, eta gaiñerako Lateran'dar oieri.

238

[1956-IV-12]

[Martin Oiartzabali]

[Lazkaotik Errosariora]

Lazkau'tik, 12-IV-56

Oiartzabal'dar Martin iaun apaizari. Errosario'ra

Adiskide aundi:

Ez egon kezketan nere osasuna dala-ta. Poliki iartzen asi naiz. Ez zan negu gofarengatik. Bi ilabete terdi oiean egin ditut oiñaze ta sukar. Berogafi edefa nedukan. Zer gertatu zait bada? Egubefiko amabostaldian zernai ian eta edan nezakela esan ziran sendagile batek. Ordun ongi nengoan. Baiña, neufia gorderik ere, gaitz egin zidan.

Lanean asi naiz. Ez dakit esan nizun, baiña Agustin gurenaren *Aitorkizunak* gotzaitegian da –Donostikoan– Eleiz-baimenaren eske. Urtearen azkenerako atera nai luke Pio Montoya iaunak.

Bezperak ere egin nitun puntu edo rimarekin eta Eliz-baimena ba-dute –Akitza'ko Gotzaiarena-. Laister asiko dira abesten. Napafoa-ko Oskotz'en lenbizi.

Orain beste lanak utzita Dantzarengaz liburutxo bat egiteko agintzen didate. Datofen igandean noa Bedaio'ra ango gizadantza ikustera, eta berela asi bearko. Iainkoak emango al dit osasuna, nere beste lanak egiteko.

Emen ez da befiagorik.

Goraintzi beroak Aita Agapito'k.

Memeno.

Nikola

[Sinaduraren ondoren]:

Etxekoeri mila goraintzi eta asko pozten naizala aien osasun onaz. Zure kartak ilabete ta koska egin du bidean.

[1956-V-5]

[Luis Mitxelenari, eskuz idatzia]

[Lazkaotik Donostiara]

Lazkao'tik, 5-V-56

Luis Mitxelena iaunari. Donosti'ra

Agur, adiskide:

Lenik, eskefik asko nitaz oroitu zeratelako. Gero, "Urkixo" mintegiak merezi du ori ta gehiago ere nik egin dezaiodan, baiñan ez dut befiro eltze ortan buruntzalia sartu nai. Len ere zentzaturik nago gure iendearekin.

Asko ta asko daude nere iritziaren begira, batez ere poeta bezala, ta nik iritzirik eman nai ez. Naiago pakea.

Lan ori Aita Onaindia'k egin dezake laister eta ederki. Nor-nai dala lan ori bere gain artzen duna, iakin dezala nere lanaz baliatzeko baimena ematen diodala, *nai dun eran* erabiltzeko, eta nik ez dudala *ezeren eskubiderik aipatuko*.

Ni osasunez beñiere baiño okefago. Aste ontan izan ditut bi eroriko aundi, biak zauriekin. Oraindik ere ez dut etsi, baiñan etsitzeko ere ba-da oinbeste kolperekin.

Goraintzi adiskideeri.

Ormaetxea'r Nikola

(Orixe)

[1956-IX-1]

[Aita Patxi Aizpuruari, makinaz joa]

[Tolosatik Lazkaora]

Tolosa'tik, 1-IX-56

Aita Patxi Aizpuru'a'ri. Lazkau'ra

Aita agurgari ta "pinche" maitea:

Jaso nun zurea orain zortzi egun. Onezkero xantu egin zera. Bal-dar xamar ez ba'nengo, joango nintzake zure sotanari musu ematera.

Ni gofiak pasea naiz, ondoena nengoanean. Korderik gabe erori nintzan, eta iru egunez burutik nasturik. Ilabete osoa ortzaz gora: bañan bizkortzen ari naiz. Nere zorabioak asi dira aldegiten. Sudufetako espezialista batekin nabil, eta ark au esan dit: Nere gaitz guziak eta gota ere sudufean neukan aspaldiko zornetik datofela. Oraingoan sendatuko omen naiz. Ala obe.

Oraindik lanerako gogo aundirik ez daukat, bañan asi naiz pixka pixka. Tarteko lan kaxkar batzuk egiñ ezkeru, nere liburuari ekingo diot.

Aita Mauro'k bezala, Aita Mokoroak ere gauza bera esaten dit: denak utzita nere liburua egiteko. Esaiozu Oyartzuar ofi, ia nerekin adiskidetzen asi dan. Nik berdin egiten det otoitz etsaiengatik ere.

Goraintzi beroak, lenik Aita Priorari, eta gero etxeko guzieren. Don Jose'ri befiz, efezatzen dedala egunero berarengatik. "Sancte Raphael, ora pro eo".

Ufena arte Jainkoak nai ba'du.

Mementote.

Orixe

241

[1956-IX-23]

[Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]

[Tolosatik Bilbora]

Tolosa'tik, 23-IX-56

Aita Justo Mari Mokoroa'ri. Bilbao'ra

Aita agurgafi ta adiskide ona:

Lengoa bialdu nizkizun iru kopia, Azkue zanaren goratzaferako egin nun artikuluaenak. Artikulua labur labura zedila esan zidaten, eta bai nik obeditu.

Irakufi det "Ni naiz Artzai ona". Oso poliki dirudit, neologismo batzuk eta uts asko xamar kendu ezkeru. Nere burua ederki ezagutu dut ordukoa naizala orain ere, ta Jaungoikoa bidera goiz atera zitzaidala. Ez ote det gisa ortara idatziko nere ufengo liburua? Ditudanak egingo ditut.

S. Agustiñ'en bi ale atzo eman zizkidan Labaien'ek. Axalez poliki dago. Gaiñerakoan... eskua politikixu sartu dutela, lenego ofialdetik

asita. Azkenean iztegia ere ipiñi dute. Zertzuk esanez! “*Adargil*: Gando cosquilloso”; *lo-arma* (guk lo ariña esaten deguna): *lo-zoro*“ !!! Ez dit batere irakurtzeko gogorik ematen.

Pekatu aundi bat egin det, nonbait, Zarauz’ko Itxaropenari au galdegitean: zenbat ale tiratu ditun, eta zenbat kosta dan. Labaien’ek gogor eraso zidan atzo, ta nik au erantzun nion. “Ez al daukat nik sekulan ezer jakiteko eskubiderik nere liburuetaz? Ez al zenidan zerrofek esan orain ogei egun, M. Bafiola’k *Misal*’aren lenengo argitaraldian 7.000 atera zitula? Eta nerekin bost milaren trattoa egin? Or bi mila ziplo. Eta len egindako trapukeria.

Bizkor xamar itzegin genun biok, baiñan ez genun odolik ixuri.

Mingafi dira gauza auk. Nik ba-dakit nere liburuekin *negozio* aundirik ez dagola; baiñan ikusten diran gauzak ikusita, ixilik gelditu bear al degu?

Gaiñera, azkeneko liburu onena 5.000 pezeta aufetik eman zizkidatela befitu zidan. Ni uste ortan nengon, zuregandik egia jakin arte. Eta ori jakin gabe, esker gaiztoko agertu nintzan zurekin eta Dña. Concha’rekin. Zer adiskideren artean ote gabiltza? Eta Zarauzkoak, neri erantzun ez eta, zergatik esan bear zion ola ta ola karta egin niola?

Azkenean Orixé’ra joan bearco det, emen bizitzerik ez baitaukat. Bilbao’ko *Asociación de la Prensa*’k uts egin dit. Beste etofirik ez daukat oraiñaldian, eta pakean bizitzera baztartu bearco det: “huyendo del mundanal ruido et de falsis fratribus atque amicis”.

Jainkoa lagun dakigula guziori.

Memento.

Orixé

242

[1956-IX-30]

[Justo Mari Mokoroari, makinaz idatzia]

[Tolosatik Bilbora]

Tolosa’tik, 30-XI-56

Aita Justo Mari Mokoroa’ri. Bilbao’ra

Aita agurgafi ta adiskide maite:

1) Eusko-Gaztedi’rekikoa kenduko, ta luzexago egiten saiatuko.

2) Gaztelu'ko iloba seminarista'k esan didanez, *Aitorkizun*'etan ez omen dute eskua asko sartu.

3) Neri, bost mila pezeta aiek Pio Montoya'rengandik zetozela esan zidaten, eta eskefak ari eman nizkion.

4) Liburu-gauzarik geiago afotzea baiñon ixilik egotea ez al degu obe? Autsak naikoa afotu ditugu.

5) Neri laguntza? Bilbao'ko *Asociación de la Prensa* oten laguntza ileko mila pezeta ukan ba'nu, poliki nintzan. Afebari ori ematen asi nintzan ileko. San Inazio eguneraiño pagatua diot, baiñan andik one-rakoa zor. Etxera joan ba'nendi, an ba-dauzkat bizitarako jana ta etzana, etxea erosten eta erabefitzen diru askotxo sartu nulako. Ofa garbi esan, eta eskefik asko zure borondate onarengatik.

6) Osasunez poliki noa; datofen ostiralean Arantzazu'ko asmoan. Praile aiek ez dute nai ni an iru edo lau egun bakafik egotea; beraz, zortzi eguneko gaia gutxienik eraman beariko det.

7) Zure karta luzeak ariora merezi zun erantzuna, baiña barkatuko al didazu, oraindik ere eskuak oso minbera baitauzkat.

Memento.

Orixe

243

[1956-X-17]

[Justo Mari Mokoroari, eskuz idatzia]

[Tolosatik Bilbora]

Tolosa'n, 1956'gngo. Lastailaren 17'gn.

Aita Justo Mari Mokoroari. Bilbo'ra

Aita agurgafi ta adiskide maite:

Zurea ta nerea emengo karterian gurutzatu ziran.

Etzabiltza ufuti Orixe'n naukazulako "bear ba'da". Araxe noa, bada, Jainkoa lagun.

"La música callada

la soledad sonora" mizkatzera.

Eskefik asko neregatik ari dituzun lan guziengatik. Jainkoak itzu-liko dizu eun alako.

Arantzazu'ra ezin joan izan nintzan, egun aietan erorialdiak afapatu nindulako. Orain polikixego nago.

Ignosce brevitabi et
Memento.

Orixe

244

[1956-XI-15]

[Aita Patxi Aizpuruari, makinaz joa]

[Orexatik Lazkaora]

Orexa'tik, 1956-XI-15'gn.

Aita Patxi Aizpurua Agurgarriari. Lazkau'ra

Agur, Vieyra Txiki:

Ba-da garaia onezkero onera etori naizala esateko. Geroago ta maxkalago nengoan beko zoko artan. Onera etori naizan ezkerro, ez det gora-berarik izan: ez zorabiorik, ez gora bota-nairik, eta ez janariari gofotorik.

Arantzazu'ko *curso*'rako pott egin beafa izan nun.

Eske bat orain: Matxin Labaien or agertuko ba'litza Lazkau'ra, eramango al zenioke, eskatuko ba'lizu, *Officium parvum* Zerain'go neskaxarentzat egiña, libre baldin ba'daukazu? Ez baldin ba'daukazu, emango al zenioke alditxo baterako zure kopia?

Bear ba'da Matxin'ek atera lezaioke kopia bat amari. Ikus nola moldatzen zeraten.

Aita Mauro'ri esaiozu, Kaifas'ek ere profetizatu zuala, eta afazoi daukala bear ba'da, nik indar guziak nere libururako gorde bear ditudala esatean.

Gañerako praile guzieri, asi Prioraren gandik eta azkenekoraño, mila goraintzi.

Mementote.

Orixe

245

[1956-XII-14]

[Aita Alberto Begiristaini, makinaz joa]¹¹²

[Orexatik Lazkaora]

Oreja'tik, 1956'nggo. Gabonilaren 14'gn.

Lazkau'ko beneditafen Aita Prior'ari

Aita [Alberto Begiristain] agurgafia:

Ezin erantzun. Barkatu. Egubefitan, iloba seminarista datofenean egingo, batez ere, Aita Ixidor'enari. Onek eskatzen ditun guzieri, "ad omnia et singula", affirmative "et ultra". Au da, emen daukat "muerta de risa" *Jatorrizko Aste Santu beñirotua*, eta beneditafari utziko diet.

Mementote.

Orixe

[Sinaduraren ondoren]:

D. Martin Oiartzabal etofi da Ameriketatik. Ia, befiz ere Lazkau'ra begira jartzen geran.

246

[1956-XII-17]

[Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]

[Orexatik Bilbaora]

17-XII-56

Aita Justo Mari Mokoroa'ri. Bilbao'ra

Aita Agurgafi ta adiskide maite:

Emen daukat txoria, sutatik aterea. Milesker. Asteko bildufez bezela alde batera, baina bestera, Jaungoikoaga(n) itxaropena. Prisa aundirik ez nedukala esan nizun, alegia, afebari zofa kitatuta etofi

¹¹² Lazkaoko aita beneditarren komunitatean telefonoz galdetuz ziurtatu dugu garai hartan aita Prior-a Alberto Begiristain zela (2005-X-19).

nintzalako. Orko bialgoari begira egon gabe, Bankuan neukan ondafa atera nun, eta arekin egin afebarekikoa. Eriosuar bezela etofi nintzan Tolosa'tik –au ere nere begiz ikasi ta ikusi beafa nedukan– “nere etxean sobratua zaude”, entzun bear izan nun. Emen esker ohea ematen didea. Kunplimentu guzik egiten dizkidea, janean eta denetan. Orain neguan ederki, lan gogofik ez daukatelako. Gero udara-bidean ez dezakete ukan olako afetarik.

Baiña Jainkoak, ain zuzen, emen ekafi du gure Don Martin, eta ni berarekin bizitzea nai zula esan zidan.

Atake gogofa ukan det Abendu ontan: iru egun janaririk esta-moan iduki ezin nula, ura ta naranjaren zumoa besterik. Barkatuko dezu karta onen labuía.

Egubefi on; urtebefi on.

Memento.

Orixe

247

[1956?]¹¹³

[Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]

[Orexatik Bilbora]

Aita Justo Mari Mokoroari. Bilbao'ra

Aita Agurgafi ta Adiskide maite:

Beraz, Jainkoari bakafari eskefak? Zuri ere bai puxka batzuk, giza-gajo ori.

Zurea jaso baino egun batzutaz lenago, Labaien'en emazteak mila pezta eman zizkidan Julitxu Laskibar'en partetik! Donibane'n topo egin omen zun eta, itza nitaz zala, bertan eman omen zizkion eskura, Venezuelakotik, eta bai agindu ere ara idatziko zula, neretzat zerbait ixuriaz ote dezaken. Jainkoak ez nau eskutik utziko.

Aitorkizunen originala? Ni ez naiz, behintzat ausartzen ezer eskatzera masoikide oieri.

¹¹³ Noizkorik ez baitakar, ezin da data zehatzik eman, 1956ko “negu-atarian” egina dela baino, gutunaren bukaeran dioen bezala.

Lengoan erantzun zidan, n(o)izbait ere, Untzuruntzaga'k. Ez dakit erantzungo diodan, baiñan izatekotan ola litzake.

“Muy Sr. mfo: (erderaz egin dit): Reservadamente pedí a Vd. noticia del número de ejemplares y coste de *Euskaldunak* y de *Aitorkizunak*. Inmediatamente fue Vd. con el soplo a Labaien para indisponerme momentáneamente con él. Dejo a Vd. mismo el calificar esa acción.

Con fecha anterior a la de Vd. pedí a Mame lo mismo que a Vd. respeto del Misal. No me ha respondido.

Usted me responde a las mil y quinientas, diciendo que eso no es *comercial*. (Para los editores, no).

Segun M. B. Mame tiró 7.000 ejemplares y conmigo se hizo el contrato sobre 5.000. ¡Esto sí que no es comercial para el autor!

Adios, comerciantes!”

Orixe.

[Segidan, eskuz idatzita):

“Elufa degu atarian.

Otz. Eskuetatik elbafi”.

Memento.

Orixe

(Gibelera)¹¹⁴

248

[1957-IV-6]

[Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]

[Orexatik Bilbora]

Orexa'tik, 6-4-57

Aita Justo Mari Mokoroa'ri. Bilbao'ra

Aita Agurgari ta adiskide maite:

Gabon-ilaren lena ezkerero, ezifiz egon naiz oraiñarte. Ataque (sic) batek jo nindun estamora, janari mokor guzia gora botatzen nula. Gero,

¹¹⁴ Gibelean idatzitakorik ez da ageri.

betiko egoaize ofek kirioak altxa zizkidan, oiñaze askirekin. Gaur ustu det oia goiz eta atsalde.

Emen etxean ondo zaindurik naukate, eta gastu aundirik ez daukat alde batera; baiña sendagailuak garesti daude, eta efopa ere bear nuke, Ameriketean egiañak ez baitit balio.

Julitxo Laskibar'ek beste mila pezeta bialdu zitidan Otsailaren azkenean, bainan ez bide da gauza antolaturik Caracas alde ortatik. Gero adiskide batek mila pezeta, senide batek bosteun, eta ola dauzkat bildurik lau mila pezetaraiño.

Jainkoaren bilári biar emango diot bigaren ekiñaldia, Jainkoak onez. Patxaraz egin nai nuke, gauzak eskatzen dun bezela. Buru biotzetan ondo erabili, Jainkoagana ernai nagola. Lagunduko didazu zere otoitzekin.

Ignosce brevitati

Memento.

Nikola

249

[1957-IV-10]

[Martin Oiartzabali]

[Orexatik Hernanira]

Orexa'tik, 10-IV-57

Oiartzabal'dar Martin iaunari. Ernani'ra

Adiskide aundi:

Lenbizi Pazko on Jainkoaren grazi ugariekin. Aspaldion ixilik gaude. Lengoan eman zitidaten Labaien'ek goraintziak zure kexi.

Ni askoz obeki nago. Ilabete onen lenean ia oso etsirik egon nintzan, baiñan orain beste gizon bat naizela esan dezaket. Lanean asi naiz. *Dantza Nagusia* bukatu det. Labaien'ek arekin liburutxo bat atera nai du. Nere liburuaren beste atal bat egin det, eta auferako argitasuna ta kemena sumatzen ditut, Jainkoari esker.

Santa Kurutz egunean efiko pestaburu degu, ta nai baduzu etofi, mami puxka bat jango dugu.

Gure etxeoak mila goraintzi.

Memento.

Nikola

[1957-V-29]

[Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]

[Orexatik Bilbaora]

Orexatik, 29-V-57

Aita Justo Mari Mokoroari. Bilbao'ra

Aita Agurgari ta adiskide maite:

Nere befi on jakitea maiteko dezu, ta or dijoaz lefo batzuk.

Lenbizi, osasunez poliki noa, obeari eutsiz. Azken ontan denbora berdotzak eta lan aundirik ez det egin, baiñan erabat jeiki nintzanetik egin ditut zazpi Kapitulu *Jainkoaren bila*. Aietatik sei *Los sentidos espirituales* arilduz. Au da nere liburu guziko zatirik zailena; baiña bost apaizek (alkafekin gertatu baitziran gure etxean ileta elizkizun batean) esan zidatenez, izugafi efex ulertzekoak. Eskueran neuzkan, eta aietako batek irakufi zitun. Ez dizkizut bialtzen, bi kopia berdiñak ez dauzkadalako. Laister etofiko al zera opofaldiz, eta orduan irakufiko dituzu.

Orain beste kontutxo bat, au "sub secreto commisionis". Atzo bi jesuita etofi zitzaizkidan, aiek ba-zitutela zenbait iskribu nereak, euskeraz, alegia, eta ia aien jabe egingo nitun. Gaiñera, ni il nadinean ia utziko dizkiedan jabez, uzten ditudan paperak. Azkeneko gaitzean, eriotzako ordurako jesuita aitortuko omen nindukete.

Nere erantzuna au izan zan: "lo consultaré con la almohada". Asi naiz auzi ori buruan iraultzen, eta au gogora zaida lenengo: ez dedala asko istimatzen (ez diodala esker aundirik ematen) kontrabandozko ateka ortatik sartzeari; "per amplam portam" naiago nukela, apaiz egifiñik edo egitekotan sartzea, beti, jakiña, osasuna ba letorkida, "lenbailen"¹¹⁵.

Zer irudi zaizu? Otoitz pixka bat egin; beste puxka bat pentsatu, eta mintza.

Gaur eguraldia apur bat altxatzen du. Biar gure launaren zerura igoera. Etzi (edo gaur bero bero) utengo Kapituluua, nere liburuaren gogoan idukitzekoenetako bat: *Fedezko otoitza*, asiko det.

¹¹⁵ *Egilearen oin-oharra*: Azkeneko au esan ere ba-nien, eta batak au erantzun zidan: "Ni Aldun izendatu naute Etomako Bilera Guzizko edo *Congregación General* era-ko; zuk eskabide ori egizu, ta nik bultza egingo diot an goietan".

Naiko gauza dijoa esana, ez al da?
Memento.

Nikola

[Sinaduraren ondoren]:

Aztu zitzaidan!!! Gergorio Afue'ren:

Ejercicio de perfección y virtudes cristianas (P. Rodriguez)

Verdades Eternas (P. Rosignoli)

El Liberalismo es pecado (Sarda y Salvany).

Euskerazko itzulkizuna beraren eskuzkoa, berekin omen dute.
Zuregana jo zezatela esan nien, gizon ofi ondo merezizko goratzafe bat antolatzen ote zaion.

251

[1957-VIII-9]

[Martin Oiartzabali]

[Orexatik Hernanira]

Orexa'tik, 9-VIII-57

Oiartzabal'dar Martin apauz iaunari. Ernani'ra

Adiskide aundi:

Osasunez nola nagon? Onezkero ez dit axola aundirik ematen "ezin-eriozko" edo *inmortal* egin binaute. Ixaak-ena neronek eskatu nien baldin-itz bezela.

Osasunez, bada, poliki antzean irugafen ilabete ontan. Negurako ongi-xamar jafiko ote naizen itxaropena.

Bi jesuitek agertu bat egin zidaten igaro dan Maiatzaren 20'gafe-nean. Zertara? Itzez esango etofi zaitenean.

Aita Patxi Etxebefiak ez dit igofi oraifio kopiarik, eta ez dut itxaropen aundirik ere. Gure adiskide oiek berentzat nai dute "totum honorem".

Saubion'go iztegitxoa... "neque si Spiritus Sanctus est..." ez neukan gogoan. Emengo *ficheroa* ere, Euskaltzaindirako egiña neukana itzalia da. Oinbeste lan galdu!

Osasunez poliki zaudenak pozten nau. Lazkau'ko beneditafekin zerbait egin ote daiteke? Iende gutxitxo. Efomatik aurtan etortzekoa

ba-dute bat, bizkor samafa. Aita Mokoroa'ren *ficheroa* or daukate gordea irurogei ta geiago papeletarekin. Ba-da lanean asteko aifia.

Ez dakit zer ari diran nere Bezperakin. Ez naiz asko gauza idazteko ere, ta aspaldi ez dut ango befirik. Oskoz'ko apaiza ez zan oraintxe asi lenbizi eman bear zitula-ta. Eliz-baimena ba-du Alkiza'tik. Puntuetan edo riman dago, ta musikarekin multikopian. Aita Patxi Aizpuruak atera zun, eta kopiak ark dauzka.

Besterik gabe, laister arte.

Etxekoek mila goraintzi.

Memento.

Nikola

252

[1957-IX-25]

[Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]

[Orixetik Bilbaora]

Orixe'tik, 1957-IX-25'gn.

Aita Justo Mari Mokoroa'ri. Bilbao'ra

Aita Agurgafi ta adiskide maite:

Aspaldion ez degu alkafen befirik, banan oraingoan nereak onak dituzu, Jainkoari esker. Nere Liburuaren lenengo alderdia bukatua det eta bi kopi aterak (133 ofialde). Bigafenean ere asi naiz. Asi ta asi. Tartetxo bat eman bear ko diot Euskalzaindian saferako itzaldiari. Gaia au diteke: *Leitzako mintza-doiñua*.

Osasunez polikitxo ere ba'noa. Ilabete ontan bost kilo irabazi ditut. Eteberoa ta gartzainak gauza onak dira. Lanerako ere zartzu aundiagoa aspaldi baño. Gora Jaungoikoa!

Nik ez dakit Doña Concha Ebangelioko alaba ofek esker edo istimazio emango ote lioken nere liburu onen originalari. Pozik emango nioke. Lazkauko praileak eskatu didate, eta kopiak aterako dizkidatela.

Orain... "de tribus capellis, Posthume": nere kartera askotxo auldu dala, esateak gofitzen ba'nau ere. Ez da, bada, xur bizi ez naizalako! Ameriketako aiek asi ziran mila pezetakoarekin; gero bosteun bialdu zizkidaten, aspaldi xamar, eta ki'o. Befiz ere zure beafetan izango naiz,

Sendagailu garesti ua uzten asi nintzan, bañan amabost eguneko atzeraldia ekafi dit. Oraindik ere jafaitu beafa. Ikusiko noiz arte.

Etxe ontan ere, len emanak aski ez ba'lira, diru befiari begirutzen diote. Esan zâr ua gero ta egiago gertatzen da: "aideak alboan, eta ortzak agoan". Jainkoagatik beste pixka bat supritu beafa dago. Ala ere osasun aundia ta pakea, ta beiflere eskutik utziko ez naun itxaropena. Noizbait ere gu zuloan sartzeko ordua etofiko da, ta orduntxe, bai, "requiescat in pace!".

Eguraldi edefak daude. Elizara asi naiz egunero. Indafak bear ditut bigafen parte ontarako. Goizean Jauna artuta asiera polita eman diot, Berari esker.

Naiko gauza esan dizut, eta aufera ere.

Memento.

Nikola

253

[1957-XI-5]

[Martin Oiartzabali]

[Orexatik Hernanira]

Orexa'tik, 57-XI-5'gn.

Oiartzabal'dar Martin iaun apaizari

Adiskide aundi:

Zurea iasoa det. Ni karta au egiteko sei egunez aufetik asi naiz, zer gerta ere. Alegia, Asi-gripe ofek oiean dauzka gure etxean amabitatik amar. Ni oraindik ez nau atxitu, baña bildur naiz, eta ofegatik dagola karta au datofen larunbata arte. Orduan bat edo bat ba'diteke au Tolosara eramateko. Astelenerako iritxiko al zaizu.

Beraz Martin Guren aundiak Iainkoagandik ekafi detzaizula eskuak bete doai.

Ni gero ta polikiago. Maiatzaren 21 ezkeru ez dut ukan erorikorik edo eraso gogofik. Ufilean bost kilo irabazi ditut. Egunero Elizara asi naiz. Oinbestean pozik.

Aita Ixidor Baztafika emen nun lengoan, Bezperak dirala-ta. Eraman ditidate *Completa*k ere gipuzkeraz, bai bizkaieraz. Matximenta'n

ematen omen dira Bezperak euskeraz. Beste efietatik ere eskea asi da. Argitara eman bearko lenbailen.

Nik asi dut liburuaren bigafen alderdia. Orain tarteko lan batean ari naiz. Euzkaltzaindian saferako itzaldia antolatzen, Gaia, *Leitza'ko mintzo-doiñua*.

Nere burua arin xamar dago, ta emen bukatuko dut, gero izketaz ia faitzekotan.

Etxekoak mila goraintzi.

Memento.

Nikola

254

[1957-XI-22]

[Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]

[Orexatik Bilbora]

Orexa'tik, 1957' gngo. Azaroaren 22' gafenean
Aita Justo Mari Mokoroa'ri. Bilbao'ra

Aita Agurgafi ta adiskide on:

Zurea jaso nun garaiez, bainan etzaitzela kezkatu neregatik. Ezus-teko bosteun peztako bat ekafi didate, eta beste adiskide batek esku-ekusi egin dit *Dacortin* potte oietako bat. Oraindik diru onddar bat ba-daukat, eta itxaropena Jainkoagan eta bere seme zintzoengan.

Leitza'ko pesta ortatik mugona artuta, diru-bilketa bat asmatu dute nere adiskideak. Egubefi aldera izango omen. Nere itzalditxo bialdua da Akademia'ra, erantzun bear dunarentzat. Esan nizun, noski, Leitza'ko mintza-doiñua nula mintzagai.

Tolosa'ra noanen batean, bialduko dizut zertifikaturik Doña Concha XX' entzat zuk ezagutzen dezun kuaderno ua, eskuz idatzia, ezifiez gelditu nintzan artekoa, ta beraz, azkenekoa. Ofi esker ohea emango dio makinazkoari baiño. Ala ere, guzia bukatzen dedanean, lenengo kopia, neronek eskuz ukitua ere bialdu nezaioke.

Tarteko lantxo batzuketan geldu iduki det, baiñan oraiñ asiko naiz bero bero bigafen partean. Bi kapitulu dauzkat egifiak, eta safera artu ezkeru, ondo joango da, Jainkoaren laguntzarekin.

Orañiarte eguraldi edefak egin ditu, baiña, sasoia da-ta, otzak asi ditu. Osasuna polita, eta neguan ere zerbait egiteko asmoa.

Besterik gabe, Jainkoak dizula osasun, eta
Memento.

Nikola

255

[1957-XI-29]

[Aita Isidor Baztarrikari, makinaz joa]

[Orexatik Lazkaora]

Orexa'tik, 1957-XI-29'gn.

Aita Ixidor Baztarrika'ri. Lazkau'ra

Aita Agurgafi ta adiskide maite:

Or dijoazu erenegungo gure izketaren ondafa.

Esaiozu Aita Juan'i, "Efi-gizonen apaiz-lana" obeki derizkidala, *Eliz*-lana baiño, Elizan bafuko lanatzat artu ez dedin.

Aita Karlos'i ez utzi esan gabe, Misalaren uts zuzenduak txukun uzteko, bukatu ez ba'litu ere, Ameriketara joaterako.

Ez ote litzake obe Donosti'ra ta batean Iruña'ra ere Atsal-otoitz era [sic] Afats-otoitzak Eliz-baimen eske bialtzea? Donostian geiago luzatu lezakete. Len ere Salmoak an iduki zituten urte bete ta geiago, baztefera botarik, eta Andere Bafiolaren bekokiari esker piztu ziran aztertzeke.

Or dijoa zuk nai zenuken *karamelo* ua ere:

Te creavit Pater ingenitus

Adamavit te Unigenitus

Foecundavit te Sanctus Spiritus,

Tu es facta tota divinitus,

O Maria!

Erne gabe dan/ Aitak erne zaitu,

Ernea dan Semeak maitatu,

Goi-Arnasak emaztetzat artu,

Dana Jaunak egña zera zu,

O Maria

Ez nintzan joan Batzafectara. Zure afean nolabait egon baini-
tzan, gaberako burura jo nindun gaitzak gogor, eta oiñaze aundiekin
ukondoetan. Biaramonean makal.

Goraintzi miñak asi Aita Prior'agandik eta azkeneko tximurafiño.
Espezialak Anaia Antonio'ri, Anaia Narziso'ri ta Anaia Jose'ri.

Y a Miguelito y a *Miguelón*.

Mementote omnes.

Orixe

[Sinaduraren ondoren]:

Aita Mauro'ri: "Diligite inimicos vestros".

256

[1957-XII-8]

[Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]

[Orexatik Bilbora]

Orexa'tik, 1957-XII-8'gn.

Aita Justo Mari Mokoroa'ri. Bilbao'ra

Aita agurgafi ta adiskide maite:

Euskalzaindian bere safera, ta egin bear omen didaten Goratzafea,
Abendu onen 22'gafenean omen da, ots, San Tomas egunean.

Aufetik gatziratzen dizut etofi âl ba zendi. Tolosa'tik "Escolania
Gorriti" ba-dijoa.

Meza Nagusia izango da lenik, ea eguerdiko amabietan itzaldia.

Prisaka nago Correo'rako eta ignosce brevitati.

Memento.

Nikolas

[1957-XII-14]
 [Aita Isidor Baztarrikari, makinaz joa]
 [Orexatik Lazkaora]

Orexa'tik, 1957-XII-14
 Aita Ixidor Baztakarrika'ri. Lazkau'ra

Aita agurgafi ta adiskide maite:

Oraifarte txintxo jokatu naiz zurekin! Baiñan oraingo ontan ez dizut obedituko. Neri ez dit ezer esaten *Eresi-kanta* otek. Birlelo nai ez ba'duzu, emazu *etepika*. Ez al da esaten Goiefi ortan?

Anthipona izena jafi zunak ez zun oso ondo egin, berdin baita *responsorium*'ekin. Nik ola pentsatu nizun: Salmua kantatu ondoren, Salmu artako txatal bat *etepikatzen* edo befizkatzen da, beraz, *etepika*. Emen Orexa'n befizkatu: *repetir*, eta befizkoa: *repetición* ematen dira, baiñan ez ninduke beteko *betizkoa* ipintzeak.

Multikopi'ko ori zuzendu ez ba'diteke, bego; baiñan imprimen ez bedi jafi Eresi-kanta. Gogor xamar jafi ba'naiz, barkatu.

Goraintzi miñak etxeko guzi guzieri.

Memento.

I. O. Ez al zerate ari Revista kozkor bat ateratzeko pentsatzen? Oartzabal jauna ta ni bero bero gaude lanerako.

Orixe

[1957]¹¹⁶
 [Yakin-eko lankideei]
 [Orexatik Arantzazura]

Yakin'erako
 Arantzazu'ko teologo jaunei

Jaunak:

Ez da goizegi. Urtebete da lenengo *Yakin* bialduz karta egin zenidatela, ta nik ezifiez ixilik egin bear. Orain politikxo asi naizen ontan,

¹¹⁶ *Yakin* (Pro manuscripto), 5 zk., 1957, 90-93 orr.

erantzun labur bat ematera noazue. Galdera geiegi egin duzute liburu batekin erantzuteko ere; beraz erantzun luzeagoa geroko utzi bearke.

Nik gaur Arantzazu Euskal-Universidade baten asiera bezela ikusten dut, eta ez bakafá, bere Revista eder eta guzti. Noiz egin nezaken gure egun otarako olako ametsik?

Yakin'en idazleek bi irizpide artu ditute, obeki esan, bi jardunbide, guzion erabateko irizpide bakarra arako Campion'en ua baita: "gure baratzeko utsak geron landarez bete, *ál dugula*; ezin badugu, besterenera joan landare eske". Guzion erdian gaudela uste dugu, ta erabateko irizpide ortatik jardunbidera gatozenezan, or okertzen gera. Zergatik ori? Edo euskera ta erdera bear aña ez dakitzagulako, edo errazale ari nai dugulako. Bi jardunbide oriek, bi lege auen eredu dira: bata "alegiñik gutxienekoa" (bi gizonen izenak dauzkat buruan), eta "alegiñik aundienekoa", (Aita Ufutia, esaterako). Aukeran ni onen alderago, onengandik geiago ikasten baitut beste biengandik baiño. Ikasi, bai, ikasi, sukaldeko zokoan ere. Euskal-idazleok elkarren ikasle gera oraindik ere.

Yakin'ek, ots, Arantzazu'k, jardunbide bakarra artuko ote du? Ditekena da. Beti izango dira garbizale amorratuak eta mordoillozale alperak. Agertu dira garbizale amorratuak *Yakin*'en ere.

Neri Arantzazu'tik geienik gustatzen zaidan irizpidea Aita Ormaetxeberria'rena da, ta jardunbidea Aita Karmel Iturria'rena, bat bakarra aipatzeko. Auek gure gizaldiko (Azkuere'n gizaldi deituko nioke) gizonak dira. Gizaldi berria asmatu nai duten oriek, gure gaiñetik pasa bearke dute. Bestalde, gogor joko da oraindik garbikerira. Geroa lekuko. Zenbaitek euskerarentzat etorkizunerako dituten ametsak egi gerta balediz, Orixe au ere mordoillozaleen artean agertu bearke ote dun idurituak artu nau.

Gure Erriak bere buruaren eder-itxusi aundia du (*amor propio, pun-donor*, Naparroan), eta ez die biderik emango *existitzen* da, *balore positifua* ta olakoeri, euskeraz obeki jarri ditezke. *Balore*, gaiñera, bestera erabili oi da euskeraz: "ba-duzu balorea, kopeta, ausardia, ari egiteko?"

Erdal-itz asko ezin eman ditugu gaur bat-batean, baiña beste asko, bai. Esaterako: "zer da k....., idatzi nai ere ez dudán itz nazkagarri ori? *Humanismo* ta *civilizacion*, beste bi aizpa oriekin, ori da nik gorrotorik aundientsuna diodan itza; aldez aldez kristautasun jatorrari ere lekua kendu nai izan baitio. Iru itz oriek izenide edo sinonimo dira, ta gaur ere erabili ditezke adiera beretsuan. Batzutan gizabidea,

bestetan eskola, *istruzion*, (*de instrucción pública, de cultura*), besteetan, metafora bera gorde nai bada, landubidea edo giza-lantzea. Nik euskeraz “gizon landugabea” lenago irakurri nun, erderaz *hombre inculto* baiño. Nere gaztezaroan egin nitun iztegitxoetatik, asi Axular’engan-dik eta Iztueta’ganaño, Mendiburu, Kardaberaz eta beste batzuk tar-tean zirala, an egongo da nonbait *landugabea* (J. B. Agirre, *Eracus-taldiac*).

Latíñez ere, aurrenetik, etzegon ongi esana: *agri cultura* zan batez ere, eta *hominis cultura* esanarazten diote. Latin klasikuz ere ez diteke ezan itz ori soil soilik, bere elkarrekikoa gabe. Kikeron’ek ez luke kon-prenituko.

Beste adibidetxo bat. *Thesis*. Onek ere, jatorrizko izkuntzan, grie-goan ez digu oñarririk aski ematen, ongi itzultzeko. *Thesis*, nik lenbi-zi ikasi nunez, *arsis*’en buruz-buruzko itza zan, eta koru-maisuaren orpoa lurrean ezartzea dakarkit burura. *Tithemi*, laugarren adieran “egi bat ezartzea” zan. Edozein izkuntzatan obe litzake adierazte bakarrera-ko itz bakarra, ta gu muga ortan gaude, asieratik ondo ipintzeko. Beraz, *thesis*, egi azalkizuna, egi azalbearra edo olako zerbait, *egi* ken-durik ere, *Thesis* baiño errezago euskaldunentzat.

Zertako bi itz? Ona askoren oztopoa. Igaz galdegin zioten gure idazle jator dan “Ibar”i Parroki aundi batean, nola esango luken *Asum-pzino*. “Zerura jasoera”, arek. Ez du balio, erantzun zioten, itz bakarra bear du. Jaun aiek etzeuden ez euskeraz ez latíñez geiegi jantziak. Elizak ere, bere latin mordoilloaren artean klasikuek antzera ipifí du kirieleisonetan. “Regina in caelum assumpta”. Izkuntzak ez dira berdi-ñiak, eta guretik erdera askotan bi alako ta geiagi bear dira. Ontan utsegiten dute asko, idazleek. Itzen elkarrekiko legea gorde ezkerro, asko errezten da euskerara itzultzea. Ontaz ba-dut zerbait esana *Ger-nika*’n: “la ley de las palabras correlativas”. Guk klasikuen antzera gau-zak zearoago esan beharra daukagu. Oraingo gure inguruko izkuntza auek mordoillokeriz beteak daude, ta gutxi erakusten digute klasikuen aldean. Eta K..... amorragarri orren izenean, guzi guzia, on eta txar, euskerara biurtzea nai dute.

Urrutiegi noa. Guk ez omen dugu 50 urteetan ezer egin K..... madari madari orrengatik. Neroni jaun batek kartaz esana, eta orduko irakurtzen ziran poema eta Misal’a. Baiñan ori esanda bere urrengo artikuluan neri artu zidan *gizabide* edo humanismoa. Aurrenetik go-gorregi asi ziran gaztetxo oriek gure kontra, Akademi Berri batekin. Lengo akademia’k egin zun lan ia bakarra, ortografia ezartzea (bestela

dira Azkue'ren eta Altube'ren bakoitz-lana), txartzat eman zuten, eta ba-zirudin oso beste idea batzuekin zetoze. Apurtxo bat asaldatu gihan zârrok, eta nik, bero bero, gogor xamar artu nitun. Barkatu, jaunak. Orain gugana pixkaren bat biltzen asiak dirudite.

Guk aitzaki asko izan ditugu, baiñan eziña eskatu digute beti. Irakurle-mota bakarra ez diteke asmatu euskerarentzat. Erria, erria! Erri nekazariak ez du batere irakurtzen (eunetatik batek?), bestela Ipar-Amerikan, esaterako idazleek milloika aleak atera bearko litukete. Erri irakurleak bi dauzkagu gaur: matxinada aurrekoa ta ondorengoa. Nik erri nekazariarentzat poema ta Santa Kruz apaiza ditut egiñak. Beste liburuak erri irakurlearentzat, lengoarentzat; orain irugarren irakurle-mota etorri zaigu, ark aifia ez dakifia ta eskatzen ez duna. Alare, oraingo gaztediaren berotasuna ikusirik, esan liteke gure lengo erri ikasiaren oinera igoko dala. Urrengo nere liburua guzientzat izango da, Jainkoak onez, baiñan ez uste izan nik atzera egingo dudarik. Geiago eskatzen digutenei geiago eman bear diegu.

Gauza geiegi datozkit burura karta baterako, ta bukatzera noa. Jainkoak ongi bagaitu, luzeago itzegingo dugu.

Oraingoz, etsi ezazute erantzun labur onekin.

Ormaetxea'r Nikola
(Orixe)

259

[1958-I-16]

[Martin Oiartzabali]

[Orexatik Hernanira]

Orexa'tik, 1958-I-16'gn.
Oiartzabal'dar Martin iaunari. Ernani'ra

Adiskide aundi:

Zurea iaso ezkeru au gogoak eman dit: zu onara etorteko oker dagola, ta lokazti izugafiak daudela, ta ni or agertzea obe litzakela. Neretzat astelena da egunik oberena. Datofen ontan, 21'gafenean, astelena, noski, joango nitzaizuke. Astelenetan amabostero etorten da "Atalloafa" Orexa'raño. Beraz, nik, ofara eguerdi aufean iritxi, ta ilun-terako Tolosa'ra, aski nuke.

Lanerako gogoan omen zaude, Aita Ixidor'ek dionez. Ni ere bai, bada, ta lenego bezela asi naiz ziztu osoan, *Jainkoaren bila* ori aurten bukatzen ote dudan. Tarteko lan batzukin, iakifia.

Zuk zeure asmo ta burubideak ba'ditukezu, nondik asi, zer egin. Nik nere aldetik lenengo lan befia, onako azalkizun edo *thesi* au: izkuntza guziak batetik ote datozen, beraien itz-ufenari edo Syntaxiari begiratu ezkeru. Ustekizun edo hypothesi bezela, behintzat. Oarkizun batzuk ba-ditut Prantzian utziak, ez dira gauza aundia; baiña, zuk atzera egiten ez ba'duzu, bion artean osatuko genuke. Neretzat bakafarentzat lan astuntxoa.

Nik zati auek azertu nitun latifñezkoak: Dial. II, *De Oratore* (osoa), *De vita et moribus Catilinae*, eta *De bello gallico* (zatiak). Griegoz Homer, Platon, Xenofon, Anakreon (zatiak). Ondorio au atera nun: Salustio 97% aldiz euskararen itz-urrenara irixten dala, Kaiser 95% aldiz eta Kikeron 94% aldiz. Gaiñerako latitarrak ortik asko ieixten dira. Griegoek asko galdu zuten itz-ufena. Platon ez da irixten askotan 60'tara ere. Ezago Xenophon eta abar. Homer ere befiago da itz-ufenean Vergili baiño. *Hispositis*, eta iaponesa ta turkoa euskerarekin berdin dirala, ta gaiñera, izkuntzak, zenbat eta literatura zafagoa duten gurera gehiago urbiltzen dirala, uste izateko da, len-lenbiziko izkuntzaren itzufen a gure auena dala.

Beste aztergai bat: "Baratza-iofa" izena dun kritika bat egin genezake biok, *Euzko Gogoa*, *Egan* eta *Yakintza* aurkikuntza ditugula. Bai siñeskizunean, bai ele-edefean, gure gaztedia ezkefera doa. Aro obeak etofiko dira, lainkoak onez. Iakifia O ta O'ren izenean¹¹⁷. Zer iduritzen?

Ni gero ta obeto osasunez, lainkoari esker. Odolak berotzen ari zaizkida, ta zu bezelako galga baten beafa izango dut oraindik ere, gegiegikorik ez esateko.

Or itz egingo luzeago.

Etxean guziak ongi. Argi gaixoak makufa ukan du: lenengo aupa Cesarea'ren bidez atera zioten, eta beala il zan.

Guzien kexi goraintzi.

Memento

Nikola

¹¹⁷ Laburdura horien azpian Nikolas Ormaetxea eta Martin Oiartzabalen abizenak aurkitzen dira.

[1958-I-24]
 [Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]
 [Orexatik Bilbora]

Orexa'tik, 1958-I-24'gafenean
 Aita Justo Mokoroa'ri. Bilbao'ra

Aita agurgafi ta adiskide on:

Ba-dakit emen pasa ziñala, ez ofegatik afastorik utzi gabe. Eskefik asko Ebangelioko alabari *Dacortin'*engatik.

Labaien jaunak oraiñarte bildu dizkidan diruak amar mila pezeta dira. Oraindik ez dute egin diru-xahuketa Napafak, batez ere Diputazioak, eta itxaropena ortik, eta geroko ere.

Gaur jaso det Otxoteko mendikuaren karta Donosti'tik, lufiñiak eta tximist-argizko efaiak emango dizkidala, ufurik. Bai ona dala Jaungoikoa nerekin!

Jainkoaren bila bigafen alderdian oraindik bost jardun bakafak egin ditut, 152'gafen ofialderaiño. Tarteko zenbait gauzatxo ere erauntsi dizkidate. Osasunez gero ta obeki arkitzen naiz, eta itxaropena Jainkoak naiko dula nere lanik aundien ori bukatzea ta besteren batzutan saiatzea.

Ez dakit Eliz-iritziak ontzat emango ote dun azkena egin dedan Jardun au. Nere ustez beña da, neri Santa Teresa'k idarokia. Erderaz esango dizut labur. "Presencia evocada (Jesucristo en cualquier paso), presencia *mixta*, combinando ambas cosas en la composición de lugar". Ori Santa Teresarenean garbi ageri da, konturatu gabe egiten ba zun ere.

Papera bukatzen da, ta ufena arte.
 Memento.

[Sinadurarik gabe]

[1958-III-26]

[Aita Isidor Baztarrikari, makinaz joa]

[Lasartetik Lazkaora]

Lasarte'tik, 26-III-58

Aita Ixidor Baztarrikari. Lazkau'ra

Aita Agurgafi ta adiskide maite:

Donosti inguru auetan ibili naiz tximist-efaiak artu bitartean. Don Martin'ekin egin det ogeialdi bat, ia nola moldatzen giñan biok lanerako. Lenbiziko bi egunetan zerbait egin gendun, baiñan andik aufera ezer ez. Gizagajoari atsedena komeniago zaió lana baiño. Gaifñera, nik agoz esanda arek idazteko, goferi aundia dauka, ta bion artean gizon bat ez degu osatzen.

Uste ustean nengoan ni befiro Lazkao'ra joanda, ua ere aldi batzutan an egonez, lana egin genezakela biokikoa; baiñan uste ofek erdia ustela ukan du.

Nik ere ez daukat amofazio gogotik nere azkeneko liburu ontaz landa ezer egitekorik. Ortan, bai, ari naiz gogoz, eta auferatzen ari naiz. Aurten bukatzeko itxaropena.

Eta zer diote nere kopiak? Eta Bezperak, noiz agertu bear dute? Ba-neukan ale bat ikutu batzuk emana, zuri bialtzeko; baiñan andere Elbira Zipitriak kendu zidan eskutik. Leitz'a'n zuk emandako aietatik, ua bakafa neukan; besteak oraindik ez dizkit bialdu Gazteluko iloba apaizgaiak.

Eresi-kanta orek ez nau batere betezen. Eñepika nai ez ba duzu, *birlelo* ipiñazu. Ori eñiak ulertu beafik ez dago. Aski da Birl. ematea. *Artizafa* ordez *argi-izar* ezafazu lenengo Salmuan. Eta an bereon: *nere eskubitan jafi*. Bizkaieraz polikiago dator *jar zadi*. Beste uts apufen bat ba-zeon, baiñan ez naiz oroitzen.

Etzi, Jainkoak onez, Orixe'ra noa. Sendagileak nere burua zaintzeko esan dit, eta an baiñon obeto ez naizala iñon egongo. Eguzki-bañuak artzeko agintzen dit. Beraz, ni Lazkau'ra joate ori gerta-egerta dago.

Len aztu zait au esatea: Bezpera oien *prueba*'k neronek ikusi nai nitukela.

Zer besterik? –Ezer aundirik ez.

Mila goraintzi orko Anai guzieri. Lengo artan, goraintziak ematean, uts aundi bat egin nun: Anaia Txomin, *Frère Dominique*, nik ainbeste zor diodana, atzean utzi. Oraingoan emazkiozu bero beroak; bai eta Anaia Narziso'ri, Anaia Antonio'ri, Anaia Jose'ri, eta azpitik gora goazela, Don guzieri, Aita Priora, azkena aipatu ba'det ere, aufena dala.

Memento.

Orixe

262

[1958-IV-25]

[Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]

[Orexatik Bilbaora]

Orexa'tik, 1958-IV-25'gn.

Aita Justo Mari Mokoroa'ri. Bilbao'ra

Aite Agurgafi ta adiskide maite:

Ixilaldi luzea oraingo nere au. E'famu biaramonean bildu nintzan etxera. Igazko era ber-berean, Apirilaren len-astean erorialdi bat izan nun, geiago ezertako ta iñorako gauza izango ez ba'nintza bezela. Ezinjana, gora-naia, zorabioa, ia oraintxe arte. Oraindik ez naiz nere onetara etofi, baiña laister etofiko ote naizan. Apirileko tunel beltz aundi au igarotzen ari ote da? Iduri zait, bai, beste mutufean argitasuna asi dula.

Odolaren aldia izan ote da? Igazko siñale ber-berak izan baititut.

Eguraldiak ere gogotak egin ditu: elufa, izotzak eta euriak. Orain eguzkia atera du, ta beroak asi ditu. Ekuzki asko artzeko agindu zidan Sendalariak, eta tisikuen bizimodua egiteko, au da, etzana. Ontan txintxo entzungo diodala nago.

Jaso nun *E'faondoko azken-tanbolintero*a. Oso txukun eta atsegin dago. Ingurutxo ori Napafoko Goie'fin eta Basaburu'n eta Lafaun'en oso entzuna zen Pontxo aipatuaren bitartez. Txuntxuneroa ere jator dago. Ez da Afueren galtzajario edo gefiko-jario aietakoa. Txalo, ofela atera dunari!

Oraintxe lana mendean det. Bigafen Alderdia ia bukatua daukat, eta gaiñera Lasarten nengola, egin nitun, beintzat, Sinfonia'ren iru

emanaldi. Beste biak ola ateratzen ba'zaizkit, etzait iduritzen burutik joana dagonen batek egiñak izango dirala. (Au Andere Kontxesi'rentzat). Aintzintxe (I. Etcheberry) aitzintxe (Uitzi'n) aitzin (ibid), âztin (Orexa-Gazteluetan) *hace poco*, eta ez arestian, zorabio-nai bat etofi zait, eta aski det.

Memento.

Orixe

263

[1958-IV-25]

[Martin Oiartzabali]

[Orexatik Hernanira]

Orexa'tik, 1958-IV-25'gn.
Oiartzabal'dar Martin iaun apaizari. Ernani'ra

Adiskide aundi:

Noizbait ere garai da bizi-zantzua emateko. Erramu biaramonean bildu nintzan etxera. Igaz bezala bezalaxe, Apirilaren len-astean erori aldi aundi bat izan nun, geiago ezertarako ta iñorako gauza izango ez banintza bezala. Ezin-jana, gora-naia, zorabioa izan ditut lagun ia oraintxe arte. Oraindik ez naiz nere onetara etofi, baiña laister etofiko ote naizan. Odolaren aldia izan ote da?

Beafik ere, lana mendean daukat, beste argialdi pare batean bukatzeko eran. Jainkoa lagun, oinbeste adiskideen otoitzak bultzatuta iritxiko al naiz azkeneraño.

Egualdiak ere gogofak egin ditu ilaren lenengo egunetan: elufa, izotzak eta euriak. Orain eguzki edefa agertu du. Eguzki asko artzeco agindu zidan sendalariak, eta tisikuen biziera egiteko, au da, etzana. Tintxo entzungo diodala nago.

Ez dut asmorik bigafen tximist-efai txanda artzera ioateko. Ezue-ritik obetoxeago noala iduri zaida.

Aita Ixidor'i egin nion Lasartetik, eta ez dit erantzun. Ni Lazkau'ra ioan al izatea, gerta-ez gertako gauza zala esaten nion. Bezpera'en befirik ez dakit batere. Igaz Egubefitarako argitara emateko asmoa zuten. Gauzak patxaraz artzen ditute.

Besterik gabe, mila goraintzi Eusebi ta Estefani lengusueri, eta zu nitaz.

Memento.

Nikola

264

[1958-V-16]

[Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]

[Orexatik Bilbaora]

Orexatik, 16-V-58

Aita Justo Mari Mokoroari. Bilbao'ra

Aita agurgafi ta adiskide on:

“Nunc dimittis” esana det Simeon'ekin. Ilabete onen amalaugafenean bukatu nun *Jainkoaren bila*: bai bigafen alderdia, bai eta *Sinfonia* ta *Fuga*. Orain *notak* ipintzea palta; gero, txukundu ta kopiak atera.

Ia zu onera etortzerako irakurtzeko moduan ipintzen dedan. Opoaldia Tolosa'n egingo al dezu.

Orain, ikas-urtearen azken ontan oso lanpetuta zaudeke, nik bi egin nizkizun, eta ixil xamar baitzaude. Ez da batere afitzekoa.

Ilabete terdi patal xamar ibili ondoren, xuxperten asi naiz. Orain ez dit ainbeste kezka ematen osasunak, beti esker onez artzekoa ba'da ere.

Iraileko izkuntzalarien Batzafe ortara ez dakit agertuko naizan, ongi ba'nengo ere. Oraifarte ez didate lanik agindu. Euskalzaindi'tik zeintzuk ote dira an egoki jardun dezaketanak? Eta atzefiko jaun aundien artean! Gu beti “pobres pero hidalgos”. Neri lanik ematen ba'didate, zuk ezagutzen dezun au aterako nuke: “Cifras comparativas de las sintaxis clásicas, romances y vasca. Sintaxis humana única”?

Laister arte, Aita Justo Mari, Jainkoak nai ba'du.

Memento.

Orixe

[1958-VII-3]
 [Martin Oiartzabali]
 [Orexatik Hernanira]

Orexa'tik, 1958-VII-3'gn.
 Oiartzabal'dar Martin iaun apaizari

Adiskide aundi:

Beti erantzuteko eta erantzuteko, ta azkenean befiz atxitu nauzu. Ez, bada, osasunez okefago nagolako. Ortik etofita bi ilabete kaxkafak igaro nitun; baiñan afezkero obeki noa, polikitxoaz ere. Zangoetatik nagi ta eskuetatik baldar, bai; bestela, ordea, ez dute ezagutu nere bizi guzian gaur bezalako osasunik. Margo biziak, urdail ona, biotz obea, auspoak ere on; baizik ere, mintzoa daukat motel, erlasi edo marrantzza banu bezala.

Ilabete onen erditik ara Arantzazura deitua naiz, eta egunak noiz izendatuko ditidaten nago. Egun bereon egin diot Aita Nagusiari, ta zuri ezin esan noiz emango ditudan nere ikasalditxoak.

Ernai ibili Lazkau'rekin. Etxe zakufa da ua. Ni ez naiz ausartzen ioatera, asmoetan banintzan ere. Zaindu ezazu zeure burua.

El lenguaje vasco ortan egizu nai duzuna, ta nik ontzat emango. Zertanbait erara ez ba'gago, batak besteari efua erantsi dezaiogun, eta kito. Nik nere *Jainkoaren bila* bukaturik daukat; aldakiak ateratzen ari zaizkit, bai Lazkau'n, bai Tolosa'ko Sakramentinoetan.

Olabide'rena Andre Marietarako agertzekoa zan, ustez, baiñan irarkolan atzeratu egin dira. Ala ere, diozuna, Egubefi aldera argitan izango omen. Zer atsegiña! Zaitegi ere ari da *E. G.* banako bereizi bat A. Olabide zanaren goratzafetan ateratzen. Nere lana iasoa du, lengo astean idatzi zidanez.

Zaude bizkor. Goraintzi lengusueri, eta.
 Memento.

Nikola

[1958-V-29]
 [Jokin Zaitegiri, makinaz joa]
 [Orexatik Miarritzera]

Orexa'tik, 1958-V-29'gafena
 Zaitegi'tar Jokin jaun apaizari. Miafitz'a

Adiskide on:

Ez nago izugafia lanerako, orain erori ta gero zutitu, nolabaiteko osasun onekin; bañan itsusi litzake Olabide zanaren goratzafe ortarako nik ezer ez bialtzea. Len ere min dut, Azkue zanarenera, oso garaiz bialdu ta asko gosta zitzaidan lan bat ez agertu izatea. Bi aldaki bialdu nitun, bata Euskalzaindira ta bestea Arostegiren alargunari. Ez da aien zantzurik.

Nik neretzat aukeratzen dudan azalkizuna 25'gafena da: "Itun Befiko idaztuna baten azterketa: Paul Gurenaren eskutik."

"Olabide ta Orixe" aukeratzen dunari esaiozu nerekin erara jafi dedila. Nik dakit iñork baiñon obeki, zenbat zor diodan. Aztafen bat polita eman nezaioke.

Ba-dakit zu ere estu artu zaitutela. Jainkoari nai dakiola zuretzat eta guziontzat egun obeak etofi ditezen.

Bitartean.

Memento.

Orixe

[1958-IX-12]
 [Aita Isidor Baztarrikari, makinaz joa]
 [Orexatik Lazkaora]

Orexa'tik, 1958-IX-12'gn.
 Aita Ixidor Baztarikari. S.S.B.

Aita Agurgafia:

Ba-ziran onezkero sei ilabete elkafen befi ez genula. Bizi-alargundu giñala nengoan. Ez ala ere! Nik emendik mugitzeko asmorik ez

daukat, ez Lazkau'ra, ez Arama'ra. Bertan goxo. Beste aldera, zu edo beste ifior onera etortzerik ez nuke nai, gure etxekeori lotsak ematea omen dalako!!!

Nola ikusiko dugu bada, elkar, zuk diozun lan ortarako? Neretzat efexena au da: amabostero ateratzen naiz Tolosara, egun-pasa egitera, eta ufengo eguna, datofen astelena da: ilaren amabosgafena. Bazkal ondoan etofi ba'zendi, Labaien'ean arkituko nauzu atsaldeko seirak arte. Bitartean egingo dugu zer edo zer.

Bezpera-Completa'ena ez didazu esaten bizkaierazkoa ere censurara eraman ote zenuten. Ez litzake, bada, baztafean uztekoa. Osasunez aski poliki, urte-aro ontarako. Afixkurik aundieneko ilabetea pasa zait, zorabio askorekin, baiñan atake'rik gabe.

Arantzazu'ra ere eramatekoa ninduten lengo ilaren bigafen amabostaldian, baiñan ez naute deitu, eta onezkero ez deituko ere, ilaren amazapigafenean asten baitute Cursoa edo ikasturtea. Guardian'a aukeratzea, beratziufena ta abar, oso lanpeturik egon omen dira. Bego, bada, aurtengoz ere. Len ere iru saio egiñak dauzkat joateko, eguna eman eta guzi, baiñan iruretan atakeak atzeman nindun.

Eta, Lazkau'ra noiz jaongo? –Etzait batere goxo trenetan ibiltzea. Beti obekixago, ustez, baiña nekez nator.

Naiko befiketa ba-derabilte censoreak *virgo* ofekin. Ori, lenbizi, latiniñik ez jakitea da. Gero, euskerarik ere ez. Neskatxa ta *virgo*, Elizak esan nai duna, orobat dira. Euskalefian etzaio beifiere esan *neskatxa corrupta* danari.

Lazkau'n lan asko? Zuk, batez ere. “Misereor”. Izan ere ainbesteraifio sakabanatu zerate orko Anaiak.

Agortu naiz oraintxe. Goraintzi etxe ortako praile guzieri, ta laister arte.

Memento.

Orixe

[1958-IX-19]
 [Justo Mari Mokoroari, makinaz joa]
 [Aramatik Bilbaora]

Arama'tik, 1958-IX-19'gn.
 Aita Justo Mari Mokoroa'ri. Bilbao'ra

Aita agurgafi ta adiskide maite:

Befitxo bat eman bear dizut, geiegi afituko etzaituna: noizbait ere, etxetik bialdu nautela. Etxearen balioa baiño geiago nere dirua jokatzen baldin ba'dute ere, nik ez det agiririk, eta afebak bere itun-paperetan ez dauka nere alde ezer esanik, etxera biltzeko edo olakorik. Beraz, "à la porte" esan didate, eta onara etofi naiz, Pafoko jaunaren etxera, iloba baitet, bear ba'da zuk ezagutuko dezun Jose Mari Aranalde, gazteluafa.

Etxe polita du baratzarekin. Lenbiziko gauean lo edefa egin det, tirada batean. Iloba onek ba-du istudiorako grifa, eta atera nai nuke onengandik ikasle on bat. Nik lagunduko diot, gafiñera, Katixima egiten.

Emen nere *Completa*'k kantatzen ditute igandero, eta datofen igandean entzungo ditut, Jainkoak onez.

Diru-laguntza espero det adiskideengandik. Labaien jauna asia da mugimentuan. Jainkoak ez nau beñere eskuetatik utzi, ta aufera ere lagunduko didala iduritzen zait.

Gaurkoz naikoa da.

Memento.

Orixe

[1958-IX-19]
 [Martin Oiartzabali]
 [Aramatik Hernanira]

Arama'tik, 1958-IX-19'gn
 Oiartzabal'dar Martin apaiz iaunari. Ernani'ra

Adiskide aundi:

Ematera noazun befitxo batek afituko zaitu: atzoko egunez bota ninduten etxetik. Etxearen balioa baiño geiago nerea ba'dute ere, nik

ez dut agiririk, eta afebak bere itun-paperetan ez du nere aipurik egi-
ten ni etxera biltzeko edo olakorik. Beraz, legez ni etxetik landa bial-
tzeko eskubidea dute.

Arama'ko Parroko dan nere iloba Joxe Mari Aranalde'k pozik artu
nau bere etxean. "Bazan garaia!, esan zidan; asko pozten naiz. Zuk
etzenun iende aien tartean egon bear ere".

Etxe polita du bere baratzakin. Lenengo gaua lo batean egin det.
Iloba onek ba-du grifa ikas-lanerako, eta ikasle on bat atera nai nuke
onengandik.

Emen nere *Completa*'k kantatzen ditute igandero, eta datoñen
igandean entzungo ditut, Jainkoak onez.

Labaien launa asia da neretzat diru-biltzeko asmoan, adiskideen-
gandik. Iainkoak ez nau beñiere eskutik utzi, ta aufera ere lagunduko
naua iduri zaida.

Osasunez obeki zoazala entzun diot noribaiti. Ala obe!

Gauza au gertatu baiño len, nere iloba onek Aita Ixidor Baztarri-
ka'ri esanik zedukan ekafiaziko nindula. Laister emen dut, Bezperari
eta *Completeri* azken-begiratu bat emateko. Eliz-baimena ukan dute,
ta luzaro gabe argitara emago ditute.

Gaurkoz besterik gabe, lengusueri goraintziekin.

Memento.

Nikola

270

[1958-XI-14]

[Martin Oartzabali]

[Aramatik Hernanira]

Aramatik, 1958'ngngo Azaroaren 14'gn.
Oartzabali'dar Martin apaiz iaunari. Ernani'ra

Adiskide aundi:

Oraingoan ez daukat aitzakirik: erdia baiño geiago nagitasunez gel-
ditu nintzan zure egunean bi itz idatzi gabe. Motelaldia ere izan dut, sen-
dagailuak erabat utzi nitulako; baiñan orain obeki nago lainkoari esker.

Saindu guziak zortziufena bai omen dute, eta ala bearko. Iakiña,
etzindudan aztu egun ofetan Iaunaren afean. Ilabetez lenago kezka-
tzen asia nintzan Azaroa zalakoan eta gero txuri, eguna etofita ere.

Zu osasunez polikiago zaudela entzun dut. Ala bedi. Orko iloba bat etofi zitzaidan eta goiz ikusi omen zindun Meza ematen.

Santa Teresa egunean Lazkau'ra izan nintzan itzalditxo bat emanez; baiña lengo igandean ez neukan kemenik Aita Mauro'ri atsegiñak ematera ioateko. Egun ortan iabetu zan nausigoaz.

Nere azken-liburugaiaren bigafen alderdia kopiatzen ari zaizkit. Berak argitara nai omen lukete Lazkau'koak, edo argitarazi. Argitara dedineko aldi bat izango da. Ez daukat ezer aundirik esatekorik, eta beste bat arte.

Goraintzi lengusueri.

Memento.

[Sinadurarik gabe]

271

[1959-I-24]

[Justo Mari Mokoari, makinaz joa]

[Aramatik Bilbaora]

Arama'tik, 1959'ngongo. Ilbeltzaren 24'gn.

Aita Justo Mari Mokoro'ri. Bilbao'ra

Aspaldi aspaldiko:

Lau ilabete ta koxka dira karta egin nizula, eta erantzunik ez det ukan. Ez ote zenun jaso? Bestela afitzen naiz oin luzaro zu ixilik ego-tea. Asafe ote zaude nerekin? Etzait iduritzen. Labayen'i aditu nion, edo ala nago, beintzat, neri karta zor zenidala. Ofegatik egon naiz ain luzaro ni ere txintekorik atera gabe.

Bai omen dakizu, naski, emen Araman bizi naizala. Etxetik bialdu ninduten, nere etxetik. Oinbeste diru emanaren "garbitasunak ateratzeko" esan zidan ilobak, eta nik ezin, ez bainion eskatu afebari peze-ta baten jaso-agiririk ere. Beraz, nere etxean nere burua afoz ikusi det, eta atera egin bear, ematen zizkidaten trato txafangatik.

Emen ederki nago Gaztelu'ko iloba apaizarekin. Osasunez eziñ obeki, ezueri au ezik. Nerekin klinikan mirari bat egin dute. Bi eten neduzkan eta bien operazioa batean egin zidaten Abenduaren 17'gafenean. Bafunbez oso ongi. Bi egunez aztertu ninduten zearo, eta etzidaten arkitu ez zuringokirik, ez azukrerik, eta urea ere tamañaz.

Biotzetik, befiz oso bizkor. Beraz, etzangiora. Amalau egun egin nitun klinikan, eta berela sendatu zitzaizkidan ufatuak. Lengo aldean, obekienik egon izan naizan aldean, askoz obeki nago. Estamotik, behintzat; ondo jan, ondo dijiritu, lo ederki egin, eta batez ere lanerako amofazioa sartu zait aundia.

Zer egiteko asmoa dedan? Istudiatzen beri-befitik asi, irakasleen eta esamifien bildufik gabe. Zer? Eta Metaphysika. *Ens, unum, verum, bonum, pulchrum, infinitum* oiekin liburu bat egin nai nuke, oraindik nere burua garaitu al ba'neza. Ez da izango silogismoz, ez eta idoridofean. Nere kristau-biziarekin ezotua dedin nai nuke, meditazio antzera. Ufundik, bederen, San Agustifien antzera. Gaiñera nere eun bertsorik oberenak egiten asia naiz (amar bat egin ditut) eta tarteka tarteka bukatzeko itxaropena, Jainkoak artarañoiko bizia eman nai ba'dit. Zer iduri zaizu? Asmoak ez dirala nolanaikoak.

Adiskideak kupituta laguntzen asi zaizkit. Bi apaiz asi dira nereztat diru-bila, ilean oinbesteko bat emateko bildu al ba'lezate. Jainkoak ez nau beifnere eskutik utzi, ta aufera ere konpianza.

Zu lanez betea egongo zera, jakiña. Aita Isidor beneditinoak esan zidanez, ez omen dakite zure *fichero*'arekin nola lanean asi. Alako batean ez ote ziñake etofiko argitasun batzuk ematera?

Nere liburu-gaia ere etzanik dago. Sosik ez, argitara emateko. Noizbait iritxiko al zaio txanda.

Besterik gabe,
Memento.

Orixe

272

[1959-I-24]

[Martin Oiartzabali]

[Aramatik Hernanira]

Arama'tik, 1959-I-14'gn.
Oiartzabal'dar Martin apaiz iaunari. Ernani'ra

Adiskide aundi:

Bai poztu nintzala zure azkenekoa irakurtzean! "Segi ortan", Azpeitiafak aintxintxilarieri esaten dien bezala. Agindu nion zure ilobari telefonoz otoitiz egingo nula areago, eta ori izango da ene "Segi ortan".

Ni oso ongi gelditu naiz. Klinikari mirari bat egin didatela iduri zait. Beñere ez dut olako osasunik ukan, Jainkoari esker. Bi egun osoz ondo aztertu ninduten, eta etzidaten arkitu ezer: ez zuringorik, ez azukrerik; urea ere tamañaz. Beraz, biaramonagoan etzanguran. Bi ufeke-tak batean egin zizkidaten, eta bereala sendatu nintzan. Batez ere ur-daitetik oso ongi nago. Ezueri au ezin sendatuzkoa. Orain beste *Decor-tin H* asmatu dute, ta ontan etsi ezkeru, orain oraindik Jainkoak urte batzuk emango ote dizkidan nago.

Befi bat zabaltzen asi da: "Orixe bizitzera Ernani'ra omen dijoa-la". Lekuona'k ala esan zion Labaien'i. Zer da guzia? Oraindik ez da seguru, ta esaten iardutea ez da komeni; baiña gure iloba au deitu du Añorga'ko Pafoko iaunak, or Lasarte'ko Hipo'en eta Ernani'ren tartean nekazari eskola ipiñi bear dutela landa aundi batean. Landetxe ortara eramari nai dutela. Beraz elkafengandik bertago giñake. Gauden, beintzat, eta Jainkoak nai duna dedila.

Besterik ezer gabe, goraintzi lengusueri, eta
Memento.

Orixe

273

[1959-III-30]
[Martin Oiartzabali]
[Aramatik Hernanira]

Aramatik, 30-III-59
Oiartzabal'dar Martin Iaunari. Ernani'ra

Adiskide aundi:

Pazko on lenik eta osasun onak iarrai dezaizula. Zurearen begira nindagon, agindu baitzenidan bestea, Debatik etoferan. Onezkero Ernani'n zaitut eta ez nuke berandutu nai geiago. Gaur Tolosa'n bota nai nuke eskutitz au zertifikaturik zure lanarekin. Oso poliki dago. Afamaxka batzuk egin nizkion arkatzez. Ioan-etofirik aundienekoa au da, edo olako ioka-itx bizkofetan dago: "Ark emen ba'ginduzka, guk ere ba'zinduzkakegu". Bigafen *ba* ori nai ta nai-ezkoa da; "izan ere" dana, edo *el hecho*, adierazten baitu.

Baitaratu al zera nola asi diran Aita Villasante, Altube ta Euskaltzaindia gure aurka? *Mi atalaya Montañera*'k oso muskildua eman du nere erantzuna. Afazoi bizkoñenak bakanduz. Adibidez: "Sendi no es nada, pues ni el vasco lo entiende ni lo emplea ni lo ha empleado jamás". Nere erantzuna: Todos los días lo están usando Radio Segura, que no hace alarde de purismo. Eta abar. Bialdu dut beste lantxo bat Olabide'ren alde, ta ez diet barkatuko. Emeki, emeki, baiñan afazoiekin.

Eta Olabide'rekin zer egin digute jesuitek? Dabid'en eresiak aldatu, eta, eta, eta. Gauden ixilik.

Ni ondo osasunez, Iainkoari esker. Befiz ere Pazko on, eta go-raintzi lengusueri.

Memento.

Nikola

274

[1959-V-27]

[Aita Santi Onaindiari]

[Aramatik Larreara]

Arama'tik, 27-V-59

Aita Onaindia Agurgarriari. Larra'ra

Agur Aita:

Si audes, emoizu artikulu ori *Karmel* en. *Yakin*'eko oteik lotsa-ga'firo diñardue.

Euskalzain bitzu oteik A. Villasante eta Irigoyen dira.

Karmel tik loraz bete ei nozue. Aspaldion ez dot irakufi. Etxetik ez dauste bialtzen. Orain emen bizi naz.

Nik ez dot *ukaiterik* arpidea ordaintzeko; baiñan emendik ara bialduko deutsudaz olango artikuluak, Iankoak onez.

Yakin'era bere bialdu dot beste bat; baiñan azkenengoa dadike.

Memento.

Ormaetxea'r Nikola

[1959-VII-3]
 [Martin Oiartzabali]
 [Aramatik Hernanira]

Aramatik, 59-VII-3'gn.
 Oiartzabal'dar Martin apaiz iaunari. Ernani'ra

Adiskide aundi:

Onezkero Deba'tik etofia zerala-ta zureari erantzutera noa.

Donibane Lohitzun'en amabi egun eginda, erixko etofi nintzan.

Orain obeki nago.

Donibane'ra ioan-etofia beren etxeko beribifean egiferazi didate adiskide batzuk. Ofela ederki ibili naiz, adiskide zaŕekin befiketa batzuk egifnez.

"Olabide bai" deritzon artikulua bat igofi dut *Egan*'era. Zer uste ote dute gazte inguma oriek?

Zurekiko auzi ori, naiago nuke gerora igofi. Udazkenerako ofara ioan be'gendi (atzo etxe artan bazkaldua da iloba apaiza), obe lizaida-ke bertatik bertara, txango labur batzuk egifnez, bultzietan ibiliz baiŕio.

Tarteko lantxo batzuk ari ditut. *Karmel*-era ere igofi nendun artikulua bat, Euskaltzaindiak emaniko arau aren aurka! (Pamili, sendi, eta abar).

Besterik gabe, goraintzi lengusueri, eta

Memento.

Nikola

[1959-XI-9]
 [Martin Oiartzabali]
 [Aramatik Hernanira]

Aramatik, 1959-XI-9'gn.
 Oiartzabal'dar Martin apaiz iaunari. Ernani'ra

Adiskide aundi:

Zurea iasoa. Bi ilabete ta geiago auetan oia ezin ustuz nago erabat.

Oraingo ontan ziatikak gogor io nau, ta ez nau utzi nai.

Etzi Sanmartin, eta au nolabait bialtzeko era etofiko al da. Iainkoak bete zaitzala bere doai onez, batez ere egun ortan.

Emendik Zabalegi'ra noiz aldatuko geran, ez nik uste bezain laister. Ilabete ontan, diotenez. Lekuona iauna (Iuan Mari) Erroma'ra doanetik. Aren ordeaz bear baitute gure iloba au Apaiz Laguntzaile, aurtengo urte ontan. Datofen urtean Zabalegi'ko Kapilau.

Ez nago *trempu* onean luzeago idazteko, ta barkatu. Oieko txokora befiz ere.

Igaro ezazula, bada, egun on bat lengusuen artean, eta ikusi arte. Nere iloba auek ere goraintzi eta eskumufiak.

Memento.

Nikola

277

[1960-I-5]

[Aita Miel Etxeberriari]¹¹⁸

[Añorgatik Oñara]

Añorgatik, 5-I-60

A. Mielito Etxeberriari, Oña'ra

Eskefik asko lenbizi, Egubefitako zure zorion-agufarengatik. Nere miñak edo aitzakiak dirala, nik artu bear nizun aúfea zerofek artu didazu.

Utzi degu Arama polit ua ia artu orduko. Ez du merezi efi gaixo arek oinbeste esku-aldaketa apaizetan. Oraingoa oso apaiz polita da, Seminarioan gregorista izana; euskeraz ederki daki, ta itzaldiegiten ondo moldatzen omen da. Iraun dezala luzaro.

Zure anaia gurekin etofi zan, etxe au ikusiz. Izan ere, txoragafia da, batez ere olako eguraldietan. Emen, oia efez ustutzen det, eguzkia irten orduko balkoira pasatuz. Andik iraultzen danean, nere gelara ematen du, oso sartu arte.

¹¹⁸ Gutun honetan Orixek aita Larrañaga eta Altunaren aipamenak egiten ditu, jesuitek in dituen harremanen seinale. *Iturria*: Patxi Altuna [prest.]: *Jose M^a Estefania Zabala, S. I. (1889-1942. Maestro de vascos*, Mensajero, 1990, 154 or.

Jainkoaren bila bialdu nai nizun (Bigafen alderdia), zerofek irakufi zenezan eta A. Lafañaga'ri eman zenezaión *ante censura previa* rako; baiña Donosti'ra bialdu dutela esan didate. Oraindio beste ikutu bat eman nai nioke, gauzak argiago ipifiz. Zuretzako bialdu nizun zati ortan, or joan ziran bi ofi edo, *Bibliografía* rekin. Bialduko al zenizkidake (oiek bakafak) sobre batean sartuta? Ez det oien bixkirik.

A. Altunak ere egin zidan Egubefiz, baiñan etzidan *Insbruck* beste aztafenik ematen, idatzi nai ba'nio ere. Zuk egingo ba'zenio, bialduko al zenioke gibelean dijoan nota ori?

Est modus in rebus, sunt certi denique fines,
quos ultra citraque nequit consistere rectum.

Gauzek tamaña dute, beren mugarekin;
andik pasa ezker, gauzarik ez da zuzenik.

In medio consistit virtus = *zintzo ere neuriz*.

Nai ba'du berak ipiniko ditu eleganteago oiñafi ofekin.
Beste bat arte, ta otoitzetan gogora nazazu bein edo bein.

Orixe



Azken urteak Añorgako Zabalegin Joxe Mari Aranalde ilobarekin (1959-1961)

[1960-VII-9]
 [Aita Santi Onaindiari]
 [Añorgatik Larreara]

Añorgatik, 1960-VII-9'gn.
 Aita Onaindiari. Larra'ra

Aita Agurgafi:

Itz bi baño ez oingoz:

1. Aspaldi andian egiñ eustan Zeleta'k aurpegi-auste edo *entrevis-
ta* bat, eta, Etxaniz Abade Iaunak esaustanez, geroz bialdu ei dau ofa.
 Afezkero, ba dira iru ilabete, Euskaltzaindi'ari eskutitz ixil bat bialdu
 neutsola, eta belutxo izango da Zeleta'ren ori argitara emoteko.

Afen eta afen, ez egizula emon *Karmel* en, Euskaltzaindiari yako-
 kon ezebe. Len bereak eta bi entzunik dago.

2. Ni oge aldetik ibili naz luzarotxo, eta lengo *Karmel* erako ezin
 bialdu izan dot ezer. Ufengoan, Iainkoak gura badau.

Ofenbestegaz.

Memento.

Orixe

[1960-XI-9]
 [Martin Oiartzabali]
 [Añorgatik Hernanira]

Zabalegi'tik, 1960'go Azaroaren 9'gn.
 Oiartzabal'dar Martin Apaiz iaunari. Ernani'ra

Adiskide aundi:

Oraintxe bai, esan bearuko "aspaldiko". Begira begira egon niza
 noiz eta zakidan agertuko, esan bezala, bañan etzator nik eta zuk nai
 bezain laister. Gaixorik al zagoz? Ez dizut opa olakorik; baizik ere,
 oraiñ aufean zeneukan osasuna, beintzat, eta biar S. Martin eguna dan
 ezkero, zeruko ta lufeko ondasunez bete zaitzala gure Iainkoak.

Ni oso ongi, esku-zangoetatik ezik. Lanean gogor ari niza.
Ba-dut itxaropide laister etofiko zakidala. Bitartean, eman egun
on eta osagafi on, eta lengusueri goraintzi.
Memento.

Nikola

280

[1960]
[Arnas-eko lankideei]¹¹⁹
[Añorgatik Areatzara]

Arnas'en berri laburra

Zer amets ederra! Lenengoa *Yakin'*ek ekarri zidan. Arriturik nago. Orain amar urte nola siñestu euskerarentzat olako etorkizuna? Eukaristi-Semeen Billaro'ko Ikastetxe Nagusian (Unibersidadean, esango nuke) sortu da Aldizkari au. Ogeita bat idazle Anai-sendi baka-
rretik, eta ez nola naikoak. Zuek urratuko dituzute marka guziak.

Lenengo orrialdeko Villaro ortan ez nago zuekin erara, (konpro-
me). Mendaro ta Izaro bezain euskaldun iduri zait Billaro ere. 3'gn.
orr. Kima ta muskil alperrak ez-ezik, ba-dakarzki loreak eta zituak ere.

Meza aldrebes. Idazpuru au irakurtean, *aldrebes* ori, atzekoz aurre-
ra Meza esatea konprenitu dut, *Ite Missa es'*etik asita *In nomine
Patris'*eraño. Artzai artean siñeskari bat gendun: *Credoa* aldrebes, atze-
koz aurrera, asi *Amen'*etik eta *Siñesten du'*eraño, ardia sendatzen zala
edozer gaitzetatik. Bein egin zion Leitzar' batek gure ardi bati erre-
medio ori, eta luzaro gabe, ardia il egin zitzaigun.

Aldrebes kerri orrek ez du ikustekorik Mezako jtzekin, eta ezer
gutxi aldare-maiarekin; apaizari dagokio, eta, Meza errira aurpegiz ez-
baifian ipurdiz ematea adierazten du.

¹¹⁹ Gutun honen data ezin da zehaztu, jatorrizkoa galdua delako. Garai hartan aldiz-
kari honen zuzendaria zen Paulo Iztuetari egina da. Iturria: *Arnas*, 3 zk., 1960, 66-
67 orr.

Artikulu oni zerbait erauntsiko nioke, beraren alde. Sagrarioak ez du, ataka gora bêra, atzerik ez aurrerik; gure Jaunak Euskaristian ere ez. Iguzki Sainduaren (custodiaren) atzetik otoitz egitean, iduritu al zaigu beñiere, aurpegiz ez daukagunik? –Neri ez, beintzat. Aldare-maiarena ez da soginkeri. Aldare nagusiak egin ditezke Elizako buru-orreatik aldendu xamar, apaizarentzat eta laguntzalleentzat arterik aski uzten dala. Mai ortan Elizatxo (*templete*) bat, maiari josia. Jaunaren txabolatxo (*tabernaculum*), au da, Gurejaundegia, ipifñi diteke apaizaren burua baño gorago, eta Sagrarioaren gainean Iguzki Santuaren tegia. Aldarean egon bear dun Gurutze Santuari ipifñi dedizkio bi iduri, bata erriari begira, bestea apaizari begira. Eta... kito. Apaizak ez dezala jardun, beñifpein, erriari bizkarra emanaz. Gure Jaungoikoak gizalegearen (edukazioaren) aurka ote dago?

Artikulu zailla. Ogeita bosten artean au bakarra arkitzen dut: *Irazkintza* eta *Pilosopia*. *Irazi* ori azi-erazitik ekarriko duzu, noski? Geienak ez dute ondo adituko. Zuk ongi artu duzu arrastoa itz berria moldatzeko, bai, pedagogia orri erdaldunek adiera zabalagotu egin baitiote. Aur-bide ez ezen, gizabide ere ba da zuk diozuna. Erderaz ere *educación* obe dago, zuk esan nai duzunerako. Aurra gizon da beure kaxkarrean, ba du norbaitasuna; gizona, berriz, aski aur beti; beraz, bientzat *giza*'rekin asma diteke euskera errezagoan.

Uts bakar batzuk an-emenka. Aundiena au da: *Arnas*. Bizkaian jaio, ta ez dakarrela artikulu bat bera ere bizkaieraz. Damutzen ba'zaio, ta urrengoan uts au betetzen ba'du, barkatuko diot.

Dakiogun dezaiozun ordez. Basarraketa asmatu duzu (*hermafrodita*), gizaki ta emazteki baita batean: *d-* asieran eta *-gu* bukaeran. *D-*onek ez *du*-rik eskatzen: nakio, zakio, *dakio* (ua *dakio*); aldiz, *gu-k* dezaiozun. *Ki* orren zen osoa *ekidin* da, *equidin* (Axular); nakidio. *Z-*, *d-* kidio. Artikulu berorrek *lezaiguke*, leki(di)guke ordez.

Banako ontan bi aldiz arkitu dut *laike*, leike ordez. Ez noa *a* orren kontra, soifñu-besteaz edo apofoniz berdin baitio; *l* amorrargarri orren kontra noa. Neri Gipuzkoan *leike* orrek aldioro belarrian min ematen dit: guzia leike, leike. *Diteke* (dedike, dadike) galdu dezute, ta beste ori bakarra darabilzute *puede ser* eta *pudiera ser* esateko. Guk ederki bereizten ditugu: diteke, liteke, ziteken (*pudo haber sido*).

Aldizkari onen doaiak. Lenik, gaiari dagokionez, ugari, askotarako, aldatsuak artzen ditu; euskeraz esaten, bai errezak, bai zaillak ere. Ideia argi ta garbiak. Ezagun da gazte oriek Irakasle onak dauzkatela. Urriena, izkerari dagokionez, eredu ipifñiko nenduke. Garbi-mordoilloan

erdi-tamaña egoki artu du. Dozenerdien bat neologismu ontzat eman-
go ez nitukenak; beste oinbeste eskas itz mordoillo. Eutsiko ote dio-
zute olako asiera ederrari?

*Arnas'*ek bai bide ditu lau aizpa: *Yakin, Laiaketan, Ekin, Erein*. Ez
ditut ezagutzen oraingo *Ekin* eta *Erein*.

Ez ote dira aizpa geiegi, bakoizka agertzeko? Oinbeste paper eta
papertxoz jendea aspertirik dago. Aizpa edo aizpautxi oriek sartu litez-
ke kartoi-etxezko elkartegi batean, aizpa-sendi bakoitza bakoitz geldi-
tzen dala, bere saila edukiz. Artikulua[k] ez lirake elkarri ille-tiraka
asiko. Danok elkar artuta Revista bikaiña atera diteke. Ez ote merkeago
ere? Erdi-illik dabiltzan oinbeste Revistatxori bizirik eusten ez al da
geiago gostatzen? Prailleak baserrietan, mojak beuren eskoletatik, ea auek
ez euskalzale amorratuak, gazta-puxka biltzeko edo sua pizteko beste-
tako gauza ez diran paper eta papertxoak okotzeraiño sartu-bearrez,
etxekoen lotsaz baliaturik. Eta geienak erderaz!

Oinbeste Mixio-Revistekin ere bakarra atera liteke, sendi bakoi-
tzak bere bakoiztasunari eusten diola.

Bukatzeko, ia Billaroko Euskaristi-Semeak, eutsi orri! Anai-sendi
guziak elkarren leian, ekin, euskera gaixoa lantzen, edertzen!

Orixe

281

[1960]

[*Arnas*-eko lankideei]¹²⁰

[Añorgatik Areatzara]

Arnas (III) irakurriz

Txoko bat emango al didazute zerbait esateko. Lenbizi, behintzat,
oso ondo ari zeratela, lengoan ere esan nizuena. Darabiltzizuten gaiak
atsegin zaizkit, eta euskera ere orobat.

Bañan, oartxo batzuk egitera noakizue. Atalaurrean zerbait arkitu
dut itsusi, zorigaiztoko k... itz ori. Zergatik diozu olako amorrazioa,

¹²⁰ Iturria: *Arnas*, 4 zk., 1960.

esango didazute. –Ara: erdaldun gaztelerak alemanetik artu zuten aurren berri artan, (latiñ-itza, baña *k'rekin*; ez aztu Bismarck'en egunetako kulturkampf), katolikuok muziñ egiten genion izen orri. Zergatik? Gizalege utsez eta soillez kristau-legea orde aztu nai zulako. Aldez, aldez, beñipein. Ni oraindik ordukoa naiz, eta ez naiz gogo aldatuko.

Euskeraz itz ori darabilenak, edo istori ori ez daki, edo erderarik ere ez, eta ez da arrigarri euskeraz ere orrela ematea. Erderak itz orren bearrrik ez du, gaur erdaldunen agoa betetzen badu ere, baititu lèn ere itzak ori adirazteko. Euskerazko paperak ere asko zikintzen ditu. Kuku k...ori!

Zer adierazi nai du? –Lènbizi artan, gizabide, giza-lantze osoa: buru-lana ta biotz-lana, au da: iakitea ta oitura onak. Gerora, oitura onak, kristau-oiturak, batez ere, âztuz âztuz joan zaizkie *k'zale* oiei, eta iakite *utsarekin* adirazi diteke eunetik larogei ta emezortzitan. “Culto”, beraz, jakintsu, ikasi, eskolatu edo olako zerbait. Prantsesez *palabras cultas* esateko, des mots “savants” diote.

*Arnas'*en lènego orrialdeko itz oiek zergatik onela ez ipiñi? *Jakin-gose, jakite-soroan*, \$. K... lènen, diozute; euskera bigarren. –Ez jauna, ez, biak batean. Eta obeki esan, lènik euskera, ta onen bidez jakintasuna. Aurbide edo pedagogian egi oiñarria au da: “ezagunetik ez-ezagunera”; beraz, lènik euskera, ezagutu dunarentzat; euskeraz ongi ikasi lènbizi, ta onen bidez jakinkizunak. Obe genuen eskolan asita gauzak euskeraz adirazi ba'litigute! Orain baitarutzen gera, batzuk, beintzat, gauzak ez genuzela bear bezela ikasi, etzizkigutela ongi irakatsi, batez ere Metafisika. Ordun oker ikasiak, euskerari esker zuzendu dudaz nik.

K... orrek salbatuko gaitula? –Gizabidea bear degu, giza-lantzea, nai dezutena; baiñan buru-biotzen lantzea. Baiñan goazen izena aztertzera.

Lèn onela esaten zuten: Ministro de *enseñanza*, gero, de *instrucción*, gero, de *educación*; orain, de *c...* Ortaz gañera zer esan nai dute *o...* orrekin? –Gizabidea, gizalegea, edukazioa. Gogoan daukat, gela beltzean nindagola, gizagaizo batek birau ikaragarria bota zun, eta beraren gisako beste batek au esan zion: *más cultura, hombre!* Euskeraz itz ori ezin-esanik ez daukagu izen garbi ta jatorrekin: bi bear ba'dira, bi, ta bakarrarekin ere bai. Nik lènago irakurri nun *inculto* erderaz baño, *landugabea* euskeraz. (J. B. Agirre, *Eracusaldiak*)

Gauza bera gertatzen zait *civilización'*ekin ere. Ustelkeri asko dakarkit gogora, ta k... orrek eriotzak ugari. Orra, bada, zergatik diodan erra izugarria itz orri. Neri *disgusto* aundi bat eman nai ez ba'didazute, ken zazute zuen Aldizkaritik k... zikiñ ori.

Urangá'tar J. J'ri. "Nor-izandun" esan bearrik ez daukazu, *persona habiente, personal*, esateko; "izandun"-engatik orobat esaten dizut. Edo esazu *nordun* naiz *izandun*.

Oiarbidé'tar Kepa'ri. *Prakadun* ori ez dakit Bizkaian, baña Narparraldean "galtzadun" *noble* adirazteko erabili zan. Gero berriz, Apostoladutza orrek ezer gutxi diño euskeraz. Ez ote litzake obe "Errigizonen egira-deia" edo olako zerbait asmatzea?

Zorioneko existenzialismu ortaz lantxo bat egiteko asmoetan nabill. Berritxukeri asko dabill filosofi orren inguruan. *Arquittrabe* dakarkit gogora: "¿Qué es el arquitrabe? –Hablar de lo que no se sabe". Gizon oiek ez diote beren aurrari izena ondo ipifii. Ez nora ta ez ara (desorientados) dabilta. *Le dernier livre de Paul Sartre* irakurtzen ba'dezu, aurki asmatuko dezu zeorrek izen egokiagoa. Filosofi orrek ez du netzat batere misteriorik. Aburu ori, bide-modu ori larru gorritan ipintzen saiatuko naiz *Yakin'*en, itz zailen artean. Asi naiz bialtzen Iztuetá'tar Paulo'ri. Importantzi geitxo ematen diozu filosofi orri. "Unamuno aundia" diñozu. Ez diot aundian batere kenduko, ta asmo det gizon orregaz mintzatzea, merezi dun tokian ipiñiz; bañan ez neri aipatu grezista aundi ua filosofu bezela.

Barkatu neri oartxo auengatik, eta segi ortan!

Orixe

[Sinaduraren ondoren, aldizkari-zuzendaritzaren oharra]:

(Oartxo). K... orrek, "kultura" itza adirazi nai du.

282

[1961-VII-25]

[Aita Santi Onaindiari]

[Añorgatik Larreara]

Zabalegi, Añorga, 1961'go. Uztaren 25'gn.
Aita Onaindia'ri. Larrá'ra

Agur:

Lelengoz artuizuz nire atsegiñiak zure izeneko eguna dala-ta. Gero, bafiz, Donosti aldetik ibili omen zara. Egon eta egon, eta etzintzan agertu, ta onezkero or zagoz zeure txokoan.

Ni osasunez makal, sendagailu bafiakaitik edo. Bapere ez daukot kemenik beaferako. Etofiko ete iata, datofen ilabete ortan *Jainkoaren bila* kopiatzen amaitzen ete dodan? Neke egiten iata kopiak ataratea, ta laguntzailerik ez.

Gatzelu'ren liburua bukaeran dogu, ta ufungo ilean bialdu gura leu-ke irarkolara. Nire Safera luzetxoa da-ta ez dakit zelan sartu zure lantxoa. *Cantico espiritual* en itzulkizunak, bai, irurak emongo doguz. A, B, C.

D. Zirilo'ri bialdu neutsona, zuri bialduriko aren kopia baño ez zan. Bigaten aldiz emon dozu, ala? Oindiño ez dot iaso *Karmel*, bañan emen etorko da gauetik goizera. Etxaniz iaunak ikusi ei deu.

Tolosa'ko batzaldiko neurtitzak zuri emotea erabagirik neukon, bañan etzintzan agertu. Batak eta bestek eroan deustiez iru kopia; itzuliko ta itzuliko, ta, uts. Itzaldiaren kopiak orobat. Al dodanean bialduko deutsudaz.

Oleri'ren batzaldiko enaz ausarten ezebe bialtzen: lotsa emoten deust alde batera. Loba asi da beure saioa egiten. Nik *extra concursum* bialdu bearko dot.

Beste barik, egizu otoitz nire alde, eta nik bihar bereizi bereiziak zure alde.

Orixe

283

[Noizkorik gabea]¹²¹
[Jokin Zaitegiri, makinaz joa]
[Zaragozatik Guatemalara]

Zaitegi'tar Jokin apaizari. Guatemala'ra

Adiskide on:

Nere paperak ez nitun etxean, eta ofek luzarazi nau. Onara zatozenezan ezin ekafi al zenezake *Urte guziko Meza-Bezperak* nik eta besteren batzuk ikusteko bederen? Befiz eramaten utziko dizut.

¹²¹ Gutunean Bingen Ametzagaren kontua aipatzen baita, hemendik atera daiteke kontu hori bera, aldaketa handirik gabe, Martin Oiarzabali 1951-VII-14ko gutunean aipatzen diola. Ordukoa behar du izan, beraz, data zehatza ezarri ezin bada ere.

Atsegiñez ikusiko nuke Andima alderdi auetan.

“Eun olerki onenak” oietarako nik ez-baña zerofek autatu bear dituzu. Ameriketan egiñ auetatik ez al litzake obe? 1. *Betaondoko Meza*. 2. *J, B, Bach'i*. 3. *Baru-mendian*. 4. *Bolibi'ko zabal dian*. 5. *Pampa'etan izar*. 6 ta 7' gafenetako *Argi ta margo ta Itz eta mintzo*” luzeegi baderizkizu, zuk aukera beste bi labur. *Getsemani*' korik ez, oso osoan ez ba'da, eta ori ez.

Paris'ko oieri iaramonik egin gabe al duzuna egizu. Zergatik ez dute laguntzen geiago? Garesti kontu ori, bestela multigrafu ofek auferapen aundia du.

Zubizafeta apaizaren ori aztu al zaizu? Ia bada noiz idazten didazun. Paperak nola egin bear ditun eta abar.

Poema itzuli nun guzia gaztelera'ra. Zu etortzerako 14' gafenerako nekez kopiak atera dezazket. Dana dala, bialduko dizkizut besteren baten bidez.

Amezaga'tar Bingen'en entzuterik ba duzu? Montevideo'n da Irakasle, naski. Ark egin dit Eleder-saileko Irakasle Agufa edo *Decano de la Facultad* de Letras'en aginduz, eta au erantzun diot: Kopia ateratzen dutanean, bat bialduko diotala. Iatofiz gutafa omen, eta bear ba da berak argitara emango omen du. Oraindik ez da gauza iakiñik, bañan ondo ba derizkio aterako du, naski.

Ez daukat befi aundirik, eta nere lanera noa, egun terdi San Salvador'en galdu ondoren.

Zuk patxaraz erantzun omen diozu Mameme'ri ta berak ere ala egingo omen du. Neurtitzak ikusi genitun. Argin-lana egiten ba daki-zu. Bestela, gero ta gehiago nazkatzen naute puntu zikin oiek.

Memento.

Orixe

284

[Noizkorik, nondikorik eta norakorik gabea]

[Jokin Zaitegiri, makinaz joa]

Zaitegi jauna:

Jaso ditut, nekez bederen, zuk bialdu ditidazun liburuak: *Euzko-Gogoa* bi banako, eta *Goldaketan*, *Ebangelina*, *Sopokel*. Gora zu! Kuku

befiketontzi oiek! Askotan esaten dutana, itsaso asafean asi zera igeritan; bioztoiki. Ez ote zera pulunpatuko? Baiezkoan ari dira emen; baña nik ez dut etsi mirari ori Jainkoak eginaraziko ez dizunik.

Lenbiziko gorputz-eragiñak ez dituzu ain txairo ematen: baña, joanago ta txairoago arkitzen zaitut. Aufera! Nere egia jakin nai ba'duzu, gizabiderik aski ez ba dut ere (ofegatik deitzen naute *Basurde*) *gisa*-biderik edo azal-apaiñik ez nuke nai beintzat. Batzuekin legun eta besteekin latz ari diran gizonak ez dira ari obeki.

Euzko-Gogoa (zergatik ez s'rekin?) irakurtzean, au gogora etofi zait: gazteok gu baño bizkofago zatotzela, ta atzean uzten gaituzutela. Etofiko dira, ordea (ofek pozten gaitu euskeraren onerako) zuek "apurtuko" zaitutenak ere. Lenbiziko banakoa ia oso osoa zerofek idatzia duzu, goxo ta ederki. Bigafenean agertzen da nik idazle bezala ezagutzen ez nun bat: Andima. Ori mutila, ori! Ez ote zaitu edo ez ote gaitu atzean uzten? "Luzear" zana bezain goxo, ta ua bañon askoz aberatsago. Matxinada aufetik zein euskal-idazle oberik. Or beste zokoren batetik aterako da besteren bat edo beste zenbait, oraingo kritiku txar auen zentzagafi. Olabide ederki xurgatu duzute. Aren elur garbia urtu-beafa da efiarentzat, eta asi zerate beintzat. Eta atzefian euskera utsez, Euskalefian ere ezin egin dutena! Ezer egin gabe eskuak antxumaturik dauden oiek, goratzafe aundiagoa merezi al dute? Ortan baldin ba daude, beifñere ez dute ikasiko euskera jakintsurik. Zer mutikoak oiek! Ba dakite, bai, *trigonometria*, *coseno* ta olako itzak, eta eundaka geiago, naiz literaturan, naiz beste edozer jakingaitan erabiltzen ditutenak, aien efiak ez dezazkela sekulan ulertu. Baña gu euskera jakintsua egin naiean asten ba gera, gure efiak guzi guzia ulertzea nai lukete. Eskefik asko, berena baño gure efi aintzatago artzen dutelako. Bitartean, beude lotsagafi, alper oiek! Orain, *Goldaketan* luburuaz bi itz bakafik: Bi lefo gora bera, Andima'ren iritzia nere egin nezake. Atsegiñez irakufi ditut saio oiek. Lauaxeta zana, (G.B.) oberenak eman gabe joan zitzaigun. Aren lenengo liburua zartu dala iduritu zitzaidan atzefian irakurtzean. Ez ola bigafena. Umotzen asi zan, eta uzta edefa eman zezaken, luzaroxago bizi izan ba litza. Lizardi'ren olerkiak ongi zolduak dira, bañan ari ere esan nion azken-urtean: "jo dezagun gorago", ots, "paulo maiora canamus". Ala asi nintzaion Fr. Luis de Leon ezaguarazten. Onen gaineneko maila edo lefoa (*la línea grande*) ukitu zula nago bi edo iru aldiz; bañan erabat ezetz esango nuke. Etzaitela afitu, zuri ere "jo dezagun gorago" esatea. Guziok ikasten ari gera, ta goiz edo berandu sortuko zaigu; Jainkoak nai ba du, gure Fray Luis.

Ebangeline irakurtzen asi naiz, zer ote dan, ingelesik ez baitakit, eta beste erderaz ez baitut irakufi. Egia esan, ezin pasa izan naiz 14'gaten ofialdetik. Maxioz *literatura* esaten dioten ortatik bai bide du aski. Itzulpena, befiz, zuk egin duzun gogofena. Zaila ere diteke. *Sopokel*. Au besterik da. Asi nadin, zailenez aufera. *Eletere* aski nekez irakufi dut, oso osorik ordea. ...[hitz batzuk ulertezinak]..... Esana luze danean gogofago, labufa danean goxoago. Liburu osoan ez dut arkitu tokitxo bat besterik, lau lefo, neretzat argi ez dagonik. Argiz argi dago, euskera dakinarentzat. Zer ari dira gure kritiku txar oiek euskeraz ikasi gabe? Efiak ez dula ulertuko? Jakifia, liburu ortan ageri diran itz zafak, geienak zafak, befiak oso gutxi ariora, ez dakizki gure efiak: baña jakintsu oiek ere ez? Lotsagafi da. Beren liburuetan eta artikuluetan itz oiek erabiltzen ez ba dituzte, eta ofela poliki poliki efiar befiarazi, nola ulertuko ditute? Berak zer eman digute euskeraz arnas aundiko gauzarik? Egia, bai, zuk ere goxoago egin zenezaken *Antigone*'n bezala naiz artikuluetan bezala, oinbeste itz zail elkafen ondo samafean metatu gabe, itzulkizuna berez zaila danean. Ortatik datorkizu gogortasunik aundiena. Bañan aufeneko zaitugu itsaso ortan igeri egiten, eta gaizki egiten dun argandik ere zerbait ikasi egiten da beti. Zuk ikasientzat egin duzu, ez efiarentzat; baitakizu alde aufetik efiak ez detzakela ulertu oinbeste ta oinbeste aspaldiko itz. Kritiku oiek nor ba lira, beste itzulpen bat ezezagoa eman bear lukete, zure ortaz baliatuki. Ez dago bildufik, ez!

Oidipu Bakaldun. Aufenetik oarkizun zenbait ongi leudeke argitasunerako, erderazko itzulpenetan ere egin oi duten bezala. Bestenaz, griegoz bañon ezezago dago beintzat guretzat, kritiku aundi batentzat ezik. Ba ditu ofialde bakar batzuk, bat 91'gafena, aski nekez irakufi baitut; euskeraz ikasiarentzat, argi dago.

Oidipu Kolono'n ezezago irakufi dut. Zergatik ez egin zuk ere geia-gorentzat?

Antigone. Euskera ikasten ogei urte ontan saiatu danak, ezez irakufi dezake, nere ustez. Zenbait ofialderen azpialdean au ipifia dut: Ederki! (168). Ederki! (162). Ederki! (163).

Zu artu bear zaitute eredu, lanean, alper itzontzi oiek. Iru liburu atzefian; olako Revista bikafia, guzia euskeraz eta euskera efexez. Atzefitik lan geiago ta edefagoak agertuko dirala dirudit gure efitik beretik baño. Zuri ta zure inguruan ari diran idazle oraindik ez-ezagun oieri, oi u bat egingo dizuet biotz biotzetik: "Altza, gazteak!"

Orixe

[Noizkorik gabea]¹²²
 [Jokin Zaitegiri, eskuz idatzia]
 [Zaragozatik Guatemalara]

A. Zaitegi'ri. Guatemal'ra

Adiskide on:

Ez daukat batera ofara etor-gurarik. Geroko utzi beariko. Eta datofen urtean "gure eña ikustera"? –Ez nuke nai, etortzen utziko ez balidate ere. Gaiñera zertako dirua alpefik eralgi?

Igor idazu Mameme'rekin "Euskal-izkera. O ta O". Asia nintzan kopiatzen, baiña kaskafeko aundi ofek geldirazi nindun.

Garzteizko apaiz-Ikastetxetik pilosopu batek egin dit bere lagunen izenean, nere laguntza nai dutela. Iaramun egiteko da. Gure gazte-ien-derik geiena ta onena ez dula eraman Krutwig'ek.

*Gernika'*rako artikulu bizkor xamar bat egiten ari naiz: "Neologismos y arte de traducir" azken gai ontaz laburtzapen bat bialdu dut euskeraz bertara. Ba dago beafa Villasante ta olakoentzat.

Besterik gabe.

Memento.

Orixe

¹²² Datarik ez dakar, baina jakinda gutunean aipatzen den "Neologismos y arte de traducir" artikulua 1953an argitaratu zela *Gernika*-n, garai horretakoa izan behar du gutun horrek. Bestalde, segurutzat jo daiteke Zaragozatik egina dela, orduan han bizi baitzen.

BIGARREN ZATIA
ORIXERI EGINDAKOAK

(1923-III-25)

[Joxe Mari Agirrek Orixerri, makinaz joa]

[Tolosatik]¹

Tolosa'tik, 1923 –Epaña – 25 gnean.

Agur, “Orixe” aizkide ona, edo, obeto baldin ba-derizkiozu, aizkide on orixe.

Azkenengoz alkar-ikusiezkeroztik ongi zaude? Buru ori arindu dezu, ala len-añean zabilitza, euskel-itz zar ta befi artean gezaletan bezela igari ta ito-zorian?...

Argia'rekiko asmoen alde zerbait egiten asi zeraten jakin nai genduke emengo aldetik, eta zerofi galdetzeari iritzi diot biderik zuzena, bitarteko yaioa izan zindezkela-ta.

Ortik onuntzean *Argia*'koekin itz-aspertu bat egifia naiz, Azkue ta Kirikiño jaunekin egindako jardunaldien befi ematen niotela. “Rotativa” (itz ontara etzerate, noski, elduak iztegian) jafia dago, ta aurki gera ofekin lanean astekoak. *Argia* aunditzezkerotan, orain-alako bikoa egitea eskatzen du nai-ta-ez “rotativa” dalako ofek; beraz, orko laguntza iritxi-ezker, bereala gifako amasei ofialdeko *Argia* egiten.

Amasei ofialde oiek gutxi-gora-bera ontara banatu ditezke.

3 ofialde	: Gipuzkoa'ko efietako befiak.
3	: Bizkaia'ko
1	: Napafoa ta Araba'koak
2	: Bizkaierazko bestelako idazlanak.
2	: Gipuzkerazko bestelako idazlanak
1	: Irudiak.
1	: Nekazaritza.
1	: Eliz'gaiak
1	: Jolasak.
1	: Espafia ta beste efietako befiak.

Orain entzun ondo: Ofenbesteko *Argia*'k dirurik galdu eztezan bi gauz auetxek bear ditugu:

¹ Gutun hau nora egina ote? Orixe Bilbon balego bezala ari da Lizardi, *Argia*'rako laguntza eske datorkion honetan. Baina Orixe egon, 1923ko irailaren 29an artean Xabierren zegoen, orduan izenpetu baitzuen Lagundia uzteko agiria. Norakoari dagokionez, bada, argitasun handirik ez da.

Bata: Papera egunerokoantzeko saneufian erosi al^vizan. (Orain arte efebistatzat jotzen gaitue, eun kiloko 50 peseta ordez 88 kentzen, lapurtzen, dizkigutela).

Bestea: Or, Bizkaia'n 3.000 zenbaki saltzea. Orain 500 sartzen ditugu; beraz, gañontzeko 2.500'ei arpide^vsaldubidea bilatu bear diezute.

Batari, paperenari, ekin diogu guk; besteari orko euskeltzale onei ekin bear. Itzez esan bezela, orko eginbeafak auetxek dituzute.

1^v. Euskel^vurietan izparkariak bilatu, bertako befiak argi ta laburki bialduko lituzketenak.

2^v. Baltzale onak izendatu: bere bidez egindako arpide bakoitzaren sari peseta bat jasoko luteke, ta saldutako ale bakoitzean 3 eunen. *Euzkadi* ondo saltzen daan tokietan bera saltzen duanarengana jo ditekela uste degu *Argia* eskeñiaz.

3-. Euskel^vidazle taldetxo bat (beste askoren artean Enbeita'ren izena ere badatorkit burura) biltzea, gai guzitariko idazlan atsegifiaz bizkaierazko atala ornitu (zu, ornitu^vornidu au ez ote da "fournir" "fourneur"? Barkatu, aria etena) dezaten.

Gasteiz'en dedan apaiz aizkide bati gaur bertan ots dagiot, ia ango apaizgai bizkaitafak zuzpertzta lotzen ditun lan oieterako, napafak ari diran bezelatsu edo...

Barkatu, Orixe, aspertzta zaitut onezkero. Gure anai on oiek berotu ditzazu pitin bat; olakoetan asiera izaten da txafena; bein asiezkero, berez^vberez lebilke, ta gero ta arifago apika, asmotan degun gurdy befia.

Pozgafiak izango al^vdira erantzunbidez bialiko dizkidazunak.

Benetako aizkidetzat etsi dezakezu

Lizardi

287

[1929-IV-7]

[Joxe Mari Agirrek Orixeri, makinaz joa]

[Tolosatik Bilbora]

Tolosatik, 1929-gko. Jofaila'ren 7-gna.

[Orixe] adiskide jatofa:

Gaur zortzi, garai ontantsu, zure auffman katiluka bat esne iresten ari nintzaizun, ta afezkeroztik ezin betarik artu izan det zuri itz bi jartzeko,

ain bainabil zereginbetua: alarik ere, ori bai, katiluko esnerik irentsi det geiago..., bestela zer litzake nitaz?

Egun atsegiña igaro nuan, ta beti naiz zale zurekin befiketaldi luzeak egiteko: ez uste txurikatze danik, baizik egi-egia. Azal-azpitik “abefi-uxai”-samafa nazularik biufi au, nai nuke, ta uste det, beti ere ta zer-gerta adiskide benetakotzat ar nazazun. Euskeltzale guziok, geren irizitxoak gora-bera, biotz-bidez baturik ba’giña, euskerarentzat litzake gure jokoaren irabazia. Jainkoa’k ekafiko al du egun eder ori! ...

Baña, goazen arira.

Ementxe bialtzen dizut beste ofi bat. Bertan arkituko dezu “Kirikiño”-sarirako araudiatzaz emengo “Euskaltzaleak” degun asmoa. On litzake agian besterik zerbait erastea, iñoiz “Euskaltzaindia” kendu, ala saria alpefikako izatera ba’letor dirutza norentat ala nork zaitzekoa litzakan adierazteko?... Ori lege-gizonak (Barazar’ek² edo...) besate, bañan, apika, gauza “tristeetzaz” ez aritza obe degu.

Orko batzordea estu ar zazu lenbait-len zenbait aberatsei sakela aztertu dezakien. Auxe da beafena. Gañontzean, gure araudi-gaia atsegin egingo etzaiola uste ba-dezu, zein-nai ziorengatik, ez erakutsi: itzalpean sartu, dirua mordozkatu arteraño, ta gero araudiarena erabaki, guk nai bezela, zuek nai bezela, ala iritzi bereziak parela (sartaiaari esaten diogu “parela” Zarautz’en: zertatik ote dator?) bakafean alkafekin arturik.

“Euskaltzaindia”, Gorosafi ta Barazar’ekikoa ez aztu, e?

Gaurkoaz aski. Artzak jauna ta nere emazteaketz (?) goraintziak.

Adiskide “pifa” nazu.

Lizardi

[Sinaduraren ondororen]:

Erantsia: beste ofi bat.

“Kirikiño”-sarirako Batzorde Eratzafeak bildua “Eusko-Ikaskuntza”^k (ala “Euskaltzaindia”^k?) 1930-gneko urtearen asieratik jaso ta, irabazian jafirik, zaitu beza.

Urteroko saria, bialduaren eunetik laua bedi, aurtengotik asita.

Saria beti osorik eman beafa da, batere lanik aurkeztu izan ba-da.

Sariaren gaia, betirako, euskel-artikuloa bedi, euskel ala erdel-egunkari, naiz asteroko ta bestelako aldizkingietan agertua. “Artikuloa” zeri, ta zeri ez, iritzi lezaioken zeatz esaten ezta efetz, ta epaikarien gain

² Jesus Maria Leizaolaren ezizena da.

uzten da ardura ori; alabaña, aren muin eta ariak gaurkotasun-usaia (actualidad) bear dute.

Artikuloen argitaratze-epea urte osokoa bedi, aurtendik asita.

Dirutzaren eunetik laua emanik geroz, urtetik urtera irabazi-ondafik ba'litz; ala saria, bein edo beste, emango ezpa'litz (araudi onen arabera), aldian beingo beste sari bat jafi diteke, "Euskaltzaindia" k aren gaia erabaki ta aufetik iragafirik.

Artikulo-saria bi urtean efeskan ezin dezake egile berak irabazi. Idazle batek bi bider artikulo-saria jaso ba-du, ezin sartu diteke artikulo-sariketan ufengo iru urtietan. Alaz ere, sariketaz ate, oien lanak aurkeztu ditezke, ta epai-maiaren aipamen oberena ere jaso, bear bada, bafia ez saria.

Epai-batzafa Euskaltzaindia k urtero autuko du. Ontarako, lan asko samar bialduko ba'litz, izendatu ditezke, adibidez, bi epaikari Bizkaia n, bi Gipuzkoa n ta Napafoa n beste bi, euskelgi bakoitzetako lanak aztertu, ta baetuz-baetuz ezezago auzi-maiak erabaki al-dezan.

Urteroko Ilbeltzea n norberak sarigafi iritzi ta aufeko urtean argitaratutako idazkiak ebaki ta bialdu bitza "Euskaltzaindia" ra, argitara emandako eguna adiraziaz. Estalkipean benetako izena eman beza, gafiñean idazkipean (agertutako) izen-ordea naiz izena ipintzen dualarik. Ebakia ezin igofi dezakenak biali beza bestela idatzirik, bafia zein egun eta ingietan emana izan dan adiraziaz. Epai-batzafeko edonork, Otsail ean, aurkeztu dezake, egileak ez biali ta berari atsegin izandako edozein lan.

Urteroko artikulo-epaia beranduenez Garagafila ren azkenerako eman bear da.

288

[1929-IV-23]

[Joxe Mari Agirrek Orixeri, makinaz joa]³

[Tolosatik Bilbora]

Tolosa tik, 1929-gneko, Jofaila -23gnean.

"Orixe" adiskidea:

Zure bi idazkiak artu nituan. Itobearka nabil beti ere lanez, ta itz gutxitxo z erantzun bearko.

³ Sinaduraren ondoren badira lau lerro eskuz idatziak, baina, ulertezinak direnez, transkribatu gabe geratzen dira.

“Kirikiño”-sariari aize geiago eman bearko zaiola?... Ongi da. Asmo ortan biar zortzi erderazko idazki bat biali nuan *Euzkadi*’ra, aberatsak-eta gogortxo joaz: ezta agertu, ta beldur naiz orko otar-ondoak ikusia ez ote dan. Gañera, “Kizkitza”’ri idatzi nion, gai ofetzaz berak ere zedozer egin dezan eskatuaz: baietz erantzun dit, egin duala ta biali ere. Ofena argitaratuko al-dute.

Egunkariarenakin jafaitzen degu lanean. Aterako ete da zerbait?... Zuk diozuna redactore bizkaitafetaz bidezko da, ta burutan artua degu. Nortzuk dituzu begiz joak?...

Tejada’k idatzi zidan: eztatozela, Donosti’rako asmoa dutela.

“Euskaltzaindi”-koei esan al diezu ea zer asmo duten aurtan berai dagokien euskel-egunatzaz?...

Emen dijoakizu “Euzkel-Atala”’rako idazlan bat: enazazu gero ito, *Euzkerea*’koak txurikatzen ditudala-ta!....

Agur, “Orixe”. On Antonio’k eta aren ta nere emazte xaloak goraintziak.

Lizardi

289

[1929-V-13]

[Joxe Mari Agirrek Orixeri, makinaz joa]

[Tolosatik Bilbora]

Tolosa’tik, 1929-gneko. Ofila-13’gna.

Kaixo [Orixe], adiskide jator eta jale bizkoñenetakoa:

Egunkari-eredu edo muestra bat atera nai genduke, esan nizua-nez, ta artarako euskelgi nagusienetazko lantxo batzuek bear.

Esango al-zenioke “Otxolua”-ri, afen zertxoren bat egiteko, bizkaiera jatofez: gauza arifia ta pafegafia nai ba-du, arta yaioa baita. Erderaren batetik euskeraztua izatea eztio axolarik. “Zernai” izenez-edo, atal bat jafi nai genduke gure agerki ortan, eta arakoxe litzake egoki tankera ortako lana.

Gañera, Azkue jaunak naiz Oiz-mendi’k, ala biok, ez al luteke besterik zedozer egingo?... Zuk eskatu-ezkero, eskier jo diteke baietz.

Lantxo guziek labur-samafak bear ditugu. Idazki onen idaztanke-raz, kuartila bat-et’erdi, bi geienez. Amar-amabi egun bafu emen nai genituzke.

Zuri, “Orixe”, eztizut ezer esaten, bada-ezpada *Euzkadi*’k txafera artu eztezaizun, uste dezunetz; baña zeofek nai izan-etzkerero, ongi daki-zu pozik artuko gendukela zure ondar-alea ere.

Barkatu, adiskide, ni beti lanak ematen ari natzaizu. Goraintziak emazteak eta Ayanbe’k. Al-dezunean, erantzun.

Lizardi

[Sinaduraren ondoren, eskuz idatzia]:

Idazki oiek edozein gai darabilteke egunkari baterako itxurazkoak. Esan nai nuke alegia eztutela “egunkaria” gora ta “egunkaria” beera aritu bear, baizik egunkaria aspaldidanik egifia ba’lego bezela jardun.

290

[1929-V-19]

[Joxe Mari Agirrek Orixerri, makinaz joa]

[Tolosatik Bilbora]

Tolosa’tik, 1929 –Ofila– 19-gnean.

“Orixe” adiskidea:

Atzo artu nituan zure “Bilbao’tiko befiak”, gure egunkari-agerki edo dalako ortarako, noski. Oso poliki jafiak daude: atsegin artzen da ofelako euskera mamitsu efeza irakurtzen.

Guk ordea, egunkari-agerki ori egun jakiñeko befietaz atera nai genduke, ta Garagafila-9’gnekoa izatea erabaki degu. Beraz, otoi, ofelakoxe befi-sorta polit bat, (ugariagoa, al dezula) biali zadazu datofen ilaren 10-gnean., 9-gneko. jakingafiena gai dualarik. Eztiguzu uts egingo, ezta ala?... Orain, gauza bat: orko befi berezi oiek bizkaieraz idaztea ez ote-litzake obe, bizkaitafek xurikatzeke? ... Iruñia ta Gazteiz’ko befiak ere bialiko ba’zenitu, “Orixe”, a zer nolako mauka gurea!... Baña pralea baño areago ari natzaizu eskean...

Ofatik ere, beste lantxoren bat emango nizuke, zakufaren ipurdira bialtzen ezpa-nazu. Agerki ortan, beste atal batzuen artean Afantza (afaintza?, nola obeto?... –atala ere nai genduke, ta oraindafiño etzaigu gogora nork ongi egin lezaken. “Otxolua”-k ortan bai ote-daki?... Ta bestela, *Euzkadi*’k datofen asteartean du Afaintza-ofia ta bertatik edozein lan atsegin aukeratuta, zeofek itzuliko ba’zendu... Efuki zakigu,

lanbide aundia baitatorkigu Luzear, Ayanbe ta neri, azken-orduan, zenbait befi ta atal betetzeko, ta gañera zuk ofelakoak “aitaren” batean egiten dituzu gure aldean, eta euskera gozo-mamiaz... Tira, eztiguzu ukatuko, “Orixe”, askotxo eskatzea dan afen...

Beraz, lenbait-len itz bi biali, ta esaidazu zeatz-zeatz zer ta zer egingo dezun zerofek. Eskafik-asko aufetik.

“Otxolua” ta Altube’reñ lanen zai nago. Laburdi’tik artu det bat, laburtxoa, “Zerbitzari”-rena.

Agur, iradu naiz.

Lizardi

[Sinaduraren ondoren, hau ere makinaz joa]:

Beste gauzatxo bat gogora datorkit: ez al-litzake ederki “Kirikiño” zanaren lantxoren bat aspaldiko *Euzkadi*-etan bilatzea?

“Bueno”... Lotsagabekeriz aski duk!

Lizardi

291

[1929-VI-4]

[Joxe Mari Agirrek Orixeri, makinaz joa]

[Tolosatik Bilbora]

Tolosa’tik, 1929-gneko. Garagañila– 4’gñean.

“Orixe” adiskidea:

Aspaldian ezer zurekiko eztakit, eta gure “Ba’litz”-ko egunkari ofen eguna badator.

Zure ixiltasun ori onera jotzen det; baiezkotzat, alegia. Baña... bada-ezpada ere...! Beste xirikaldiren bat bear?

1 – Bizkai’tiko befi-xorta (“Ufutizkiñez”), bizkaieraz.

2 – Napafoa’koa.

3 – Araba’koa.

4 – “Afaintza”-atala. (Galdara-lertzeak dala, edo...)

Badakizu, befiak (1, 2 ,3) il onen 9’gnari. dagozkionak.

Tira, zu mutil txintxoia zera-ta, egingo al diguzu, polit ofek... Gu oso lotsagabeak gaituzu, baña badakizu zeren onak garabiltzan...

Bereala zure befirik artzen ezpa-det oietarik lanen bat utzia, baiezkoan zera, ta ilaren 10/11'gna. aldean lan-pila ori guzia bialiko didazula eskier jo dezaket. Jainkoa'k sariztatuko al zaitu!...

“Oiz-Mendi”, “Otxolua” ta “Belu-mendu” renak jasoak ditut. Iñoiz emango al dizket eskafak... Bitartean ikusiko ba'zenitu eman zaizkazu nere izenean.

Ez, gero, uts-egin, adiskide, ta zuk ere eskatu ta agindu nabasiki.

Lizardi

292

[1929-VII-9]

[Joxe Mari Agirrek Orixeri, makinaz joa]

[Tolosatik Bilbora]

Tolosa, 1929'gneko. Garila -9'ganean.

Adiskide “Orixe”:

Atzo jaso det, eta bai pozik ikusi ere, zure “Itsu-Mutila”. Eskua bete eskar, ta zorion: oso da itxurazkoa, eroso ta ongi irafia. Ekin diot irakurtzen, ta aurki egingo dizut erderaz (euskeraz ere bai, nai ba-dezu) artikulo koxkofen bat. Guztia lenbait-len salduko al dezu!

Egunkaria dala ta ezta, emen ari gaituzu buru-belafi. Eztakit ezer sortuko dan, baña baztefak astindu nai genituke. Gauzatxo bat nai genduke, ta eztakit eteza izango degun irizten: *Euzkadi* ren arpidedun-izendia, alegia. Ori ta *Argia* koa, “Eusko-Ikaskuntza”, *Euskal-Esnalea*, *Jaungoiko-Zale*, *Zeruko Argia* ta abafen izendiak nai genituke ikertu, egunkari arpidedungai-izendia antolatzen asteko. Or norengana jotzea obe izan dezakedan eztakit; baña Zuzendaria (“R. de I’.) egunari-aldezko iritzia erakutsirik baita, otoi, “Orixe”, zuk adiskide-antzean esaiozu gure asmoa ta naia, ea berak zer derizkion ta onurik emate’al-dizun.

Andoain’go euskal-jaiekin ere gere lantxoia izango degu. Zuri idaztekoa dezu Aranguren apaiza, palanka ta dantza “osoa” gaiz. Onezkero, nik uste, aurki zera onuntza, ez?, ta orixe genduke onena. Artara bear

ainbat befiketa egingo genduke, ta bai zuri zeregintxo bat edo beste eman ere, Andoain'go ofetarako.

Loiola'n aurten gogo-jardunik egitekoa al zera? Gaxorik ninduzula, asmo edo erdi-asmo artu bainun, nik ere egin bear nituala, baña ez jakin al-izaterik dedan. Dana dala, zuk egin bear badituzu, otoi neri adiraztea, ta noizko, ta eskaturik dezun ta eska-garaia dan. Nolanai ere, ezingo nuke nik ilen azkeneruntz.

Min eta muinki dezu adiskide.

Lizardi

293

[1929-VIII-12]

[Joxe Mari Agirrek Orixeri, makinaz joa]

[Tolosatik Bilbora]

Tolosa'tik, 1929'gneko. Dagonila – 12'gna.

“Orixe” adiskidea:

Iru idazkitxo bialtzen dizkizut emen, Andoain'go ofetaz. Eztakit nola ibili bear degun, jendea beroagotzen ezpa-da... Diru asko bear ta ifiork ematen ez: auxe dek komeria!

Idazkitxo oiek nik emen esan bezela argitaraztea nai genduke:

Lenbiziko egunez: *Recordamos...*, asten dana (lenengo ofialdean).

Bigafen egunez: Euskerazkoa.

Irugafenez: *Días vascos de Andoain*

Ofetara banatuta “lata” aundiagoa emango degu, ta orixe nai...

Gañera notin auetxen zuzenbidea bereala ematea eskatez artuko nizuke: Francisco Belausteguigoitia (Patxo Belauste esaten diotena, igaz, Zumañagarako, bosteun laurleko emana) – Victorina de Lafinaga.

Besterik ere bear det, ez estutu, mutila naiz ni eskatzen:

“Belu-Mendu” Gernika'koaren izen-abizenak.

Ondarroa, Bermeo, Durango, Mundaka, ta zuk derizkiozun or Bizkai'ko uri azitxoenetan, nori (izen-abizenetaz) biali dezazkiokegun ofiak, banatzeko (efi bakoitzean dan euskel-idazlerik beroenari bide da onena).

Orko arpidedun izendegia aufera dijoa, noski?

Leporaño lanez josita nago, “Orixe” adiskidea, ta oraintxe asia naiz aspertzen. Guzia bat-batean uzten ezpa-det, zerbait idazten edo asteko... Ofetaz gañera, dirua sakeletik atera bear ote-degu Andoain’go ofetan?...

Kirikifño sarirako nondik afaio agertu dira 2.000 laurleko oiek? Gu iruditua arturik gaude *Euzkadi* bera ez ote-dan?... Zuk badakizu, noski, ta ezagutzen dezu nere jakin-min zofotza...

Agur, “Orixe”. Eskafik-asko aufetik, eta ea oraingoa betirako ondutzen ez geran.

Labaien’ek eta bion emazte “xalook” goraintzi miñak.

Lizardi

294

[1929-VIII-16]

[Joxe Mari Agirrek Orixeri, makinaz joa]

[Tolosatik Bilbora]

Tolosa’tik, 1929’gneko. Dagonila –16’gnean.

“Murgazle” adiskidea:

Artu det zure tarjetatxoa, ta eskafik asko.

Andoain’goak nai lukete Lafamendi’tzazko artikulo-sail bat periodikuetan ikusi. Zuk bezin ongi gutxik dezakete, ta alperkeria astinduaz egingo al-dituzu idazki bi baderik, erderaz, Lafamendi’reñ befi emanaz ta bide batez Andoain’go euskal-egun oien otsa zabalduaz.... “Kizkitza”“ri ere idatzi diot, baña zureak paltatzerik ez nuke nai.... Eskefak aufez.

Egunkariaren ortan, ixil-samar gaude. Gutxik ezin ots aundirik eragin, batez ere zenbait arlo batera jo bear ba-dituzte. “Eusko-Ikaskuntza”n ofatik ari dira orain arte bildu ditudan izendegietatik bear bezelako fichero bat egiten. Gañera, geren buruok ifñora ibili ezitugularik zazpi bat mila duroen aginduak jasorik gaude, ofegatik nik uste det aurki egingo degula saiotxo bat arpide ori gizontzeko doze-natxo bat aundiki zirikatuerik, ortik jendea beroagotu dedin arpideeta-rako-ta... Astirik gehiagu ba-genduka!...

“Bueno”... Zuk Lafamendi’rekikoa egizu, bai?, ta mutiko polit-polita izango zaitugu.
Agur. Goraintzi.

Lizardi

295

[1929-IX-4]
[Joxe Mari Agirrek Orixeri, makinaz joa]
[Tolosatik Bibora]

Tolosa’tik, 1929’gn. Irala – 4’gnez.

“Orixe” adiskidea:

Atzo ere Andoain’en nintzan ta eskua bete lan aferazi zidaten, oi bezela.

Beste askoren artean, zuri idazteko. “Euskaltzaindia”-ri esan dezaiozula alegia 21’gnez. batzaferik elukela bear: aufen azterketarako nai zaitute, ta au bear bezela egiteko astia poliki bear omen. 20’gnez. edo etofiko ote ziñateken, zuen batzaferako. Or ikusi.

Gañera, on genduke zuk dantza osoaz ta palankarietaz artikulo bana bereala egitea... Badakit mokoia okertuko dezula, ta ezpañetara ezezkoa datorkizula, baña... leen ere uka ta orain ere bai? Ez, gizona: etzaite izan ofein *ukakor*... Otek eztizu lan aundirik emango.

Zure *Santa Cruz Apaiza* irakurten “ari nuzu” orain. Oso atsein zait liburu ofen euskera mami-mamia ta efikoia. Betarik iñola artzen badet, egin nai nizuke, euskeraz, oferako ta *Argia*’rako “artikulotxo” bat, Andoain’en ere salgai egongo baita.

Esan zidan Labaien’ek Zaldibi’n ziñala, joan dan igandez, ta ikusiko ez ote zaitugun luzarorako emen, alper-aldia igaroz. Andoain’go zortzi egunok beintzat artuko al dituzu.

Euzkel-Atala’rako or dijoakizu zerbait, argitaratzea ongi baderitzazu.

Agur. Goraintzi miñiak.

Lizardi

[1929-XI-23]

[Joxe Mari Agirrek Orixeri, eskuz idatzia]

[Tolosatik Bilbora]

1929 –Azaroa– 23 gna.

“Murgazle” ezin aantzia:

Zurea jaso nun garaiz, ta barka zaidazu leenago ez erantzuna; mila esker zure befiengatik. Egia esan, egunkariarekikoa geldirik dago; nik ufatu bear izaten det ixila, ta oraingoan Andoaingoa ezkeroztik ez tet uste albiste aundirik izan: bidealdi luze-samafa ta gero, etxeratu-takoan, eskua bete lan. Eusko-Ikaskuntzan ari dituzu oraindik dalako euskal-irakurle fichero ura egiten; baño bai nekez, eztira barea baino areago.

Zu onuntza baño lenago natorkezu ofera ni; Jainkoa lagun, ilaren leenetan. Tripalditxo bat egin bearko degu non-edo-non ta bide-nabar itz-aspertu on bat; Olano’ri (ala izena ez tu orko Amara’tar ofek?) esaio-zu gertu dedila barautxo batzuk etofi-aufetik egifnez, bazkari bat zor baitiot.

Kirikiño’re n araudiaz zer egiteko asmo dezute? Elegoke txarto, leenbait-leen ori erabakitzea.

Aurki arte bada Orix: guziaz jardungo aal degu.

Bitartean, Ayanbe ta bion emazteen goraintziak.

Lizardi

[1929-XII-14]

[Joxe Mari Agirrek Orixeri, makinaz joa]

[Tolosatik Bilbora]

Tolosa’tik, 1929’gneko. Lotazila – 14’gnean.

[Orix] adiskide ona:

Zurea jaso det eta “Kirikiño”-sariarekiko erabakiak irakufi.

Arazo oferi luzabideak jartzea etzaigu batere egoki iruditzen: astirik izan da, alegia, zero tajutzeko. Orko batzordekoak, "Eusko-Ikaskuntza" ta gu ("Euskaltzaleak") alkafekin egon beafa degula... Ongi da; baña ifioiz batzafe ori egitera irixteko alderdi bakoitzak ordeko bat autu bear bide du. Beraz, urte beteko luzapenik gabe, gauzak erabaki ditezke Santo Tomas egunean Donostia'n. "Euskaltzaleak" (ni ordezkari naizela) ta "Eusko-Ikaskuntza" alkafekin egotekoak gera egun ortan, goizeko amaika-t'erdietan. Zu ere egun ofetan Donostia'n zaitugu, noski, ta aufekoan-edo ba'zifia antolako gifiake ala ere. Beraz, orko Batzordeak eman bezakigu erabaki-bidea ta bere iritziaren befi, ta bereala aterako degu ori esku-artetik. Auxe artu bezin laister dei-egiezu bada zure lagunei, ta esan, bear-beafeko iruditzen zaigula arazo au gerora zintzilik ez uztea, ta zu naiz beste bat datofela esandako egunez ta tokira.

Beraz, afen, ofetan ez uts egin. Badakizu asko konbeni litzaiguke-la "Eusko-Ikaskuntza" ta "Euskaltzaindi" aufean ongi gelditzea; berbertatik esan zezaketen nork-zenbatez lagunduko duten. Bestela, gauzak luza ditzazu, ta batere gabe gelditu baietz. "Euskaltzaindi"ren batzafetan sartu dezakezu zuk eskaria, datofen astean.

Epea luzatu?... Nola ditezke ori?... Nere ustez, urte osoa da argitaratze-epe, ta urtea *amaitu-ezker*oz asten da lanak *bialtzekoa*. Nik ere biali bear dizkizutet, eta besterik izango da, noski, baña eztitut bialiko aurtan, datofen Ilbeltzean baizik.

Bosteun laurleko?... Ez al-da askotxo?.. Oraindik, gero, 9.000 laurleko baño eztitugu: "Eusko-Ikaskuntza" ta "Euskaltzaindi"renen ustetan jotzen degu 10.000; ta bereala garbitzen ezpa-degu "Kirikiñio"-sari ori zein lanentzat izan bear duan (non argitaratuentzat, alegia), ez batak ez besteak eztigute ezer emango, ta kito. Aurtan 500 eman, ta agian ufenetan ufitu-beafa...?

Dana dala, atoz edo atozte Santo Tomás egunean eta guzia zero erabakia utzi dezakegu.

Orain gogoratzen zaidala: Lengoan galdegin zidan Ayanbe'k ea gure "Bost-Urtian" ordaindu al-zuan "Euskaltzaindi" 'k, eskeñi 75 laurlekoak emanaz. Zure gain ori aztertzea.

Ta... esan ere egin dezu onezkero: Afaio ori, neri lanbideak jartzeko beste ezertako ez aiz i!...

Aurki arte, "Orixe": gaur zortzi betekadatxo bat egiteko alkafekin gaitzela Donostia'n. Ayanbe'n ta bion emazte xaloen (?) goraintziak.

Lizardi

[1930-I-13]

[Joxe Mari Agirrek Orixeri, makinaz joa]

[Tolosatik Bilbora]

Tolosatik, 1930'gneko. Ilbeltza – 13'gnean.

[Orixe] adiskidea:

Zure tarketatxoa jaso nun. Bai-ta ere azkenengo *Euskaleñaren Alde*. Etzaude azal txafa, afaio ori! Orain ere laurlekoak eundaka. Lau sari, alajainkoa! Andregaiak ezin esango dizu ezetz...

Baña, konpañero, edefak eman dizkizu “Elurmendi” adiskideak, arako bertsoak dirala bide. Nola dion ere... Aaztu zait... Abesgaitz edo, eresgaitz edo..., dana dala: “non cantabile”, “poco armonioso”, edo or nonbait. Beaz, ainbeste “hemistiquio”-z, “espondeo”-z ta asclepiadeo”-z txaututa gindukazun ofek *Euskal-Esnalea*’ren belafientzat diñako ots ezতির ezta kizu ateratzen?... To! Toki onean utzi aute! “Ereskaitza”, ez bestelakoa!...

“Bueno”... Orain ifitxoak alde batera utzita, nere zorion beroak, adiskide. Aberastuko aal-zera leenbait-leen, ta euskeraren onerako izango aal-da zure aberastea.

“Kirikiño”-sariaz... Bekokia ere bear da amabost ilabete luzeen buruan, gauzak astiro pentsatu bear dirala esateko... Or konpon. Ea zerbait garbitzen dezuten Boni artean arturik.

“Kirikiño”-sari ortarako, leengoan onera biali dizkidate “Jaungoiko-Zale”-tik pila bat artikulo. Gofiz afastoztuak dituzu. Gaur bertan kofeo z bialtzen dizkizut. Tartean, nereak sartu ditut. Auetarik, bat edo beste baditeke “artikulo”-tzat ez jotzea. Eztakit. Ori ezpaita ondo zeaztu, epai-maiak erabaki beza. Nere artikulo oien artean, Donostia’n Sto. Tomas egunez eman nizuna sartu nai ba-dezu, amafekotxoa osatzen da. “Kirikiño-saria” zun izena, *Euzkadi*’n Azaro-7’gnean. agertua, aufealdean).

Emen dijoakizu atzo Donostia’ko *El Pueblo Vasco*’k argitaratutako Ariztimuño’ren idazlana. Jauregi’tzaz.

Beronekin ginduzun atzo Alegi’n; gizaxoa ur gañeko bitsetan dabil zuen gorapenak ikusiz-gero.

Ayanbe “mutiko polita” dago, bai... Alperkeriak joko ezpa-lu geitxo au *ere!*...

Goraintzi goxoak, eta ongi izan.

Lizardi

299

[1930-II-4]

[Joxe Mari Agirrek Orixeri, makinaz joa]

[Tolosatik Bilbora]

Tolosa'tik, 1930'gneko. Otsala -4'gnean.

[Orixe] adiskide:

Aspaldian zenbait paper jasorik nazu, zuregandik, eta... ez-ta artu ditudanik ere! Izan ere, arnasa artu eziñik nabiltzu fabrikako lanekin; noizik bein euskeraz apur bat idazteko ere, loari lapufeta egin bear.

Or dijoakizu, itzuli, Mujika'ren idazkia. Ezagun du mutikoak oroimen bikainduna dala. Ofatik, bestera adirazi nai badu ere, nik ez uste gure esanak alpefikako izan diranik.

Paper gofi sail polita jaso dezu zuk bitartean, ta or konpon. Alkafekiko bazkari ura egiteko ifikitzen nagokizu, urdalla uts, ortzak zofotz.

Damu det arako zure bertsoak ezin ezagutuak. Aterako aal-ditue *Euskal-Esnalea*'n. Leengoak Kirikiño'ren oroiz egiñak atsegin izan zitzaizkidan: e-zatzait ereskaitz, Belafi'ar ospetsua.

“Kirikiño”-sariarekiko “Historial” dalakoa ere artu nun bere garaiez. Nere aburu utsez ez erantzun nai, ta zai nago idazle-batzafa noiz bilduko. “Euskaltzaleak” (sic) batere zer-ikusirik ezpa-degu sari ofen sortzeaz ta azitzeaz, alpefeko erantzuna luteke nerea. Bestalde, “Eusko-Ikaskuntza”-“Euskaltzaindi”'ekin idazleek piatu bear ezpa-degu, zergatik orko Bartzordeaz? Nik uste, idazle-batzafak (are obeto, artaratu-ko ba'gña, Idazle-Batz edo *Federación de Idazles*'ek) dula azken-mafan sari ofekiko araubidea ta eskubidea. Idazle-batzafaren aufean orko bartzorde berberak ere (“Euskaltzaleak” zer esanik ez) pozik bere aginbi-deari utzi naiko diola uste det.

Datofen igandez bileratxo bat degu Donostia'n “Euskaltzaleak” indarbefitzeko asmoz, ta ofen ondoren idazleen batzafa eztet uste

luzatuko danik. Baditeke, gauzak ongi ba-datoz, Mañaria'n bertan izatea. Oraindik ez jakin.

Gaurkoz aski. Etxekoen goraintziak.

Lizardi

300

[1930-II-20]

[Joxe Mari Agirrek Orixeri, makinaz joa]

[Tolosatik Bilbora]

Tolosa'tik, 1930-gneko. Otsaila'ren 20'gnean.

[Orixe] adiskide jator:

Gaur zurea jaso ta gaurxe (?) erantzun. Neroni ere afitua nago bizkortasun ontaz.

Baña, garbian, orko Batzordea diru bil utsetako al da, ala bein ta betirako "Kirikiño"-sariarekiko eskudun ta nagusi? Dana dala, nola nai dezute guk dirurik biltzea, zuek or kutxa zaafen batean gordetzeko? Guk irabazian -ufia baderik- jafia dizugu urtearen leenetik. Or ori ere ezta egin, afitu ta baldituta dikasdanez... Baña, ori, gizona, leen gutxi, ta gutxiagorako bidea egitea da! Zeren begira egon, bein-beiñeko bederik, libreta batean sartu-gaberik?... Edo, txarki ulertu ote dizut, bada? Zumaia'n idazleci zorioneko sari ofetaz itz-egingo diet, eta aiek zein iritzira etzin adiraziko dizutet garbi.

Poza artzen det, zuk nere lantxoan artean ezer onik arkitzeaz. Bat sartzea aaztu zitzaidan: arako egunkari-erakuskiaren ufendegitzat egin nuana. Epea joana da, ta onezkero utsak eztu zuzenbiderik. Gauza laburra da, baña eskuari astia emanaz egin nuan. Bada-ezpada, or dijoakizu. Zure arako "Iruleak" gogoan det, eta polit-askoa zan. Napaferaz egiñagatik zer axola dio?... Sinisten dizut Jaka-Kortajarena ofekikoa: idazle oso polita dator, ala etsitzeko nik olerki bat edo beste irakufi ez diodalarik. Zuzen epaitu bezate ta atzean gelditu-afen leen bezelaxe, edo, obeto esan, leen baño ere bizkofago jafaitze' aal diogu, Jainkoa'k osasuna ta beta ukatzen eypadizkigu.

Gogaldi txafak zindun, bai, neri idazten ari zifala. Euskaldun izateak bere damu-aldiak badarakartzigu besteoi ere, baña ori ezta afazoi

bat gure bearkun estuari gibel-emateko. Ta zure bearkuna, “Orixe” adiskidea, euskel-ekoizte ugari ta on ematea da. Ez, noski, politikan zere indafa ta aalmena agortzea, naiz-ta politika ere gure bizkunderako beafezko izan; baña, ez gera guziok guziari eltzeko jaiok. Norberak joka beza, aal-dun ondoen, nor bere gogarako bidetik. Ni ere e-nazu oso politika-zalea, baña ezagutzen det politika ezin ditekela, gure xedearen onez, zearo baztertu. Orain egun gutxi Donostia’n batzartxo bat gendun, ez politika-batzafa, “Euskaltzaleak” indafagotzearen alde baizik. Bertan itz batzuk atera nitun, auek tartean: “...politika utsak ez beza gure indar osoa irentsi. Politikatik bazter, bego beste bidetxo bat, efi-landutza bidea. Politika-gurendak betoz, bai, baña betor, ta ongiago-etofi, efiaren euskozaletzea ere. Gaurko gaztedi ez-zuri-ez-beltz, ez-gazi-ez-geza ortarik, ekar dezagun eusko-soro-laiketara puska azitxo bat”. Ofa, nere iritzia garbiki.

Jaso zazu, bada, zure biotz gazterik-zimeldu ori ta euskeraren eskañak irabaz ditzazu esku-beteka. Dezatekenak egiten ezpadute, zeren izenean ikasiz ta astiz laburfei ezer eskatu?

Agur, agur, adiskide: sermoiez aski dugu. Ea noiz egokitzen zai-gun itz-aspertu bat egitea. Emengo ezagunek goraintzi.

Lizardi

[Sinaduraren ondoren, makinaz joa]:

Zumaiara ez uts-egin, gero...

301

[1930-IV-19]

[Joxe Mari Agirrek Orixeri, makinaz joa]

[Tolosatik Bilbora]

Tolosatik, 1930'gneko. Jofala – 19'gnean.

[Orixe] ala-olako adiskidea:

Beltza egin didazu ta eztizut berealakoan barkatuko. Ni zure bertsoak milixkatzeko ifikitzen ta zuk uts... Gizona, etzaitela ofelako lotsatia!... Oda bakar bat baderik, dagoanez dagoala, bialiko didazu. Neretzakoxe gordetzea agintzen dizut.

Efenderi'ko batzaldi ortara ezer ez bialtze asmoa ere ez-aintzakoztat artzen dizut. Zure ekarkiaren ustean epai-maian etzaitut sartu, ta, orain ofelakorik? ... Ez, "Orixe". Gogoan ar zazu euskerarenganako dezun bearkuna. Ori leenen. Gero, "Euskaltzaleak" "enganakoa: alegia, lotsarik etzendukela Efenderi'ko egun ortarako zure alerik ezpa-lekarguzuke. Nere adiskidetasun oso-osea iztun dalarik eskatzen dizut ez gaitzazula utzi motz. Zu bezelakoen lanak uts ba-ditugu, zer aterako da? Orain arte olerki bat bakafa degu jaso. Gero..., "Zubigar" gizaxoa ila, Jauregi epai-maieko (zer-esan guziak kentzeafen)...; ta zuk *Euskal-Esnalea'*ri bai, ta guri ez? ... Zerofek oldoz.

*Parix'*en izan nazu. Ofegatik nabiltzu atzeratuxe.

"Kirikiño"-dirua? ... Ofenbeste pentsatu gabe etzezakezute sartu urte osokako lau-t'erdian, Auzeki-Kutxan? Gu ez gaituzu ibili bostaren ez seiaren eske, baña dirua aspaldidanik ari degu irabazian. Ezin dezaket uler ori egiteko zeren begira zaudeten.

Euskel-Idazle-Batza Labaien'en gain dago, baña oraindik erakundelantetan. Alaz ere, esango diot, sari ofekiko eskubide-eskabidea lenbaitleen sar dizazutela. Baña, otoi ta otoi: gure begira gabe, ipiñi zazute diru ori bear-tokian. Au "Elementala" dezue, gixonok!

mucho tiempo que no le pedía al Señor más que eso. Una de las mayores gracias que el Buen Señor, de Euzkadi Eterno Señor, nos ha concedido es la retractación de V. Según confesión propia, no había más impedimento que la ignorancia. *Tu scis insipientiam meam*. Es lo que dijo el Señor de la conducta del Sanedrín. V. dirá: *Nunc cepi*. Hace más de 40 años que escribí yo sobre los neologismos; y el eminente P. Ramón de Rentería, el vascólogo que teníamos en aquellos tiempos, dijo: No existen neologismos vascos. Hablando con Enbeita, le expliqué un montón de esas bellísimas palabras que ahora usamos; y al momento las entendió perfectamente; y aquella noche estuvo cantando hora y media y las palabras le salían a borbotones, muchísimas neologías. Si en cada sermón explicáramos al principio del sermón una sola palabra, aprendería el pueblo los derivados de las palabras antiguas que usaban sus abuelos. Donztebe (con z. Donostia, Dona Maria...). El año 1909 imprimí en Pamplona los dos tomos de mi Diccionario, en la Tradición Navarra; y en seguida me vino la protesta de Azkue, Urkijo y el Secretario de Elizondo. Yo les contesté que era cierto que me había aprovechado de los cinco Diccionarios que tenía a la vista; pero sobre todo de las 10.000 palabras coleccionadas por Afiandiaga, las cuales estaban allí íntegras. Hace dos años devolví al Padre Afiandiaga los originales. Ahora, deducen VV. que no puede ser plagio el trabajo. Que se han fijado bien en el enorme trabajo que eso representa. D. Isaac y su padre vinieron a mi convento, y con licencia de los superiores les entregué la segunda edición de la obra¹³; y en pago me regalaron seis ejemplares (dos incompletos) de la misma; y no he recibido ningún céntimo más. En cambio sé que otros han ganado mucho. Ahora en Zarauz están reimprimiéndolo; pero no me han dicho nada. Antes nos quitaron los Fueros; ahora el diccionario; y lo malo es que todos los ladrones están a la diestra del Señor. Son derechistas... ¡Sea por amor de Dios!

En Bilbao, hace 45 años ví una[s] 50.000 fichas del P. Olabide allí escondidas en varios cajones de Juventud Vasca. Después salieron *Giza-soña*, los Evangelios. Por cierto que en Shanghay me encontré en

¹³ Aita Berak Isaak Lopez Mendizabalekin batera argitaratu zuen hiztegia, *Euskal-erdel iztegia / Diccionario Diccionario castellano-euskera (1948)* deritzona da. Horretaz ari ote da hemen? Hala dirudi. Plazido Mujikak ere hori du aipatzen bere hiztegiaren hitzaurrean.

Zikawei, con 76 jóvenes, despachados por Lerroux, los cuales me obsequiaron mucho. Después en Tokyo, me hospedé en los Jesuitas, con el P. Faber, su amigo íntimo de V., el cual me contó la vida de V., su íntima amistad con él, y me preguntó: si se iba a casar. Le dije lo muchísimo que sabía de V. Ahora cumplo su encargo de saludarle.

Lo que V. dice de ensalzar a Lopez, y ponerle de Director no se lo apruebo. Para Buru, no hay más que Orixe, que desde que escribió la traducción de Adoro te devote, fué aclamado entre los euskaldunas como Jefe, y Maestro de cuantos quieren saber vasco. Y aquí en Fuenterrabía, me han visitado Irigaray, el médico, Satarka... y me han contado todo lo que ha pasado en los últimos años. Como ha escrito tanto Irigaray (de Aita Roman' en trapu zarrak...etc.) yo me callé, y me insinuó quiénes han hecho las últimas ediciones del Diccionario; pero a mí nada me importa eso, porque no quiero más que la difusión del trabajo. Mi nombre está ya tan desprestigiado, que no vale nada. A Azkue, que me dijo: "este rato sabe el P. Vera, que aba significa boca, si yo no hubiera gastado mis pesetas con un hombre del Roncal"... yo le contesté: "Pues ha [de] saber V. que en Vera, no se dice más que aba para tal vocablo"... lo cual le dejó apabullado para siempre. Aba zikiña, aba zatafa....ab aundia.... Cuando fué a Lekaroz vió que todos los Profesores decían lo mismo. Yo quería que reconociese su error; pero no lo conseguí. Su Diccionario Manual le desprestigió por completo; y más la confesión que hace en su Diccionario: que no podría él distinguir la z de la s en muchos vocablos. ¿Y a ese señor, le hemos tenido al frente de la Academia? Habrá en todo el mundo caso semejante?

Su artículo de *Gernika* se publicará y muchos quedarán agradecidos a V. por lo que escribe. Muchas gracias. Pero ante todo y sobre todo, la caridad, que me ha hecho callar 40 años.

Animo, Orixe, eminente euskalduna; y sobre esa base, corrija V. todo lo que ha escrito anteriormente. Corrija su Misal, que todos los sacerdotes, lo aprecian en lo que vale, excepto el empeño que tiene V. que aparezcan centenares de palabras con z, que en otras lenguas se escriben con s. Para V. parece que todo está bien; menos *euzkera*, que es de Arana Goiri. Había escrito varios artículos sobre el tema; pero al ver que haría el ridículo, los escondí. V. Orixe es nuestro Redentor. Créame V; todos le tenemos por tal. Lo que V. no sabe, no lo sabe nadie. Yo, alborotado con mis 18 lenguas, le admiro y le pido, como Capuchino: Salva nos, quia perimus. Esto se va; si V. no le da una inyección... orixe, orixe ber-bera.

Dios le guarde y la Virgen Santísima le bendiga. Agur, enetxo.

Fr. Román M. de Vera, Capuchino

[Sinaduraren ondoren, atzealdeko orrian, aita Bonifazio Ataungoaren ohar hau dator]

Agur, Orixe: Pazkoa on! Berako Efoman Abaren eskutitz au zuri eskuetaratzeko bidali didate eta or doakizu. Goraintzi Zaitegi jaunari. Agur ta erdi.

Fr. Bonifacio de Ataun
O.F.M.Cap.

341

[1953-IX-23]

[Maritxu Barriolak Orixeri, eskuz idatzia]

[Donostiatik Zaragozara]

E.V. 1953-IX-23

Kaxo Orixe:

Naiz ufuti oroitzen zerala alegia guk dabizkigun gudaketa gogofaz: zabalkunde txindi biltze, idazti baimen t. a.

Neketsu igotzen ditut mala oiek guziak bañan alare aufera beti.

Eliz-baimena aitatzen dezu zure azkenekoan. Eskatu aufetik neroni joan nintzan Vikario General jaunari jakin araztea baimen ori nainuela Salmutegi ta Antz bide guztientzat eta ez eskatzeko ez eta emateko ere "condicionando el permiso civil" beste bein emanta zidaten bezela.

Alkar izketa bizia izan gendun bañio azkenean baietza eman zidan. Bereala kopiak ere atera gabe biali nizkan bi lanak.

Ia iru ilabete igaro dira ta oraindak ez ditut befiro eskuratu. Lan gogofa nunbait eman zitzaiena!

Bitarte ontan beste nasketa gogor bat sortu degu, Lekaiume etxe batean 15 urteko neskatala bat baztertuta euki dutelako, ez Jauna artu ez ezer, erderarik etzekielako eta lekaiume etxe ortan bat ere etzegoelako euskera zekienik, berakin itzegin eta jakiteko bere efian nexka ofek naiz basati izan —berak diotenez— bere gogoz eliza joan eta Jauna artzen zula.

Onengatik ba Gotzain jaunarena jo det. Lenengoan alpefik, ez ordea bigafenean. Bañan lekaimiak gaizkitzat artu dute eta orain nexka etxetik bota nai dute...

Ni izan bai naiz gogor ekin diena eta amaitu arte ezin eliz-liburuak eskarietan nastatu.

Datofen ilen asieran bai.

Izaurieta'ren emaztea Mexico'tik etofi da ta esan dit txindi mandatua ez didatela bear bezela egin. Zu galeran!

Alkar izketa izango degu ta erakutsiko det zertan diran. Bai daukate zuri eman bear dizutena.

Dena nekepean.

Gogoratzten al zera Telesforo'ri aufentzako euskeratu zenion mamu idatzia? Beste bat ere ba-zan txoriena eta argitaratzeko presupuestoa biena batean du.

Txolarte bat izango al-dezu au euskeratzeko. Itxaropen ofekin bialtzen dizut idatzia. Zuretzako lan efexa eta gure nexka-mutilentzat bikafia, txoriekin josta oi bai-dira txikitandik.

Afera ona egin nere eskariari.

Agur bero bat eta ufena arte.

Maritxu [Barriola]

342

[1953-XI-3]

[Martin Oiartzabalek Orixeri, eskuz idatzia]

[Buenos Airestik Zaragozara]

Buenos Aires'tik, 1953'g. Azaroaren 3'gna.

[Orixe] adiskide maite:

Iru ilabete laster zure idazkia iaso nula, ta ni orainarte erantzun gabe: izan ere ura gain-bêra baiño lastefago doazi egunak eta asteak. eRosario'n [sic] nagonean, nere ilobatxoari ikaslanetan laguntzeak zeregiña eman eta astia kentzen dizkit. Emen nagonean, asti geiago dut lanerako, ta ari naiz zerbait egiten. Bainan onezaz geroago.

Zu osasunez ongi zago zearo? Ofela bada iakiteak asko poztuko nau. Nere etxeakoak, garai ontan, ainbestean; Maitek gibealeko eraso bat

euki, bi egunez ezer artzeke egon eta erasoak utzi; Iokiñiek gripe euki ta senda; kofieta ainbestean; ni ongi. Beraz, Iainkoari eskefak, ainbestean, gaizki ez.

Iakin duzu Gipuzkoan batez ere, Ufilaren 15 aldean euriak eta ibaiek egin dituten kalte izugafiak? Zoritzafez badira ilak ere. Donosti'tik Azkoitira ioan oi dan gurtarin aundia Zestoa baño lenago, ez aufera ta ez atzera geldi, bidean ibaia baizioan, ta ibaiak gurtarina eraman, eta ogei bat ito, auetatik 10 azpeitikoak. Azkoiti, Azpeiti, Mendaro, Elgoibar, Bergara'n t.a. batez ere Tolosa'n ikaragafizko kalteak egin. Daukala efuki gure Iainkoak, oinbesteko kalte ori etorten utzi dun ezkerro!

Esan nizun, ba, Untzuetas Las Arenas'en zegola bere lengusu notario baten etxean? Ba onen emazteak nere afebari esan ongi iafi dala, ta Otxandio'n dagola, an aideak baititu. Beraz, Iainkoari eskefak sendatu da; orela iafai dezala-ba. Ta Laborda ere burutik zerbait nâsi ibili zan Prantzian, muga igaro zun ta ongi omen dago Pasa'i'n txanburu dan bere iloba batekin.

Gernikan irakufi nun *Ezinbestean* Andima'ri idatzi zeniona. Oso ederki. Euskerak baditu itzak zernai esateko; berabiltzatela; baiñan ez Krutwig'ek bezela Iainkoa ukatzeko. Oraindaino euskeraz ofelakorik esan ote? Ta ba da beste bat ofen ariko, ots: Mirand'etar Ion. *Euzko Gogoan* espiritismoaz idazten asi zanetik ez zait atsegin, euskeraz poliki idazten dunafen. *Gernikan* atera du idazlantxo bat: "Euskaldungoaren etsaiak". Andima'k idatzi dunez gazte da Mirande ori. Gazte bai, baiñan buruarina edo afo edo eztakit zer ere; espiritismoaz idatzi zunean ainbeste kirtenkeri ez bailiran idazteko, ta orain *Gernikan* beste astakeri ta ausarkeri oiek. Fagoagari ofezaz zerbait esan omen diote, alegia, ofelakorik ez ateratzeko.

Ez dakit esan nizun. Igazko Agofilan Olaz'ko Andre Mari'ri elizaraura burestuna ipiñi zioten Loiola'ko elizaufean. Iaiera ori antolatzen Gaztelumendi A'k lan asko egin; egun ortan Gobernadorea asefe Loiolako tofe mutufetan Españako ikufina ipiñi ez zutelako; ta Donostiko Gotzaia ere asefe iai ortan euskera geiegi erabili zutelako!! (iaera ortara Bereziartua eta Eginu Gotzaiak ioan). Ta iai ofen ondoren Gaztelumendi A. Loiolatik bidali; bainan etofi, ta Donosti'n itzaldiak egiten ari zala ango Gotzaiak iakin, eta esan: ¿"Todavía anda por aquí ese Señor?", eta Gobernadorearekin bat artuta Gaztelumendi A. Huesca'ra igofi....

Gaiñera Donosti'ko Gotzaiak accion católica'koei euskeraz itzal-diak egiten eragotzi. Azpeiti'ra batzu izan, ta bat euskeraz itz egiten asi, ta beste batek: "ya sabe la consigna del Sr. Obispo"... ta erderaz egin bear... Jainkoak bakoitzari emango dagokiona...

Nere lengusu Patxi Korta Caracas'tik urbil bizi omen, Ikastetxeko irakasle da. Urbilago ba'lego agertu bat egiteko!

Idazki asieran esan dizut asi naizela zerbait egiten. "Euskal-izkera" erderaz ipintzen asia naiz, Gramatica edo egiteko. Egin ala igofiko dizut, zuk aztertzeo, ta zuk nai bezela egiteko. Adi au, Nikolas, Azkue launak atera zun *Gipuzkera osotua*'k zer dakartzi? Ez dut irakufi, lan ori; gauza aundirik ez du ekafiko, baiñan nai nuke iakin gramatica ortarako.

Ta gaurkoz besterik ez.

Datofen asteasieran ERosario'ra itzuliko.

Iesu'gan beti adiskide.

Martin Oiartzabal

343

[1953-XII-22]

[Martzelino Efezolak Orixeri, eskuz idatzia]

[Igeldotik Zaragozara]

Igeldo-(Donosti), Abenduko 22.53
Ormaetxe'ar Nikola Jaunari. Zaragozara

Agur "Orixe" jauna:

Zure eskutitza artu nuen ta afitu nintzen zuk esandako gauz batzukin. Zure liburu *Euskaldunak* deritzanari batzuk akatsak bilatu dizkiotela. Baño jakin bear duzu emen oso ondo ikusia izan dala, ta euskal-literaturari izen aundia eman diola. J. M Azaola'k *Arbor* Revis-tan (1951 sep. oct.): "La producción en lengua vasca empieza de nuevo a adquirir importancia, pudiendo considerarse fecha miliar en su historia el año 1950, en que el gran poema épico *Euskaldunak* de N. de O. ha sido publicado..."

D. Antonio Tovar del, Rector de la U. de Salamanca en la *Gaceta del Norte*: "La literatura acaba precisamente el pasado año de 1950 de

enriquecerse con un libro capital en la producción moderna *Euskaldunak* un gran poema épico toda la epopeya del vasco en sus orígenes e historia”.

Luis Mitxelena *Egan*: “Euskal literaturak azkeneko urte auetan afigafizko lan burutu du, Orixeren bitartez. Ezin siñestuzkoa da gozogatubeko urte otan eman digun eukal bizikeraren irudi garbia...”.

Bear bada, iritzi oien befi izango zendun; baña bada ezpada bialtzen dizkizut.

Zure lan befi *Argi-Efi* dalakoakin amets asko egin dut.

Uste dut kristautasunari buruz egin izango dala, izenak dionez, ta asko poztu nitzan.

Olako lan baten beafa badago gure artean.

Badakizu apaizak ere gai asko nola erabiltzen ditugun, nola baztarten ditugun, zerbati esaten asi, ta itzekin ezin asmatu ta esan nai dana, edo bear litzakena, esan gabe utzi. Alde ortatik utsune aundixkoa badugula deritzait.

Ofeгатik zure lana ondo etofiko litzake.

Beste aldetik zuk lan ona, beti bezela jator egingo zenduke; gauzari muñ befia bilatuz. Ikusiko al dugu noizbait gure eskuetan.

Emen bufukan ari gera gauz askorekin; nai danik, ezin egin. Ta euskerak darabilena, ez da txikiena. Erdalduna asko sartu zaigu ta... gure izkera baztartuz dijoa.

Alare gauz ona, ondo egíña, aufera ateratzen da gaur ere; ofeгатik gaur ondo dakienak egiten, iñoz bañon beafago da.

Jafai bada, Orixe, ta egin lana naiz bertsoak, naiz bestela, idatzi. Ori egiten duzula, bi aldetara irabazten dugu, eukeraren aldetik, gaiaren aldetik. Izkera xafarentzat, ta zure lanetan alaxe da.

Egoafi aufe ontan zorion ugariak opa dizkizut, goi ondasunekin batera, lufekoak. Ta besteen artean atsegin auxe: jakin dezazula erbeste erdian, emen, zure sorterrian bizi geranok, gogoan zaitugula, ta maiz maiz zure galdera egiten dugula, zu osasuntsu ta lan-gogale beti ikusi nairik. Agur, Jainkoa goratzeko bide asko dira; ta bat, norberak ondoen dakien izketaren bidez.

Zorionak bada, urte befi da, ta befizko bat arte.

Efezola, Martzelino
Igeldo (San Sebastián)

[1954-II-3]

[Maritxu Barriolak Orixeri, eskuz idatzia]

[Donostiatik Zaragozara]

E. V. 1954-II-3

Agur Orixe:

Urte befi, asmo befi, amets befi, beintzat neretzat; ezin ordea bakafik bete alakoak.

Ona emen ni befiz eskale, Orixe....

Jaunak lagun, sortuko da aizpa-taldea batasun eta maitasun ede-
fean Jainkoa beren izkuntza erabiliaz auen eta efi guziaren izenean
aintza eman naiko dutenak.

Efi biotzdun baño soila da gurea eta neketsu izango zaie "aizpa"
oiei joskera elizkoi jatofa beren zeru bideari ematea.

Zuk asko eřextu zenezaioke bideori; nik pixka bat ere bai. Batu
dezazkigun kemenak. Nere iritxiz beafaundikoa izango zaien aitatu
bide ortarako, Breviario osoa euskaraz izatea.

Egunero ori erabiltzen ba-dute konturatu gabe zenbat ikasi,
ausartuaz beren bizitza edertu, eta nik uste eta nai bezela alkar eliz-
otoitz oiek pafokietan "aizpa laguntzaileak" egiten ba-dituzte, efi gu-
zien izenean Jainkoaren aintza emango diote, Euskal eřia eskeftu be-
zela, orain arte egin ez deguna.

"Breviario" ori egiteko zu egokia zerala ezin ukatu, euskeratzeko,
diot. Lana aundia, luzea, ba-dakit. Nik bi erata erextu nezaikezu: 1)
aufetik ofietan jafiz latifia, bere nondik-nungo diran zatitxo guziak
jafiaz eta bear liraken kopiak atereaz; 2) zuri lana ordainduaz.

Lenengo eginkizuna betetzeko idatzia erabiltzen ikusten ari naiz
eta lortu det prantzeraz ageri guztiak dituna, Descťee de Brouwer-en
argitaratua.

Nere bigafen laguntza ona: erabat ordaintzeko diru mordozka ez
dut, gutxiago Meza-liburua¹⁴ ordaindu arte; bai ordea nere etxea eta
maia; eskeintzen dizkitzut auexek beraz. Nere etxera etofi zindezke,

¹⁴ Egilearen oharra eskuz tartean sartua: "Mame'ri ia erdia zor dio (Orixe)".

jan, lo, bizi eta *goizetan* Breviariora euskeratu. Afatsaldeak zuretzako gorde, beste lan ordaingafiak egin zenezazkike, zuretzako¹⁵.

Andre Mari'ren ofietan egon ondoren egiten dizut gaurko eskaera, urte pare bateko lana. Zuk ikusi ta erantzun.

Onen zai gelditzen natzaizu adiskidetasun pean.

Maritxu [Barriola]

345

[1954-XII-20

[Koldo Mitxelenak Orixeri, makinaz joa]

[Donostiatik Tolosara]

Donostia'n, 1954 Abenduak 20

Ormaetxea'tar N. jaunari

Kale Nagusia, 5

Tolosa'n

Agur:

Emen eta inguruan bizi geran Euskaltzaindikoen izenean idazten dizut, ongi-etorririk beroena emateko aurrenik. Zure etorrera Euskal-erriaren eta euskararen onerako izango dela uste dugu, zeunden lekuan ere ainbeste eta ainbeste egin duzun arren.

Euskaltzaindiaren azken-batzarrean ba-genduen etorria ziñalako berri. Eztakigu ordea gure idazkariak, Bilbaon bizi baita, zure zuzenbidea ezagutzen duen. Orrexegatik jakinarazi nai genizuke datorren batzarrea emen, Diputazioko Jauregian, Etxaide jaunaren gelan izango dela, il onen 30an, amabietan.

Pozgarri izango litzake, benetan guretzat zu gure artean ikustea. Baiñan egun orretan ez ta beste edozeinietan onera agertuko baziña, gogo bizi dugu zu agurtu eta zurekin, labur bederen, mintzatzeko. Orretarako, aal eta gogo ba'zendu, naikoa zenduke telefonoz, Donostia'n zaudenean, itz bat ematea, bai A. Irigarai jaunari (19554 eta

¹⁵ *Egilearen oharra eskuz tartean sartua*: "Ezetz esan diot. Emen egingo dutala, patxaraz. Orixe".

17458) edo Arotzena jaunari (Diputazioko Archivo eta Liburutegian, 18089). Oriek deia zabalduko ligukete.

Dena dela, ar ezazu onen bidez, berriz ere, gure biotz-agurra eta Eguerri-jai zoriotsu eta Urte berri on opa dizkizugu.

Esanera naukazu.

[Sinadurarik gabe]

[K. Mitxelena]

346

[1955-I-10]

[Koldo Mitxelenak Orixeri, makinaz joa]

[Donostiatik Lazkaora]

Donosti'an, 1955 Ilbeltzak 10.

Ormaetxeatar N. jaunari

Lazkao'n

Agur:

Onekin batean aurkituko duzu leen zuzendu nizun eskutitza. Daturik, Labaien jaunak eman zidan zuzenbidera bidali nuen, obeto esan eman zidala uste izan nuenera (Kale Nagusiko 5'gnera), oker artu bainuen nonbait. Ene errua duzu bada soil-soillik ortarako artu ninduten lagun eta lankideen ongi-etorria garaiz eskuetara ezpazaizu. Barka zadazu, arren.

Leengoaz gain beste zertxo bat ere aipatu nai nizuke orain. Badakizu noski, bear bezain ederra izan ezpada ere, ba-dela *Egan* izeneko euskal-aldizkari bat. Aldizkari ori "Erriaren adiskideen" *Boletn*-aren eraskiña izan da orain arte. Datorren zenbakia ezkerro, ordea, izenez ala badarrai ere, izanez aldatuxea ateratzeko asmotan gera. "Julio de Urkixo" Euskal-Filologi-Muintegiak –euskal-bataio au ontzat artzen baduzu, beintzat– bere gain artu du aldizkari ori antolatzea. Zenbait sail jakin izango ditu; orain arte pentsatu ditugunak auexek dira: Euskal-tzaindiak aspalditxoan eratzen dituen itzaldiak leenbizi –gaia, euskal-literatura–, kontu-kontari (ipuiak, euskerazkoak edo itzuliak–, olerkiak, sukalde-gaiak, liburuak eta zinea). Eta jakiña, Naste-borraste delako bat eta... sortzen dena. Bat eztut aipatu. Zenbaki bakoitzean *interview*

labur bat, euskerari eta euskal-literaturari dagozkion gaiei buruz asteko beintzat, argitara nai genduke.

Ta leenbizikorako zurekin egindako elkar-izketatxo bat agertzea litzateke onena. Gure aukeramen onen zergatikoak azaltzen asiko banintzaizu, zurikerian ari naizela esango zenduke bear bada, eta bego dagoenean. Badakigu, ongi jakin ere, etzerala zere burua nabarmendu-zale eta orrexegatik beragatik biotzez eskertuko genizuke baiezkoan erantzungo bazenigu. Gure eskerra deus gutxi bada ere, irrakurleena ere or dago eta, batez ere, euskeraren onerako izango litzake noski. Eta leen ere ainbeste egin duzun orrek ez aal diozu lan apur au, nekagarri bazaizu ere, ukatuko.

Onekin batean bidaltzen dizkizut galderak, nai duzuna erantzun eta nai eztuzuna erantzun gabe uzteko. Gerok ere zure erantzunetatik, orrelakorik bagendu, zer edo zer kenduko genduke, edo aldatu; ez erantsi, ordea. Eta, dena dela, ezkenduke ezertxo ere argitara emango zerorrek ikusi eta zerorren gogo-beteko arkitzen ezpaduzu.

Gure asmoen berri Labaien jaunak ongi daki eta edozein argitasun arengandik ar zenezake. Nai gendukean bezala burutzen lagunduko aal digu Jaunak.

Barka zadazu, berriz ere, ene utsa, eta badakizu zernaitarako esanera naukazula. Ar itzazu, oneekin batean, *Egan*-en argitaldari diren eta egiteko au ene eskuetan utzi duten Arrue eta Irigarai jaunen agurrik biotzekoenak.

[Sinadurarik gabe]
[K. Mitxelena]

347

[1955-II-8]

[Koldo Mitxelenak Orixeri, makinaz joa]

[Errenteriatik Lazkaora]

Errenteri'an, 1955 Otsaillak 8.
Ormaetxeatar N. jaunari
Lazkao'n

Ene adiskide ori:

Barka ezadazu arren ez leenago erantzuna zureari, eskerrak emateko bederen. Baiña *Egan*-en argitara nai gendukeana bidali nai nizun eta ezin dut antolatu gaur arte.

Ea tajutu dugun era egokia iruditzen zaizun. Gere burutik, oker edo zuzen, sartu ditugunez gaiñera, ikusiko dituzun erantzun auek ere jarri nai genituzke, iñoren kalterako izango eztirelakoan. Zure itzetan gauzatxo bat baizik eztut aldatu, M. Barriolaren izena, obe izango li-zakelako ustean. Esaiguzu mesedez itz bitan ontzat ematen ote duzun zure itzak aipatzeko aukeratu dugun era. Biotzez eskertuko genizuke baiezkoa eta ezezkoarekin ere zorretan geldituko gintzaizuke.

Zenbaki au –bigarren aldi ontako leenbizikoa– il onetan aterako da eta ez gera aaztuko ale bat bereala bidaltzeaz.

Igandean zortzi Bilbao'n izan genduen Euskaltzaindiaren batzarrea. Zure goraintziak Oleaga jaunari eman nizkion, baita Maidagani ere. Au diru zai da oraindik, baiña, esaten didatenez, eztabil ongi begi-etatik. Bien izenean, goraintziak berriz.

Barka zadazu arren luzamendua eta ematen ari naizen nekeak. Zure esaneko.

[Sinadurarik gabe]

[K. Mitxelena]

348

[1955-VI-28]

[Jokin Zaitegik Orixeri, eskuz idatzia]

[Guatemalatik Lazkaora]

Guatemalatik, 1955 gko. Garagañilaren 28'gafenean
Ormaetxeatar Nikola iaunari
Lazkau'ra

Adiskide ona:

Beste norbaitzuen bidez zure befi onak jaso ditugu, iairik iai omen zabiltz, batean aizkolariak dirala, ta bestean goratzafe, azkenik iñiolako bazkari atsegiña t.a., dana dala, beti-iai, eguzkia bezela.

Iainkoaren bila zertan dago? Azkenengo banakoan pozik eman genitun zuk bidali-txatalak: atsegiñafen irakufi dute gure arpidedu-nek. Txatal befien zai gauzkazu.

Gauza aundirik ezpada ere, or igofi dizut zerbait, sagardo apur bat gure osasunerako edan dezazun orko adiskideen artean.

Ona etofi nai dun Estala apaiza, adiskide ona, or bertan duzu. Ez al duzu ikusi?

Bidalien Egiñak idaztiari buruz txaloka idatzi didate, Onaindia karmeldafak (Eibar'en bizi dana), Arantzazu'ko Itufia'k, Iruña'ko Agefe'tar Ioseba'k eta abar. Begoña idaztegiako Zeleta'k esaten didanez, batzuen iritziz iator, bestetzuen esanez gaitz.

Betiko leloa afortu beafa. Gaiari buruz tutik ez diote. Agerian salgai iartzeko baimena iritxi dutenentz eztakit. Maritxu Bafiola'k alegiñak egingo omen ditu alik eta geien saltzeko.

Gurtz Paris'en Euskal-Batzape orokofa omen dute, emendik ere nonbait ara ioatea on litzake. Apurka-apurka diru-biltzen ari gera, emengo ordezkariaren ostera ordaintzeko. "Loteria" aterako ba'genu, guziok ioango giñake pozafen.

Nere etxekoei egin diezun ikustaldiaren aldera eskefik asko. Azkenengo eskutitzean nere amatxo laztanak zure befi ematen zidan, nere anai nagusiarengandik ikasita.

Sopokel'en antzerkiak II gañen idaztia len-bai-len argitarazi nai nuke: Piloktete'ri azken-ofaztaldia eman bear oraindik.

Zer diote orko euskaldunek gure aldizkariari buruz? Aintzat artzen al ditute gure alegiñak? Euskeraren etorkizuna nola ikusten duzu? Euskal-idazleak bizkor ari al dira? Kristautasunean sendo al diraute? Argitarazi dituten idaztirik ikusi al duzu? Idazle befirik sortu al da gazte artean? Galdera guziok artega naukate. Gure Iaungoiko onak esku oparoz onetsiko al gaitu!

Oraingoz besterik ez. Goraintzi orko euskaltzaleei. Torizu nere euskal-agufik kartsuena.

Agindu X'ren baitan adiskide duzun

Zaitegi ta Plazaola'tar Jokin'i

(Sinaduraren ondoren]:

P.S. Madrid'ekoek ez omen dute baimenik eman nai, nere idaztiak agerian salgai iartzeko, ala idatzi dit Tovar'ek. Afezkero, esku-azpiz ta saldu bear. Atzo Dagonilak 21 Ameriketatik Mameme etofi zitzaigun. Ivonne, befiz, zuzenean etxera zan, Kikito semetxoa zaldi batek uzkaifi baitzun.

Zure befien zai ifika nauzu. Agindu

Z'ri [Zaitegiri].

[1956-IV-26]

[Koldo Mitxelena Orixeri, makinaz joa]

[Donostiatik Lazkaora]

Donostia'n, 1956 apirilak 26

Ormaetxea'tar Nikola jaunari

Lazkao'n

Agur:

Mintegi onetako buruzagien izenean idazten dizut.

Asmo bat darabilgu aspaldian: lotsagarria dela euskal-literaturaren kondaira liburutxo batean ez izatea, ez euskaldunontzat bakarrik, baita erdeldunei bagerala beintzat adierazteko, eta olakoren bat bear gendukeala aalik lasterren.

Asmo ori onela tajutu dugu, gutxi gora-beera: liburuak bi izkuntzetan agertu bear luke, euskaldunentzat eta batez ere euskaltzaleentzat euskeraz, eta gazteleraz gainerako guztientzat, bi izkuntzak parez-pare joan ditezke.

Eztaukagu aazturik –ba ote dago esan bearrrik?– zerorrek ondu zenduena. Oso gogoko dugu, eta orrexegatik jo dugu zugana. Atsegin duguna artan auxe da, besteak beste: idazle zaarrei, euskaldun gutxi bezala ezagutzen dituzulako, zor zaiena ematen diezula, eta etzerala, maizegi gertatzen den gisa gure artean, arto bero-usai-zalea.

Gure naia 150 bat orrialdeko liburua –izkuntza batean– litzake: bitara, beraz, 300 ingurukoa. Ortara eltzeko, oker ezpagaude, leengo lana apurren bat ornitu bearko litzake, zenbait idazle, besterik ezpada ere aipatuaz. Orrela ditugun utsuneak elirake agian diren bezain lotsagarri agertuko, eta ori gezurrik esan gabe. Gero, jakiña, berriagoak erantsi bearko litzazkioke, zerorri artean zerala. Etzaizu noski atsegin izango zerorren buruaz mintzatzea; baiña naikoa zenduke egin dituzun lanak aipatzea, eta izan dituzun asmoak agertzea.

Lan ori zere gain artu nai bazendu –eta eztakigu nork ar lezakean, zuk izan ezik–, esaiguzu mesedez zenbat derizkiozun lan-saritzat, eta zer epe bear zendukean ontzeko gutxi gora-beera. Naikoa zenduke izkuntza batean, nai duzunean, egitea. Orduan, jakina, bestera egin-dako itzulpena elitzake argitaratuko zerorrek ontzat eman gabe.

Baiezkoan, eskabide bat, egingo genizuke. Gai oriek zoritxarrez jendea –batetik edo bestetik– min dezaketen alakoak diren ezkerro, lana zearo ondu baiño leen, gerok ikusi eta iritzia emango genizuke, zer edo zer geitu ala aldatu bear litzakeala irudituko balitzaigu. Eluke ifioiz ezer aginduko, bego ori garbi: elkarrekin izketatzeko gaia izango litzake, nork bere arrazoibideak azaltzen dituelarik.

Badakigu eginkizun onek gogokoago dituzunetatik baztertuko zindukeala. Ez genduke nai, alaz ere, ongi aztertu gabe ezezkoa ematerik. Ain gaude guztiok orrelako liburu baten bearrean! Gure asmoak eta usteak garbi-garbiro azaldu dizkizugu. Batean edo bestean aldatu bear lirakeala uste bazendu, emauguzu zure iritzia batera kupidarik gabe.

Elkarrengandik urruti xamar –lurrez ezpada ere– bizi geran arren, gogoan zauzkagu beti, ainbeste euskaldunok bezala. Eta esanera gauzkazu beti.

[Sinadurarik gabe]

350

[1956-V-18]

[Koldo Mitxelena Orixeri, makinaz joa]

[Donostiatik Lazkaora]

Donostia'n, 1956 maiatzak 18

Ormaetxea'tar jaunari

Lazkao'n

Agur:

Barka zadazu arren leenbizi erantzun au orrenbeste, eta neronen eruz, luzatu baldinbada. Eta eskerrak biotzetik zureagatik. Baiezkoa, jakifia, naiago gendukean, baiña, ezezkoan delarik ere, biziro poztu gaitu.

Aita Onaindia'ren izena gogoratu zitzaigun, leen ere. Badakigu orrelako lan baterako bear diran doaiez ederki ornitua dagoela, baiña zertxo batek atzeratzen gaitu. Biguñegia izango litzakeala alegia, eta naiago genduke irizle zorrotza xamurra baiño.

Eztugu etsi orratik. Orrelako liburu bat nondik edo andik aterazi bear dugu, eta luzaro gabe. Bear gorrian baitgaude, batez ere etxeakoak.

Ezta noski gurea beste zenbait adifñako literatura, baiña bai guretar askok uste duten baiño aberatsago eta ederragoa. Milla esker beraz zure lanari buruz egiten diguzun eskeintzagatik. Dena dela, orrera jo bearko dugu aurrenik eta gero ere bai maiz asko.

Badakizu noski aurki agertuko dela berriro *Peru Abarka* –azken aldeko itzulpenak gabe– Itxaropenarenean. Ea bear bezala irakurtzen duen jendeak.

Zure –eta Agustinen– *Aitorkizunak* ere, entzun dudanez, aurki ikusiko omen ditugu. Ez orratik nik nai bezain agudo.

Gauza batek naigabetu nau zurean, osasunaz diozunak. Ea guzcion onerako aalik ongien zaintzen duzun.

Eskerrik asko berriro ere. Biotzez.

[Sinadurarik gabe]

[K. Mitxelena]

351

[1957-VII-10]

[Koldo Mitxelenak Orixeri, makinaz joa]

[Donostiatik Orexara]

Donostia'n, 1957 g. Garagarrillak 10

Ormaetxeatar Nikola jaunari

Orexa'n

Adiskide agurgarria:

Egiteko au neri egotzi didaten ezkerro, aalik laburren azaltzera noakizu. Badakizu noski, Labaien bidez, gure artean, Euskaltzaindian, itz egin zenaren berri. Auxe zen, gutxi gora beera. Azken urteotako ezbearrak direla bide, euskaltzain eta urgazle asko eta nabarmenak urruti ditugu, berriak ere emen zeudenen artean autatu bear izan ziren. Orrela gertatu da ni bezalako bat barrenean gertatzea eta zu berriz, besteak beste –ztut geiago esango, zurikeri-zalea etzerala bai baitakit– Euskaltzaindian orrenbeste lan egiña zeran ori, euskaltzain ez izatea.

Aspaldiko okerrak neke izaten dira antolatzen. Diodan au bezalaxe. Besterekin ere zorretan gaude baiña, barka ezadazu, ifiorekin baiño

geiago zurekin, nere ustez. Zillegi bada orain makurrak zuzentzen abiatzea, zuregandik asi bearko genduke.

Eskabide umil bat egitera ausartzen natzaizu. Euskaltzaindiko guztiak biotz batez sentitzen dute gai onetan eta ao batez mintzatzen dira Etxegaray jaunak utzi duen utsartea betetzeko dago, eta zu nai zinduzkegu leku orretarako. Guziaz ere, argi eta garbi mintza nadin, etzenduke zuk iñoren lekurik artuko, izenez baizik: aspaldi zor zitzaizuna artuko zenduke. Euskaltzaindiak etzinduzke ohoretuko –eta are gutxiago euskaltzafiek-: zerorrek emango zenioke ospe eta ohore Euskaltzaindiari izendatze ori ontzat artuko bazendu. Leenago esan dizut enaizela lausengutan asiko, baiña egia ezta lausengua: ezta gaur, nere ustez, Euskal-erriko semerik zuk ainbeste eta ainbestekorik egin duenik euskeraren alde, ezta alderatzeko ere.

Orixe da, bada, guztion izenean egiten dizudan eskabidea. Zenbait kondizio jarri nai bazenitu, eztuzu esan besterik, eta egiñaalean saiatuko giñake dena zure gogora prestatzeko. Labayen'en bitartez dakit eskatzen zenduena eta azken batzarrean adierazi nuen. Eztu emen iñork ezer, jakifia, Lopez Mendizabal jaunaren kontra, eta nola izan dezake? Azkue zenarekikoa bien arteko gauza baitzen. Euskeraren alde egin duena guziok dakigu. Gogoz baiña gogozago autatuko genduke, beraz. Alde txar bat du ordea, eta ez berezkoa: Ameriketean egotea, alegia. Gutxi gaude eta gaudenok ere, ezin-bizia del'ata, eztugu nai gendukean astirik bear bezala lan egiteko. Orrexegatik bi ordezeko autatu genituen leen, eta orain ere leku guztiak emen daudenez bete nai genituzke. Emen ere guziok bat gatoz. Pozik autatuko genduke, zurekin batean deduzko euskaltzain. Deduz, gauza berdifia litzake eta ori egiñik ezkenduke eragozpenik izango emen daudenekin leku guztiak osatzeko.

Ikusazu astiro, mesedez, biotz-biotzez egiten dizugun eskabide au. Erantzuna bidal dezakezu deritzazunean zuzenean neregana edo Labayen'en bidez. Eta nolana ere eskerrik asko.

Duela zenbait egun artu nituen zuregandiko goraintziak Mendarte albaiteko gaztearen bitartez. Milla esker. Batek eta bestek ematen dizkirate maiz aski zure berriak. Zuk uste duzun baiña jende geiago dago zure osasunari begira.

Barka ezazkidazu gaizki esanak, orrelakorik baldin bada. Eta esanera naukazu zernaitarako, beti bezala. Biotz-biotzez.

[Sinadurarik gabe]
[K. Mitxelena]

[1957]

[Iñaki Baztarririkak Orixeri, makinaz joa]¹⁶

[Arantzazutik]

Orixe jaunari

Euskaltzale goren:

Illobatxoak aitonarekin diarduten bezelaxe jardun nai genduke guk zurekin. Maitasun berberaz, eskerron ta ausardi berberaz. Ba-dakigu jakin zure omenez jaialdi lirain bat asma ta antola zula Euskaltzaindiak¹⁷. Merezi ere ondo merezi zenun.

Leiza'ko artan gorputzez egoterik al izan ez guk, baiño nork edo zerk eragotzi gure gogoei bertaratzea? Entzungo al zitun Jainkoak zure alde jaso genizkion otoi biziak!

Pago zaar zaitugu, urtetsu ta zain bizitan. Gure basoetako pago sendoei darien lurrin gozo ta ezea dario zure baita gazte orri ere. Gu, berriz, zugan txertaturiko kimu-berri bigunak gaituzu. Zugandik datorkigun zuats ernegarriari esker bizi gera. Pagoaren zain-izerdia igar dedinean, zer gertaturen txertu mengel oei? Bai, beneragarri ori, urteak eta osasuna, osasun betea, barne-gaztetasuna opa dizkitzugu illobatxuok. Irmo ta sendo ikus nai zinduzkete Aitagoi zaitugun ori!

Zuk ialki igalien mami atsegifia dastatu ez duan euskaldunik ez da. Geiegikeri ote litzake zure arnariz aziak gerala aitortzea? Non arki ta gozartu euskal-bazka atsegiñagorik? Ba-duke euskal-gogoak non susper ta bizkortu, besteen larretara jo gabe.

Non baiña ifiutu zera zeu? Nondik datorkizu euskal-etortasun ori? Nondik zure ele miresgarrirei darien euskal-ats ori? Zein sorgiñek-edo arnas damaizu, zure ele ori ain xoragarri gerta dakigun?

Neroni bailerit dirakurt, baiña nik diardudanean sorgin-antzo iges dijoakit. Zure olerki-etorriak nere baitara biltzen nau. Neure-neure ditudan kera ta sentipenak iraularazten dizkidatzu. Zure orrietan barna euskaldunok geron etxe-barruan bezela sentitzen gera, etxe-giro berberak biltzen gaitularik.

¹⁶ *Yakin* (pro manuscripto), 5, 1957, 97-98.

¹⁷ Orixe Euskaltzaindian sartzeko ospakizuna 1957ko abenduan egin baitzen Leitzako herrian, gutun honek geroztikoa izan behar du, pasarte honek adierazten duen bezala.

Etorkizunak balietsiko al du euskal-elertiarri eman diozun bultzada ta arnasa. Gizapiderako baldar ta moldakaitz zirudian gure euskera zaa-rra, ia erabat landua dakusgu zure egiñal ta jokabide burutsuei esker. Gure euskerak bear zun buru argia, irudimen bizia, biotz ukigarria zugan arkitu ditu. Gure euskerak bere erpiña zurekin jo ez ote duan nago.

Noizpait gutzaz “Erri bat izan zan” esan al badedi ere, iñork sun-tsitu ez dezaken euskal-arrasto bat irafirrik utzi duzu. Geroan-geroan agian iñortxok uler ez dezakeana. Or *Euskaldunak* ortan betikotu gaituzu. Bertan dakiteke ondoenik “Erri bat izandakoaren” berri. Euskal-dunok izan-gerana, bizitakoa, sentitutakoa, maitetakoa ortxen dager apal-apal, geientsuen ez-jakiñean. “Erri bat izan zan”... Orain arte iriandako erri onen barne-kondaira zuk bildu diguzu liburu miraritsu batean. Nork abesturen digu Erri onen illunabarra?...

“Edo ta ats emaiogun, ontan iriun dezan”... Zugan dugu eredu-rik bikaiñena. Zu zaitugu gure asmo ta indarren ats-emalle. Atsegin zaiuzke, noski, zure atzetik aal berriak ba-datozela jakitea. Maite dugun erri onen atsemalle nai genduke izan guk ere, zure ta gure atsa-ri esker Erri onek betiraño “ontan iriun dezan”!

Agur!, eta Urte Berri on! Maite ta miresten zaitugun gazteok.

Baztarrika'tar Iñaki
-Arantzazu-

353

[Mercedes Contrerasesk Orixeri?]¹⁸
[1957koa?]

[Hasierarik gabe]

Me dice Ud. que no le hable del asunto, pero no puedo menos de hacerlo y creo que Ud. está obligado en conciencia a advertir a Laba-yen y demás amigos antes de que sea tarde...

¹⁸ Gutun-zati bat baino ez da hau, ez noiz ez nori zuzendua den ez dakiguna, ezta nork egiña den ere. Baliteke Orixeri zuzendua izatea, baina ez da ziurra. Horregatik jarri dugu galdera-ikurrarekin, geure zalantzak ditugulako. Ziuurragoa da Mercedes Contreras anderearena dela.

No había tenido noticia de él hasta recibir el número de *E.G.* que me ha revuelto la sangre. Menos mal que no colaboran ni Ud. ni Andima.

Cuando me he enterado que tiene casa en Biarritz he pensado: ¿a quién habrá engañado? ¿Quién será la víctima?

Es un ¿sablista? que no tiene cariño ni a su madre ni a su patria y lo que quiere es vivir bien.

Se fue de aquí dejándome más de 8.000 \$ de deuda. Y veo que no le ha dado siquiera a Ud. los 100 \$ que le encargué....

Ya le avisé también a Andima aunque temo no haya llegado a tiempo...

[Bukaerarik gabe]

HIRUGARREN ZATIA
ERANSKINAK

DE MI VIDA EXTERNA.

Hablarlo despreciable en el nombre de mi obra por los trabajos en el
reconstrucción de los 25. (reconstrucción) y general, debo hablar de memoria de
la verdad ante el mundo que no solo para el estudio, también para el mundo
que se va a vivir en el futuro. Estas cosas tienen su explicación completa
en el VIDA EXTERNA.

LATINA 1937-2.

Este libro por los trabajos internacionales y trabajos a los trabajos a uno de
el momento de la vida que se debe recordar ya en Javier de los trabajos a uno de
estas cosas que no solo para el estudio, también para el mundo que se va a vivir
en el futuro. Estas cosas tienen su explicación completa en el VIDA EXTERNA.

SOMOS 1899-11.

En esta vida que se debe recordar ya en Javier de los trabajos a uno de
estas cosas que no solo para el estudio, también para el mundo que se va a vivir
en el futuro. Estas cosas tienen su explicación completa en el VIDA EXTERNA.

USA 1911-14.

En esta vida que se debe recordar ya en Javier de los trabajos a uno de
estas cosas que no solo para el estudio, también para el mundo que se va a vivir
en el futuro. Estas cosas tienen su explicación completa en el VIDA EXTERNA.



Landetan Saubiongo eliza, aldamenean bilerrria duela (1940-1943). Hemen idatzi zuen, Martin Oiartzabal apaizaren etxean, bere bizitzako pasarte nagusiak kontatzen ditueneko dokumentu garrantzitsua, izenburutzat "De mi vida externa" daramana.

1. dokumentua: De mi vida externa¹

[Saubion (Las Landas), 24 de Febrero de 1943]

Habiendo desaparecido en el saqueo de mi casa por los falangistas mi correspondencia con los PP. provinciales y General, debo hablar de memoria de algunos sucesos que no son como olvidados. Testifico decir llanamente la verdad ante los hombres que han de juzgar mis actos externos y ante Dios que ha de juzgar además los internos. Estos datos tienen su explicación completa en mi vida interna.

Loyola (1907-09)

Pasé bien por las pruebas intelectuales y morales a que someten a uno habitualmente. Mi salud era mediana, porque ya en Javier me quedé anémico de arrojar sangre. En el segundo año de noviciado hice las Humanidades. Como es indispensable decirlo para cuando se ventile mi ineptitud, a pesar de mi mediana salud debí salir aprovechado. Fuera del año y cuarto que llevé en Javier las clases con regularidad, nunca pude después seguir las sin trampear continuamente.

Burgos (1909-11)

La mala salud continuaba con las grandes hemorragias de nariz y fuertes dolores de cabeza. Los Superiores me cuidaron muy bien, y en el aspecto físico gané mucho en Burgos. Me eximieron de la clase de la tarde, durante la cual me dedicaba suavemente al jardín. En Burgos estuve los dos años de Retórica, de los cuales saqué bastante aprovechamiento. Tenía fama de componer el latín tan bien como el mejor

¹ *Iturria*: Antonio Maria Labaien artxiboa.

de la clase. Muchas veces tuve que dejar de hacer la composición, pero como tenía buena memoria retentiva, se me quedó la frase y el estilo latino. No recuerdo si ya desde Loyola o desde Burgos escribí una carta larga en latín al que fue Inspector mío en Javier, P. Antolín Atucha, que cursaba Teología en Bélgica. El asunto de ella debió de ser o la semana roja de Barcelona o algún otro acontecimiento ruidoso. Los belgas dice que se admiraron de que en la actualidad se pudiese escribir tan bien en latín.

Oña (1911-14)

Mi salud seguía delicada. Los Superiores me dieron por repetidor a mi condiscípulo Pedro Leturia que es hoy Decano de la Universidad Gregoriana. A oído hice pues la Filosofía, en la cual no fuí por lo menos deshauciado al salir al magisterio.

Comillas (1914-17)

Como yo no estaba para clases fuertes ni largas, me encargaron la Geografía elemental con inspección, y también tuve una clasecita de griego con los rezagados y con los que vinieron de otros Seminarios sin estudiarlo. Las clases las hice bien. El Profesor de Retórica P. Lecumberri, en vista de mis apuntes de griego, me animaba a que hiciese yo un texto. A los tres años fuí enviado a Carrión de los Condes a proseguir el magisterio. Este se ejercitaba durante tres años cuando menos. No rara vez se prolongaba hasta el cuarto, sobre todo dentro de un mismo Colegio. El cambiar de Colegio a los tres años significaba lo que se llama Purgatorio o castigo de no haber dado buena cuenta de sí. Oficialmente no se me comunicó nunca la causa de este traslado. Extraoficialmente supe lo que va a continuación, años más tarde. Los seminaristas Oyarzabal, Ostolaza, Zaldúa, Larrea, García Goldaraz (hoy canonigo de Rota), Inchaurre, muerto en olor de santidad, había ideado una manera de hacer fructuoso su trabajo escolar para el País, haciendo ejercicios de vulgarización en nuestra lengua. Fundaron una especie de revista mensual, escrita a mano, llamada *Aldizka* que me pasaba cada mes a mi cuarto con permiso del Rector P. Arín. La sacaban con mucho secreto, dada la gran inquina que había allí contra nuestra lengua entre los castellanos, y por la política contraria de algunos vascos. Me admitieron a colaborar en ella y escribí algunos traba-

jos inocentes como acerca de los futuros contingentes, trabajo que llamó la atención del Sr. Golaraz. Ni yo ni ellos escribimos nada de política. Con el cambio de Rector, P. Bianchi, no debieron renovar el permiso, y siguieron la revista hasta ser descubiertos. El seminarista Bidagor usó confidencialmente del secreto con el H. Nemesio Ariztimuño, Inspector de los Filósofos, y este nos denunció a todos. Los papeles fueron ocupados. Los superiores jamás me hicieron ningún cargo acerca de esto porque yo no tenía ninguna culpa, pero después debió valer para tacharme de separatista. Entretanto se fundó el *Mensajero vasco* y sin dar yo ningún paso, la revista consiguió permiso del Provincial para que yo colaborase. También escribí varios artículos acerca del acento vasco en la Revista Internacional [RIEV] con permiso del mismo P. Bianchi, quien me puso en comunicación con Don Julio Urquijo. Otro pormenor no debo omitir, y es la confidencia que me hizo el P. Victoriano Larrañaga el verano de 1934, que él la recibió a su vez del propio P. Bianchi: que me cortaron la carrera en la Compañía por tener peligro de parar en loco. Y le añadió un hecho que justificaba este juicio en que después insistirá un Provincial. El



Comillasko unibertsitatea, jolas-zelaitik begiratuta. Eskuineko eraikina Seminario txikia da. Hor du hasiera Orixeren Getsemani poemak

seminarista Lagarejos, que pronto dejó la carrera, era buen muchacho, pero de esos juguetones que dan mucha guerra a los inspectores. Una buena mañana, enseguida de haberme yo levantado, le hice levantar y le encerré en el pasillo o puente que une los dos seminarios nuevo y viejo, y allí le tuve hasta que se levantaron los seminaristas. No recuerdo la estación, pero sí que hacía frío. El tal Lagarejos no me conservó rencor, y después, en Bilbao, me saludaba muy cariñosamente.

Resumen de Comillas: ninguna acusación hecha a mí directamente, sino los datos que he consignado del Sr. Oyarzabal y del P. Larrañaga.

Carrión de los Condes (1917-18)

En este Colegio Noviciado me hicieron profesor de Gramática de los novicios. Pasé un año muy bueno sin que hubiese ninguna queja de mí, portándome como mejor no se habría portado ninguno en la Comunidad; pero al fin del año no me environ a Teología. Desde mayo en que se promulgó el nuevo Código canónico, el P. Arregui me dio bastante trabajo de copiar, pues él era uno de los señalados para la acomodación del Instituto al nuevo Derecho canónico. En las vacaciones el provincial P. Carvajal me ocupó en sacar copias y me prometió enviar a Teología; pero no lo cumplió. Las razones las guardó para sí. Yo tuve que obedecer sin chistar, y el P. Arregui, mi rector, no se opondría tampoco a la decisión superior, suponiendo que el provincial tendría una razón muy grave para darme el quinto año de magisterio: para promulgar mi purgatorio. El adagio "praesumptio stat pro superiore" es tan cómodo para los superiores como injusto para los inferiores. Nunca me dieron la razón de por qué obraban así conmigo, salvo una vez, y en ella no se quiso dejar el derecho a una defensa legítima y a una exposición que permite la regla, a pesar de que la alegación fue calumniosa ante toda la casa y provincia religiosa.

Tudela (1918-19)

Me dieron las clases de Preceptiva literaria y literatura con inspección. El P. Echenique, Rector, parece como si tuviera órdenes de hacer ver mi ineptitud, fuera ella real o no lo fuera. Durante todo el año estuvo hablando mal de mí a los PP. graves y a los maestrillos mis compañeros, diciendo que mi clase iba a ser una calamidad, y que yo fracasaría. A mí mismo me lo decía también lealmente. No visitó mi

clase más que una vez, y en ella dieron mis alumnos preguntados buena cuenta de la lección y de preguntas fuera de ella. Iba a terminar el curso y yo oía cada vez más alto que mi clase iba a ser la nota fea del Colegio. Terminado el curso, habían comenzado los exámenes en el Instituto de Logroño adonde iban los profesores acompañados a los chicos de su clase, alternándose. Estando nosotros los jóvenes maestrillos en recreación después de comer, vino a nosotros el P. Muruzabal, quien dijo que los exámenes iban bien. “El P. Rector –añadió– teme un fracaso de los de Preceptiva y Literatura”. Es probable que no recordase quién era el profesor de la materia, pues dicho P. andaba mal de salud, y era bastante delicado para decir una cosa así delante del interesado. Él no tenía ninguna ocupación en el Colegio. Llegó mi turno, el último o de los últimos, y claro, yo no fui enviado con los chicos, ni pude saludar el profesor de mi materia. No recuerdo el número exacto de alumnos míos. Obtuvieron nueve sobresalientes, con dos matrículas de honor, dieciocho notables y los demás todos aprobados. El año anterior el P. Martín, de las mismas clases y con el mismo profesor, Sr. Gomez Bringas, no obtuvo más que un notable, sin ningún sobresaliente, y aprobados y suspensos. No valió nada. Fui llamado al cuarto del Rector, el cual me dijo con nerviosidad y sin más preámbulos: “No es por usted, sino por el profesor del Instituto que es muy benévolo”. –“Padre, le respondí, eso no se dice siquiera por caridad. Recuerde el resultado del año pasado de las mismas clases y ante el mismo catedrático”. –“Bueno, bueno”, me respondió, pero sin darme la razón y con gesto de cara que se hace ante un inepto. Carta al Provincial informándole de mi fracaso, y carta del Provincial a mí, que pues no había demostrado suficiente mi valer, me mandaba a seguir las pruebas en Javier, a ver si valía para algo. Sería el sexto año de magisterio y el tercero de purgatorio, cosa inaudita. No bastaba que todo el Colegio y toda la Provincia se enterasen de mis notas. Alguna razón tendría el Provincial “de esas que no se dicen a nadie” para obrar así conmigo. “¿Qué habrá hecho Ormaechea para que le den sexto año de purgatorio?” Mi fama, si no andaba por los suelos, pues me reconocían todos como religioso observante, era muy dudosa ante el público, ante un “¿qué habrá hecho?”.

En cierta ocasión expuse al P. Carvajal que me parecía excesiva la penitencia grave que dió a un compañero y le daba datos exactos de él y de otros dos, privados suyos, que faltaban mucho más que el castigado. Me respondió bruscamente: “Cuando los Superiores obran así usted debe suponer que sus razones tienen, y no discutir sus disposi-

